



**Facultad de Medicina y Enfermería / Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea**

**Departamento de Genética, Antropología Física y Fisiología Animal / Genetika, Antropologia  
Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila**

**Tesis doctoral / Doktorego tesia**

**MiR-Farmakogenetika**

**Haurtzaroko Leuzemia Linfoblastiko Akutuaren Tratamentuan**

**Maitane Umerez Igartua**

**Leioa, 2018**



# MiR-Farmakogenetika

## Haurtzaroko Leuzemia Linfoblastiko Akantuaren Tratamentuan

Maitane Umerez Igartua

# Doktorego Tesia

Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila

2018



*“De gente bien nacida es agradecer los beneficios que recibe”*  
*El Quijote (1605)*

Quiero aprovechar estas líneas para dar las gracias a todas aquellas personas que han estado a mi lado y han hecho posible este proyecto.

En primer lugar a África, gracias por creer en mí y darme la oportunidad de llevar a cabo esta tesis. Hecho la vista atrás a 2011, asignatura de Genética, cuando conseguiste sembrar en mí la curiosidad por la farmacogenética y pude dibujar las primeras pinceladas con mi proyecto de fin de máster. Opté por la vía FIR sin yo saber que años más tarde me brindarías la ocasión de seguir trazando el camino hacia una tesis doctoral que hoy es una realidad, gracias.

El camino ha sido duro, pero sin ninguna duda ha sido amortiguado por grandes investigadoras y mejores personas que con sus acuarelas han hecho de esta tesis su mejor versión.

¡Muchísimas gracias Ángela! Por tu ayuda incondicional, por guiarme cuando lo necesitaba; probablemente sin tu apoyo no lo hubiera conseguido, eres maravillosa y llegarás hasta dónde te lo propongas, no tengo ninguna duda, te lo mereces.

No puedo olvidarme de: Leire y Carmen, entre tabla y tabla, análisis y coteje, jeje siempre dispuestas a ayudar, sois muy trabajadoras y así me lo habéis demostrado, eskerrik asko. Nerea y Jone, mila-mila esker zuen laguntzagatik, denborak gehien estutzen zuanean hor egon zinetelako. Y agradecer por supuesto a Idoia, Borja y Eli, por formar parte del equipo y colaborar en dar forma a este trabajo.

Empecé a brocha gorda, pero sin duda todo lo que me habéis enseñado me ha permitido llegar a perfilar mis conocimientos y hoy puedo decir que aquel boceto se ha convertido en obra, expuesta al mundo, orgullosa, contenta y con ganas de seguir abriendo las puertas a más páginas que seguir coloreando.

¿Y qué sería de mi vida sin mí paleta de colores? Nere bizitza ez litzateke berdina izango ingurukoengatik ez balitza! Abestiak esaten duen bezala, taupada bakoitzaz koloreztatu zuribeltza, taupada bakoitzaz irribarre bat...eta bi, hiru...mila!

Kuadritxangitarrok, Amaia, Maialen, Eneida, Marijo, Leire, Irati eta Sandra, eskerrik asko zuen babesagatik, zuen aldamenian lan orduak alde batera jareta denbora geldittuko nekelako. Zapatu Sakratu gehixau dakulako aurretik, topa!

Garazi eta Jaione, betirako deiketan dian horreittako bi lagun! Ikasketak elkartu ginttuen baina adiskidetasunak irmo mantendu gaittu urtiek aurrera egin ahala. Garazi, urtebete pasatxo da zure tesian niri dedikatutako hitzak irakurri nittunetik, zuk ez dozu gutxiago merezi (inork baino hobeto ulerketan dozulako momentu honen garrantzia). Jaione zer esanik ez, orain urrinago bizi arren elkarketan garen bakoitzian ondiok Gasteizko pisuko garai zoro hareitan bagina modura dalako. Neskak, ea noizko hurrengo patxaran homeopatikua! Jajajaja.

Eskerrik asko farmaziako lagun danori (Aitziber, Mikel, Pili, Arantza, Pablo, Josu, David, June, Garbiñe, Josune, Asun, Belén, Miren, Larraitz, Araceli, Nekane, Maritxu, Laura, Berta, Koro, Gonzalo, Carmen y Maripi), aún recuerdo cuando en 2014 os pedía consejo llena de dudas antes de tomar la decisión sobre este camino. Gracias por interesaros en todo momento sobre mis avances. Mila esker Josean por entender mi situación y darme la oportunidad de adaptar mis horarios y compaginar Donostia con Leioa. Y gracias a Marta, Shandra, Lurdes, Mertxe y a todos aquellos que han estado de alguna forma presentes durante estos años.

Eta bukatu aurretik, ikasteko nork erakutsi izan bihar dalako eta horretan onenak izan dittutelako txikittatik aldamenian, nere eskerrik kuttunena nere familixiari. Tia Lurdes, zuk erakutsi dostazu pereza ez dala existitten (nere kasuan “umerez” pittin bat bai seguru!). Tio Jabi, porque sé que soy tu *“farmaféutica”* favorita, gracias por sacarme una sonrisa cada vez que me llamas así. Tia Marian, hainbeste aldiz zure bizkotxo paregabiakin goxatu dostazulako mila mila esker. Amaiur, ahizpa eta laguna, txikittatik jolasian, ni oinaztu eta zu trumoi, ekaitz perfektua! Gaur egun be elkarren eskutik ibilbidian, holaxe jarraitu dagila urte askuan! Eta nola ez, Ama, Aitta, iparrorratz, bidelagun, eskerrik asko beti nere albuau izatiagatik eta naizena izatera heltzen lagunketiagatik.

## **Argitalpenak**

Tesi honetako lana ondorengo argitalpenetan jaso da:

Iparraguirre L, Gutierrez-Camino A, **Umerez M**, Martin-Guerrero I, Astigarraga I, Navajas A, Sastre A, Garcia de Andoin N, García-Orad A. MiR-pharmacogenetics of methotrexate in childhood B-cell acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenet Genomics*. 2016 Nov;26(11):517-525. (*Genetics & Heredity Q3, JCR: 2,250; Genetics Q2, SJR: 0.993*)

**Umerez M**, Gutierrez-Camino A, Martin-Guerrero I, Garcia de Andoin N, Santos B, Sastre A, Echebarria-Barona A, Astigarraga I, Navajas A, Garcia-Orad A. Mir-pharmacogenetics of Vincristine and peripheral neurotoxicity in childhood B-cell acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics J*. 2017 Dec 27. doi: 10.1038/s41397-017-0003-3. [Epub ahead of print]. (*Genetics & Heredity Q2, JCR: 3,812; Pharmacology Q1, SJR: 1.352*)

**Umerez M**, Gutierrez-Camino A, Santos B, Martin-Guerrero I, Garcia de Andoin N, Sastre A, Navajas A, Astigarraga I, Garcia-Orad A. Pharmacogenetics in childhood acute lymphoblastic leukemia: Involvement of miRNA polymorphisms in hepatotoxicity. *Epigenomics*. 2018 Apr 1; 10(4):409-417. doi: 10.2217/epi-2017-0138. (*Genetics & Heredity Q1, JCR: 4.979; Genetics Q1, SJR: 1.679*)

**Umerez M**, Gutierrez-Camino A, Lopez-Lopez E, Santos B, Martin-Guerrero I, García de Andoin N, Sastre A, Navajas A, Astigarraga I, García-Orad A. Pharmacogenetics in childhood acute lymphoblastic leukemia: Involvement of miRNA polymorphisms in mucositis. (*Pharmacogenomics-en aztertze prozesuan*). ). (*Pharmacology & Pharmacy Q3, JCR: 2,302; Pharmacology Q2, SJR: 0.877*)

Gainera, tesi honen garapenean zehar beste artikulu hauek ere argitaratu ditut:

**Umerez M**, Gutierrez-Camino A, Muñoz-Maldonado C, Martin-Guerrero I, Garcia-Orad A. MTHFR polymorphisms in childhood acute lymphoblastic leukemia: Influence on methotrexate therapy. *Pharmgenomics Pers Med*. 2017 Mar 27;10:69-78. (*Pharmacology Q1, SJR: 1.165*)

**Umerez M**, García-Obregón S, Martín-Guerrero I, Astigarraga I, Gutierrez-Camino A, García-Orad A. Role of miRNAs in treatment response and toxicity of childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics*. 2018 Mar; 19(4):361-373. ). (*Pharmacology & Pharmacy Q3, JCR: 2,302; Pharmacology Q2, SJR: 0.877*)



## Laburdurak

Laburdura	Azalpena
3'UTR	3'UTR erregulazioa
6-MP	6-merkaptopurina
AA	Arrisku altua
ABCB1	ATP binding cassette B azpifamiliako 1 kidea
ABCC1	ATP binding cassette C azpifamiliako 1 kidea
ABCC10	ATP binding cassette C azpifamiliako 10 kidea
ABCC2	ATP binding cassette C azpifamiliako 2 kidea
ABCC3	ATP binding cassette C azpifamiliako 3 kidea
ABCC4	ATP binding cassette C azpifamiliako 4 kidea
ABCG2	ATP binding cassette G azpifamiliako 2 kidea
ADME	Xurgapen, distribuzio, metabolismo, iraizpen
ADN	Azido desoxirribonukleikoa
AE	Arrisku estandarra
AKR1A1	Aldo-keto erreduktasa 1 familiako A1 kidea
AKR1C3	Aldo-keto erreduktasa 1 familiako C3 kidea
ALDH1	Aldehido dehidrogenasa, 1-like zitosolikoa
ALDH1A1	Aldehido dehidrogenasa 1 familiako A1 kidea
ALDH3A1	Aldehido dehidrogenasa 3 familiako A1 kidea
ALDH5A1	Aldehido dehidrogenasa 5 familiako A1 kidea
ALT	Alanina aminotransferasa
AOA	Arrisku oso altua
AraC	Zitarabina
ASO	Oligo alelo-espezifikoak
ASP	L-asparaginasa
AST	Aspartato aminotransferasa
AUM	Alelo urrienaren maitzasuna
B-ALL	B-zelula leinuaren leuzemia linfoblastiko akutua
BAX	Bcl-2-like 4 proteina
BCLW	Bcl-2-like proteina
bp	Base parea
CAT	Katalasa
CBR1	Karbonil erreduktasa 1
CBR3	Karbonil erreduktasa 3
CeGen	Espainiako genotipazio zentro nazionala
CIPN	Kimioterapiak induzitutako neuropatia periferikoa
CPA	Ziklofosfamida
CPdB	Consensuspath datu-basea
CPK	Kreatina fosfokinasa
CYP2A6	P450 zitokromo 2 familia A azpifamiliako 6 kidea
CYP2B6	P450 zitokromo 2 familia A azpifamiliako 6 kidea
CYP2C19	P450 zitokromo 2 familia C azpifamiliako 19 kidea
CYP2C8	P450 zitokromo 2 familia C azpifamiliako 8 kidea
CYP2C9	P450 zitokromo 2 familia C azpifamiliako 9 kidea

## Laburdurak

CYP3A4	P450 zitokromo 3 familia A azpifamiliako 4 kidea
CYP3A5	P450 zitokromo 3 familia A azpifamiliako 5 kidea
DE	Desbideraketa estandarra
DEXA	Dexametasona
DFL	D fosfolipasa
DHFR	Dihidrofolato erreduktasa
DICER	III motako ribonukleasa
DLK	Leuzina zipper kinasa duala
DNR	Daunorrubizina
DROSHA	Harizpi bikoitzeko RNA endorribonukleasa espezifikoa
EFS	Gertaerarik gabeko biziraupena
EIF2C1	Eukarioten itzulpen hasiera 2C faktorea, 1
EIF2C2	Eukarioten itzulpen hasiera 2C faktorea, 2
epiADR	Epiadriamizina
ER	Erretikulu endoplasmikoa
ERCC1	ERCC eszisio konponketa 1, endonukleasa ez-katalitiko azpiunitatea
ERCC2	ERCC eszisio konponketa 2, TFIIH core helikasa konplexu azpiunitatea
ERCC4	ERCC eszisio konponketa 4, endonukleasa katalitiko azpiunitatea
ETV6	Ets aldaera 6
FDR	False discovery rate
GEA	Gutxieneko energia askea
GEM	Gaixotasun erresidual minimoa
GPX1	Glutation peroxidasa 1
GWAS	Genoma osoko asoziazio ikerketa
hbaRNA	Harizpi bakarreko RNA
hbiRNA	Harizpi bikoiteko RNA
HM	Hezur muina
IP3R	Inositol 1,4,5-trifosfato hartzalea
ISCIII	Carlos III osasun institutua
Kr	Kromosoma
KT	Konfiantza tartea
LAPM	Lesioari-asoziatutako patroi molekulak
LSO	Oligo lokus-espezifikoak
LLA	Leuzemia linfoblastiko akutua
MAPK	Mitogenoek aktibatutako proteina kinasa
MGMT	O-6-metilguanina-ADN metiltransferasa
miRNA	MikroRNA
MLH1	MutL homologoa 1
MOE	Munduko osasun erakundea
mRNA	RNA mezularia
MSH2	MutS homologoa 2
MTHFD1	Metilentetrahidrofolato deshidrogenasa, ziklohidrolasa eta formiltetrahidrofolato sintetasa 1
MTHFR	5,10-metilentetrahidrofolato erreduktasa
MTR	Metionina sintasa
MTRR	Metionina sintasa erreduktasa

MTX	Metotrexato
NA	Ez eskuragarri
NFKB1	Kappa B nukleo faktorea 1 azpiunitatea
NFKBIE	NFKB epsilon inhibitzailea
NMN	Nikotinamida mononukleotidoa
NMNAT	Nikotinamida mononukleotido adeniltransferasa
NOS1	Oxido nitriko sintasa 1
NOS2	Oxido nitriko sintasa 2
NOS3	Oxido nitriko sintasa 3
NQO1	NAD(P)H kinona deshidrogenasa 1
NSZ	Nerbio sistema zentrala
OR	Odds ratio
OS	Biziraupen orokorra
PCR	Polimerasa kate erreakzioa
PD	Farmakodinamika
PDN	Prednisona
PK	Farmakozinetika
POR	P450 zitokromo oxidoerreduktasa
pre-miRNA	miRNA prekurtsorea
pri-miRNA	miRNA primarioa
Puma	Apoptosiaren p53 modulatzairen gorantz erregulatua
RALBP1	RalA lotura proteina 1
RFC1	Folato eramaile erreduzitua
RISC	RNA-induzitze konplexu isiltzailea
RNA	Azido erribonukleikoa
ROS	Oxigeno espezie erreaktiboak
SARM1	Sterile $\alpha$ -motif eta armadillo-motif dituen proteina
SHMT1	Serina hidrometiltransferasa
SLC19A1	Solutu eramaile 19 familia 1 kidea
SLC22A16	Solutu eramaile 22 familia 16 kidea
SLC22A6	Solutu eramaile 22 familia 6 kidea
SLC22A8	Solutu garraiatzaile 22 familia 8 kidea
SLC46A1	Solutu eramaile 46 familia 1 kidea
SLCO1A2	Solutu eramaile anioi organiko garraiatzail familia 1A2 kidea
SLCO1B1	Solutu eramaile anioi organiko garraiatzail familia 1B1 kidea
SLCO1B3	Solutu eramaile anioi organiko garraiatzail familia 1B3 kidea
SNP	Solutu eramaile anioi organiko garraiatzail familia 1B3 kidea
SNS	Nerbio sistema sinpatikoa
SOD1	Superoxido dismutasa 1
STS	Ehun bigunen sarkoma
TdT	Desoxittransferasa terminala
TIT	Intratekal hirukoitzta
TLR	Toll like hartzalea
TOP2A	ADN topoisomerasa II alfa
TP53	P53 tumore proteinoa
TS	Timidilato sintetasa

## Laburdurak

TSE	Tendoi sakonen erreflexua
TUBB*	Tubulina
ULN	Normaltasunaren goi muga
VCR	Vinkristina
Wlds	Wallerian degenerazio motela
XDH	Xantina deshidrogenasa

## **Aurkibidea**

SARRERA.....	3
1. LEUZEMIA LINFOBLASTIKO AKUTUA .....	5
1.1. Sarrera .....	5
1.2. Definizioa.....	5
1.3. Haurtzaroko LLA-ren epidemiologia.....	6
1.4. Ezaugarri kliniko eta patologikoak .....	7
1.5. Faktore pronostikoak eta arrisku estratifikazioa.....	9
2. HAURTZAROKO LLA-REN TRATAMENDUA: LAL/SHOP PROTOKOLOA .....	10
3. HAURTZAROKO LEUZEMIA LINFOBLASTIKO AKUTU TERAPIAREN TOXIZITATEAK .....	13
3.1. VCR-k induzitutako neurotoxizitatea .....	16
3.2. Gibel toxizitatea .....	18
3.3. Toxizitate gastrointestinala .....	21
3.4. MTX-ren maila plasmatikoa.....	26
4. FARMAKOGENETIKA LLA-n.....	27
4.1. LLA-ren farmakogenetika .....	28
4.2. MikroRNAk .....	29
4.3. MiR Farmakogenetika .....	32
HIPOTESIA ETA HELBURUAK.....	35
5. HIPOTESIA.....	37
6. HELBURUAK.....	38

MATERIALAK ETA METODOAK .....	39
7. IKERKETA POPULAZIOA .....	41
7.1. Pazienteak .....	41
7.2. Toxizitatearen ebaluazioa .....	43
8. LAGINEN PROZESAMENDUA .....	45
8.1. ADN erauzketa.....	45
8.2. ADN kuantifikazioa eta kalitate ikuskatzea .....	45
9. MIKRORNA GENEETAKO POLIMORFISMOEN AUKERAKETA .....	45
10. SNP-EN GENOTIPAZIOA.....	50
11. ANALISI ESTATISTIKOAK .....	53
12. ANALISI BIOINFORMATIKOAK .....	53
12.1. MiRNA-en egitura sekundarioen iragarpena .....	53
12.2. Geneen itu aukeraketa .....	53
12.3. Bidezidorren analisia .....	54
EMAITZAK.....	55
13. VINKRISTINAK INDUZITUTAKO NEUROTOXIZITATEA .....	57
14. HEPATOTOXIZITATEA .....	79
15. TOXIZITATE GASTROINTESTINALA.....	101
16. METOTREXATOAREN MAILA PLASMATIKOAK.....	123
EZTABADA .....	143
ONDORIOAK .....	151
REFERENCES - ERREFERENTZIAK .....	155

**SARRERA**



## 1. LEUZEMIA LINFOBLASTIKO AKUTUA

### 1.1. Sarrera


Leuzemia linfoblastiko akutua (LLA) haurtzaroan zeharreko minbizirik arruntena da, herrialde garatuetan adin talde honentzat gaixotasunagatiko heriotza kausa nagusia delarik. Azken hiru hamarkadetan, LLA-ren biziraupen tasek nabarmen egin dute gora % 90-era iritsi arte (Tasian and Hunger, 2017). Emaitzen hobekuntza hau, neurri batean behintzat tratamendu protokolo intentsiboei esker lortu da, zeintzuk pazienteen arrisku estratifikazioan eta fase ezberdinietan zehar administratutako farmako konbinazioetan oinarritzen diren. Dena den, biziraupen hobekuntza honen trukean, paciente batzuek, sarri, toxizitate larriak jasaten dituzte, dosi jaitsierak edota tratamendu eteteak beharrezko egiten dituztenak, biziraupenean negatiboki eraginez (Ceppi et al., 2014; Salazar et al., 2012). Horrela, gaur egun haurtzaroko LLA-ren erronka alorretako bat toxizitate markatzaile fidagarrien ikerketa da, farmakogenetika helburu hau lortzeko etorkizun handiko tresna delarik.

### 1.2. Definizioa

LLA, zelula linfoideen leinuaren aurrekaria den linfoblastoen minbicia da, B- zein T-zelulen leinuei eragin diezaiekeena. Linfoblastoak zenbait anomalia pilatzen dituenean, heltze prozesu naturala eragozten da (1.go irudia) ezberdintze prozesua geldiaraziz eta eraldatutako zelularen proliferazioa bultzatz. Eraldatutako zelula hau, bere ohiko tamaina txiki-ertainagatik, zitoplasma eskasagatik, egoera erdi-kondentsatutik sakabanatuago batera doan kromatinagatik eta nabamentzen ez den nukleo bategatik bereizten da.

Heldu gabeko klon honen proliferazioa dela eta, hezur-muinaren (HM) eta odol periferikoaren inbasioa gertatzen da. Inbasio honek hezur-muin funtziaren huts egitea eragiten du eta blastoek organo zein ehunak infiltratzen dituzte, bereziki gongoil linfatikoak, gibela, barea, nerbio sistema zentralarena (NSZ) eta testikuluak.

LLA kasuek adin pediatrikoan diagnostikatzen diren minbizien herena suposatzen dute eta haurtzaroko leuzemia akutu guztien % 75-80 dira.



© 2007 Terese Winslow  
U.S. Govt. has certain rights


### 1. go irudia. Odol-zelulen garapen normala.

Iturria: (<https://www.cancer.gov/types/leukemia/hp/child-all-treatment-pdq>)

#### 1.3. Haurtzaroko LLA-ren epidemiologia

Kasuen % 75 gutxi gorabehera 6 urtetik beherako haurretan gertatzen dira eta 2-5 urte bitartean maiztasun gailur bat ematen da (Swerdlow et al., 2008). Mundu-mailako intzidentzia urteko 100 000 biztanletik 1-4,75 kasu bitartekoak dela estimatzen da. LLA pixka bat ohikoagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino. Gainera, arraza/etnia ezberdintasunak deskribatu dira. Hispaniarrek kaukasiarrak baino emanagoak dira leuzemia akutua garatzen eta kaukasiarrek Afrikar-Amerikarrek baino intzidentzia altuagoak erakutsi dituzte (Lim et al., 2014).

Espanian, Haur Tumoreen Erregistro Nazionalaren arabera (RETI-SEHOP, 1980-2016), LLA-ren intzidentzia 14 urtetik beherako haurretan ematen diren minbizi guztien % 37,1-ekoa (% 95 KT: 35,2-39,0) da (2. Irudia).

Standardized rate by world population (ASRw)

Laburdurak: CNS, nerbio sistema zentrala; SNS, nerbio sistema sinpatikoa; STS, ehun bigunen sarkoma; Epit, epiteliala.

**2. irudia.** Haur minbizien intzidentzia Spainian (RETI-SEHOP) eta beste herrialde Europarretan.

Iturria: RNTI-SEHOP-tik egokitua (<https://www.uv.es/rnti/cifrasCancer.html>)

LLA-en % 80-85-ek B-zelulen leinuan dute jatorria (Silverman et al., 2000). Hemendik aurrerantzean, LLA-ren azpimota honetara mugatuko gara, B-zelula aitzindarien leuzemia linfoblastiko akutura (B-LLA).

#### 1.4. Ezaugarri kliniko eta patologikoak

B-LLA-dun paziente gehienek hezur-muinaren huts egitearen ondorio diren zeinu eta sintomak aurkezten dituzte: tromboцитopenia (petekia, ekimosi edo odoljarioen presentzia), anemia (zurbiltasun eta neke gisa azaltzen dena) edota neutropenia (infekzio arrisku areagotua, arrazoi honegatik ez da arraroa LLA-k ageriko infekzio foku gabeko sukarrarekin debutatzea). Leukozitoen zenbaketa murriztua, normala edo nabarmen areagotua egon daiteke. Hezurretako mina eta artralgia biziagotuak egon daitezke, hezur-muinaren edota ehun zein giltzaduretako egituren infiltrazioagatik. Miaketa klinikoan, linfadenopatia, hepatomegalia eta esplenomegalia maiz ageri dira. Batzuetan, gaitzak nerbio sistema zentrala eta gizonezko pazienteetan testikuluak kaltetu litzake, blastoek ehun hauekiko duten joeragatik (Swerdlow et al., 2008). Sintomen iraupena egun gutxi batzuetakoa edo hilabeteetakoa izan liteke eta gaixotasunaren aurkezpena analitikako asaldura asintomatiko batetik larrialdi mediko bat izateraino joan liteke.

Oadol frotis eta hezur-muin aspiratuetan ikusi bezala, B-LLA-ren minbizi linfoblastoek morfologia aldakorra erakusten dute, zenbaitetan zitoplasma eskas, kromatina nukleiko kondentsatu eta nabari ez den nukleodun zelula txikiak ageri dira, beste batzuetan aldiz, urdin argi eta urdin-gris bitarteko zitoplasma kantitate moderatua duten zelula handiagoak izaten dira, noizbehinka bakuolatuak, kromatina nukleiko sakabanatu eta nabarmentze maila aldakorreko nukleo

## Sarrera

anizdunak (Swerdlow et al., 2008). Hezur-muineko biopsietan, minbizi linfoblastoak tamaina txiki-ertainekoak dira, modu finean sakabanatutako kromatinarekin, zitoplasma eskasarekin eta esfera edo obalo formako nukleo txiki, lauso eta koska-gabe edo bihurgunetsuarekin (Swerdlow et al., 2008).

Immunofenotipoari dagokionez, B-LLA-n linfoblastoak ia beti positiboak dira B-zelulen CD19 eta zitoplasmako CD79 eta CD22 markatzaleentzat; hauetako bat bera ere bere kabuz espezifikoa ez den arren, markatzale hauen positibotasunak konbinazioan edo intentsitate altuan nabarmen babesten du B leinua. B-leinuko linfoblastoen ezberdintze mailak korrelazio kliniko eta genetikoa ditu. Fase goiztiarrenetan, aitzindari goiztiarren B-LLA edo pro-B-LLA deitua, blastoek CD19, zitoplasmak CD79a, zitoplasmako CD22 eta nukleoko TdT adierazten dituzte. Erdibideko fasean, LLA arrunta deitua, blastoek CD10 adierazten dute. B zelula aitzindarien ezberdintze fase helduenean, pre-B-LLA deitua, blastoek zitoplasmako  $\mu$  kateak adierazten dituzte. B-LLA aitzindarien immunofenotipoa, ia kasu guzietan B-zelula aitzindari normaletan ikusten denarekiko desberdina da. Ezberdintasun hauek oso baliagarriak izan daitezke gaixotasunaren jarraipenean egiten den hezur-muin laginetako gaixotasun erresidual minimoaren (GEM) ebaluaziorako (Hashimoto et al., 2002; Swerdlow et al., 2008).

Egitura kromosomikoa oinarritzat hartuz, LLA-rekin irmoki erlazionatutako zenbait aldaketa genetiko deskribatu dira (1.go taula).

**1.go taula.** Translokazio kromosomikoak eta kromosoma kopuru aldaketak, baita haien maiztasunak ere B-zelulen LLA-n (Malouf and Ottersbach, 2017).

Anomalia zitogenetikoak	Maiztasuna (%) Haurrak (2-18 urte)
<i>TEL/AML1</i> edo <i>ETV6-RUNX1</i> t(12;21)(p13;q22)	12-15
ETV6-RUNX1-like	6
<i>E2A/PBX1</i> t(1;19)(q23;p13.3)	2-6
<i>DUX4</i> -berrantolaketa	8
Hiperdiploidia	20-30
4 eta 10 trisomiak	20-25
<i>MLL/AF4</i> t(4;11)(q21;q23) <sup>A</sup>	2-20
<i>BCR/ABL</i> t(9;22)(q34;q11)	1-3
<i>BCR/ABL1</i> -like	15-20
Hipodiploidia	1-2
21 kromosomaren amplifikazio intrakromosomikoa (iAMP21)	2-3

**Oharrak:** A, 50 fusio bikote gene baino gehiago identifikatu dira *MLL*-rentzat. Bikote gene ohikoena *AF4* transkripzio faktorea da, baita 19p13 kromosomako *ENL* eta 9p22 kromosomako *AF9*.

Alterazio genetiko hauetako batzuk pronostikoarekin asoziatu izan dira, adibidez, kariotipo normala edo TEL/AML positibotasuna aldeko pronostikoarekin asoziatu dira, aldiz BCR/ABL edo MLL-ren presentzia pronostiko desegoki batekin.

### 1.5. Faktore pronostikoak eta arrisku estratifikazioa

Gaur egun, kontuan hartu behar diren faktore pronostiko garrantzitsuenak honakoak dira: adina, leukozitoen zenbaketa diagnostikoan, immunofenotipoa, hezur-muinaz kanpoko ehunen kaltea, ploidia, aldaketa zitogenetiko edo genomikoak, erantzun goiztiarra tratamenduari eta GEM; aldeko pronostikoa edo pronostiko desegokia dakarten faktoreak (2. taula).

**2. taula.** Aldeko pronostikoa edo pronostiko desegokia dakarten faktoreak haurtzaroko LLA-n.

Aldekoa	Desegokia
1-9 urte bitarteko adina	<1 edo >10 urteko adina
Leukozito zenbaketa diagnostikoan: $<20 \times 10^9/L$	Leukozito zenbaketa diagnostikoan: $> 20 \times 10^9/L$
Immunofenotipo arrunta	T-LLA > pre-pre B-LLA > pre-B-LLA > B-LLA
NSZ-ren kalte eza	NSZ kaltetua
Kariotipo arrunta, hiperdiploidia (51-81 kromosoma), TEL/AML +.	Ia tetraploidia (82-94 kromosoma), hipodiploidia (30-45 kromosoma), ia haploidia (24-29 kromosoma), BCR/ABL +, MLL +
HM-eko blasto % +14 tratamendu egunean: < 5	HM-eko blasto % +14 tratamendu egunean: > 5

**Laburdurak:** T-LLA, T-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; B-LLA, B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; NSZ, nerbio sistema zentrala; HM, hezur-muina.

## Sarrera

Diagnostikoaren unean faktore hauek ebaluatzeari esker, pazienteak beren gaixotasun arrisku arabera estratifikatza ahalbidetzen da (3. taula).

### **3. taula.** Arrisku talde estratifikaziorako irizpideak haurtzaroko LLA-ren terapien.

---

#### **ARRISKU ESTANDARRA (AE)**

---

##### **Paziente batek ondorengo irizpide guztiak bete behar ditu talde honetan sartzeko**

1-9 urte bitarteko adina

LLA arruntaren immunofenotipoa (CD19+, CD10+, μ kate zitoplasmatikoa -)

Diagnostikoko odol zelula zurien zenbaketa:  $<20 \times 10^9/l$

Hezur-muinaz kanpoko kalterik eza (NSZ, testikuluak)

Zitogenetika desegoki bat ez izatea

HM-eko blasto % +14 tratamendu egunean: < 5

Tratamenduaren indukzio fasearen amaieran GEM % <0,1

#### **ARRISKU ALTUA (AA)**

---

##### **Gutxienez irizpide hauetako bat izateak paziente bat arrisku altuan sartzea zehazten du:**

≥10 urtetako adina

AE-erako adierazitako immunofenotipoak ez beste edozein izatea

Diagnostikoko odol zelula zurien zenbaketa: 20 eta  $200 \times 10^9/l$  bitartekoak

Hezur-muinaz kanpoko ehun kaltetua (NSZ, testikuluak)

Zitogenetika desegokia

HM-eko blasto % +14 tratamendu egunean: ≥5

Tratamenduaren indukzio fasearen amaieran GEM % ≥0,1

#### **ARRISKU OSO ALTUA (AOA)**

---

##### **Gutxienez irizpide hauetako bat izateak paziente bat arrisku oso altuan sartzea zehazten du:**

Odolesko zelula zurien zenbaketa  $>200 \times 10^9/l$

Zitogenetika oso desegokia


AA taldekoa HM-eko blasto % +14/+21 tratamendu egunean: ≥5

AA taldekoa kontsolidazio fasearen amaieran GEM % ≥0,1

Gaur egun, pazienteak estratifikatzeko estrategia hau tratamendua egokitzea erabili izan da.

## **2. HAURTZAROKO LLA-REN TRATAMENDUA: LAL/SHOP PROTOKOLOA**

LLA-ren terapia, konplexuak diren eta ondo ezarriak eta arriskuari egokitua dauden tratamendu protokoloetan oinarritzen da, non sekuentzialki fase ezberdinatan zehar farmako anitzen konbinaketak administratzen diren. Duela urte gutxi arte, Spainian LLA tratamenduarentzat erabili izan zen protokoloa Hematologia eta Onkologia Pediatriko Erakunde Espainiarak (SEHOP) onetsitako protokoloa zen, LAL/SHOP deitua. Honek zenbait bertsio ditu (94, 99, 2005), beraien arteko ezberdintasun xeheekin. 3. irudian LAL/SHOP 2005 protokoloa deskribatzen da. 2013. urtean, LAL/SHOP 2005 protokoloa eguneratua izan zen antzekoa den LAL/SEHOP-PETHEMA 2013 prokolora.



**Laburdurak:** DNR, daunorrubizina; VCR, vinkristina; PDN, prednisona; CPA, ziklofosfamida; ASP, L-asparaginasa; TIT, intratekal hirukoitza; MTX, metotrexatoa; 6-MP, 6-merkaptopurina; AraC, zitarabina; epiADR, epiadriamizina; DEXA: dexametasona.

### 3. irudia: LAL/SHOP 2005 tratamendu protokoloaren diagrama.

Lehendabizi, arrisku talde guztietai indukzio fase bat abiarazten da 5 astez gutxi gorabehera. Fase honen helburua hasieran hezur-muinean zegoen zelula leuzemikoen kargaren % 99 baino gehiago deuseztatzea da, hematopoiesi prozesu normala berrezartzeko asmoz. LAL/SHOP 2005 protokoloaren baitan honako farmakoak daude: **prednisona** (PDN) (glukokortikoidea, efektu immunosupresoreoa; 60 mg/m<sup>2</sup>/eguneko, zain barnetik edo ahoz 28 egunez; 30 mg/m<sup>2</sup>/eguneko hurrengo 4 egunetan eta 15 mg/m<sup>2</sup>/eguneko 4 egun gehiagoz), **daunorrubizina** (DNR) (topoisomerasa blokeatzeko eta ADN-ari lotzeko gaitasuna duen antraziklina bat; 120 mg/m<sup>2</sup> 48 h-tako infusio jarrai bat), **vinkristina** (VCR) (vinka alkaloidea, mikrotubuluekin elkarrekintzatzen du mitosia metafasean blokeatuz; astean behineko 1,5 mg/m<sup>2</sup>-ko bolusa, gehienez 2 mg, 4 astez), **L-asparaginasa** (ASP) (asparagina hidrolizatu eta proteinen sintesia oztopatzetan duen entzima; 5000 U/m<sup>2</sup>-ko 10 dosi muskulu barnetik egun txandakatuetan), eta **ziklofosfamida** (CPA) (ADN-aren farmako alkilatzailea, transkripzioa eta erreplikazioa blokeatzen dituena; 1000 mg/m<sup>2</sup>-ko dosi bakarra). Gainera, **terapia intratekal hirukoitza** (TIT) (metotrexato (MTX), zitarabina (AraC) eta hidrokortisona konbinaketa; adin taldearen arabera egokitutako bi dosi) hasten da NSZ-ren inbasioa ekiditeko.

Ondoren, hematopoiesi normala berrezarrita, kontsolidazio fasea hasten da, zein gutxi gorabehera 8 astez mantentzen den. Bigarren fase honetan, tratamendua areagotzen da


## *Sarrera*

terapiarekiko erresistenteak diren klonen abiatzea saihesteko. Arrisku talde guztiekin kontsolidazio terapia bera jasotzen dute. Fase honetan, **metotrexatoa** (efektu antitumoral purina, pirimidina eta proteinen sintesia inhibituz lortzen duen folatoen analogoa; 5 g/m<sup>2</sup> edo 3 g/m<sup>2</sup>, 3 dosi guztira 24 h-tako infusioan emanak eta dosi osteko azido folinikoaren ereskateekin) eta **6-merkaptopurina** (6-MP) (bere efektua ADN-an tartekatuz gauzatzen duen purinen analogoa; ahoz 30 mg/m<sup>2</sup>/eguneko 6 astez) erabiltzen dira. MTX-aren kontzentrazio plasmatikoa egunero monitorizatzen dira kontzentrazioak 0,2 μM azpitik egon arte. Gainera, kontsolidazio fasea **zitarabinarekin** (AraC) (ADN polimerasa inhibitzen duen zitosinaren analogoa; 1 g/m<sup>2</sup>-tako lau dosi) eta TIT-ekin (lau dosi) osatzen da.

Azkenik, mantinemendu fase bat aplikatzen da birindukzioekin erremisioa gordetzea helburutzat duena eta bi urtez edo luza daitekeena. Birindukzioak hilabetean behin aplikaten dira lehen 6 hilabeteetan eta PDN (40 mg/m<sup>2</sup>/eguneko 7 egunez), VCR (1,5 mg/m<sup>2</sup>, gehienez 2 mg) eta TIT (soilik mantinemenduaren lehen 4 hilabeteetan) administratzeten dira bertan. Honez gain, aho bidez edo muskulu barnetik MTX (20 mg/m<sup>2</sup>/astero) eta aho bidetik 6-MP (60 mg/m<sup>2</sup>/egun) ere erabiltzen dira.

AA-ko eta AOA-ko taldeetan tratamendua modu ezberdinan indartzen da. Lehendabizi, kontsolidazio eta mantinemendu faseen arteko intentsifikazioa fase gehigarri bat aplikatzen da. Intentsifikazio fase honetan zehar, epirrubizina, VCR, dexametasona, CPA, MTX, ASP eta AraC bezalako zenbait farmako eta TIT administratzeten dira. Fase gehigarri honetaz gain, AA-ko pazienteen taldean, indukzioan zehar, ASP 10 000 U/m<sup>2</sup>-ko dosira doa eta bi CPA infusio eta hiru TIT administratzeten dira. Gainera, mantinemendu fasean zehar birindukzioak lehenengo 8 asteetan aplikatzen dira eta ASP eta CPA ere erabiltzen dira. AOA-ko taldean, tratamendua are gehiago intentsifikatzen da hainbat kontsolidazio faserekin eta tratamendua zelula hematopoietikoen transplantearekin amaitzen da.

Pazienteak gaixotasunaren arriskuaren arabera estratifikatzeko estrategia honek biziraupen tasak hobetu ditu, egun, 5 urteko gertaera gabeko biziraupen tasak % 80-90 izateraino hazi direlarik (Bhojwani et al., 2015; Liang et al., 2010; Mitchell et al., 2010; Mörck et al., 2010). Spainian, RETI datuen arabera, diagnostikotik 5 urterako biziraupena, 80-ko hamarkadan % 56-koa izatetik azken urteotan % 83-koa izatera pasa dela estimatzen da (4. irudia, RETI-SEHOP 1980-2016).



**4. irudia.** Haurtzaroko LLA-ren diagnostikotik 5 urterako biziraupen tasa intzidentzia urte kohorte bakoitzeko. 0-14 urte, 1980-2010, N=3989 kasu.

Iturria: RETI-SEHOP-ekit egokitua (<https://www.uv.es/rnti/informes.html>).

Arrakasta klinikoa gorabehera, tratamendu protokolo hauen arazo garratzitsuenetako bat, paziente batzuek jasaten dituzten toxizitate larriak dira. Toxizitateak dosi murrizketak edota tratamenduaren eteteak ekar ditzake, honek biziraupenean duen eragin negatiboarekin (Ceppi et al., 2014; Salazar et al., 2012). Tratamentua arrisku estratifikazioaren arabera egokitzeak talde batzuetan gehiegizko kimioterapia administratzea sahiestu du (Geng and Wang, 2015; Hunger et al., 2005; Pui and Evans, 2013). Hala ere, oraindik hiru arrisku taldeetan toxizitateak agertzen dira.

### 3. HAURTZAROKO LEUZEMIA LINFOBLASTIKO AKUTU TERAPIAREN TOXIZITATEAK

Farmakoak definitutako posologiei (dosia eta maiztasuna) jarraiki administratzen dira, itu ehunean kontzentrazio zehatzetara iritsi eta bilatutako efektua lortzeko helburu bakarrarekin. Alabaina, farmako hauek beste ehun, zelula edo bidezidor intrazelularretan izan ditzaketen eraginek desiratzen ez diren efektuen garapena ekar dezakete, toxizitatea azken finean.

Farmako bat administratzen denean, ondoz-ondoko xurgapen, distribuzio, metabolismo eta iraizpen pausuetatik pasatzen da, ADME izendapenarekin ezagutzen diren prozesuak.

## *Sarrera*

Zain barnetiko bidea ez den bide batetik administratutako farmakoek, hala nola, aho bidea edo muskulu barneko bidea, odol-zirkulazio arteko xurgatze prozesu bat jasango dute. Behin odolean, farmakoak beren efektua burutuko duten xede ehunetara banatuak izango dira. Hurrena, molekulak metabolizatu egingo dira, gehien bat gibelean, azkenik organismotik kanporatuak izateko (giltzurrun iragazpen bidez eta neurri txikiagoan iragazpen biliar bidez, farmakoaren arabera). Lau ADME pausu hauek farmakozinetika (PK) bezala definitzen dira, hots farmakoa nola mugitzen den gizabanakoaren gorputzean zehar eta ekintza lekuaren iritsitako farmako kontzentrazioen eraldaketa bidez nola eragiten duen efektuan (Preskorn and Hatt, 2013). Bestalde, erantzun terapeutikoarekin zerikusia duen oro, orokorrean farmakoaren afinitate eta ekintza lekuaren duen aktibitateak finkatua, farmakodinamika (PD) gisa definitzen da (Preskorn and Hatt, 2013).

Farmako bakoitzaren PK/PD prozesuak bidezidor baten baitan jasotzen dira, zeinetan gaur egun, gene partehartzaile gehienak ezagunak diren. PK/PD prozesuetako geneen aldaketek farmakoaren erantzun optimoa eragotzi eta eragin desiragaitzen garapena bultzatuko luketen faktore hartaratzale gisa joka dezakete (Turner et al., 2015), izan ere, farmakoen kontzentrazio aldaketak eragin ditzakete, baita toxizitate zein farmakoen efektu etetea dakarten bitartekarien produkzioa ere. Farmako zehatzen PK/PD geneetako aldaketen aurkikuntzak induzitzen dituzten toxizitateak are gehiago murrizteko aukera zabaltzen du.

LAL/SHOP tratamendu protokoloak toxizitateen ebaluaketa ezartzen du tratamendu fase bakoitzerako, uneoro dagozkion sostengu neurriak hartzeko, dosiak murrizteko edo farmakoen administrazioa eteteko helburuarekin. LAL/SHOP 2005 tratamendu protokoloaren eragin desiragaitz batzuk farmako antileuzemiko zehatzen administrazioarekin lot daitezke, hala nola antraziklinek induzitutako kardiotoxizitatea, ASP-k eragindako hipersentikortasuna edo VCR-k induzitutako neuropatia periferikoa (Moriyama et al., 2015). Modu kontrajarrian, beste toxizitate batzuk farmako bat baino gehiagoren andimistrazioarekin erlazionatu daitezke. Adibidez, gibel toxizitatea ASP espozizioarekin asoziatu da indukzio fasean zehar eta kontsolidazio fasean aldiz MTX-rekin (Liu et al., 2017). Beste adibide bat mukositisa izan liteke, MTX, DNR edo CPA kimioterapikoekin erlazionatu dena. 4. taulak haurtzaroko LLA-ren tratamenduan erabiltzen diren farmakoen toxizitaterik ohikoenak jasotzen ditu.

**4. taula.** LLA tratamentuaren toxizitateak eta hauek induzitzen dituzten farmakoak.

Toxizitatea	Farmakoa
<b>Neurotoxizitatea</b>	
Neuropatia periferikoa	Vinkristina <sup>++</sup> , Ziklofosfamida*.
Ileo paralitikoa	Vinkristina <sup>+</sup> .
<b>Gibel toxizitatea</b>	
Hipertransaminasemia	L-Asparraginasa <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>++</sup> , Daunorrubizina <sup>++</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>+</sup> , Zitarabina <sup>+</sup> .
Hiperbilirrubinemia	Daunorrubizina <sup>++</sup> , L-Asparraginasa <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>++</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>+</sup> .
<b>Toxizitate gastrointestinala</b>	
Mukositisa	Metotrexatoa <sup>++</sup> , Daunorrubizina <sup>++</sup> , Ziklofosfamida <sup>+</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>+</sup> , Zitarabina <sup>++</sup> .
Goragale/gonbitoak	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Ziklofosfamida <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>++</sup> , Vinkristina <sup>++</sup> , L-Asparraginasa <sup>++</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>+</sup> , Zitarabina <sup>++</sup> .
Beherakoa	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>+</sup> , Vinkristina <sup>+</sup> , L-Asparraginasa <sup>++</sup> , Zitarabina <sup>++</sup> .
<b>Nefrotoxizitatea</b>	
Zistitisa	Ziklofosfamida <sup>++</sup> .
Giltzurrun disfuntzioa	Zitarabina*.
<b>Toxizitate hematologikoa</b>	
Anemia	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Vinkristina <sup>++</sup> , L-Asparraginasa <sup>+</sup> , Ziklofosfamida <sup>*</sup> , Metotrexatoa <sup>+</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>+</sup> , Zitarabina <sup>+</sup> .
Neutropenia	Daunorrubizina <sup>++</sup> , L-Asparraginasa <sup>+</sup> , Ziklofosfamida <sup>++</sup> .
Tronbozitopenia	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Vinkristina <sup>++</sup> , L-Asparraginasa <sup>+</sup> , Ziklofosfamida <sup>*</sup> , Metotrexatoa <sup>+</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>++</sup> , Zitarabina <sup>+</sup> .
<b>Beste batzuk</b>	
Hipergluzemia	Prednisona <sup>+</sup> , L-Asparraginasa <sup>++</sup> .
Hipersentikortasuna	L-Asparraginasa <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>*</sup> , 6-Merkaptopurina <sup>*</sup> , Zitarabina <sup>*</sup> .
Exantema	Metotrexatoa <sup>+</sup> .
Kardiotoxizitatea	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Ziklofosfamida <sup>*</sup> .
Odoljario gastrointestinala	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Metotrexatoa <sup>*</sup> .
Infekzioa	Daunorrubizina <sup>++</sup> , Ziklofosfamida <sup>+</sup> , Zitarabina <sup>++</sup> .


**Oharrak:** Farmakoen informazio ofizialak adierazitakoaren arabera oso arruntak ( $\geq 1/10$ ) (++) gisa adierazia); arruntak ( $<1/10$ -tik  $\geq 1/100$ -ra) (+ gisa asierazia) edo ezohikoak ( $<1/100$ -tik  $\geq 1/1000$ -ra) (\*) gisa adierazia) diren LLA tratamenduaren toxizitateak (Accord Healthcare S.L.U., 2017a, 2017b; Baxter Oncology GmbH, 2017; Pfizer, 2017a, 2017b; Silver pharma S.L., 2017; Spezialpräparate, 2017).

Gure ikerketa ondorengotara zuzendu dugu: VCR-k induzitutako neurotoxizitatea, toxizitate/farmako bikote argiena; gibel toxizitatea eta toxizitate gantrointestinala, biak LLA-ren terapiako zenbait farmakok eragindakoak eta plasmako MTX maila altuak.

### 3.1. VCR-k induzitutako neurotoxizitatea

VCR osagai garrantzitsua da haurtaroko LLA-ren terapien, hala ere, eraginkortasun klinikoa gorabehera, VCR-k neurotoxizitate sentsoriala eta motorea sor ditzake (Carozzi et al., 2015), VCR-ren eragin desiragaitz nagusia eta bere erabilerarako faktore mugatzalea.

Neurotoxizitate mota ohikoena neuropatia periferikoa da, zein batik bat zentzumen polineuropatia edo polineuropatia motore distal baten gisan aurkezten den (Legha, 1986). Badirudi toxizitate hau VCR-ren kontzentrazio maila gorenkin erlazionatua dagoela (Dougherty et al., 2007; Groninger et al., 2005). Kontzentrazio plasmatiko hauek VCR-ren administrazio maiztasunaren eta dosiaren araberakoak izango dira, baita VCR-ren PK-ren araberakoak ere (5. irudia).




5. irudia. VCR-ren bidezidor PK/PD.

VCR nagusiki CYP3A entzimen azpifamiliak metabolizatzen du, vinkristinaren argitzean eginkizun garrantzitsu bat betez (Dennison et al., 2006). ABCB1, ABCC1, ABCC2, ABCC3, ABCC10 eta RALBP1 bezalako mintz garraiatzaileek ere betekizun nabarmena dute vinkristinaren garraio eta kanporaketan. VCR-ren behazun iraizketa ABCB1 eta ABCC2 bidez gertatzen da eta VCR-ren odoleranzko garraioa aldiz ABCC1 bidez (5. irudia) (Leveque and Jehl, 2007).

Ikuspegi PD batetik, VCR-k zelulen proliferazioa inhibitzen du tubulinari atxikiz eta mikrotubuluen polimerizazioa blokeatuz (Islam and Iskander, 2004), honek mitosiaren blokeoa eta zelula apoptosisa dakar (Jordan and Wilson, 2004), neurodegenerazioaren azalpen posible bat izanik. Ondorioz, beta-tubulina proteinak edota mikrotubuluekin erlazionatutako proteinak kodetzen dituzten geneek hala nola, *TUBB*, *MAPT* edo *CEP72*, mikrotubuluen egonkortasuna alda dezakete, zelulen VCR-rekiko sentikortasuna asaldatuz eta pazienteen artean farmako honek duen efektuan ezberdintasunak eraginez.

Bestalde, paciente eta animalia modeloetan aurrera eramandako ikerketek axoien degenerazioa proposatu dute neurotoxizitate prozesuaren atzean dagoen lesio anatomopatologiko nagusitzat. Bertan iradokitzen da VCR-k zuzenki edo zeharka, modu distal batean hasi eta eremu proximalagoetaranzko axoien degenerazioa sustatu dezakeela. Axoien degenerazioari hasiera emango lioketen mekanismo potentzialen artean axoian zeharreko garraio akatsak (Argyriou et al., 2012; van den Bent, 2005; Rosenthal and Kaufman, 1974), mitokondrien funtzio aldaketak edo Ca<sup>+2</sup> homeostasiaren aldaketak daude.

VCR-ak eragotziko lituzkeen neuronako puntu erabakigarriak hauek dira (6. irudia): (1) nukleoan, axoien garapenean zehar, itu gunetik datozen neurotrofinek biziraupen/heriotza geneen transkripzio oreka kontrolatzen dute, Bcl-2-like 2 proteina (*BCLW*) eta p53 apoptosiaren modulatzaile gainadierazia (*Puma*) hurrenez hurren; (2) axoian zeharreko garraioan, *BCLW* transkribatuak eta zelularen somatik datozen nikotinamida mononukleotido adeniltransferasa (NMNAT2) faktoreak axoi distalerantz zuzentzen dira; (3) mitokondria eta erretikulu endoplasmatikoan, itzulitako *BCLW*-k mitokondrien funtzioa modulatzen dute, zeinak kaspasen kaskada inhibitu eta Ca<sup>+2</sup> homeostasia mantentzen duen Ca<sup>2+</sup>-ren menpeko kalpainen aktibazioa ekidinez eta azkenik (4) SRM1 bidezidorra, non VCR-k eta axotomiak SARM1 eta DLK/MAPK seinalizazioa aktibatzen duten, kalainen aktibazioari bidea emanet, axoien degenerazioa eragiteko azken puntu konbergentea (Fukuda et al., 2017). Horrela, VCR-k eragina izan dezakeen puntu hauetako edozeinetan gertatutako alterazioek VCR-k axoi degenerazioa eta neurotoxizitatea sortzeko duen modua alda dezakete.



**Laburdurak:** ER, erretikulu endoplasmatikoa; IP3R, inositol 1,4,5-trifosfato hartzalea; BAX, Bcl-2-like 4 proteina; **SARM1**, *sterile α-motif* eta *armadillo-motif* dituen proteina; **DLK**, leuzina dual kremailera kinasa; **MAPK**, mitogenoek-aktibatutako proteina kinasa; **Wlds**, Wallerian degenerazio motela; **NMN**, nikotinamida mononukleotidoa; **CIPN**, kimioterapiak induzitutako neuropatia periferikoa.

**6. irudia.** VCR-rentzat proposatutako axoi degenerazio mekanismoak. Axoien degenerazioan erabakiorrak dira heriotza bultzatu edota biziraupen bidezidorra inhibitu ditzaketen faktoreak.


Iturria: Fukuda et al. 2017-tik egokitua (Fukuda et al., 2017).

Gaur egun ez da neurotoxizitatea eragozteko tratamendurik existitzen eta toxizitatea ezarri bada, har daitezkeen neurri bakarrak errekuperatu arteko VCR-ren etetea, dosi murrizketa edo tarte luzatzea dira (Argyriou et al., 2012; Ceppi et al., 2014), neurriok biziraupena kaltetu dezakeelarik (Carozzi et al., 2015; Ceppi et al., 2014; Postma et al., 1993). Hori dela eta, medikuntzaren erronketako bat VCR-rekin erlazionatutako neurotoxizitatea zein pazientek garatuko duten aurreikustea da, aldez aurretik tratamendua egokitu ahal izateko.

### 3.2. Gibel toxizitatea

Haurtzaroko LLA pazienteetan farmakoekin erlazionaturiko toxizitaterik ohikoenetako bat hepatotoxizitatea da (Liu et al. 2017), zeina neurri batean serumeko animotransferasen (alanina aminotransferasa (ALT) edo aspartato aminotransferasa (AST)) edota bilirrubina (Bl) mailen igoera bezala definitzen den. Igoera hau zelula hepatikoen mintzeko asaldurak medio edo zelula heriotzagatik sortzen dira (Navarro and Senior, 2006), mekanismo desberdinek induzitzen dituztelarik (7. irudia): (1) kaltzioaren homeostasi intrazelularren etetea, zeinak zelula gainazaleko aktina zuntzexken desegitea eragiten duen eta ondoren zelularen lisia; (2) entzima-farmako aduktuen sorrera, zeintzuen produktuek entzimen disfuntzioa, gradiente ionikoaren galera, ATP mailen jaitsiera eta ondorioz zelula heriotza dakarten; (3) antigorputzen sorrera eta

zitokinen errekrutatzea, zeintzuek inflamazioa eragindo duten, aduktuen zelula gainazaleranzko migrazioaren ondorioz; (4) erantzun immunearen edo zelula kaltearen ondoriozko apoptosisa; eta (5) mitokondria asaldurak, gantz azidoen  $\beta$ -oxidazioaren etetea adibidez (Lee, 2003).



**7. irudia.** Gibel toxizitatearentzat proposatutako mekanismoak.

Iturria: Lee 2013-tik egokitua (Lee, 2003).

Haurtzaroko LLA pazienteen % 66,5-ak gutxi gorabehera gibel toxizitatea erakusten du LLA tratamenduan zeharreko punturen batean (Ladas et al. 2010). Hepatotoxizitatea garatzen den unea administratu den farmakoaren araberakoa izan daiteke (Iorga, Dara, and Kaplowitz 2017). Izatez, indukzio fasean zehar, Liu eta lankideek hepatotoxizitatea ASP esposizioarekin lotu zuten, aldiz kontsolidazio fasean zehar, jakina da MTX dosi altuek gibel toxizitatea eragiten dutela (Liu et al. 2017).


ASP zelulaz kanpoko asparragina azido aspartikora metabolizatzen duen entzima bat da. Bere efektu antileuzemikoa zelula leuzemikoek, zelula normalekin alderatuz, asparragina sintetizatzeko duten gaitasun urrian oinarritzen da. Asparragina mailen murrizketak proteinen sintesi gaitasuna gutxitzen du, zelula leuzemikoen heriotza bultzatuz (Ho et al., 1970; Onuma et al., 1971). Kasu honetan, hepatotoxizitate mekanismoa ezezaguna da, hala ere, esteatosi hepatikoa sorrarazten duen mekanismoaren antzekoa litzatekeela proposatu da (Liu et al.,

## *Sarrera*

2017), non mitokondrietako gantz azidoen oxidazio etetea dela eta hauek gibeleko mikrobesikuletan pilatzen diren. Gainera, honek oxigeno espezie erreatiboen (ROS) areagotzea dakar. Ondorioz, gibelean mitokondrien asaldurak, ROS-en kontzentrazio handitzeak eta gantz azidoak mikrobesikuletan pilatzeak zelulen apoptosisa bultzatzen dute (Liu et al., 2016), entzima hepatikoen maila plasmatikoa areagotuz eta hepatotoxizitatea eraginez.

MTX-ri dagokionez, LLA tratamendu protokolo gehienetan osagai garrantzitsua, behin zelula barnean MTX poliglutamatoetan (MTXPG) metabolizatzen den folatoen analogo bat da. Biek, MTX-ak eta MTXPG-ek DHFR inhibitzen dute, dihidrofolatoak tetrahidrofolato aktiboetara eraldatzearren entzima erantzulea, horrela tetrahidrofolato intrazelularren maila jaitsiera eraginez. Bestalde, MTXPG-ek TYMS bezalako folatoaren-menpeko beste entzima batzuk ere baditzte itutzat, azido nukleikoen eta proteinen sintesi inhibizioa eta ondorioz zelulen heriotza eraginez bereziki zatiketa azkarreko zeluletan (Krajinovic and Moghrabi, 2004). Azkenik, mintzeko proteina garraiatzaileen eginkizuna ezinbestekoa da MTX-a behazun eta gernu iraizketa bidez zeluletatik eta organismotik kanporatzeko (Mikkelsen et al., 2011). Proteina hauek ATP-lotura cassette garraiatzaileak izan ohi dira, ABCB1 kasu (Swerts et al., 2006), baita garraiatzaile organiko anionikoak ere, adibidez SLCO1B1 (Abe et al., 2001; Trevino et al., 2009) (8. irudia). Kasu honetan, toxizitatea eragiteko modua bere akzio mekanismoarekin zuzenki erlazionatua dagoela dirudi, hau da, zelulen apoptosisa eragin dezaketen azido nukleiko eta proteinen sintesi inhibizioarekin eta ADN harizpien hausturarekin (Celtikci et al., 2009) (8. irudia). Gainera, MTX-ak induzitutako hepatotoxizitatearentzat beste mekanismo batzuk ere proposatu dira, hala nola gibeleko folatoen berriztatze murrizketa, poliglutamato toxikoen pilaketa (Dávila-Fajardo et al., 2013) edo homozisteina kontzentrazioen areagotzea, non MTHFR eta MTX entzimek eginkizun garrantzitsua beteko luketen (Celtikci et al., 2009) (8. irudia).

Toxizitate hepatikoak tratamenduaren eteteak edo dosi murrizketak ekar ditzake, zeintzuek biziraupenean negatiboki eragin dezaketen. Arrazoi honegatik, medikuntzaren erronka dira tratamendu fase bakoitzean gibel toxizitatea garatzeko arriskua zein pazientek duten iragartzea eta toxizitate honen erantzuleak zein farmako diren identifikatzea, farmakoak administratu aurretik tratamendua doitu ahal izateko.




**8. irudia.** MTX-ren PK/PD bidezidorak.

### 3.3. Toxizitate gastrointestinala

Era berean garrantzitsuak dira traktu gastrointestinalarekin erlazionatutako eragin desiragaitzak, hala nola, mukositisa, beherakoa eta gonbitoak. Mukositisa leuzemiaren kontra erabili ohi diren kimioterapioen eragin desiragaitz ahulgarri eta ohikoenetako bat da (Sangild et al., 2017; Schmiegelow et al., 2017). Toxizitate hau mukosa hesiaren haustura bategatik ezaugarritzen da, zein modu arinenetan mukosen eritema gisa aurkezten den eta modu aurreratuagoetan aho-barrunbe eta traktu gastrointestinaleko lesio ultzeratzaile sakon eta mingarri gisa (Sonis 2004c, 2004b, 2004a; Van Sebille et al. 2015). Ondorioz, haurrek min abdominalala, beherakoa eta gonbitoak jasaten dituzte, zeintzuek aldi berean pisu galera, euskarri nutrizional beharra eta infekzio arrisku areagotua dakarten (Kuiken et al. 2017).

Mukosa lesio honen jatorria azpimukosan hasi eta aho epitelioa xede duten zenbait bidezidor biologikoren efektu pilaketan dago. 9. irudiak proposatutako bost-fasetako prozesua irudikatzen du hasieratik sendakataraino (Sonis, 2007).




**9. irudia.** Mukositisaren bost fasetako patogenesi prozesua: hasiera, lehen kalteari erantzuna (mezularitza eta seinalizazioa), anplifikazioa, ultzerazioa eta sendaketa (Sonis, 2007).

Hasiera fasean zehar, kimioterapiak epitelio basaleko zelulen heriotza eragiten du eta kaltetutako ehunak oxigenoaren espezie errektiboak (ROS) sortzen ditu eta geroago hartziale espezifikoei atxikiko diren lesioari asoziatutako patroi molekula endogenoak (LAPM) askatzen ditu. Kimioterapiak bere kabuz edo ROS-ek eta LAPM-ek gertakari biologikoen kaskada batzuei hasiera emango diente, zenbait transkripzio faktoreren aktibazioa barne, adibidez Kappa-B nukleo faktorea (NF-κB), honela lesio primarioaren erantzunari bidea emanet. NF-κB-ren aktibazioaren ondorioz, zenbait generen adierazpena gerta liteke, hala nola zitokina proinflamatorio eta modulatzailleen geneena, estresaren aurrean erantzuten duten molekulen geneena (adib., COX-2, NO-sintasa induziblea, superoxido dismutasa) eta zelula itsaspenerako molekulen produkzioarekin asoziatutako geneena, guzti hauek mukositisaren patogenesian aktibitatea dutela frogatu delarik. Mukosen lesioan parte hartze esanguratsua duten beste bidezidor batzuk ere identifikatu dira. Esanguratsuenen artean nitrogenoaren metabolismoarekin, Toll-like hartzailen seinalizazioarekin, B-zelulen hartzailen seinalizazioarekin, P13K/AKT seinalizazioarekin eta mitogenoek aktibatutako kinasa proteina (MAPK) seinalizazioarekin asoziaturiko bidezidorrak aurkitzen ditugu, batzuk aipatzearen. Anplifikazio fasean zehar, bitartekariek ehunen lesioa areagotu eta luzatzeko balio duten zenbait feedback laktio positibo eragiten dituzte, transkripzio faktoreetan duten efektua medio. Ondorioz, geneen gain-adierazpena gertatzen da zitokina kaltegarrien sorrera areagotuz.


Mukositisa zenbait agente kimioterapikoren erabilerarekin erlazionatu izan da, hala nola, aurrez aipatutako MTX-rekin, CPA-rekin edo DNR-rekin (Cinausero et al. 2017; Schmiegelow et al. 2017). CPA agente alkilatzaileekin sailkatzen den antineoplasiko bat da, zeinek zeluletan ematen diren baldintzetan, talde elektronegatiboei alkil taldeak gehitzeko gaitasuna duen (Baxter Oncology GmbH, 2017). Tumoreen hazkuntza gaitasuna gelditzen dute ADN-aren helize-bikoitzeko guanina baseen arteko lotura-gurutzatuak sortuz. Honek harizpiak deskiribildu eta banatzeko ezintasuna dakar eta hau ADN-aren erreplikaziorako ezinbestekoa denez, zelulak ezin izango dira gehiago zatitu. CPA-ren metabolismo eta iraizketa giblean gertatzen da. Farmakoaren % 75 CYP isoformen bidez aktibatzen da eta ondoren nagusiki metabolito eran kanporatzen da (10. irudia).

DNR antraziklinen taldeko antineoplasiko bat da. Talde honetako farmakoen ezaugarriak honakoak dira: ADN-arekin interakzioak modu anitzetan, hala nola, ADN harizpian tartekatzea, ADN harizpi haustura eta topoisomerasa II entzimaren inhibizioa. Litekeena da gainera DNR-k polimerasaren aktibitatea inhibitza, geneen erregulazioan eragitea eta ADN-a kaltetzen duten erradikal askeen sorreran parte hartzea. Hainbat garraiatzailek erakutsi dute antraziklinen garraioan inplikazioa (11. irudia).

Sintomatologia gastrointestinalak tratamenduaren atzerapenak, espero gabeko eteteak edo terapiaren amaiera goiztiarrak eragin ditzake (Cinausero et al. 2017), zeintzuek biziraupenean kalte zuzena duten. Horregatik, interes handikoa litzateke mukositisa zein pazientek garatuko duten aurresarea, eragin desiragaitz honen agerpena sahiesteko.




10. irudia. CPA-ren PK/PD bidezidorrak.



11. irudia. Antraziklinen PK/PD bidezidorrok.

### 3.4. MTX-ren maila plasmatikoak

MTX, LLA terapiaren ardatza da, baina oso tarte terapeutiko estua du, hau da, kontzentrazio terapeutiko eta toxikoen arteko aldea oso txikia da. Horregatik dosi altuetan MTX-ak toxizitatea erraz eragiten du eta ikusi da toxizitate globalaren maiztasuna esanguratsuki altuagoa zela 0,2  $\mu\text{M}$  baino kontzentrazio plasmatiko altuagoak zituzten pazienteetan kontzentrazio baxuagoak zituztenekin alderatuz, berdina ikusi zelarik giltzurrun toxizitate eta gonbitoentzat (Lopez-Lopez et al., 2011). MTX-ren toxizitateak lortutako farmako kontzentrazioen araberakoak dira, baita ekintza denboraren araberakoak ere, hori dela eta, MTX-ren kanporatzea ziurtatu behar da. Arrazoi honegatik, dosi altuko MTX terapian zehar, maila plasmatikoak modu estuan monitorizatzen dira infusioa amaitu eta 2 ordutara hasi eta mailak 0,2  $\mu\text{mol/l}$  azpitik egon arte. ADME prozesuetako proteinak, eta zehatzago MTX garraiatzaileak (12. irudia) eginkizun garrantzitsua betetzen dute farmakoen kanporaketan eta beraz MTX-ren kontzentrazio plasmatikoetan.



**12. irudia.** MTX-ren garraiatzaileak giltzurrun eta gibel zeluletan.


Gainontzeko toxizitateentzat bezala, MTX-aren maila plasmatikoen kasuan ere interes handikoa da iraizketa eraginkortasun baxuagoaren ondorioz, farmakoaren maila plasmatiko altuak zein pazientek aurkeztuko dituzten iragartzea, horrela, tratamendua hasieratik egokitu eta kontzentrazio altuek eragiten dituzten toxizitateak ekiditeko.

Laburbilduz, LLA terapia jasotzen duten haurrek forma arinetatik larriagoetara doazen toxizitateak jasango dituzte, kasu gehienetan bere onera itzuliko direnak baina baita zenbaitetan epe luzerako ondorioak utz ditzaketenak ere. Testuinguru honetan, ikerketa farmakogenetikoek haurtzaroko LLA terapia hobeto egokitzeko eta ondorioz eragin desiragitzak murrizteko tresna bikaina eskaintzen dute (Ansari and Krajacic, 2007).

#### 4. FARMAKOGENETIKA LLA-n

Farmakogenetika, norbanakoaren ezaugarri genetikoetan oinarrituz, paziente batentzat farmako eraginkor eta seguruenak zein izango diren iragartzeko tresna bat da (Shomron 2010; Rukov and Shomron 2011). LLA terapiaren toxizitatean aldaera genetiko germinalak determinatzale garrantzitsuak izango dira. Hauen adibide dira txertaketa eta deleziok (sekuentzia zati labur baten irabazte/galera), egitura aldaerak (sekuentzia zati handi baten irabazte/galera, adib. kopia kopuru aldaera) edo nukleotido bakarreko polimorfismoak (SNP).

Farmakogenomikaren ikerkuntzan egindako azterlan gehienetan SNP-ek duten eginkizunean errotu da, ADN-ren aldaera forma simpleena. SNP-ak base bakar bat beste bategatik ordezkatzearen ondorio dira, populazio orokorrean % 1 baino maiztasun altuagoan jazotzen direnak (13. irudia). Genoman zehar SNP-en maiztasuna 200-300 base paretik (bp) behinekoa da. Arestian gauzatutako eskala handiko ikerketek 15 milioi SNP inguru identifikatu dituzte giza genoman zehar (1000 Genomes Project Consortium et al., 2010), geneetan zehar eta eremu ez-genikoetan ere aurkitu direlarik eta posible izanik hauetan geneen funtzioari eragitea, farmakoen PK/PD geneak barne. SNP hauen presentziak azalduko luke tratamendu protokolo berdina jaso arren zergatik aurkezten dituzten pazienteek toxizitate profil edota larritasun gradu ezberdinak.



**13. irudia.** SNP baten irudi eskematikoa, lokus batentzat A/G/T aleloak erakutsiz hiru gizabanako desberdinietan.

Iturria: <https://www.whatisdna.net/wiki/single-nucleotide-polymorphisms/>

Testuinguru honetan, ahalegin handia inbertitu da ikerkuntzan, bai gene kandidatuen estrategian baita genoma osoko asoziazio ikerketan (GWAS) ere.

Gene kandidatuen estrategiak toxizitatearen bidezidor patofisiologikoan susmatzen diren geneak aztertzen ditu, aurrez farmakoaren garraio, metabolismo edo toxizitate/ekintza-

## Sarrera

mekanismoari buruz ezagutzen den informazioan oinarrituta. Azken urteotan, errendimendu altuko genotipazio teknologiak genoma osoan zeharreko aldaera genetikoen azterketa ahalbidetu du, azterlan hauek GWAS gisa dira ezagunak. GWAS hurbilketak, genoma osoaren ikuskatzea implikatzen du populazio afektatu eta ez afektatuen artean prebalentzia ezberdina duten aldaera germinalen identifikaziorako. Horrela, ikerketa hasi aurretik hipotesirik egiten ez denez, hurbilketa honetan mekanismo kausal interesgarri berriak sortzen dira (Maxwell and Cole, 2017; Moriyama et al., 2015).

### 4.1. LLA-ren farmakogenetika

Haurtzaroko LLA-ren terapien farmakogenetikaren alorreko ikerketa anitz burutu dira, batez ere farmakoen bidezidor PK eta PD-etako geneen aldaerak aurkitu direlarik, eragin desiragaitzak garatzeko arriskua azaltzeko balio dutenak neurri batean.

VCR-k eragindako neurotoxizitateari dagokionez, emaitzarik interesgarrienetako bat, Diouf eta lankideek aurkitu zuten LLA-dun paziente pediatriko talde handi batean gauzatutako GWAS batean (Diouf et al., 2015). Ikerketa honek, tratamendu fase berantiarretako neuropatia periferikoaren eta bidezidor PD-ko *CEP72* genean dagoen rs924607 SNP-aren artekos asoziazioa erakutsi zuen. Bidezidor PK-koak diren *ABCC2*, *ABCB1* edo *CYP3A5* geneetako beste SNP batzuk, neurotoxizitatearekin asoziatu dira (Ceppi et al., 2014; Egbelakin et al., 2011; Lopez-Lopez et al., 2016; Plasschaert et al., 2004). Hauetako SNP batzuek adierazpenaren erregulazioa aldatzeko gaitasuna dute edo eremu intronikoetan kokatuak daude, beraz farmakoen PK/PD geneetako beste edozein aldaketa ere neurotoxizitatean implikatua egon liteke.

Hepatotoxizitateari dagokionez, plasmako transaminasen igoerarekin asoziaturiko zenbait polimorfismo identifikatu dira. Adibide aipagarri bat PNPLA3-ko rs738409 SNP-a da, LLA zuten haurretan burututako GWAS batean aurkitu zen indukzio faseko hepatotoxizitatearekin indarrez asoziatua (Liu et al., 2017), berriki gure taldean erreplikatu den emaitza (Gutierrez-Camino et al., 2017a). Kontsolidazio fasean zehar, beste polimorfismo esanguratsu batzuk aurkitu dira MTX-ren PK/PD-ko geneetan, adib. *RFC1* (80G>A) (Gregers et al., 2010), *ABCB1* (3435C>T) (Gregers et al., 2015a) eta *MTHFR* (677C>T and 1298A>C) (Umerez et al., 2017), toxizitate hepatikorako emaitza argirik gabe. Bilirrubinaren igoera gisa neurrtutako hepatotoxizitateari dagokionez, guk dakigun arte, ez dira horrelako ikerketarik gauzatu. Orain arte aldaera fidagarri gutxi batzuk besterik ez dira aurkitu gibel toxizitatearekin asoziazioan, horregatik beharrezkoak dira ikerketa gehiago.

Toxizitate gastrointestinala aintzakotzat hartuz, kontsolidazio fasean zeharreko mukosisitaren eta MTX-ren bidezidorretako geneetako polimorfismoen arteko asoziazioak aurkitu dituzten zenbait ikerketa identifikatu ditugu. Hauetako polimorfismo gehienak MTX-ren bidezidor PK-ko geneetan kokatuak daude, esate baterako *ABCB1*, *ABCC1*, *ABCC2* edo *ABCC4* (Bektaş-Kayhan et al., 2012; Liu et al., 2014a; Lopez-Lopez et al., 2013). Alabaina, toxizitate hau oso gutxi analizatu da tratamenduaren beste fase batzuetan zehar, non DNR eta CPA bezalako beste farmako mukotoxiko batzuk ere administratzen diren.

MTX-ren maila plasmatikoei dagokienez, urte gutxitan, ikerketa kopuru handi batek analizatu du polimorfismo genetikoen eta MTX-ren argitzearen arteko harremana. Emaitza interesarrienetako batzuk MTX-ren garaiatzaleetan aurkitu dira. Emaitza sinesgarrienak gaur arte *SLCO1B1* garaiatzalearentzat aurkitu dira. Garaiatzale honek bi SNP, rs4149081 eta rs11045879, MTX argitzearekin asoziatu ziren lehen aldiz Treviño eta lankideek LLA-dun haurretan gauzatutako GWAS batean (Trevino et al. 2009). Lehen aurkikuntza honen ondoren, hurrengo ikerketetan aldaera hauek eta *SLCO1B1*-ko beste batzuk konfirmatu dira (Lopez-Lopez et al. 2011; Ramsey et al. 2013; Radtke et al. 2013; Lopez-Lopez et al. 2013; Ramsey et al. 2012). Ikerketa hauen ondorioz, beste lan batzuek ere MTX-ren garaiatzaleetako aldaeren analisira zuzendu dute beren interesa, *SLC19A1*, *ABCC4*, edo *ABCC2* bezalako geneetako zenbait SNP aurkituz MTX mailekin asoziaturik (Lopez-Lopez et al. 2013; Laverdiere et al. 2002). Nabarmentzekoa da, *ABCC4*-ren baitako rs9516519 MTX maila plasmatikoein asoziatu izana (Lopez-Lopez et al., 2013), mikroRNA (miRNA) baten atxipen eremuan kokatutako SNP-a izanik miRNA-tako aldaerek ere MTX-ren maila plasmatikoen aldaketak azalduko lituzkeela iradokitzen baitu.

Emaitza guzti hauek, miRNA-k bezalako RNA molekula ez-kodifikatzailen interferentzia mekanismoek toxizitate garapenean lagun lezaketela iradokitzen dute, farmakoen PK/PD geneen adierazpena erregulatzeko gaitasuna dutelako (Lopomo and Coppedè, 2017).


#### 4.2. MikroRNAk

MiRNA-ek 18-22 nukleotido luze diren harizpi bakarreko RNA familia handi bat osatzen dute, maila postranskripzionalean gene adierazpenaren erregulatziale giltzarri gisa agertu direnak, geneen isiltzea eraginez. MiRNAk II RNA polimerasa bidez genomako kokapen ezberdinatik transkribatzen dira pri-miRNA izeneko transkribatu primario luze batzuetara (hbiDNA, 300-5000 bp). Ezaugarri moduan, pri-miRNA-k, 30-40 nukleotido luze den harizpi bikotzeko RNA (hbiRNA) zati zentral bat, lakin terminal bat eta elkarri kontrajarritako harizpi bakarreko bi RNA (hbaRNA)

## Sarrera

zati ditu. Pri-miRNA-k nukleoan prozesatzen dira DROSHA RNasa eta hbiRNA lotzeko domeinuak dituen DGCR8-k osatutako konplexuaren bidez. HbiRNA sekuentziak bere egitura sekundarioa eta proteina prozesatzaileei atxikitzeko gaitasuna zehazten du.

Pri-miRNA-en prozesamendu ostean, molekula txikiago hauek (70 nukleotido ingurukoak) pre-miRNA gisa ezagutzen dira. Pre-miRNAk nukleotik zitoplasmara garraiatzen dira Exportine5 (XPO5) eta RAN-GTPasa bidez (Bohsack et al., 2004; Kim, 2004). Zitoplasman, pre-miRNAk Dicer (Hutvágner et al., 2001; Merritt et al., 2010) eta TARBP2 entzimen bidez prozesatzen dira, zeintzuek lakoa deusezten duten, miRNA duplex izenez ezaguna den hbiRNA molekula sortuz (Song et al., 2003). MiRNA duplex-a harizpi bakarra duen miRNA heldua sortzeko banatzen da. MiRNA duplex-etik aukeratutako harizpia RISC (RNA-induzitze konplexu isiltzailea) izenez ezagutzen den proteina anitzen konplexura txertatzen da, EIF2C1 (AGO1), EIF2C2 (AGO2), SND1, GEMIN3, GEMIN4 eta CCR-NOT geneez osatzen dena (Inada and Makino, 2014). RISC konplexuak miRNA heldua RNA mezularietara (mRNA) garraiatzen du, miRNA-en erregulazioaren azken ituak (Li et al., 2014). MiRNA mRNA-ren 3'UTR eremuetan dauden base osagarriei lotzen zaio (14. irudia).



**14. irudia.** MiRNA-ren biogenesia eta ekintza mekanismoa.


Iturria: Ryan et al 2010-ekitua (Ryan, Robles, and Harris 2010).

MiRNA-ek *seed* izeneko 7bp-tako sekuentzia bereizgarri bat dute, ituen ezagutzarako balio duena. MiRNA-k *seed* sekuentzia eta honi osagarria den itu sekuentzia baten arteko lotura

espezifikoari esker jarduten du. Erregulazio mekanismoa miRNA-mRNA arteko osagarritasun graduaren araberakoa da: mRNA-ren degradazio zuzena, osagarritasuna erabatekoa denean; proteinen itzulpen blokeo/inhibizioa baseen parekatzea inperfektua denean (Gregory et al., 2006).

MiRNA *seed*-ei osagarriak diren sekuentziak motzak direnez, miRNA batek *seed* sekuentziari osagarri diren itu mRNA asko deuseztu ditzake edo itzulpena inhibitzen. Nolanahi ere, posible da gene bat miRNA anitzek erregulatzea. *Seed* eremu osoa edo sekuentziaren zati bat partekatzen dituzten miRNAk familietan antolatu daitezke. Familia bateko miRNA-ek potentzialki mRNA talde berdina erregulatzen dute (Friedman et al., 2008; Lewis et al., 2005). MiRNA bakoitzarentzat, ustezko itu ugari daude iragarrita datu base ezberdinatan, alabaina, gaur egun miRNA ituak ez daude guztiz definituak eta interakzio gutxi batzuk baino ez daude esperimentalki balioztatuak.

MiRNA-ek gidatutako geneen erregulazioak eraldaketak jasan ditzake, bai miRNA mailen aldaketagatik (goranzko-erregulazioa edo beheranzko erregulazioa), bai *seed* sekuentziien aldaketagatik (atxikidura gaitasun galera). Hortaz, miRNA-en egitura sekundarioa erabakitzentzen duten pre-miRNA-tako SNP-ek (miR-SNP) beren egonkortasun edo prozesamendu eraginkortasuna alda lezakete, beraien mailei eraginez eta bestalde, miRNA-ren lotura determinatzen duten *seed* eremuetako SNP-ek bere ituen ezagutze zehatzean eragin lezakete (15. irudia) (Ryan et al., 2010).



**15. irudia.** miRNA-tako SNP-en efektua: a) Pre-miRNA-tan: egitura sekundarioen aldaketa edo miRNA-ren prozesamendu aldaketagatik miRNA mailen goranzko eta beheranzko erregulazioak; b) *Seed* sekuentzian: miRNA-mRNA osagarritasunaren aldaketa edo galera.

## Sarrera

Erregulazio mekanismo honen bitartez miRNA-ek giza geneen % 50 baino gehiago erregula ditzakete, farmakoen bidezidor PK/PD-ko geneak barne (Li et al., 2016; Nakajima and Yokoi, 2011). Ondorioz, miRNA-tako SNP-ek farmakoen PK/PD-ko geneak asaldatu ditzakete eta paziente batzuek toxizitate farmakologikoa garatzeko duten suszeptibilitatea azalduko lukete.

### 4.3. MiR Farmakogenetika

Farmakoen erantzunean miRNA-en inplikazio printzipioak, miRNA adierazpen areagotuak farmakoen eraginkortasuna sustatzen duten proteinak kodifikatzen dituzten geneak beherantz erregulatzen dituela ematen du aditzera. Era kontrajarrian, miRNA maila murriztuek produktutzat farmakoen funtzio inhibitzaileak dituzten geneen goranzko erregulazioa dakarte (Rukov et al., 2014).

Izatez, miRNA, itu geneen adierazpen eta farmako erantzunaren arteko interakzioak aurkeztu dira dagoeneko. Esate baterako, miR-21 gainadierazpenak *PDCD4* adierazpena inhibitu zuen eta artseniko trioxido tratamenduan zeuden zelulen apoptosisa ekidin zuen (Li et al., 2010). Beste adibide batzuk miR-15 eta miR-16 dira, zeintzuen beheranzko erregulazioak *BCL2*-ren gainadierazpena bultzatu zuen eta ondorioz minbizi zelulen farmako askorekiko erresistentzia fenotipo garapena (Xia et al., 2008). Prozesu biek (miRNA adierazpen areagotua eta murriztua) alda lezakete farmakoen funtzioa eta beraz miRNA-k farmako eraginkortasunaren erregulatzale indartsu bilakatu (Rukov et al., 2014). MiRNA-en eginkizun garrantzitsu hau kontuan izanda, miRNA funtzioaren aldaketak aztertzen dituzten ikerketek farmakogenomikan importantsia hartzen dihardute.

MiRNA-tako SNP-ei dagokienean, kimioterapikoek erangindako toxizitatearekin lotutako SNP-en zenbait adibide aurki daitezke literaturan. Honen adibide izan liteke hsa-miR-196a2-ko rs11614913 eta platino-kimioterapiaren toxizitate orokor larriaren artean ikusitako asoziazioa biriketako zelula ez txikien minbizi pazienteetan (Zhan et al., 2012). Bigarren adibide bat miR-27a-ko rs895819 da, fluoropirimidinen toxizitate larri arriskuan dauden pazienteen identifikazioarako markatzaile kliniko erabilgarri gisa zehaztu dena dihidropirimidina deshidrogenasa geneko aldaeren determinazioarekin konbinatzen denean (Meulendijks et al., 2016). Rs895819-ren G aldaera aleloa miR-27a-ren maila areagotuekin eta fluoropirimidinak metabolizatzen dituen dihidropirimidina deshidrogenasa adierazpen murriztuarekin asoziatu zen, zeinak ondorioz administratutako fluoropirimidinen erdibitzta luzatuko zukeen eta beraz toxizitate larria jasateko suszeptibilitatea areagotu (Amstutz et al., 2015).

B-LLA-ri dagokionez, gure taldean aurrez gauzatutako ikerketa batean 42 miRNA-tako 46 SNP analizatu ziren tratamenduaren toxizitate markatzaileak aurkitzeko asmoz. Ikerketa honek LLA tratamenduaren toxizitate desberdinekin asoziaturiko zenbait SNP identifikatu zituen. Adibidez, miR-453-ko (miR-323b bezala ere ezagutzen dena) rs56103835 MTX-ren plasma argitzearekin esaguratsuki asoziatua zegoela aurkitu zen (Lopez-Lopez et al., 2014a). Interesgarria da zehaztea, miRNA honek ustezko itu gisa *ABCC4* genea duela, zeinak MTX-ren garraioan parte hartzen duen. Gainera, miR-1206-ko rs2114358 konsolidazio fasean MTX-ak eragindako mukositisarekin asoziatua zegoela ere aurkitu genuen (Gutierrez-Camino et al., 2017b).

Aipatu berri dugun ikerketaz geroztik (soilik 46 miRNA aztertu zituen) zehaztu diren miRNA kopuruak 2500 arte nabarmen gora egin duela kontuan izanda (Kozomara and Griffiths-Jones, 2014) eta gaur egun miRNA ituak guztiz definituak ez daudela eta farmako erantzunean implikatuta dauden geneen erregulazioan edozein miRNA implikatuta egon litekela konsideratz, interes handikoa da, egun deskribatuta dauden miRNA-tako aldaerak, haurtzaroko LLA-ren terapian zehar garatzen diren toxizitateekin asoziaturik ote dauden zehaztea.



## ***HIPOTESIA ETA HELBURUAK***



## **5. HIPOTESIA**

Haurtzaroko LLA-ren biziraupen tasek gora egin dute neurri batean terapia intentsoaren ondorioz, hala ere, tratamendu honek eragiten dituen toxizitateek sarri inpaktu negatibo bat dute biziraupen tasetan.

Ikerketa farmakogenomikoek jada identifikatu dituzte farmakoen PK/PD geneei eragin diezaieketen aldaerak haurtzaroko LLA-n garatzen diren toxizitateak iragartzeko markatzaile gisa. Gaur egun ezagutzen da miRNA-ek farmakoen bidezidor PK/PD-etako geneen adierazpenean eragina dutela eta atariko ikerketek iradoki dute jada, miRNA-tako aldaera genetikoek beren maila eta funtziotik eraginez bidezidor PK/PD-etako geneak asaldatu ditzaketela.

Beraz, Ian honetan proposatzen dugu itu moduan PK/PD-ko geneak zein toxizitateekin erlazionatutako beste gene batzuk dituzten miRNA-tako aldaerak haurtzaroko B-LLA terapian zehar azaltzen diren toxizitateen arriskuan inplikatuta egon litezkeela eta toxizitate markatzaile gisa erabil daitezkeela

## **6. HELBURUAK**

Ikerketa honen jomuga nagusia miRNA-tako aldaera genetikoak hautzaroko B-LLA terapian zehar azaltzen diren toxizitate ohikoenekin asoziatuak egon zitezkeen zehaztea izan zen.

Jomuga hau lortzeko, miRNA-tako 213 SNP-en eta B-LLA-ren terapiak eragiten dituen toxizitate ohikoenen arteko asoziazioa analizatu genuen modu homogeneoan tratatutako haurtzaroko LLA-dun 179 pazientez osatutako kohorte batean. Hurrengo helburu zehatz hauek finkatu genituen:

1. VCR-k eragindako neurotoxizitate periferikoarekin asoziatutako miRNA-tako aldaera genetikoak zehaztea indukzio fasean.
2. ASP-k eta MTX-k eragindako gibel toxizitatearekin asoziatutako miRNA-tako aldaera genetikoak zehaztea indukzio eta kontsolidazio faseetan.
3. DNR, CPA eta MTX-ari lotutako toxizitate gastrointestinalarekin asoziatutako miRNA-tako aldaera genetikoak zehaztea indukzio fasean.
4. MTX-aren maila plasmatiko altuekin asoziatutako miRNA-tako aldaera genetikoak zehaztea kontsolidazio fasean.

## ***MATERIALAK ETA METODOAK***



## 7. IKERKETA POPULAZIOA

### 7.1. Pazienteak

Ikerketa honek guztira B-LLA-z diagnostikatutako 179 haur espainiar hartu zituen barne. B-LLA pazienteen laginak 2000 eta 2013 urteen bitartean jaso ziren erreferentziazko hiru ospitale espainiarretako Onkologia Pediatriko Unitateetan (Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea, La Paz Unibertsitate Ospitalea). Paziente guztiak homogeneoki LAL-SHOP 94/99/2005 espainiar protokolo estandarraren baitan tratatu ziren. Ikerketa populazioaren ezaugarriak 5. taulan jasota daude.

**5. taula.** Ikerketan sartu ziren B-LLA-dun pazienteen ezaugarri demografikoak.

<b>Paziente kopura, n</b>	179
<b>Sexua</b>	
Emakumezkoak, n (%)	74 (41,34)
Gizonezkoak, n (%)	105 (58,66)
<b>Diagnistikoko batezbesteko adina ± DE, urteak</b>	5,12 ± 3,23
<b>Tratamendu protokolo bakoitzeko paziente kopurua, n (%)</b>	
LAL/SHP 94, n (%)	9 (5,02)
LAL/SHP 99, n (%)	60 (33,52)
LAL/SHP 2005, n (%)	108 (60,34)
Datarik ez, n (%)	2 (1,12)

**Laburdurak:** DE, desbideraketa estandarra.

Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) onesprena (CEISH/102R/2011) jaso zuen eta lagin bilketa aurretik paziente guztieng eld beraien gurasoen (12 urte baino gutxiago zituzten pazienteen kasuan) idatzizko baimen informatua eskuratu zen, Helsinki Aitorpenak ezarri bezala.

Datu demografiko zein klinikoak modu objektiboan eta genotipoei itsu jaso ziren pazienteen historia klinikoetatik, kasu guztieta bi ikertzaile aditu berberen eskutik. Paziente bakoitzarentzat, jasotako datuak honakoak izan ziren: sexua eta adina diagnostikoaren unean; neurotoxizitate zeinu eta sintomak tratamendu fase guztieta; gibel funtziak, plasmako transaminasa (aspartato aminotransferasa (AST) eta alanina aminotransferasa (ALT)) eta bilirrubina maila gorenak definituak fase guztieta; traktu gastrointestinaleko toxizitateen presentzia (mukositisa, beherakoa eta goragale/gonbitoak) tratamendu fase guztieta; giltzurrun funtziari buruzko datuak, plasmako kreatinina maila gorenak definitua tratamendu fase guztieta eta MTX dosia ( $3 \text{ g/m}^2$  edo  $5 \text{ g/m}^2$ ) eta maila plasmatikoak 48 h, 72 h eta 96 h-tara kontsolidazio fasean zehar (6. taula).

## Materialak eta Metodoak

**6. taula.** Aztertutako toxizitateak eta fase bakoitzean detektatutako frekuentziak aztertutako LLA populazioan.

	Indukzio Fasea	Kontsolidazio Fasea	Intentsifikazio Fasea	Mantenimendu Fasea
<b>Neurotoxizitatea, n (%)</b>				
1-4 gradukoak	47 (26,26)	11 (6,15)	9 (5,03)	1 (0,56)
1-2 gradukoak	28 (15,64)	—	—	—
3-4 gradukoak	19 (10,61)	—	—	—
<b>Hipertransaminasemia, n (%)</b>				
2-4 gradukoak	55 (30,73)	49 (27,37)	15 (8,38)	19 (10,61)
2 gradukoak	25 (13,97)	28 (15,64)	—	—
3-4 gradukoak	29 (16,20)	19 (10,61)	—	—
Daturik ez	1 (0,56)	2 (1,12)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>Hiperbilirrubinemia, n (%)</b>				
1-4 gradukoak	29 (16,20)	14 (7,82)	7 (3,91)	7 (3,91)
Daturik ez	9 (5,03)	11 (6,15)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>Mukositisa, n (%)</b>				
2-4 gradukoak	36 (20,11)	16 (8,94)	15 (8,38)	0 (0,00)
Daturik ez	9 (5,03)	11 (6,15)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>Beherakoa, n (%)</b>				
2-4 gradukoak	22 (12,29)	10 (5,59)	12 (6,70)	0 (0,00)
Daturik ez	9 (5,03)	11 (6,15)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>Goragaleak/gonbitoak, n (%)</b>				
2-4 gradukoak	45 (25,14)	40 (22,35)	21 (11,73)	5 (2,79)
Daturik ez	9 (5,03)	11 (6,15)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>Nefrotoxizitatea, n (%)</b>				
1-4 gradukoak	6 (3,35)	7 (3,91)	5 (2,79)	0 (0,00)
Daturik ez	8 (4,47)	11 (6,15)	9 (5,03)	9 (5,03)
<b>MTX dosia kontsolidazioan, n (%)*</b>				
3 g/m <sup>2</sup>	—	77 (43,02)	—	—
5 g/m <sup>2</sup>	—	101 (56,42)	—	—
<b>MTX maila plasmatikoak kontsolidazioan, n (%)</b>				
Globala (edozein momentutan)	—	62 (34,64)	—	—
48h (maila plasmatikoa >1 μM)	—	43 (24,02)	—	—
72h (maila plasmatikoa >0,2 μM)	—	56 (31,28)	—	—
48h (maila plasmatikoa >1μM) eta 72h (>0,2μM)	—	41 (22,91)	—	—
96h (maila plasmatikoa >0,2 μM)	—	33 (18,44)	—	—
<b>Toxizitate hematologikoa ^</b>				
Anemia ( $\geq 2$ gradukoak)	71/75	56/71	—	—
Neutropenia ( $\geq 2$ gradukoak)	71/75	58/75	—	—
Trombozitopenia ( $\geq 2$ gradukoak)	65/75	58/75	—	—

**Oharrak:** \*, paziente batentzat ez ziren MTX datuak jaso; —, ez aplikagarria edo neurtu gabea; ^, datu hematologikoak bi ospitaletako 75 pazientetan jaso ziren.

## 7.2. Toxizitatearen ebaluazioa

Neurotoxizitatea MOE-ren Nerbio Sistema Periferikoko toxizitate irizpideen arabera graduatu zen (7. taula); hiru fenotipo kontsideratu ziren: edozein gradutako neurotoxizitatea (1–4 graduko), gradu baxuko neurotoxizitatea (1–2 graduko) eta gradu altuko neurotoxizitatea (3–4 graduko).

**7. taula.** Neurotoxizitate periferikoaren larritasuna graduatzeko MOE-ren toxizitate graduazio eskala.

PERIPHERAL NERVOUS SYSTEM				
PARAMETROA	1 GRADUA	2 GRADUA	3 GRADUA	4 GRADUA
Neuropatia/Beheko atalen neuropatia motorea		Parestesia arina soilik behin-behinekoa.	Parestesia progresibo edo iraunkorra, oinetako erremin sentsazioa, edo disestesia arinak; ahultasunik ez; tendoi sakonen erreflexu (TSE) aldaketa arin moderatuak; sentsibilitate galerik ez.	Ahultasun garrantzitsu baten ezarpena, TSE murrizketa edo desagerpena, galtzerdi-eskularru distribuzioko sentsibilitate galera, sentsibilitate erradikular galera, nerbio kranial anitzen inplikazioa; gernu-maskuri edo hesteen disfuntzioa; faszikulazioak, horma torazikoaren ahultasunak eragindako arnasketa asaldura.
Miopatia edo lotura neuromuskularren kaltea	CPK igoera Normala edo arina (<2 x ULN)	Ahultasun proximal arina eta/edo funtziomotore nagusienak kaltetzen ez dituen atrofia. Mialgia arinak, +/- CPK igoera arina (<2 x ULN)	Muskulu proximalen ahultasuna eta/edo funtzionotorea kaltetzen duen atrofia +/- CPK igoera; edo mialgia larriak CPK >2 x ULN;	Miastenia-gisako sintomen ezarpena (ahultasun nekagarrria, kanpo oftalmoplejia aldakor eta/edo ptosiarekin), edo lotura neuromuskularren blokeo sintomak (paralisi akutua).

Hepatotoxizitatea AST edo ALT aminotransferasen eta bilirrubinaren igoera gisa neurtu zen. Hipertransaminasemia MOE-ren irizpideetatik egokitutako Hematologia eta Onkologia Pediatriko Erakunde Espainiarren estandarren arabera graduatu zen (8.taula). Transaminasen maila hepatotoxikotzat hartu zen 2 gradutik 4 gradura ( $>2.6 \times$  Normaltasunaren Goi Muga, ULN) eta hepatotoxikotasun altutzat 3 gradutik 4 gradura ( $>5.1 \times$  ULN). Hiperbilirrubinemiarri dagokionez, pazienteak larritasun mailaren arabera graduatu ziren, 1 gradutik hasita kontsideratu zelarik.

**8. taula.** Hepatotoxizitatearen larritasuna zehazteko LAL-SHOP protokoloak darabilen eskala, MOE-ren irizpideetatik egokitutakoa.

	1 gradukoa	2 gradukoa	3 gradukoa	4 gradukoa
<b>AST (SGOT)</b>	1,25 – 2,5 x ULN	2,6 - 5 x ULN	5,1 - 10 x ULN	> 10 x ULN
<b>ALT (SGPT)</b>	1,25 – 2,5 x ULN	2,6 - 5 x ULN	5,1 - 10 x ULN	> 10 x ULN
<b>Hiperbilirrubinemía</b>	1,1-1,5 x ULN	1,6-2,5 x ULN	2,6-5 x ULN	>5 x ULN

## Materialak eta Metodoak

Toxizitate gastrointestinala mukositis, beherako edo goragale/gonbito gisa ebaluatu zen tratamenduaren fase guzietan zehar, eta MOE-ren irizpideei jarraiki graduatu zen 1 gradutik 4 gradura (9. taula). Toxikotzat hartu ziren 2 gradutik 4 gradura bitarteko kasuak.

**9. taula.** Toxizitate gastrointestinalaren larritasuna zehazteko LAL-SHOP protokoloak darabilen eskala, MOE-ren irizpideetatik egokitutakoa.

	<b>1 gradukoak</b>	<b>2 gradukoak</b>	<b>3 gradukoak</b>	<b>4 gradukoak</b>
<b>Mukositisa</b>	Ondoez/min arina, eritema	Eritema, ultzera (solidoak jateko aukera)	Ultzerak (soilik dieta likidoa posible)	Jateko ezintasuna
<b>Beherakoa</b>	Iragankorra (<2 egun)	Jasangarría baina >2 egun	Jasanezina, tratatu behar dena	Hemorragiak eta deshidratazioa
<b>Goragale/Gonbitoak</b>	Goragalea	Gonbito iragankorrak	Tratatu behar diren gonbitoak	Gonbito trataezinak

MTX mailak altutzat jo ziren baldin eta kontzentrazio plasmatikoek 48 h-tara 1  $\mu\text{mol/l}$  edo 72 h-tara edo 96 h-tara 0,2  $\mu\text{mol/l}$  gainditzen bazuten behintzat konsolidazio faseko hiru dosietako baten ostean. Gainera, plasmako MTX maila altu globala konsideratu zen, MTX maila ezarritako mugak baino altuago egon bazen zikloren batean.

Nefrotoxizitatea 1 gradutik 4 gradura konsideratu zen plasmako kreatininaren  $>1.26 \times \text{ULN}$  maila batetik hasita (10. taula).

**10. taula.** Nefrotoxizitatearen larritasuna zehazteko LAL-SHOP protokoloak darabilen eskala, MOE-ren irizpideetatik egokitua.

	<b>1 gradukoak</b>	<b>2 gradukoak</b>	<b>3 gradukoak</b>	<b>4 gradukoak</b>
<b>Kreatinina</b>	1.26-2.5 $\times \text{ULN}$	2.6-5 $\times \text{ULN}$	5.1-10 $\times \text{ULN}$	$>10 \times \text{ULN}$

Ikerketa honetan, 6. taulan aipatutako toxizitate guztiak aztertu genituen, nefrotoxizitatea izan ezik, gure populazioan toxizitate hau oso paziente gutxik garatu zutelako. Gainera, toxizitate hematologiako ere ez genuen aztertu, datu bilketaren unean ikerketan sartutako ia paziente orok anemia, neutropenia edo tronboцитopenia gradu bat pairatzen zutela behatu baikenuen (indukzio fasean datu hematologikoak jaso ziren 75 pazienteetatik 71 pazientek zuten toxizitatea), eta beraz asoziazio ikerketa aurrera eramateko bi talde alderagarri ez genituelako.

## 8. LAGINEN PROZESAMENDUA

### 8.1. ADN erauzketa

ADN genomiko germinala erremisioan zeuden LLA-dun pazienteen odol periferiko edo hezur muinetik (blasto zelula % < 5) erauzi zen fenol-kloroformo metodoa erabiliz (Sambrook, J 2001).

### 8.2. ADN kuantifikazioa eta kalitate ikuskatzea

ADN kontzentrazioa eta kalitatea NanoDrop® ND-1000 espektofotometro bidez estimatu ziren. 260 eta 280 nm-tako absorbantzia ratioak erabili ziren ADN-aren purutasuna zehazteko. Orokorean ADN-rentzat ~1,8-ko ratio bat onartu zen “puru” gisa.

## 9. MIKRORNA GENEETAKO POLIMORFISMOEN AUKERAKETA

Toxizitateari lotutako pre-miRNA-tako SNP (miR-SNP) gutxi batzuk ikertu direnez LLA-ren terapian eta kontuan izanik:

1. *Seed* eremuetan kokatutako SNP-ek miRNA-mRNA interakzioa ezegonkortu edo miRNA ituak aldatu ditzaketela.
2. miR-SNP-ek beren prozesamenduan eta/edo ituen aukeraketan (miRNA-mRNA interakzioa) eragin dezaketela (Slaby et al., 2012).
3. MiRNA-ek gaur egun guztiz definitu gabe dauden gene multzo zabal bat erregulatu dezaketela eta ondorioz LLA-ren terapian azaltzen diren toxizitateetan edozein miRNA-k eragin dezakeela.
4. Aukeraketaren unean, populazio kaukasiarrarentzat deskribatutako alelo urrienaren maiztasuna (AUM) % 1 baino altuagoa zuten miR-SNP-en kopurua metodologikoki maneiagarria zela.

Aukeraketa egin zen unean (2014-ko maiatza) deskribatuta zeuden pre-miRNA geneetako SNP guztiak ikerketaren barne hartza erabaki genuen.

MiR-SNP-en bilaketarako, aukeraketa unean mibase-en ([www.mirbase.org](http://www.mirbase.org)) deskribatutako miRNA guztiak SNIPER datu-basean (<http://www.integratomics-time.com/miRNA-SNiPer/>) sartu ziren. Ondoren, dbSNP (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/SNP/>) datu-basea erabiliz SNP bakoitzaren AUM bilatu zen. Aukeraketaren unean ezagutzen ziren eta populazio europar/kaukasiarrean AUM % 1 baino altuagoa zuten (AUM  $\geq$ 0,01) miR-SNP guztiak aukeratu ziren, guztira 206 miRNA-tako 213 SNP (11.taula).

*Materialak eta Metodoak*

**11. taula.** Aukeratutako pre-miRNA-tako polimorfismoen zerrenda.

Genea	SNP-a	Aleloak	Kromosoma	Kokapena	
1	hsa-mir-449b	rs10061133	A>G	5	54466544
2	mir-1302-4	rs10173558	T>C	2	208133995
3	hsa-mir-5196	rs10406069	G>A	19	35836530
4	hsa-mir-4745	rs10422347	C>T	19	804959
5	hsa-mir-548ae-2	rs10461441	T>T	5	57825920
6	hsa-mir-2053	rs10505168	A>G	8	113655752
7	hsa-mir-4700	rs1055070	T>G	12	121161048
8	hsa-mir-943	rs1077020	T>T	4	1988193
9	hsa-mir-6074	rs10878362	T>T	12	66417493
10	hsa-mir-544b	rs10934682	T>G	3	124451312
11	hsa-mir-603	rs11014002	T>T	10	24564653
12	hsa-mir-1343	rs11032942	T>T	11	34963459
13	mir-624	rs11156654	T>A	14	31483955
14	hsa-mir-5579	rs11237828	T>T	11	79133220
15	hsa-mir-1265	rs11259096	T>C	10	14478618
16	hsa-mir-196a-2	rs11614913	C>T	12	54385599
17	hsa-mir-548at	rs11651671	T>T	17	40646803
18	hsa-mir-5092	rs11713052	C>G	3	124870376
19	hsa-mir-4792	rs11714172	T>G	3	24562877
20	hsa-mir-3192	rs11907020	T>C	20	18451325
21	hsa-mir-4653	rs11983381	A>G	7	100802786
22	hsa-mir-548a-1	rs12197631	T>T	6	18572056
23	hsa-mir-202	rs12355840	T>C	10	135061112
24	hsa-mir-3117	rs12402181	G>A	1	67094171
25	hsa-mir-1269b	rs12451747	T>T	17	12820632
26	hsa-mir-4744	rs12456845	T>C	18	46576058
27	hsa-mir-4433	rs12473206	T>T	2	64567916
28	hsa-mir-4274	rs12512664	A>G	4	7461769
29	hsa-mir-4277	rs12523324	T>T	5	1708983
30	hsa-mir-4293	rs12780876	T>A	10	14425204
31	hsa-mir-612	rs12803915	G>A	11	65211979
32	hsa-mir-4309	rs12879262	G>C	14	103006047
33	hsa-mir-300	rs12894467	C>T	14	101507727
34	hsa-mir-1294	rs13186787	T>T	5	153726769
35	hsa-mir-3152	rs13299349	G>A	9	18573360
36	hsa-mir-548ac	rs1414273	T>T	1	117102649
37	hsa-mir-3175	rs1439619	A>C	15	93447631
38	hsa-mir-5007	rs1572687	C>T	13	55748673
39	hsa-mir-3612	rs1683709	C>T	12	128778703
40	hsa-mir-5700	rs17022749	T>T	12	94955603
41	hsa-mir-2110	rs17091403	C>T	10	115933905
42	hsa-mir-4422	rs17111728	T>C	1	55691384
43	mir-1908	rs174561	T>C	11	61582708
44	hsa-mir-3143	rs17737028	A>G	6	27115467
45	hsa-mir-633	rs17759989	A>G	17	61021611
46	hsa-mir-3652	rs17797090	G>A	12	104324266
47	hsa-mir-4733	rs17885221	C>T	17	29421443
48	hsa-mir-5197	rs2042253	A>G	5	143059433
49	hsa-mir-605	rs2043556	A>G	10	53059406
50	hsa-mir-4511	rs2060455	T>T	15	66011630
51	hsa-mir-3620	rs2070960	C>T	1	228284991
52	hsa-mir-1206	rs2114358	T>C	8	129021179
53	hsa-mir-4494	rs215383	G>A	12	47758032
54	hsa-mir-3130-1	rs2241347	T>T	2	207647981
55	hsa-mir-4707	rs2273626	C>A	14	23426182
56	hsa-mir-492	rs2289030	C>G	12	95228286
57	hsa-mir-1229	rs2291418	C>T	5	179225324
58	hsa-mir-564	rs2292181	G>C	3	44903434
59	hsa-mir-149	rs2292832	T>T	2	241395503
60	hsa-mir-604	rs2368392	C>T	10	29834003

**11. taula.** Aukeratutako pre-miRNA-tako polimorfismoen zerrenda (Jarraipena).

Genea	SNP-a	Aleloak	Kromosoma	Kokapena	
61	hsa-mir-4432	rs243080	C>T	2	60614572
62	hsa-mir-4636	rs257095	A>G	5	9053945
63	hsa-mir-1208	rs2648841	C>A	8	129162433
64	hsa-mir-3183	rs2663345	T>T	17	925764
65	hsa-mir-4804	rs266435	C>G	5	72174432
66	hsa-mir-6128	rs2682818	C>A	12	81329536
67	hsa-mir-4308	rs28477407	C>T	14	55344901
68	hsa-mir-378d-1	rs28645567	G>A	4	5925054
69	hsa-mir-4472-1	rs28655823	G>C	8	143257760
70	hsa-mir-1255a	rs28664200	T>C	4	102251501
71	hsa-mir-146a	rs2910164	G>C	5	159912418
72	hsa-mir-5695	rs2967897	G>G	19	13031210
73	hsa-mir-4803	rs3112399	T>A	5	71465361
74	hsa-mir-577	rs34115976	C>G	4	115577997
75	hsa-mir-4669	rs35196866	T>T	9	137271318
76	hsa-mir-2278	rs356125	G>A	9	97572244
77	hsa-mir-5189	rs35613341	C>G	16	88535407
78	hsa-mir-6076	rs35650931	G>C	14	50433227
79	hsa-mir-449c	rs35770269	A>T	5	54468124
80	hsa-mir-3166	rs35854553	A>T	11	87909673
81	hsa-mir-3936	rs367805	G>A	5	131701279
82	hsa-mir-6499	rs3734050	C>T	5	150901699
83	hsa-mir-499a	rs3746444	T>C	20	33578251
84	hsa-mir-5090	rs3823658	G>A	7	102106201
85	hsa-mir-4751	rs4112253	C>G	19	54786022
86	hsa-mir-96	rs41274239	A>G	7	129414574
87	hsa-mir-187	rs41274312	G>A	18	33484792
88	hsa-mir-154	rs41286570	G>G	14	10152612
89	hsa-mir-216a	rs41291179	A>T	2	56216090
90	hsa-mir-122	rs41292412	C>T	18	56118358
91	hsa-mir-3135b	rs4285314	T>T	6	32717702
92	hsa-mir-548ap	rs4414449	T>C	15	86368898
93	hsa-mir-6084	rs45530340	C>C	1	20960230
94	hsa-mir-548ap	rs4577031	A>T	15	86368959
95	hsa-mir-4268	rs4674470	T>C	2	220771223
96	hsa-mir-941-1	rs4809383	C>T	20	62550780
97	hsa-mir-548j	rs4822739	C>G	22	26951185
98	hsa-mir-5680	rs487571	T>T	8	103137693
99	hsa-mir-595	rs4909237	C>T	7	158325503
100	hsa-mir-608	rs4919510	C>G	10	102734778
101	hsa-mir-548al	rs515924	A>G	11	74110353
102	hsa-mir-3671	rs521188	A>G	1	65523519
103	hsa-mir-4424	rs56088671	T>T	1	178646884
104	hsa-mir-323b	rs56103835	T>C	14	101522556
105	hsa-mir-548aw	rs56195815	T>T	9	135821099
106	hsa-mir-5189	rs56292801	G>A	16	88535341
107	hsa-mir-1283-1	rs57111412	T>T	19	54191743
108	hsa-mir-559	rs58450758	T>T	2	47604866
109	hsa-mir-656	rs58834075	C>T	14	101533093
110	hsa-mir-888	rs5965660	T>G	X	145076302
111	hsa-mir-3928	rs5997893	G>A	22	31556103
112	hsa-mir-4762	rs60308683	T>T	22	46156446
113	hsa-mir-4326	rs6062431	G>C	20	61918164
114	hsa-mir-4467	rs60871950	G>A	7	102111936
115	hsa-mir-596	rs61388742	T>C	8	1765425
116	hsa-mir-3922	rs61938575	G>A	12	104985443
117	hsa-mir-412	rs61992671	G>A	14	101531854
118	hsa-mir-4772	rs62154973	C>T	2	103048780
119	hsa-mir-585	rs62376935	C>T	5	168690635
120	hsa-mir-4482	rs641071	T>T	10	106028157

*Materialak eta Metodoak*

**11. taula.** Aukeratutako pre-miRNA-tako polimorfismoen zerrenda (Jarraipena).

Genea	SNP-a	Aleloak	Kromosoma	Kokapena
121	hsa-mir-3679	rs6430498	G>A	2
122	hsa-mir-423	rs6505162	T>T	17
123	hsa-mir-646	rs6513496	T>C	20
124	hsa-mir-4731	rs66507245	T>T	17
125	hsa-mir-3622a	rs66683138	T>T	8
126	hsa-mir-6128	rs67042258	G>A	11
127	hsa-mir-3167	rs670637	T>T	11
128	hsa-mir-4642	rs67182313	A>G	6
129	hsa-mir-4431	rs6726779	T>C	2
130	MIR3910-1, MIR3910-2	rs67339585	T>T	9
131	hsa-mir-3135a	rs6787734	T>T	3
132	hsa-mir-4305	rs67976778	T>T	13
133	hsa-mir-3144	rs68035463	C>A	6
134	hsa-mir-1255b-1	rs6841938	T>T	4
135	hsa-mir-3683	rs6977967	A>G	7
136	hsa-mir-3686	rs6997249	T>T	8
137	hsa-mir-4427	rs701213	T>T	1
138	hsa-mir-378h	rs702742	A>G	5
139	hsa-mir-548aj-2	rs7070684	T>T	10
140	hsa-mir-1283-2	rs71363366	C>G	19
141	hsa-mir-140	rs7205289	C>C	16
142	hsa-mir-2117	rs7207008	T>A	17
143	hsa-mir-4741	rs7227168	C>T	18
144	hsa-mir-3188	rs7247237	C>T	19
145	hsa-mir-3689f	rs72502717	T>T	9
146	hsa-mir-105-2	rs72631816	T>A	X
147	hsa-mir-222	rs72631825	G>A	X
148	hsa-mir-16-1	rs72631826	T>T	13
149	hsa-mir-106b	rs72631827	G>G	7
150	hsa-mir-323b	rs72631831	G>G	7
151	hsa-mir-183	rs72631833	G>G	7
152	hsa-mir-3972	rs72646786	C>T	1
153	hsa-mir-3976	rs72855836	G>A	18
154	hsa-mir-4999	rs72996752	A>G	19
155	hsa-mir-4459	rs73112689	T>T	5
156	hsa-mir-1178	rs7311975	T>C	12
157	hsa-mir-647	rs73147065	T>T	20
158	hsa-mir-4532	rs73177830	T>T	20
159	hsa-mir-548h-4	rs73235381	T>T	8
160	hsa-mir-1269a	rs73239138	G>A	4
161	hsa-mir-4739	rs73410309	T>T	17
162	hsa-mir-4474	rs74428911	G>T	9
163	hsa-mir-6504	rs74469188	T>C	16
164	hsa-mir-3615	rs745666	C>G	17
165	hsa-mir-518d	rs74704964	C>T	19
166	hsa-mir-2682	rs74904371	C>T	1
167	hsa-mir-5702	rs74949342	C>G	2
168	hsa-mir-4719	rs7500280	T>T	16
169	hsa-mir-4477a	rs75019967	A>A	9
170	hsa-mir-4742	rs7522956	A>C	1
171	hsa-mir-520f	rs75598818	G>A	19
172	hsa-mir-944	rs75715827	T>C	3
173	hsa-mir-4298	rs75966923	C>A	11
174	hsa-mir-182	rs76481776	C>T	7
175	hsa-mir-4521	rs76800617	A>G	17
176	hsa-mir-1303	rs77055126	T>T	5
177	hsa-mir-4634	rs7709117	A>G	5
178	hsa-mir-576	rs77639117	A>T	4
179	hsa-mir-4743	rs78396863	G>C	18
180	hsa-mir-6075	rs78541299	G>A	5


**11. taula.** Aukeratutako pre-miRNA-tako polimorfismoen zerrenda (Jarraipena).

	Genea	SNP-a	Aleloak	Kromosoma	Kokapena
181	hsa-mir-6083	rs78790512	G>A	3	124093220
182	hsa-mir-4789	rs78831152	C>T	3	175087408
183	hsa-mir-4786	rs78832554	G>A	2	240882476
184	hsa-mir-4481	rs7896283	A>G	10	12695177
185	hsa-mir-1307	rs7911488	A>G	10	105154089
186	hsa-mir-597	rs79397096	G>A	8	9599276
187	hsa-mir-3976	rs79512808	T>G	5	82136024
188	hsa-mir-5707	rs80128580	G>A	7	158384368
189	hsa-mir-3176	rs8054514	T>G	16	593277
190	hsa-mir-4520a	rs8078913	C>T	17	6558768
191	hsa-mir-4698	rs832733	T>T	12	47581629
192	hsa-mir-550a-3	rs850108	T>T	7	29720404
193	hsa-mir-4751	rs8667	G>A	19	50436371
194	hsa-mir-4671	rs877722	A>T	1	234442257
195	mir-27a	rs895819	T>C	19	13947292
196	hsa-mir-4519	rs897984	T>T	16	30886643
197	hsa-mir-5689	rs9295535	T>T	6	10439968
198	hsa-mir-3141	rs936581	G>A	5	153975576
199	hsa-mir-5186	rs9842591	C>A	3	151283691
200	hsa-mir-5680	rs9877402	A>G	3	120768492
201	hsa-mir-548h-3	rs9913045	T>T	17	13446924
202	MIR4302	rs11048315	G>A	12	26026988
203	MIR3908	rs111803974	T>T	12	124021017
204	MIR299, MIR380	rs111906529	T>C	14	101489703
205	MIR520G	rs112328520	C>T	19	54225501
206	mir-1282	rs11269	G>G	15	44085909
207	MIR4532	rs113808830	C>T	20	56470456
208	hsa-mir-4479	rs116932476	G>A	9	139781193
209	MIR296	rs117258475	G>A	20	57392686
210	hsa-mir-6717	rs117650137	G>A	14	21491532
211	MIR3649	rs117723462	T>G	12	1769533
212	MIR4436B2	rs163642	T>T	2	111042483
213	MIR3689	rs62571442	A>G	9	137742124

## 10. SNP-EN GENOTIPAZIOA

MiR-SNP-en genotipazioa Genotipazio Zentro Nazionalean (CeGen-ISCIII) burutu zen, Veracode teknologiadun GoldenGate® Genotipazio Saiakuntza erabiliz argitaratutako Illumina protokoloaren arabera. GoldenGate® plataformak multiplex PCR entsegu bat baimentzen du, zeinak aldi berean SNP kopuru altu bat prozesatzea ahalbidetzen duen, denbora eta beharrezko errektibo eta materialak minimizatzuz.

GoldenGate® entseguak zenbait pausu ditu. Lehendabizi, ADN lagina (250 ng, 50 ng/ $\mu$ l-tara) biotinaz edo streptavidinaz markatzen da. Marka hau erabilgarria da gero emango den *primer*-en atxikimendurako. *Primer* hauek SNP bakoitzarentzat espezifikoki diseinatzen dira, hiru bakoitzarentzat: SNP-aren alelo bakoitzari espezifikoak diren bi *primer*, Oligo Alelo-Espezifikoak (ASO) eta hirugarrena SNP-aren gunetik *downstream* dauden zenbait base hibridatzen dituena, Oligo Lokus-Espezifikoa (LSO). LSO-ak SNP bakoitza identifikatzen duen kode bakar bat dauka. Hibridazioari jarraiki, hurrengo pausuak ASO-en estentsioa eta luzatutako produktua LSO-arekin lotzea dira. Ondoren eremu hauek PCR bidez amplifikatzen dira *primer* unibertsalak erabiliz. *Primer* hauek koloratzaile ezberdinekin markatzen dira ASO bakoitzarentzat (Cy-3 eta Cy-5) SNP-aren alelo bakoitzaren identifikazioa baimenduz. Produktu hauek SNP-en fluoreszentzia seinale irakurketarako matrize baten hibridatzen dira (16. irudia).



**16. irudia.** GoldenGate® genotipazio entseguaren ikuspegি orokorra.

## *Materialak eta Metodoak*

Erreakzio bakoitzeko guztira 400 ng ADN behar dira. ADN-a Spainiar Genotipazio Zentroan birkuantifikatu zen PicoGreen teknika (Invitrogen Corp., Carlsbad, CA) erabiliz eta 50 ng/ $\mu$ l-tako amaierako kontzentrazioa izateko diluitu zen. ADN kontzentrazioa neurtzeko teknika, ADN-ren harizpi bikoitzari lotzen zaion tindagai fluoreszente baten erabileran oinarritzen da (PicoGreen®, Molecular Probes), zeina ondoren fluorometro baten bidez kuantifikatzen den.

Datuak genotipoen *clustering* eta *calling*-erako GenomeStudio (Illumina Inc.) software bidez analizatu ziren. Plaketan zehar lagin bikoitzuak eta CEPH hirukoak (Coriell Cell Repository, Camden, New Jersey,AEB) genotipatu ziren. Transmisio-aleliko mendelialar akatsak edo genotipo diskordanteak erakusten zituzten SNP-ak analisitik baztertu ziren.

Guztira, aukeratutako 213 SNP-etatik 53 ikerketatik baztertu ziren (24.88%) laginen % 20 baino gehiagok genotipazioan huts egin zutelako (12. taula).

## Materialak eta Metodoak

**12. taula.** Ikerketatik baztertutako SNP-ak.

	SNP-a	Genea
1	rs10461441	hsa-mir-548ae-2
2	rs1077020	hsa-mir-943
3	rs10878362	hsa-mir-6074
4	rs11014002	hsa-mir-603
5	rs11032942	hsa-mir-1343
6	rs11237828	hsa-mir-5579
7	rs11651671	hsa-mir-548at
8	rs12197631	hsa-mir-548a-1
9	rs12451747	hsa-mir-1269b
10	rs12473206	hsa-mir-4433
11	rs12523324	hsa-mir-4277
12	rs13186787	hsa-mir-1294
13	rs1414273	hsa-mir-548ac
14	rs17022749	hsa-mir-5700
15	rs2060455	hsa-mir-4511
16	rs2241347	hsa-mir-3130-1
17	rs2292832	hsa-mir-149
18	rs2663345	hsa-mir-3183
19	rs35196866	hsa-mir-4669
20	rs4285314	hsa-mir-3135b
21	rs487571	hsa-mir-5680
22	rs56088671	hsa-mir-4424
23	rs56195815	hsa-mir-548aw
24	rs57111412	hsa-mir-1283
25	rs58450758	hsa-mir-559
26	rs60308683	hsa-mir-4762
27	rs641071	hsa-mir-4482
28	rs6505162	hsa-mir-423
29	rs66507245	hsa-mir-4731
30	rs66683138	hsa-mir-3622a
31	rs67339585	hsa-mir-3910-1 hsa-mir-3910-2
32	rs6787734	hsa-mir-3135a
33	rs67976778	hsa-mir-4305
34	rs6841938	hsa-mir-1255b-1
35	rs6997249	hsa-mir-3686
36	rs701213	hsa-mir-4427
37	rs7070684	hsa-mir-548aj-2
38	rs72502717	hsa-mir-3689f
39	rs73112689	hsa-mir-4459
40	rs73147065	hsa-mir-647
41	rs73177830	hsa-mir-4532
42	rs73235381	hsa-mir-548h-4
43	rs73410309	hsa-mir-4739
44	rs7500280	hsa-mir-4719
45	rs77055126	hsa-mir-1303
46	rs7911488	hsa-mir1307
47	rs832733	hsa-mir-4698
48	rs850108	hsa-mir-550a-3
49	rs897984	hsa-mir-4519
50	rs9295535	hsa-mir-5689
51	rs9913045	hsa-mir-548h-3
52	rs111803974	hsa-mir-3908
53	rs163642	hsa-mir-4436B2

## 11. ANALISI ESTATISTIKOAK

Genotipazio arrakasta tasa Haplovview (4.2.) software bidez kalkulatu zen.

Adina, sexua edo dosi kopura bezalako kobariableen eta toxizitateen arteko erlazioa erregresio logistiko multibariante ereduak eta korrelazio koefizienteak erabiliz neurtu zen. Toxizitate baten erlazioa fase ezberdinatan zehar edo indukzioan zehar toxizitate gastrointestinal ezberdinen (mukositisa, beherakoa eta gonbitoak) arteko erlazioa erregresio logistiko unibariante ereduak eta korrelazio koefizienteak erabiliz neurtu zen. MiRNA polimorfismoen eta LLA terapiaren toxizitate ezberdinen arteko asoziazioa  $\chi^2$  edo Fisher-en froga zehatz bidez ebaluatu zen. Asoziazioko efektuen tamaina odds ratio bidez estimatu zen. Eredu dominante eta errezesiboen arteko froga esanguratsuena aukeratu zen. Eredu dominanteak arrisku aleloaren kopia bakar bat arriskua eraldatzeko nahiko dela proposatzen du, eredu errezesiboak aldiz, bi kopiak beharrekoak direla postulatzen du. Kasu guztietan esangura maila % 5-ean ezarri zen. Analisiak R v3.3.0. software bidez gauzatu ziren.

Ikertu diren SNP kopuru altuagatik, eta ondorioz egin behar diren konparaketa kopuru handia dela eta, positibo faltsuak ez dira arraroak. Horregatik, emaitzak konparaketa anitzentzat doitu ziren false discovery rate (FDR) zuzenketa (SNP esanguratsuen kopuria konsideratz kalkulatua) (Benjamini et al., 2001) eta Bonferroni zuzenketa (metodo kontserbadoreagoa, ikertutako konparaketa guztiak kontuan hartzen baititu) (Rice et al., 2008) erabiliz. OpenEpi softwarea erabili zen asoziazioen botere estatistiko kalkulatzeko (Sullivan et al., 2009).

## 12. ANALISI BIOINFORMATIKOAK

### 12.1. MiRNA-en egitura sekundarioen iragarprena

Emaitza esanguratsuak erakutsi zituzten miRNA-entzat, SNP-ek egitura sekundarioen gutxiengo energia askean (GEA) zuten inpaktua neurtu zen RNAfold web tresna (<http://rna.tbi.univie.ac.at/cgi-bin/RNAWebSuite/RFold.cgi>) bidez, eta miRNA-en egitura sekundario egonkorrenak iragarri ziren (Gruber et al., 2008). MiRNA-en GEA-etatik urkila egituren energia aldaketa ( $\Delta\Delta G$ ) kalkulatu zen.

### 12.2. Geneen itu aukeraketa

MiRNA-en itu geneak miRWalk (<http://www.umm.uni-heidelberg.de/apps/zmf/mirwalk/index.html>) datu-basean oinarrituta aukeratu ziren (Dweep and Gretz, 2015). MiRWalk-en baitako 12 iragarpen programatik (miRWalk, miRDB, PITA,

## *Materialak eta Metodoak*

MicroT4, miRMap, RNA22, miRanda, miRNAMap, RNAhybrid, miRBridge, PICTAR2 and Targetscan), gutxienez 6 programek konfirmatutako geneak aukeratu ziren soilik.

### 12.3. Bidezidorren analisia

Farmako toxizitate garapenean eragina duten geneen identifikaziorako, lehen estrategia farmakoekin erlazionatutako ADME gene ezagunen azterketara zuzendu zen. Alternatiba moduan beste itu gene potentzial batzuk identifikatzeko bigarren estrategia bat aplikatu zen, bidezidorren aberaste analisia.

Lehenengo estrategian, miRNA bakoitzarentzat iragarritako itu geneen zerrenda farmakoen bidezidor PK eta PD-etako geneen zerrendekin gurutzatu zen, azken zerrenda hau Pharmacogenomic Knowledge Base (PharmGKB) (<https://www.pharmgkb.org/>) eta literatura araketa bidez eraiki zelarik.

Bigarren estrategia batean, itu gene potentzialak zehaztu ziren ConsensusPath (CPdB) (<http://consensuspathdb.org/>) datu-baseko bidezidorren aberaste analisi bidez, gainerrepresentazio analisi modulua erabiliz (Kamburov et al., 2013). MiRWalk-eko itu geneen zerrendak analizatu ziren KEGG (Kanehisa et al., 2017), Reactome (Fabregat et al., 2016) eta BioCarta ([http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta\\_Pathways](http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta_Pathways)) bidezidorren datu baseetako berezko bildumekin erkatuta. P-balio muga kontserbatzailea (0,0001) ezarri zen.

**EMAITZAK**



## Vinkristinaren miR-farmakogenetika eta neurotoxizitate periferikoa haurtzaroko B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutuan.

Umerez, Maitane<sup>1\*</sup>, PhD ikaslea; Gutierrez-Camino, Ángela<sup>1\*</sup>, PhD; Martín-Guerrero Idoia<sup>1</sup>, PhD; García de Andoin, Nagore<sup>2,3</sup>, MD; Santos, Borja<sup>1</sup>, PhD; Sastre, Ana<sup>4</sup>,MD; Echebarria-Barona, Aizpea<sup>5</sup>, PhD; Astigarraga, Itziar<sup>3,5,6</sup>, PhD; Navajas, Aurora<sup>5,6</sup>PhD; Garcia-Orad, Africa<sup>1,6</sup>, PhD.

\*Autore hauek egileta partekatzen dute.

<sup>1</sup>Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Espainia; <sup>2</sup>Pediatria Saila, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Espainia; <sup>3</sup>Pediatria Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU, Leioa, Espainia; <sup>4</sup>Onkohematología Pediátrica Saila, La Paz Unibertsitate Ospitalea, Madrid, Espainia; <sup>5</sup>Pediatria Saila, Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Barakaldo, Espainia; <sup>6</sup>BioCruces Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Espainia.

### LABURPENA

Vinkristinak (VCR), haurtzaroko B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutuan erabiltzen den terapiaren osagai garrantzitsua dena, neurotoxizitate sentoriala eta motorea sor ditzakeke. Neurotoxizitate honek dosiaren murriketa edo tratamendua etetea eragin dezake, eta ondorioz bizaupena murritztu. Ildo honetan, hainbat ikerketek erlazionatu dituzte neurotoxizitate periferikoa eta VCR-ren farmakozinetikan (PK) eta farmakodinamikan (PD) inplikatutako geneen polimorfismoak. Gaur egun, jakina da gene horiek mikroRNA (miRNA) bidez erregulatuta daudela, eta miRNA-tan dauden SNP-ek beren maila edo funtzioa alda ditzaketela. Hori dela eta, ikerketa honen helburua miRNA-tan dauden SNP-ak VCR-ak induzitutako neurotoxizitatearekin erlazionatuta egon daitezkeen zehaztea izan zen. Hau lortzeko, VCR-rekin erlazionatutako geneak erregulatzen zituzten miRNA-tako SNP guztiak (alelo urrienaren maiztasuna (AUM)  $\geq 0,01$ ) aztertu genituen, B-zelula aitzindarien LLA (B-LLA) zuten eta LAL/SHOP protokoloekin homogeneoki tratatuak izan ziren haur espainiarren kohorte handi batean. Bi SNP aurkitu genituen VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin esanguratsuki asoziatuta, alde batetik, miR-3117-3p-ren *seed* eremuan kokatutako rs12402181-ren A aleloa, zeinak *ABCC1* eta *RALBP1* geneekiko loturan eragin zezakeen. Bestetik, miR-4481-ren *pre-mature* sekuentzian kokatutako rs7896283-ren C aleloa, zeina nerbio periferikoen erregenerazioarekin erlazionatuta egon zitekeen. Aurkikuntza hauek VCR-ren neurotoxizitatearekin asoziatuiko miRNA-tako bi SNP-en inplikazio posiblea erakusten dute.

**Hitz gakoak:** B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua, vinkristina, mikroRNAk, nukleotido bakarreko polimorfismoak.

## SARRERA

Vinkristina (VCR) osagai garrantzitsua da haurtaroko leuzemia linfoblastiko akutuaren (LLA) terapien, haurtaroko minbizirik ohikoena (Johnston et al., 2010). Eraginkortasun klinikoa gorabehera, VCR-k neurotoxizitate sentsoriala eta motorea sor ditzake (Carozzi et al., 2015), tratamenduaren edozein fasetan ager daitekeen eragin desiragaitza. Protokolo desberdinetan ematen diren VCR dosien maiztasun, kopuru eta kontzentrazioak eragina izan dezakete neurotoxizitatearen intzidentzian eta maizago agertuko den tratamenduaren fasean (indukzioa edo mantenimendua) (Gutierrez-Camino et al., 2016). Hala ere, edonoiz agertzen dela ere, neurotoxizitateak VCR dosi murrizketa edo tratamenduaren etetea eragin dezake (Ceppi et al., 2014) ondorio gisa, biziraupena murriztuz (Carozzi et al., 2015; Ceppi et al., 2014; Postma et al., 1993). Hori dela eta, medikuntzaren erronketako bat VCR-rekin erlazionatutako neurotoxizitatea zein pazientek garatuko duten aurreikustea da, aldez aurretik tratamendua egokitut ahal izateko.

Azken urteotan hainbat ikerketek aztertu dute aldaera genetikoen eta VCR-ri lotutako neurotoxizitatearen arteko harremana, batez ere, VCR-ren farmakozinetikan (PK) eta farmakodinamikan (PD) inplikatutako geneetan oinarrituta (Ceppi et al., 2014; Diouf et al., 2015; Egbelakin et al., 2011; Hartman et al., 2010; Lopez-Lopez et al., 2016; Moore et al., 2011; Plasschaert et al., 2004). Ildo honetan, emaitza interesgarrienetako bat Diouf eta lankideek aurkitu zuten LLA-dun paziente pediatriko talde handi batean egindako Genoma Osoko Aldaera Genetikoen Asoziaazio Ikerketa (GWAS) batean (Diouf et al., 2015). Ikerketa honek, asoziazioa aurkitu zuen tratamenduaren fase berantiarretan agertzen zen neuropatia periferikoaren eta CEP72 genearen eremu promotorean zegoen rs924607 SNP-aren artean. Datu interesgarria da, SNP hau, era berean LOC100996325 deitzen den RNA ez kodifikatzaile baten kokatua dagoela. Gainera, GWAS honetan identifikatutako beste lau SNP esanguratsuetatik hiru (rs17032980, rs12786200 eta rs4463516) ere eremu ez kodifikatzaileetan kokatuak zeuden (Diouf et al., 2015).

Gaur egun, ondo ezagutzen da RNA ez kodifikatzaileek, hala nola microRNA-ek (miRNAs), gure geneen % 50 baino gehiago erregulatzen dituztela, farmako desberdinaren PK-n eta PD-n parte hartzen duten geneak barne (Li et al., 2016; Nakajima and Yokoi, 2011). MiRNA-en aldaera genetikoek beren maila edo funtzioa alda dezakete eta ondorioz, haien iturri geneen adierazpenean eragin. Ildo honetan, gure taldean egin berri dugun ikerketa batean, alde batetik, asoziazioa aurkitu genuen miR-1206-ko rs2114358-ren eta metotrexatoak (MTX) eragindako aho mukositisaren artean (Gutierrez-Camino et al., 2017b) eta beste alde batetik, asoziazioa aurkitu

genuen miR-5198, miR-595 eta miR-453n zeuden hiru SNP eta MTX maila plasmatikoen artean (Iparraguirre et al., 2016; Lopez-Lopez et al., 2014b). Baliteke, miRNA hauek MTX-aren *SLC46A1*, *SLC19A1* eta *SLCO1A2* garraio geneak erregulatzea, eta beraz, garraiatzaile hauen adierazpen aldaketak MTX-aren argitza aldatzea. Ondorioz, gure hipotesia honakoa litzateke: VCR-aren PK eta PD geneak itutzat dituzten miRNA-tako aldaerak B-LLA-dun haurretan VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin asoziatuak egon litezkeela.

Hori dela eta, ikerketa honetan, VCR-rekin erlazionatutako geneak erregulatzen zituzten miRNA-tako SNP guztiak (alelo urrienaren maiztasuna ( $AUM \geq 0,01$ ) aztertu genituen, B-LLA zuten eta homogeneoki tratatuak izan ziren haur espainiarren kohorte handi batean.

## MATERIALAK ETA METODOAK

### Pazienteak

Atzera begirako ikerketa honetan, haurtzaroko B-LLA zuten 179 paziente espainiar sartu ziren, zeintzuk, hiru espainiar ospitaleetako onkologia pediatriko unitatean diagnostikatuak izan ziren (Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea, La Paz Unibertsitate Ospitalea, 2000 eta 2013 urte bitartean). Laginak hartu baino lehen paziente guztien edo haien gurasoen idatzizko baimen informatua jaso zen. Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) batzordearen onarpena (CEISH/102R/2011) jaso zuen.

### Tratamendua eta toxizitatearen ebaluazioa

Ikerketan sartutako paziente guztiak homogeneoki tratatuak izan ziren Espainiako LAL-SHOP 94/99/2005 protokoloen arabera. Protokoloak aurretik deskribatuta zeuden (Lopez-Lopez et al., 2016). Laburbilduz, astean behin emandako lau VCR dosi ( $1,5 \text{ mg/m}^2$ ) administratu ziren indukzioan. Tratamenduaren ondorengo faseetan, kontsolidazio fasean izan ezik, 6 eta 16 dosi ( $1,5 \text{ mg/m}^2$ ) bitartean administratu ziren fasearen eta arrisku taldearen arabera hilean behineko edo astean behineko maiztasunarekin. VCR-z gain, tratamendu protokolo hauetan daunorrubizina, prednisona, ziklofosfamida, asparraginasa eta metotrexato-zitarabina-hidrokortisona terapia intratekala ere erabili ziren. LAL/SHOP 99 protokoloan arrisku altuko pazienteek metotrexato dosi  $3 \text{ g/m}^2$  dosi bakar bat ere jaso zuten +15 egunean. Tratamenduaren ondorengo faseak heterogeneagoak izan ziren arrisku taldeen segregazioan oinarrituta. Beste farmako horietako batek ere ez du neurotoxikotasun periferikoa sortzen eragin desiragaitz arrunt gisa.

Tratamendu fase guztiako toxizitate datuak genotipoei itsu jaso ziren gaixoen historia klinikoetatik kasu guzietan bi ikertzaile aditu berdinenean eskutik. Hiru ospitaleetan pazienteak VCR-ren neuropatia ebaluatzen trebatuak zeuden medikuek ebaluatu zituzten, hiru zentroetan estandar berak eta ebaluazio maiztasun bera erabiliz. Neurotoxizitatea MOE-ren Nerbio Sistema Periferikoko toxikotasun irizpideen arabera graduatu zen (ikus 7.taula); hiru fenotipo hartu ziren kontuan: edozein gradutako neurotoxizitatea (1-4 gradukoa), neurotoxizitate arina (1-2 gradukoa) eta neurotoxizitate altua (3-4 gradukoa). Beste datu garrantzitsu batzuk, hala nola adina, sexua, VCR dosi kopurua eta arrisku taldea sistematikoki jaso ziren historia klinikoetatik.

Ikerketa honetan, neurotoxizitate analisia indukzio fasean oinarritu genuen, fase honetan gaixo guztiekin VCR dosi berdina jaso zutelako, gure kohortean neurotoxizitate kasu gehienak indukzioan garatu zirelako, eta azkenik, fase honetan ez zirelako normalean neurotoxizitatea sortzen duten beste farmakorik administratu. Gainera, hiru fenotipoak tratamenduaren edozein fasetan ere aztertu genituen (indukzioan, kontsolidazioan, intentsifikazioan edo maitenimenduan) eta neurotoxizitate global gisa definitu genuen.

#### Gene eta polimorfismoen aukeraketa

Kontuan hartuz, gaur egun, miRNA-ren ituak ez daudela guztiz definituta eta edozein miRNA zuzenki edo zeharka VCR-rekin erlazionatutako geneak erregulatzen egon daitekeela, ikerketa unean (2014-ko maiatz) SNP-ak deskribatuta zituzten miRNA gene guztiak aukeratu genituen. SNP-en aukeraketarako, mirbase (<http://www.mirbase.org/>), miRNA SNIPER (<http://bioinfo.life.hust.edu.cn/miRNASNPs/index.php>), eta dbSNP (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/SNP/>) datu-baseak erabili genituen, baita literaturaren araketa ere (ikus 11.taula).

Guztirako 969 miRNA-tako 1910 SNP-en artetik Europar/Kaukasiar populazioan AUM >0.01 zuten SNPak aukeratu genituen. Irizpide hauekin 206 miRNA-tako 213 SNP aukeratu ziren azkenean ikerketarako (ikus 11. taula).

#### Genotipazioa

ADN genomikoa erremisioan zeuden LLA-dun pazienteen odol periferiko edo hezur muinetik erauzi zen fenol-kloroformo metodoa erabiliz, aurrez deskribatu bezala (Sambrook, J, 2001). ADN-a PicoGreen (Invitrogen Corp., Carlsbad, Kalifornia, AEB) bidez kuantifikatu zen. Lagin bakoitzarentzat, 400 ng DNA genotipatu ziren Veracode teknologiadun GoldenGate Genotipazio Saiakuntza (Illumina Inc., San Diego, Kalifornia, AEB) erabiliz argitaratutako Illumina

protokoloaren arabera. Datuak genotipoen *clustering* eta *calling*-erako GenomeStudio (Illumina Inc.) software bidez analizatu ziren. Lagin bikoitzuak eta CEPH hirukoak (Coriell Cell Repository, Camden, New Jersey,AEB) genotipatu ziren plaketan zehar. Transmisio-aleliko mendelialar akatsak edo genotipo diskordanteak erakusten zituzten SNPAk analisitik baztertu ziren.

### Analisi estatistikoak

Neurotoxizitatearen eta polimorfismo genetikoen arteko asoziazioa  $\chi^2$  edo Fisher-en frogazehatz bidez ebaluatu zen. Asoziazioko efektuen tamaina odds ratio (OR) bidez estimatu zen. Toxizitate globala analizatzeko orduan, VCR dosiaren efektu nahasle posiblea kontabilizatzeko erregresio logistiko multibariantea erabili zen. Eredu dominante eta errezesiboen arteko froga esanguratsuena aukeratu zen. Kasu guztietan esangura maila % 5-ean ezarri zen. Emaitzak konparaketa anitzetarako egokitzen ziren false discovery rate (FDR) zuzenketa erabiliz eta test guztientzat % 5-eko esangura maila onartuz (Benjamini et al., 2001). Asoziazioren botere estatistikoa neurtzeko OpenEpi softwarea erabili zen (Sullivan et al., 2009). Analisiak R v3.3.0. software bidez gauzatu ziren.

### Analisi bioinfomatikoak

- *MiRNA-en egitura sekundarioen iragarpenea*


Emaitza esanguratsuenak zituzten miRNA-entzat, RNAfold web tresna (<http://rna.tbi.univie.ac.at/cgi-bin/RNAWebSuite/RNAfold.cgi>) (Gruber et al., 2008) erabili zen SNP-ek egitura sekundarioen gutxieneko energia aske eta urkila egituren energia aldaketan ( $\Delta\Delta G$ ) zuten inpaktua kalkulatzeko.

- *Itu geneen aukeraketa eta bidezidorren analisia*

MiRNA esanguratsu bakoitzarentzat itu geneak miRWALK (<http://zmf.umm.uni-heidelberg.de/apps/zmf/mirwalk2/index.html>) datu-basetik aterazten (Dweep et al., 2011). MiRWALK-en baitako 12 iragarpene programatik, gutxienez 6 programek konfirmatutako geneak aukeratu ziren soilik.

MiRNA esanguratsuen bidezidor analisiari dagokionez, lehen estrategiari jarraiki, VCR-ren PK eta PD-an implikatutako geneak konsideratu genituen (*ABCB1*, *ABCC1*, *ABCC10*, *ABCC2*, *ABCC3*, *CYP3A4*, *CYP3A5* eta *BAX*, *BCL2*, *RALBP1*, *CEP72*, *MAPT*, *TUBB1*, *TUBB2A*, *TUBB2B*, *TUBB3*, *TUBB4*) (17. irudia) Pharmacogenomic Knowledge Base (PharmGKB) (<https://www.pharmgkb.org/>) datu-basean oinarrituta eta literaturaren araketa bidez. Ondoren, VCR-k induzitutako neurotoxizitatean implikatutako beste gene batzuk identifikatzeko bigarren estrategia batean, bidezidorren aberaste analisia gauzatu genuen ConsensusPathDB

web tresnaren (CPdB) (<http://consensuspathdb.org/>) (Kamburov et al., 2013) gainerrepresentazioa modulua erabiliz. MiRWalk-eko itu geneen zerrendak analizatu ziren KEGG (Kanehisa et al., 2017), Reactome (Fabregat et al., 2016) eta BioCarta ([http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta\\_Pathways](http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta_Pathways)) bidezidor datu baseetako berezko bildumekin erkatuta. P-balio muga kontserbatzaile bat (0,0001) ezarri zen.



**17. irudia.** VCR-ren PK/PD bidezidorretako geneak eta ikerketa honetako miRNA esanguratsuena, miR-3117, bere itu geneak seinalatzu.

#### EMAIZZAK

##### Pazienteen ezaugarriak

Ikerketa honetan, guztira haurtzaroko B-LLA-dun 179 paziente sartu ziren, VCR-k eragindako neurotoxizitateari buruzko datuak hauetako 175 pazientetan eskuragarri zeudelarik (13. taula). Neurotoxizitate kasuen gehiengo bat indukzio fasean agertu ziren (47/55 paziente, % 85,45). Soilik 8 pazientek garatu zuten neurotoxizitate periferikoa ondorengoko faseren batean (3

pazientek kontsolidazioan, 4 pazientek intentsifikazioan eta paziente batek mantinemenduan) (14. taula).

13. taula. Haurtzaroko B-LLA-dun pazienteen ezaugarriak.

Paziente kopurua	175
Sexua, n (%)	
Emakumezkoa	72 (41,14)
Gizonezkoa	103 (58,86)
Adina diagnostikoan, batezbestekoa ± DE (urteak)	5,12 ± 3,23
Emakumezkoa	5,10 ± 3,22
Gizonezkoa	5,70 ± 3,20
Tratamendu protokoloa, n (%) <sup>1</sup>	
LAL-SHOP 94/99	68 (38,86)
LAL-SHOP 2005	105 (60,00)
Neurotoxizitatea, n (%)	
Indukzioa	
1-4 graduko	47 (26,86)
1-2 graduko	28 (16,00)
3-4 graduko	19 (10,86)
Globala	
1-4 graduko	55 (31,43%)
1-2 graduko	32 (18,29%)
3-4 graduko	24 (13,71%)

Laburdurak: B-LLA, B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; DE, desbideraketa estandarra.

Oharrak: <sup>1</sup>Bi pazienterentzat ez zen tratamendu protokoloari buruzko informazioa eskuratu.

14. taula. VCR-ren neurotoxizitate periferiko datuak.

	Indukzioa			Globala		
	1-4 gradua n (%)	1-2 gradua n (%)	3-4 gradua n (%)	1-4 gradua n (%)	1-2 gradua n (%)	3-4 gradua n (%)
Neurotoxizitaterik ez	128 (73,14)	128 (73,14)	128 (73,14)	120 (68,57)	120 (68,57)	120 (68,57)
Neurotoxizitatea	47 (26,86)	28 (16,00)	19 (10,86)	55 (31,43)	32 (18,29) <sup>2</sup>	24 (13,71) <sup>2</sup>
NA	0 (0,00)	19 (10,86) <sup>1</sup>	28 (16,00) <sup>1</sup>	0 (0,00)	23 (13,14) <sup>1</sup>	31 (17,71) <sup>1</sup>

Laburdurak: NA, ez eskuragarri.

Oharrak: <sup>1</sup>paziente batean 1-2 graduko edo 3-4 graduko neurotoxizitatea soilik bazegoen, beste gradurako NA gisa kodifikatu zen; <sup>2</sup> paziente batek bi gradutako toxizitateak aurkeztu zituen, 1-2 graduko eta 3-4 graduko.

#### Genotipazio emaitzak

Genotipazio arrakastatsua 179 ADN laginetik 155-ean (% 88,59) lortu zen. Genotipazio prozesuan zehar, 213 SNP-ek 53-k (% 24,88) laginen % 20 baino gehiagotan huts egin zuten eta ikerketatik baztertu ziren (ikus 12. taula). Genotipazio huts egite hauek PCR amplifikazio ezagatik, kluster banaketarako intentsitate urriagatik edo klusterren definizio ezagatik gertatu ziren. Genotipazio arrakastatsua lortu zen 160 SNP-entzat (% 75,12).

### Asoiazio azterketa

MiRNA-tako aldaera genetikoek VCR-k induzitutako neurotoxizitatean eragina duten ikertzeko, arrakastaz genotipatutako 154 miRNA-tako 160 polimorfismoren eta neurotoxizitate periferikoari zegozkion datuen arteko asoiazioa neurtu genuen. Ikerketa populazioa genotipo eta toxizitate datuak eskuragarri izan zitzuten homogeneoki tratatutako haurtzaroko B-LLA-dun 155 espanyiar pazientekoa izan zen. Analisi nagusiak indukzio fasean burutu ziren, neurotoxizitate kasuen % 85,45 detektatu ziren fasea. Nerotoxizitate periferikoaren larritasuna ebaluatu genuen, edozein gradutako neurotoxizitatea (1-4) (47 paziente), gradu arinekoa (1-2) (28 paziente) eta gradu altuko (3-4) (19 paziente) garatu zitzuten pazienteak kontsideratzu.

Ikerketa honetako emaitza esanguratsuena miR-3117-ko rs12402181-rentzat aurkitu zen (15. taula). AG+AA genotipoak 1-4 neurotoxizitaterako 0,16 bider arrisku txikiagoarekin asoziatu ziren ( $P = 0,00042$ ) eta AA genotipoa ez zen inoiz aurkitu neurotoxizitate periferikodun pazienteetan. Botere estatistikoa % 70-ekoa zela kalkulatu zen toxizitatedun 39 paziente (AUM = % 3,8) eta toxizitate gabeko 116 (AUM = % 18) datuetatik abiatuz. Indukzio fasean asoiazio esanguratsua modu kontsistentean aurkitu zen toxizitate gradu arin eta gradu altuko analisietan, 0,0069 eta 0,0099 p-balioekin hurrenez hurren.

Bigarren emaitza esanguratsuena miR-4481-eko rs7896283-rentzat aurkitu zen. CC genotipoa VCR-k induzitutako neurotoxizitatea garatzeko 2,6 bider arrisku altuagoarekin asoziatu zen ( $P = 0,017$ ). Botere estatistikoa % 54-an kalkulatu zen toxizitatea zuten 39 paziente (AUM = % 51) eta toxizitate gabeko 97 paziente (AUM = % 32) datuetatik. Kasu honetan, C aleoa gradu altuko neurotoxizitatearekin asoziatu zen ( $P = 0,0148$ ) (15. taula). Hirugarren polimorfismo esanguratsuena miR-6076-ko rs35650931 izan zen. CC genotipoa babeslea zen eta ez zen toxizitate kasu batean ere ageri ( $P = 0,017$ ). Asoiazio hau 1-2 graduko neurotoxizitatearentzat ere aurkitu zen ( $P = 0,014$ ) (15. taula). Beste 9 SNP-ek asoiazio esanguratsua ( $p < 0,05$ ) erakutsi zuten indukzio fasean VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin (16. taula).

VCR-k induzitutako neurotoxizitate globala, edozein fasetan garatutakoa, analizatu zenean, berriro emaitzarik esanguratsuenak miR-3117-ko rs12402181 eta miR-4481-eko rs7896283-rentzat aurkitu ziren (17. taula).

SNP batek berak ere ez zituen p-balio esanguratsuak lortu FDR zuzenketa aplikatu zenean. Hala ere, miR-3117-ko rs12402181 ia p-balio esanguratsura ( $p=0,06$ ) iritsi zen FDR zuzenketa ondoren.

**15. taula.** Haurtzaroko B-LLA-n indukzio fasean zehar VCR-ren neurotoxizitatearekin asoziazio esanguratsuenak erakutsi dituzten miRNA-tako SNP-ak. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa / Aleloa	1-4 graduko Tox (n=175)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa	1-2 graduko Tox (n=156)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa	3-4 graduko Tox (n=147)		
			EZ Tox N=128	Tox N=47		EZ Tox N=128	Tox N=28		EZ Tox N=128		
hsa-mir-3117 rs12402181	Kr.: 1 in_seed	GG	76 (65.5)	36 (92.3)	Dominantea	76 (65.5)	21 (91.3)	Dominantea	76 (65.5)	15 (93.8)	
		AG	37 (31.9)	3 (7.7)	0.16 (0.05-0.55)	37 (31.9)	2 (8.7)	0.18 (0.04-0.81)	37 (31.9)	1 (6.2)	
	G	AA	3 (2.6)	0 (0.0)	<b>0.00042</b>	3 (2.6)	0 (0.0)	<b>0.0069</b>	3 (2.6)	0 (0.0)	
		A	189 (81.5)	75 (96.1)	0.176 (0.053-0.584)	189 (81.5)	44 (95.7)	0.2 (0.047-0.856)	189 (81.5)	31 (96.9)	
hsa-mir-4481 rs7896283	Kr.: 10 pre-miRNA	TT	46 (47.4)	10 (25.6)	Dominantea	46 (47.4)	6 (26.1)	Dominantea	46 (47.4)	4 (25.0)	
		CT	40 (41.2)	18 (46.2)	2.62 (1.15-5.95)	40 (41.2)	12 (52.2)	2.56 (0.93-7.03)	40 (41.2)	6 (37.5)	
	T	CC	11 (11.3)	11 (28.2)	<b>0.0173</b>	11 (11.3)	5 (21.7)	0.0578	11 (11.3)	6 (37.5)	
		C	132 (68)	38 (48.7)	2.241 (1.310-3.834)	132 (68)	24 (52.2)	1.952 (1.016-3.748)	132 (68)	14 (43.8)	
hsa-mir-6076 rs35650931	Kr.: 14 pre-miRNA	GG	93 (80.2)	37 (94.9)	Dominantea	93 (80.2)	23 (100.0)	Dominantea	93 (80.2)	14 (87.5)	
		CG	21 (18.1)	2 (5.1)	0.22 (0.05-0.97)	21 (18.1)	0 (0.0)	0 (0.0)	21 (18.1)	2 (12.5)	
	G	CC	2 (1.7)	0 (0.0)	<b>0.0175</b>	2 (1.7)	0 (0.0)	<b>0.0140</b>	2 (1.7)	0 (0.0)	
		C	207 (89.2)	76 (97.4)	0.218 (0.050-0.942)	207 (89.2)	46 (100)	0 (-)	207 (89.2)	30 (93.8)	
<b>Laburdurak:</b> B-LLA, B zelulen leuzemia infoblastiko akutua; VCR, vinkristina; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, kromosoma; NA, ez eskuragarri.											
<b>Oharrak:</b> letra lodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.											

**16. taula.** Haurtzaroko LLA-n indukzio fasean VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin asoziaturiko hamabi miRNA SNP-en zerrenda.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	1-4 graduko Tox (n=175)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa	1-2 graduko Tox (n=156)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa	3-4 graduko Tox (n=147)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa
			EZ Tox N=128	Tox N=47		EZ Tox N=128	Tox N=28		EZ Tox N=128	Tox N=19	
			76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	36 (92.3) 3 (7.7) 0 (0.0)		76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	21 (91.3) 2 (8.7) 0 (0.0)		76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	15 (93.8) 1 (6.2) 0 (0.0)	
hsa-mir-3117 rs12402181	Kr.: 1 in_seed	GG	76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	36 (92.3) 3 (7.7) 0 (0.0)	Dominantea 0.16 (0.05-0.55) <b>0.00042</b>	76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	21 (91.3) 2 (8.7) 0 (0.0)	Dominantea 0.18 (0.04-0.81) <b>0.0069</b>	76 (65.5) 37 (31.9) 3 (2.6)	15 (93.8) 1 (6.2) 0 (0.0)	Dominantea 0.13 (0.02-0.99) <b>0.0099</b>
		G	189 (81.5)	75 (96.1)	0.176 (0.053-0.584)	189 (81.5)	44 (95.7)	0.2 (0.047-0.856)	189 (81.5)	31 (96.9)	0.142 (0.019-1.067)
	Kr.: 10 pre-miRNA	A	43 (18.5)	3 (3.8)	<b>0.0016</b>	43 (18.5)	2 (4.3)	<b>0.0170</b>	43 (18.5)	1 (3.1)	0.0283
		TT	46 (47.4)	10 (25.6)	Dominantea	46 (47.4)	6 (26.1)	Dominantea	46 (47.4)	4 (25.0)	Errezesiboa
hsa-mir-4481 rs7896283	Kr.: 10 pre-miRNA	CT	40 (41.2)	18 (46.2)	2.62 (1.15-5.95)	40 (41.2)	12 (52.2)	2.56 (0.93-7.03)	40 (41.2)	6 (37.5)	4.69 (1.43-15.43)
		CC	11 (11.3)	11 (28.2)	<b>0.0173</b>	11 (11.3)	5 (21.7)	0.0578	11 (11.3)	6 (37.5)	<b>0.0148</b>
	T	T	132 (68)	38 (48.7)	2.241 (1.310-3.834)	132 (68)	24 (52.2)	1.952 (1.016-3.748)	132 (68)	14 (43.8)	2.737 (1.279-5.858)
		C	62 (32)	40 (51.3)	<b>0.0029</b>	62 (32)	22 (47.8)	<b>0.0425</b>	62 (32)	18 (56.3)	<b>0.0078</b>
hsa-mir-6076 rs35650931	Kr.: 14 pre-miRNA	GG	93 (80.2)	37 (94.9)	Dominantea	93 (80.2)	23 (100.0)	Dominantea	93 (80.2)	14 (87.5)	Dominantea
		CG	21 (18.1)	2 (5.1)	0.22 (0.05-0.97)	21 (18.1)	0 (0.0)	0 (0.0)	21 (18.1)	2 (12.5)	0.58 (0.12-2.72)
	CC	2 (1.7)	0 (0.0)	<b>0.0175</b>	2 (1.7)	0 (0.0)	<b>0.0140</b>	2 (1.7)	0 (0.0)	0.4636	
		G	207 (89.2)	76 (97.4)	0.218 (0.050-0.942)	207 (89.2)	46 (100)	0 (-)	207 (89.2)	30 (93.8)	0.552 (0.124-2.450)
hsa-mir-577 rs34115976	Kr.: 4 pre-miRNA	GG	2 (1.8)	4 (10.3)	<b>0.0302</b>	2 (1.8)	4 (17.4)	<b>0.0049</b>	2 (1.8)	0 (0.0)	0.3416
		CC	78 (68.4)	21 (53.8)	Errezesiboa	78 (68.4)	12 (52.2)	Errezesiboa	78 (68.4)	9 (56.2)	Dominantea
	C	CG	34 (29.8)	14 (35.9)	6.40 (1.12-36.44)	34 (29.8)	7 (30.4)	11.79 (2.02-68.91)	34 (29.8)	7 (43.8)	1.69 (0.58-4.88)
		G	190 (83.3)	56 (71.8)	1.964 (1.074-3.593)	190 (83.3)	31 (67.4)	2.42 (1.192-4.911)	190 (83.3)	25 (78.1)	1.4 (0.565-3.470)
hsa-mir-5197 rs2042253	Kr.: 5 pre-miRNA	GG	2 (1.8)	4 (10.3)	<b>0.0267</b>	38 (16.7)	15 (32.6)	0.0125	38 (16.7)	7 (21.9)	0.4658
		AA	63 (54.3)	28 (73.7)	Dominantea	63 (54.3)	18 (81.8)	Dominantea	63 (54.3)	10 (62.5)	Dominantea
	A	AG	50 (43.1)	9 (23.7)	0.42 (0.19-0.95)	50 (43.1)	3 (13.6)	0.26 (0.08-0.83)	50 (43.1)	6 (37.5)	0.71 (0.24-2.09)
		GG	3 (2.6)	1 (2.6)	<b>0.03157</b>	3 (2.6)	1 (4.5)	<b>0.012045</b>	3 (2.6)	0 (0.0)	0.5343
hsa-mir-449c rs35770269	Kr.: 5 in_seed	A	176 (75.9)	65 (85.5)	0.532 (0.262-1.078)	176 (75.9)	39 (88.6)	0.403 (0.151-1.072)	176 (75.9)	26 (81.3)	0.725 (0.284-1.852)
		G	56 (24.1)	11 (14.5)	0.0763	56 (24.1)	5 (11.4)	0.0612	56 (24.1)	6 (18.8)	0.5003
	AA	AT	57 (49.6)	12 (30.8)	Dominantea	57 (49.6)	10 (43.5)	Errezesiboa	57 (49.6)	2 (12.5)	Dominantea
		TT	42 (36.5)	24 (61.5)	2.21 (1.02-4.79)	42 (36.5)	12 (52.2)	0.28 (0.04-0.23)	42 (36.5)	12 (75.0)	6.88 (1.50-31.64)
	A	TT	16 (13.9)	3 (7.7)	<b>0.0389</b>	16 (13.9)	1 (4.3)	0.1566	16 (13.9)	2 (12.5)	<b>0.0029</b>
		T	156 (67.8)	48 (61.5)	1.32 (0.773-2.246)	156 (67.8)	32 (69.6)	0.92 (0.464-1.832)	156 (67.8)	16 (50)	2.10 (1.000-4.446)
	A	AA	74 (32.2)	30 (38.5)	0.3102	74 (32.2)	14 (30.4)	0.8173	74 (32.2)	16 (50)	0.0466

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia infoblastiko akutua; VCR, vinkristina; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, kromosoma; NA, ez eskuragarri.

**Oharrak:** letra Iodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

**16. taula.** Haurtzaroko LLA-n indukzio fasean VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin asoziaturiko hamabi miRNA SNP-en zerrenda (Jarraipena).

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	1-4 graduko Tox (n=175)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa	1-2 graduko Tox (n=156)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa	3-4 graduko Tox (n=147)	
			EZ Tox N=128	Tox N=47		EZ Tox N=128	Tox N=28		EZ Tox N=128	
hsa-mir-1208 rs2648841	Kr.: 8 pre-miRNA	CC	88 (77.9)	23 (60.5)	Dominantea	88 (77.9)	12 (54.5)	Dominantea	88 (77.9)	11 (68.8)
		AC	22 (19.5)	14 (36.8)	2.30 (1.04-5.05)	22 (19.5)	10 (45.5)	2.93 (1.13-7.58)	22 (19.5)	4 (25.0)
		AA	3 (2.7)	1 (2.6)	<b>0.0410</b>	3 (2.7)	0 (0.0)	<b>0.0291</b>	3 (2.7)	1 (6.2)
		C	198 (87.6)	60 (78.9)	1.886 (0.957-3.718)	198 (87.6)	34 (77.3)	2.080 (0.927-4.668)	198 (87.6)	26 (81.3)
hsa-mir-5090 rs3823658	Kr.: 7 in_seed	A	28 (12.4)	16 (21.1)	0.0640	28 (12.4)	10 (22.7)	0.0712	28 (12.4)	6 (18.8)
		GG	95 (81.9)	25 (65.8)	Dominantea	95 (81.9)	14 (63.6)	Dominantea	95 (81.9)	11 (68.8)
		AG	19 (16.4)	12 (31.6)	2.35 (1.04-5.34)	19 (16.4)	8 (36.4)	2.59 (0.96-6.95)	19 (16.4)	4 (25.0)
		AA	2 (1.7)	1 (2.6)	<b>0.0444</b>	2 (1.7)	0 (0.0)	0.0677	2 (1.7)	1 (6.2)
hsa-mir-202 rs12355840	Kr.: 10 pre-miRNA	G	209 (90.1)	62 (81.6)	2.052 (0.996-4.225)	209 (90.1)	36 (81.8)	2.02 (0.839-4.863)	209 (90.1)	26 (81.3)
		A	23 (9.9)	14 (18.4)	0.0477	23 (9.9)	8 (18.2)	0.1113	23 (9.9)	6 (18.8)
		TT	62 (63.3)	18 (47.4)	Dominantea	62 (63.3)	8 (36.4)	Dominantea	62 (63.3)	10 (62.5)
		CT	31 (31.6)	19 (50.0)	1.91 (0.90-4.08)	31 (31.6)	14 (63.6)	3.01 (1.15-7.88)	31 (31.6)	5 (31.2)
hsa-mir-4326 rs6062431	Kr.: 20 pre-miRNA	CC	5 (5.1)	1 (2.6)	0.0926	5 (5.1)	0 (0.0)	<b>0.0215</b>	5 (5.1)	1 (6.2)
		T	155 (79.1)	55 (72.4)	1.443 (0.785-2.655)	155 (79.1)	30 (68.2)	2.140 (1.043-4.391)	155 (79.1)	25 (78.1)
		C	41 (20.9)	21 (27.6)	0.2363	41 (20.9)	14 (31.8)	0.12	41 (20.9)	7 (21.9)
		GG	59 (51.8)	26 (68.4)	Dominantea	59 (51.8)	17 (77.3)	Dominantea	59 (51.8)	9 (56.2)
mir-1908 rs174561	Kr.: 11 pre-miRNA	CG	41 (36.0)	10 (26.3)	0.50 (0.23-1.08)	41 (36.0)	4 (18.2)	0.32 (0.11-0.91)	41 (36.0)	6 (37.5)
		CC	14 (12.3)	2 (5.3)	0.0699	14 (12.3)	1 (4.5)	<b>0.0229</b>	14 (12.3)	1 (6.2)
		G	159 (69.7)	62 (81.6)	0.52 (0.273-0.992)	159 (69.7)	38 (86.4)	0.364 (0.147-0.900)	159 (69.7)	24 (75)
		C	69 (30.3)	14 (18.4)	<b>0.0448</b>	69 (30.3)	6 (13.6)	<b>0.0238</b>	69 (30.3)	8 (25)
hsa-mir-4745 rs10422347	Kr.: 19 5p in_mature; 3p pre-miRNA	TT	67 (61.5)	17 (44.7)	Dominantea	67 (61.5)	14 (63.6)	Errezesiboa	67 (61.5)	3 (18.8)
		CT	36 (33.0)	20 (52.6)	1.97 (0.93-4.16)	36 (33.0)	8 (36.4)	0 (0.0)	36 (33.0)	12 (75.0)
		CC	6 (5.5)	1 (2.6)	0.0738	6 (5.5)	0 (0.0)	0.5887	6 (5.5)	1 (6.2)
		T	170 (78)	54 (71)	1.44 (0.800-2.604)	170 (78)	36 (81.8)	0.79 (0.343-1.806)	170 (78)	18 (56.3)
		C	48 (22)	22 (29)	0.2220	48 (22)	8 (18.2)	0.5712	48 (22)	14 (43.7)

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia infoblastiko akutua; VCR, vinkristina; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, kromosoma; NA, ez eskuragarri.

**Oharrak:** letra lodiekei P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

**17. taula.** Haurtzaroko LLA-n VCR-k induzitutako neurotoxizitate globalarekin asoziatutako hamabi SNP-en zerrenda.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	1-4 graduko Tox (n=175)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P	1-2 graduko Tox (n=152)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P	3-4 graduko Tox (n=144)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P
			EZ Tox N=120	Tox N=55		EZ Tox N=120	Tox N=32		EZ Tox N=120	Tox N=24	
hsa-mir-3117 rs12402181	Kr.: 1 in_seed	GG	72 (65.5)	40 (88.9)	Dominantea	72 (65.5)	23 (85.2)	Dominantea	72 (65.5)	18 (90.0)	Dominantea
		AG	35 (31.8)	5 (11.1)	0.24 (0.09-0.65)	35 (31.8)	4 (14.8)	0.33 (0.11-1.02)	35 (31.8)	2 (10.0)	0.21 (0.05-0.96)
	Kr.: 1 in_seed	AA	3 (2.7)	0 (0.0)	<b>0.0017/0.0026</b>	3 (2.7)	0 (0.0)	<b>0.0357/0.0464</b>	3 (2.7)	0 (0.0)	<b>0.0173/0.0272</b>
		G	179 (81.4)	85 (94.4)	0.271 (0.104-0.710)	179 (81.4)	50 (92.6)	0.349 (0.119-1.022)	179 (81.4)	38 (95)	0.23 (0.053-0.991)
		A	41 (18.6)	5 (5.6)	<b>0.0033</b>	41 (18.6)	4 (7.4)	0.0460	41 (18.6)	2 (5)	<b>0.0327</b>
hsa-mir-4481 rs7896283	Kr.: 10 pre-miRNA	AA	45 (49.5)	11 (24.4)	Dominantea	45 (49.5)	6 (22.2)	Dominantea	45 (49.5)	5 (25)	Dominantea
		AG	36 (39.6)	22 (48.9)	3.02 (1.37-6.69)	36 (39.6)	13 (48.1)	3.42 (1.26-9.27)	36 (39.6)	9 (45)	2.93 (0.98-8.75)
	Kr.: 10 pre-miRNA	GG	10 (11.0)	12 (26.7)	<b>0.0045/0.0103</b>	10 (11.0)	8 (29.6)	<b>0.0099/0.0186</b>	10 (11.0)	6 (30)	0.0416/0.0838
		A	126 (69.2)	44 (48.9)	2.352 (1.399-3.955)	126 (69.2)	25 (46.3)	2.61 (1.403-4.855)	126 (69.2)	19 (47.5)	2.487 (1.240-4.987)
		G	56 (30.8)	46 (51.1)	<b>0.0011</b>	56 (30.8)	29 (53.7)	<b>0.0020</b>	56 (30.8)	21 (52.5)	<b>0.0089</b>
hsa-mir-646 rs6513496	Kr.: 20 pre-miRNA	TT	64 (58.7)	35 (77.8)	Dominantea	64 (58.7)	22 (81.5)	Dominantea	64 (58.7)	13 (65.0)	Dominantea
		CT	39 (35.8)	8 (17.8)	0.41 (0.18-0.90)	39 (35.8)	4 (14.8)	0.32 (0.11-0.92)	39 (35.8)	6 (30.0)	0.77 (0.28-2.07)
	Kr.: 20 pre-miRNA	CC	6 (5.5)	2 (4.4)	<b>0.0214/0.0102</b>	6 (5.5)	1 (3.7)	<b>0.0221/0.0135</b>	6 (5.5)	1 (5.0)	0.5959
		T	167 (76.6)	78 (86.7)	0.504 (0.254-0.998)	167 (76.6)	48 (88.9)	0.409 (0.166-1.012)	167 (76.6)	32 (80)	0.819 (0.355-1.888)
		C	51 (23.4)	12 (13.3)	<b>0.0465</b>	51 (23.4)	6 (11.1)	0.0471	51 (23.4)	8 (20)	0.6384
hsa-mir-4432 rs243080	Kr.: 2 pre-miRNA	CC	33 (31.1)	10 (22.7)	Errezesiboa	33 (31.1)	6 (23.1)	Errezesiboa	33 (31.1)	4 (20.0)	Errezesiboa
		CT	51 (48.1)	17 (38.6)	2.40 (1.12-5.18)	51 (48.1)	11 (42.3)	2.02 (0.79-5.15)	51 (48.1)	8 (40.0)	2.55 (0.93-6.99)
	Kr.: 2 pre-miRNA	TT	22 (20.8)	17 (38.6)	<b>0.0261/0.0230</b>	22 (20.8)	9 (34.6)	0.1482	22 (20.8)	8 (40.0)	0.0769
		C	117 (55.2)	37 (42)	1.698 (1.027-2.806)	117 (55.2)	23 (44.2)	1.553 (0.843-2.859)	117 (55.2)	16 (40)	1.847 (0.928-3.676)
		T	95 (44.8)	51 (58)	<b>0.0381</b>	95 (44.8)	29 (55.8)	0.1560	95 (44.8)	24 (60)	0.0776
hsa-mir-449c rs35770269	Kr.: 5 in_seed	AA	55 (50.5)	14 (31.1)	Dominantea	55 (50.5)	12 (44.4)	Errezesiboa	55 (50.5)	3 (15.0)	Dominantea
		AT	39 (35.8)	27 (60.0)	2.26 (1.08-4.70)	39 (35.8)	14 (51.9)	0.24 (0.03-1.91)	39 (35.8)	14 (70.0)	5.77 (1.60-20.83)
	Kr.: 5 in_seed	TT	15 (13.8)	4 (8.9)	<b>0.0264/0.0351</b>	15 (13.8)	1 (3.7)	0.1046	15 (13.8)	3 (15.0)	<b>0.0020/0.0029</b>
		A	149 (68.3)	55 (61.1)	1.374 (0.824-2.291)	149 (68.3)	38 (70.4)	0.909 (0.475-1.742)	149 (68.3)	20 (50)	2.159 (1.091-4.272)
		T	69 (31.7)	35 (38.9)	0.2219	69 (31.7)	16 (29.6)	0.7742	69 (31.7)	20 (50)	<b>0.0248</b>
hsa-mir-5197 rs2042253	Kr.: 5 pre-miRNA	AA	59 (53.6)	32 (72.7)	Dominantea	59 (53.6)	20 (76.9)	Dominantea	59 (53.6)	13 (65.0)	Dominantea
		AG	48 (43.6)	11 (25.0)	0.43 (0.20-0.93)	48 (43.6)	5 (19.2)	0.35 (0.13-0.93)	48 (43.6)	7 (35.0)	0.62 (0.23-1.68)
	Kr.: 5 pre-miRNA	GG	3 (2.7)	1 (2.3)	<b>0.0269/0.0175</b>	3 (2.7)	1 (3.8)	<b>0.0259/0.0187</b>	3 (2.7)	0 (0.0)	0.3429
		A	166 (75.5)	75 (85.2)	0.533 (0.274-1.035)	166 (75.5)	45 (86.5)	0.478 (0.204-1.123)	166 (75.5)	33 (82.5)	0.652 (0.273-1.559)
		G	54 (24.5)	13 (14.8)	0.0604	54 (24.5)	7 (13.5)	0.0848	54 (24.5)	7 (17.5)	0.3334

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; VCR, vinkristina; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; D zuzend. P; dosiak zuzendutako p-balioa; Kr, kromosoma; NA, ez eskuragarri.

**Oharrak:** letra lodieiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

**17. taula.** Haurtzaroko LLA-n VCR-k induzitutako neurotoxizitate globalarekin asoziatutako hamabi SNP-en zerrenda (Jarraipena).


miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	1-4 graduko Tox (n=175)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P	1-2 graduko Tox (n=152)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P	3-4 graduko Tox (n=144)		Eredua OR. (% 95 KT) P-balioa/D zuzend. P
			EZ Tox N=120	Tox N=55		EZ Tox N=120	Tox N=32		EZ Tox N=120	Tox N=24	
hsa-mir-1208 rs2648841	Kr.: 8 pre-miRNA	CC	84 (78.5)	27 (61.4)	Dominantea	84 (78.5)	15 (57.7)	Dominantea	84 (78.5)	12 (60.0)	Dominantea
		AC	20 (18.7)	16 (36.4)	2.30 (1.07-4.93)	20 (18.7)	11 (42.3)	2.68 (1.08-6.62)	20 (18.7)	7 (35.0)	2.43 (0.89-6.66)
		AA	3 (2.8)	1 (2.3)	<b>0.0336/0.0237</b>	3 (2.8)	0 (0.0)	<b>0.0358/0.0243</b>	3 (2.8)	1 (5.0)	0.0905
		C	188 (87.9)	70 (79.5)	1.859 (0.96-3.6)	188 (87.9)	41 (78.8)	1.94 (0.888-4.239)	188 (87.9)	31 (77.5)	2.099 (0.899-4.901)
		A	26 (12.1)	18 (20.5)	0.0630	26 (12.1)	11 (21.2)	0.0924	26 (12.1)	9 (22.5)	0.0813
hsa-mir-6128 rs67042258	Kr.: 11 pre-miRNA	GG	56 (50.9)	20 (44.4)	Errezesiboa	56 (50.9)	10 (37.0)	Errezesiboa	56 (50.9)	9 (45.0)	Errezesiboa
		AG	43 (39.1)	25 (55.6)	0 (0.0)	43 (39.1)	17 (63.0)	0 (0.0)	43 (39.1)	11 (55.0)	0 (0.0)
		AA	11 (10.0)	0 (0.0)	<b>0.0347/0.0047</b>	11 (10.0)	0 (0.0)	0.1211/0.0234	11 (10.0)	0 (0.0)	0.2130/0.0487
		G	155 (70.5)	65 (72.2)	0.917 (0.532-1.581)	155 (70.5)	37 (68.5)	1.096 (0.576-2.084)	155 (70.5)	29 (72.5)	0.905 (0.426-1.919)
		A	65 (29.5)	25 (27.8)	0.7556	65 (29.5)	17 (31.5)	0.7807	65 (29.5)	11 (27.5)	0.7936
hsa-mir-6504 rs74469188	Kr.: 16 in_mature	TT	75 (81.5)	29 (65.9)	Dominantea	75 (81.5)	18 (69.2)	Dominantea	75 (81.5)	13 (65.0)	Dominantea
		CT	17 (18.5)	13 (29.5)	2.28 (1.01-5.16)	17 (18.5)	7 (26.9)	1.96 (0.73-5.25)	17 (18.5)	6 (30.0)	2.38 (0.82-6.85)
		CC	0 (0.0)	2 (4.5)	<b>0.0488/0.0321</b>	0 (0.0)	1 (3.8)	0.1896	0 (0.0)	1 (5.0)	0.1189
		T	167 (90.8)	71 (80.7)	2.352 (1.137-4.868)	167 (90.8)	43 (82.7)	2.056 (0.857-4.931)	167 (90.8)	32 (80)	2.456 (0.977-6.172)
		C	17 (9.2)	17 (19.3)	<b>0.0187</b>	17 (9.2)	9 (17.3)	0.1008	17 (9.2)	8 (20)	0.0501
hsa-mir-577 rs34115976	Kr.: 4 pre-miRNA	CC	73 (67.6)	26 (57.8)	Errezesiboa	73 (67.6)	15 (55.6)	Errezesiboa	73 (67.6)	12 (60.0)	Dominantea
		CG	33 (30.6)	15 (33.3)	5.17 (0.91-29.32)	33 (30.6)	8 (29.6)	9.22 (1.59-53.37)	33 (30.6)	8 (40.0)	1.39 (0.52-3.71)
		GG	2 (1.9)	4 (8.9)	0.0541/0.0272	2 (1.9)	4 (14.8)	<b>0.0107/0.0034</b>	2 (1.9)	0 (0.0)	0.5137
		C	179 (82.9)	67 (74.4)	1.661 (0.919-3)	179 (82.9)	38 (70.4)	2.037 (1.029-4.033)	179 (82.9)	32 (80)	1.209 (0.516-2.835)
		G	37 (17.1)	23 (25.6)	0.0907	37 (17.1)	16 (29.6)	<b>0.0386</b>	37 (17.1)	8 (20)	0.6613
hsa-mir-4642 rs67182313	Kr.: 6 pre-miRNA	AA	71 (65.1)	32 (71.1)	Dominantea	71 (65.1)	15 (55.6)	Errezesiboa	71 (65.1)	18 (90.0)	Dominantea
		AG	35 (32.1)	11 (24.4)	0.76 (0.36-1.62)	35 (32.1)	10 (37.0)	2.83 (0.45-17.82)	35 (32.1)	2 (10.0)	0.21 (0.05-0.94)
		GG	3 (2.8)	2 (4.4)	0.4707	3 (2.8)	2 (7.4)	0.2912	3 (2.8)	0 (0.0)	<b>0.0162/0.0168</b>
		A	177 (81.2)	75 (83.3)	0.863 (0.451-1.654)	177 (81.2)	40 (74.1)	1.511 (0.753-3.034)	177 (81.2)	38 (95)	0.227 (0.053-0.980)
		G	41 (18.8)	15 (16.7)	0.6578	41 (18.8)	14 (25.9)	0.2436	41 (18.8)	2 (5)	<b>0.0312</b>
mir-1908 rs174561	Kr.: 11 pre-miRNA	TT	64 (62.1)	20 (45.5)	Dominantea	64 (62.1)	14 (53.8)	Errezesiboa	64 (62.1)	7 (35.0)	Dominantea
		CT	33 (32.0)	23 (52.3)	1.97 (0.96-4.02)	33 (32.0)	12 (46.2)	0 (0,0)	33 (32.0)	12 (60.0)	3.05 (1.12-8.30)
		CC	6 (5.8)	1 (2.3)	0.0620/0.0413	6 (5.8)	0 (0.0)	0.3472	6 (5.8)	1 (5.0)	<b>0.0252/0.0095</b>
		T	161 (78.2)	63 (71.6)	1.42 (0.804-2.508)	161 (78.2)	40 (76.9)	1.073 (0.52-2.216)	161 (78.2)	26 (65)	1.926 (0.929-3.993)
		C	45 (21.8)	25 (28.4)	0.2262	45 (21.8)	12 (23.1)	0.8482	45 (21.8)	14 (35)	0.0746

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; VCR, vinkristina; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; D zuzend. P; dosiak zuzendutako p-balioa; Kr, kromosoma; NA, ez eskuragarri.

**Oharrak:** letra lodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

### Analisi bioinformatikoak

- Aldaera genetikoek pre-miRNA-en egitura sekundarioan duten efektua
- rs12402181 SNP-a miR-3117-3p-ren *seed* eremuan kokatua zegoen. G aleloa A-rengatik ordezkatzean ez zen ez energia aldaketarik ezta egitura sekundarioaren asaldurarik ere agertu (18. irudia, a). MiR-4481-eko rs7896283-rentzat, pre-miRNA sekuentzian kokatua, T aleloa C aleloagatik ordezkatzearak -1,2 kcal/mol-eko energia aldaketa ( $\Delta\Delta G$ ) bat eragin zuen (-17,3-tik -18,5 kcal/mol-era). Aldaketa aleliko honek egitura sekundarioaren aldaketa ere eragin zuen (18. irudia, b). MiR-6076-ko rs35650931-eri dagokionez, hau ere pre-miRNA sekuentzian kokatua, G aleloa C aleloagatik ordezkatzearak 0,3 kcal/mol-eko energia aldaketa xume bat (-41,20-tik -40,90 kcal/mol-era) eta egitura sekundarioaren aldaketa eragin zituen (18. irudia, c).



**18. irudia.** MiRNA-tako SNP esanguratsuenen (a. miR-3117, b. miR-4481 eta c. miR-6076) energia aldaketak ( $\Delta\Delta G$ ) eta gutxieneko energia-aske egiturak, alelo ezberdinen presentzia dela eta, RNAfold web tresnatik erauzita. MiRNA bakoitzarentzat SNP-en aleloak zirkulu baten barnean daude eta geziak aldaera aleloa markatzen du.

- *Ituen iragarpena eta bidezidorren analisia*

Lehenengo estrategia jarraituz, miRNA-en ituak bilatu genituen VCR-ren PK/PD-ko geneen artean. MiR-3117-rentzat bi garaiatzaileren geneak, *ABCC1* eta *RALBP1* (17. irudia), aurkitu genituen miR-4481 edo miR-6076-rentzat aldiz bat bera ere ez.

MiR-4481 eta miR-6076-rentzat bigarren estrategia batean, bidezidorren aberaste analisiak burtu ziren neurotoxizitatearekin erlazionatutako beste gene batzuk aurkitzeko asmoz. MiR-4481-entzat, 5 bidezidor posible aurkitu genituen, eta haietako lau nerbio sistemarekin erlazionatuak zeuden (18. taula). Axoi-gidatze bidezidorra izan zen bidezidorrik esanguratsuena eta Reactome ( $p = 1,36 \times 10^{-7}$ ) zein KEGG ( $p = 7,83 \times 10^{-6}$ ) datu baseek identifikatu zuten. MiR-4481-ek guztira bidezidor honetako 40 gene zituen itutzat (19. taula). Beste bi bidezidorrak sinapsi-glutamartegikoarena eta sistema-neuronalena izan ziren. MiR-6076-ri dagokionez, ez genuen neurotoxizitatearekin erlazionatutako bidezidorrik aurkitu lehen itxuran behintzat.

**18. taula.** ConsensusPath datu-baseko bidezidorren aberaste analisi bidez miR-4481-entzat iragarritako bost bidezidorren zerrenda.

Zb.	Bidezidorra	Datu basea	p-balioa	q-balioa	Tamaina	Edukitako kandidatuak
1	Axoi-gidatzea	Reactome	1.36e-07	0.000146	487	33 (% 6.8)
2	Garapenaren Biologia	Reactome	4.59e-07	0.000246	748	42 (% 5.6)
3	Axoi gidatzea - <i>Homo sapiens</i> (gizakia)	KEGG	7.83e-06	0.0028	177	16 (% 9.0)
4	Sinapsi Glutamatergikoa - <i>Homo sapiens</i> (gizakia)	KEGG	4.26e-07	0.00023	114	12 (% 10.5)
5	Sistema neuronala	Reactome	5.94e-05	0.0127	251	22 (% 6.3)

**19. taula.** *In-silico* iragarritako axoi-gidatze bidezidorreko geneak miR-4481-en itu geneekin gainjartzen direnak Reactome edo KEGG datu baseen arabera.

Entrez-gene	Genearen izena	Datu basea
8829	NRP1 : neuropilin 1	Reactome, KEGG
2046	EPHA8 : EPH receptor A8	Reactome, KEGG
5362	PLXNA2 : plexin A2	Reactome, KEGG
1943	EFNA2 : ephrin A2	Reactome, KEGG
1944	EFNA3 : ephrin A3	Reactome, KEGG
10298	PAK4 : p21 (RAC1) activated kinase 4	Reactome, KEGG
3897	L1CAM : L1 cell adhesion molecule	Reactome, KEGG
9901	SRGAP3 : SLIT-ROBO Rho GTPase activating protein 3	Reactome, KEGG
137970	UNC5D : unc-5 netrin receptor D	Reactome, KEGG
200734	SPRED2 : sprouty related EVH1 domain containing 2	Reactome
7408	VASP : vasodilator-stimulated phosphoprotein	Reactome
9260	PDLIM7 : PDZ and LIM domain 7	Reactome
1641	DCX : doublecortin	Reactome
6324	SCN1B : sodium voltage-gated channel beta subunit 1	Reactome
4629	MYH11 : myosin heavy chain 11	Reactome
9462	RASAL2 : RAS protein activator like 2	Reactome
8986	RPS6KA4 : ribosomal protein S6 kinase A4	Reactome
5156	PDGFRA : platelet derived growth factor receptor alpha	Reactome
8831	SYNGAP1 : synaptic Ras GTPase activating protein 1	Reactome
2906	GRIN2D : glutamate ionotropic receptor NMDA type subunit 2D	Reactome
8515	ITGA10 : integrin subunit alpha 10	Reactome
2263	FGFR2 : fibroblast growth factor receptor 2	Reactome
8874	ARHGEF7 : Rho guanine nucleotide exchange factor 7	Reactome
9826	ARHGEF11 : Rho guanine nucleotide exchange factor 11	Reactome
10048	RANBP9 : RAN binding protein 9	Reactome
55800	SCN3B : sodium voltage-gated channel beta subunit 3	Reactome
4627	MYH9 : myosin heavy chain 9	Reactome
64283	ARHGEF28 : Rho guanine nucleotide exchange factor 28	Reactome
784	CACNB3 : calcium voltage-gated channel auxiliary subunit beta 3	Reactome
6327	SCN2B : sodium voltage-gated channel beta subunit 2	Reactome
28964	GIT1 : GIT ArfGAP 1	Reactome
2886	GRB7 : growth factor receptor bound protein 7	Reactome
8682	PEA15 : phosphoprotein enriched in astrocytes 15	Reactome
5293	PIK3CD : phosphatidylinositol-4,5-bisphosphate 3-kinase catalytic subunit delta	KEGG
6405	SEMA3F : semaphorin 3F	KEGG
6387	CXCL12 : C-X-C motif chemokine ligand 12	KEGG
10500	SEMA6C : semaphorin 6C	KEGG
7976	FZD3 : frizzled class receptor 3	KEGG
57715	SEMA4G : semaphorin 4G	KEGG
5535	PPP3R2 : protein phosphatase 3 regulatory subunit B, beta	KEGG

## EZTABAIDA

Dagokigun ikerketan, 154 miRNA-tako 160 SNP eta VCR-ren neurotoxizitatearen arteko korrelazioa analizatu dugu indukzio fasean, espiniar LAL-SHOP 94/95/2005 protokoloekin homogeneoki tratatutako LLA-dun 155 haurretan. Emaitza interesgarriena eta esanguratsuena miR-3117-ko rs12402181-rentzat aurkitu zen, zeinen AA genotipoak VCR zeluletatik ateratzeko fluxua areagotu zezakeen *ABCC1* eta *RALBP1* geneak medio. Gainera, esangura maila baxuagoan bada ere, bigarren SNP interesgarri bat identifikatu zen, miR-4481-eko rs7896283, zeina axoigidatze bidezidorreko geneen erregulazioan implikatuta egon zitekeen.

Ikerketa honetako emaitza esanguratsuena miR-3117-ko rs12402181-entzat aurkitu zen, zeinetan AG+AA genotipoek neurotoxizitate periferikoa jasateko 0,2 bider arrisku txikiagoa erakutsi zuten eredu dominantearen baitan. Emaitza esanguratsu hau modu koherentean lortu zen analisi guztietan. SNP hau miR-3117-3p-ren *seed* eremuan kokatua dago, ondorioz, G aleloa A aleloarengatik ordezkatzeak bere itu mRNA sekuentzien ezagutza zehatza kaltetuko luke. *In silico* analisiek zehaztu zuten miR-3117-3p-k VCR-ren bi garraio gene zituela itutzat, *ABCC1* eta *RALBP1*. *ABCC1* geneak farmako anitzen erresistentziarako 1 proteina (MRP1) kodifikatzen du, zeinak bitartekotza lanak egiten dituen antineoplásiko talde zabal baten ATP-menpeko kanporatze fluxuan, VCR bezalako vinka alkaloideak barne (Franca et al., 2017; Kunicka and Soucek, 2014). Zinez, garraiatzailearen funtzioa kaltetuko luketen *ABCC1*-en baitako zenbait polimorfismo asoziatu dira dagoeneko VCR-rekin erlazionatutako neuropatiarekin (Franca et al., 2017; Lopez-Lopez et al., 2016). Bestalde, miR-3117-3p-ren ustezko bigarren itua, *RALBP1*, vinka alkaloideak zeluletatik ateratzeko prozesuan oso aktiboa den proteina gisa identifikatu da (Awasthi et al., 2005). *RALBP1*-en inhibizioa farmako pilaketarekin eta zitotoxizitate areagotuarekin asoziatu izan da (Drake et al., 2007). Ondorioz, rs12402181-en A aldaera aleloak miR-3117-3p-k *ABCC1* eta *RALBP1*-en mRNA-ei lotzeko duen gaitasunean eragingo luke, horrela beren adierazpena areagotuz. *ABCC1* eta *RALBP1* geneen adierazpen areagotuak VCR-ren zeluletatik kanporanzko fluxua areagotuko luke, VCR-ek induzitutako neurotoxizitate arrisku murrizketa azalduz. Rs12402181-ren efektuak zelulen VCR-rekiko sentsibilitatea jaisten duela dirudien arren, biziraupen orokorra (OS) eta gertaerarik gabeko biziraupena (EFS) analizatu zirenean ez zen asoziaziorik aurkitu (datuok ez dira erakusten).

Bigarren emaitza esanguratsuena miR-4481-eko rs7896283-ren CT+CC genotipoentzat behatu zen, zeintzuek indukzio fasean 2,62 bider neurotoxizitate (1-4 gradukoa) arrisku altuagoa erakutsi zuten eredu dominantearen baitan. SNP honek ere asoziazioa erakutsi zuen neurotoxizitate altuarekin (3-4 gradukoa), eta analisi globalak gauzatu zirenean esanguratsu

izaten jarraitu zuen. Rs7896283-ren C aleloa pre-miRNA sekuentzian kokatua dago eta T aleloa C aleloagatik ordezkatzeark energia aldaketa negatibo bat eragiten du. Aldaketa honek miRNA-ren urkila egoera ezegonkor batetik egonkor batera ( $\Delta\Delta G = -1,2 \text{ kcal/mol}$ ) eraldatu lezake. Pre-miRNA egituraren egonkortasuna handitzeak miRNA helduaren produktua areagotuko lukeela proposatu da (Gong et al., 2012), eta horrela, bere itu geneen adierazpen murriztua ekarriko luke. Kasu honetan, ez genituen miR-4481-ren itu generik aurkitu VCR-ren PK edo PD-rekin erlazionatutako geneen artean. Hala ere, bidezidorren aberaste analisi bidez, VCR-k induzitutako neurotoxizitatean implikatuta egon zitezkeen bost ustezko bidezidor aurkitu genituen. Nabarmentzeko modukoa da bost bidezidor hauetatik lau nerbio sistemarekin erlazionatuak zeudela. Gainera, KEGG eta Reactome datu baseek axoi-gidatze bidezidorra iragarri zuten miR-4481-en itu bidezidor esanguratsuena bezala. Axoi-gidatze bidezidorra nerbio periferikoen erregenerazio espontaneoan implikatua dago hauiek kaltetuak daudenean (Chiono and Tond-Turo, 2015). Beraz, rs7896283-ren Carrisku aleloak miR-4481-en egonkortasuna handitu lezake, honekin bere maila helduak areagotuz eta azken ondorio gisa itu geneen adierazpen murrizketa bat ekarriz. Horrela, nerbio periferikoen erregenerazioan implikatutako geneen adierazpen murrizketa izan liteke areagotutako neuropatia periferikoaren azalpena.

VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin asoziazio esanguratsua erakutsi zuten beste 10 SNP aurkitu ziren indukzio fasean, zeintzuentzat ezin izan genuen funtzioa azaldu, adibidez miR-6076-ko rs35650931 (16. taula).

Ikerketa honek baditu aipatu beharreko zenbait muga, adibidetzat genotipazio teknikan izandako akats tasa erlatiboki altua. Hala ere, huts egite aukera altu hau ikerketa hasi zen unetik onartu zen, polimorfismo espezifikok amplifikatzeko beste diseinu aukerarik ez zegoelako. Beste ahultasun posible bat SNP-ek FDR zuzenketa ondoren p-balio esanguratsua lortu ez zutela izan liteke. Hala ere, nabarmentzekoa da miR-3117-ko rs12402181-k FDR zuzenketa ondoren ia p-balio esanguratsua lortu zuela ( $p = 0,06$ ), eta asoziazio hau modu koherentean lortu zen analisi guztietan. Honez gain, SNP honen eta neurotoxizitatearen arteko interakzio maila zehazteko botere estatistikoa % 70-koa izan zen, gure emaitzei indarra ematen diena. Modu kontrajarrian, bigarren SNP-arentzat botere estatistikoa % 54-koa izan zen soilik. Azkenik, itu geneak eta bidezidorrak zehazteko erabilitako datu-baseetako iragарpen algoritmoen zehazgabatasuna kontuan hartu behar dugu (Akhtar et al., 2016; Lee et al., 2015), hala ere, gaur egun muga hau onartu beharra dago.

Ikerketa honetan, miR-3117-3p-ren *seed* eremuan kokatutako rs12402181 eta miR-4481-en *premature* sekuentziako rs7896283 identifikatu genituen VCR-k induzitutako neurotoxizitatearekin

esanguratsuki asoziatuak. MiR-3117-3p-ren kasuan, SNP-ak *ABCC1* and *RALBP1* itu geneekiko lotura galera eragin lezake, VCR-ren kanporaketa kaltetuz. MiR-4481-eri dagokionez, SNP-ak miRNA-aren mailetan eragin lezake eta ondorioz nerbio periferikoen erregeraziaoan implikatutako geneen adierazpenean aldaketak ekarri. Aurkikuntza hauek VCR-ren neurotoxizitatearekin asoziaturiko miRNA-tako bi SNP-en implikazio posiblea erakusten dute.

### AITORPENAK

Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzak sostengatu zuen (IT661-13 eta IT989-16). Spainiar Genotipazio Zentroaren (CeGen) sostengua eskertzen da.

### INTERESEN GATAZKA

Egileek interes gatazka eza aitortzen dute.

### ERREFERENTZIAK

Akhtar, M.M., Micolucci, L., Islam, M.S., Olivieri, F., and Procopio, A.D. (2016). Bioinformatic tools for microRNA dissection. *Nucleic Acids Res.* 44, 24–44.

Awasthi, S., Hallene, K.L., Fazio, V., Singhal, S.S., Cucullo, L., Awasthi, Y.C., Dini, G., and Janigro, D. (2005). RLIP76, a non-ABC transporter, and drug resistance in epilepsy. *BMC Neurosci.* 6, 61.

Benjamini, Y., Drai, D., Elmer, G., Kafkafi, N., and Golani, I. (2001). Controlling the false discovery rate in behavior genetics research. *Behav. Brain Res.* 125, 279–284.

Carozzi, V.A., Canta, A., and Chiorazzi, A. (2015). Chemotherapy-induced peripheral neuropathy: What do we know about mechanisms? *Neurosci. Lett.* 596, 90–107.

Ceppi, F., Langlois-Pelletier, C., Gagne, V., Rousseau, J., Ciolino, C., De Lorenzo, S., Kevin, K.M., Cijov, D., Sallan, S.E., Silverman, L.B., et al. (2014). Polymorphisms of the vincristine pathway and response to treatment in children with childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics* 15, 1105–1116.

Chiono, V., and Tonda-Turo, C. (2015). Trends in the design of nerve guidance channels in peripheral nerve tissue engineering. *Prog. Neurobiol.* 131, 87–104.

Diouf, B., Crews, K.R., Lew, G., Pei, D., Cheng, C., Bao, J., Zheng, J.J., Yang, W., Fan, Y., Wheeler, H.E., et al. (2015). Association of an inherited genetic variant with vincristine-related peripheral neuropathy in children with acute lymphoblastic leukemia. *JAMA* 313, 815–823.

Drake, K.J., Singhal, J., Yadav, S., Nadkar, A., Pungaliya, C., Singhal, S.S., and Awasthi, S. (2007). RALBP1/RLIP76 mediates multidrug resistance. *Int. J. Oncol.* 30, 139–144.

Dweep, H., Sticht, C., Pandey, P., and Gretz, N. (2011). miRWALK--database: prediction of possible miRNA binding sites by “walking” the genes of three genomes. *J. Biomed. Inform.* 44, 839–847.

Egbelakin, A., Ferguson, M.J., MacGill, E.A., Lehmann, A.S., Topletz, A.R., Quinney, S.K., Li, L., McCammack, K.C., Hall, S.D., and Renbarger, J.L. (2011). Increased risk of vincristine neurotoxicity associated with low CYP3A5 expression genotype in children with acute lymphoblastic leukemia. *Pediatr. Blood Cancer* 56, 361–367.

Fabregat, A., Sidiropoulos, K., Garapati, P., Gillespie, M., Hausmann, K., Haw, R., Jassal, B., Jupe, S., Korninger, F., McKay, S., et al. (2016). The Reactome pathway Knowledgebase. *Nucleic Acids Res.* 44, D481-7.

Franca, R., Rebora, P., Bertorello, N., Fagioli, F., Conter, V., Biondi, A., Colombini, A., Micalizzi, C., Zecca, M., Parasole, R., et al. (2017). Pharmacogenetics and induction/consolidation therapy toxicities in acute lymphoblastic leukemia patients treated with AIEOP-BFM ALL 2000 protocol. *Pharmacogenomics J.* 17, 4–10.

Gong, J., Tong, Y., Zhang, H.-M., Wang, K., Hu, T., Shan, G., Sun, J., and Guo, A.-Y. (2012). Genome-wide identification of SNPs in microRNA genes and the SNP effects on microRNA target binding and biogenesis. *Hum. Mutat.* 33, 254–263.

Gruber, A.R., Lorenz, R., Bernhart, S.H., Neubock, R., and Hofacker, I.L. (2008). The Vienna RNA websuite. *Nucleic Acids Res.* 36, W70-4.

Gutierrez-Camino, A., Martin-Guerrero, I., Lopez-Lopez, E., Echebarria-Barona, A., Zabalza, I., Ruiz, I., Guerra-Merino, I., and Garcia-Orad, A. (2016). Lack of association of the CEP72 rs924607 TT genotype with vincristine-related peripheral neuropathy during the early phase of pediatric acute lymphoblastic leukemia treatment in a Spanish population. *Pharmacogenet. Genomics* 26, 100–102.

Gutierrez-Camino, A., Oosterom, N., den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., Martin-Guerrero, I., Pluijm, S.M.F., Pieters, R., de Jonge, R., Tissing, W.J.E., Heil, S.G., et al. (2017). The miR-1206 microRNA variant is associated with methotrexate-induced oral mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenet. Genomics* 27, 303–306.

Hartman, A., van Schaik, R.H.N., van der Heiden, I.P., Broekhuis, M.J.C., Meier, M., den Boer, M.L., and Pieters, R. (2010). Polymorphisms in genes involved in vincristine pharmacokinetics or pharmacodynamics are not related to impaired motor performance in children with leukemia. *Leuk. Res.* 34, 154–159.

Iparraguirre, L., Gutierrez-Camino, A., Umerez, M., Martin-Guerrero, I., Astigarraga, I., Navajas, A., Sastre, A., Garcia de Andoin, N., and Garcia-Orad, A. (2016). MiR-pharmacogenetics of methotrexate in childhood B-cell acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenet. Genomics* 26, 517–525.

Johnston, W.T., Lightfoot, T.J., Simpson, J., and Roman, E. (2010). Childhood cancer survival: a report from the United Kingdom Childhood Cancer Study. *Cancer Epidemiol.* 34, 659–666.

Kamburov, A., Stelzl, U., Lehrach, H., and Herwig, R. (2013). The ConsensusPathDB interaction database: 2013 update. *Nucleic Acids Res.* 41, D793-800.

Kanehisa, M., Furumichi, M., Tanabe, M., Sato, Y., and Morishima, K. (2017). KEGG: new perspectives on genomes, pathways, diseases and drugs. *Nucleic Acids Res.* 45, D353–D361.

Kunicka, T., and Soucek, P. (2014). Importance of ABCC1 for cancer therapy and prognosis. *Drug Metab. Rev.* 46, 325–342.

Lee, Y.J.D., Kim, V., Muth, D.C., and Witwer, K.W. (2015). Validated MicroRNA Target Databases: An Evaluation. *Drug Dev. Res.* 76, 389–396.

Li, M.-P., Hu, Y.-D., Hu, X.-L., Zhang, Y.-J., Yang, Y.-L., Jiang, C., Tang, J., and Chen, X.-P. (2016). MiRNAs and miRNA Polymorphisms Modify Drug Response. *Int. J. Environ. Res. Public Health* 13.

Lopez-Lopez, E., Gutierrez-Camino, A., Bilbao-Aldaiturriaga, N., Pombar-Gomez, M., Martin-Guerrero, I., and Garcia-Orad, A. (2014). Pharmacogenetics of childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics* 15, 1383–1398.

Lopez-Lopez, E., Gutierrez-Camino, A., Astigarraga, I., Navajas, A., Echebarria-Barona, A., Garcia-Miguel, P., Garcia de Andoin, N., Lobo, C., Guerra-Merino, I., Martin-Guerrero, I., et al. (2016). Vincristine pharmacokinetics pathway and neurotoxicity during early phases of treatment in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics* 17, 731–741.

Moore, A.S., Norris, R., Price, G., Nguyen, T., Ni, M., George, R., van Breda, K., Duley, J., Charles, B., and Pinkerton, R. (2011). Vincristine pharmacodynamics and pharmacogenetics in children with cancer: a limited-sampling, population modelling approach. *J. Paediatr. Child Health* 47, 875–882.

Nakajima, M., and Yokoi, T. (2011). MicroRNAs from biology to future pharmacotherapy: regulation of cytochrome P450s and nuclear receptors. *Pharmacol. Ther.* 131, 330–337.

Plasschaert, S.L.A., Groninger, E., Boezen, M., Kema, I., de Vries, E.G.E., Uges, D., Veerman, A.J.P., Kamps, W.A., Vellenga, E., de Graaf, S.S., et al. (2004). Influence of functional polymorphisms of the MDR1 gene on vincristine pharmacokinetics in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Clin. Pharmacol. Ther.* 76, 220–229.

Postma, T.J., Benard, B.A., Huijgens, P.C., Ossenkoppele, G.J., and Heimans, J.J. (1993). Long-term effects of vincristine on the peripheral nervous system. *J. Neurooncol.* 15, 23–27.

Sambrook, J., R.D. (2001). Molecular cloning: a laboratory manual (New York: NY: Cold Spring Harbor Laboratory Press).

Sullivan, K.M., Dean, A., and Soe, M.M. (2009). OpenEpi: a web-based epidemiologic and statistical calculator for public health. *Public Health Rep.* 124, 471–474.



## Haurtzaroko leuzemia linfoblastiko akutuaren farmakoepigenetika: miRNA polimorfismoen inplikazioa hepatotoxizitatean

Umerez, Maitane<sup>1\*</sup>, PhD ikaslea; Gutierrez-Camino, Ángela<sup>1\*</sup>, PhD; Santos, Borja<sup>1</sup>, PhD; Martín-Guerrero, Idoia<sup>1</sup>, PhD; García de Andoin, Nagore<sup>2,3</sup>, MD; Sastre, Ana<sup>4</sup>,MD; Navajas, Aurora<sup>5,6</sup>PhD; Astigarraga, Itziar<sup>3,5,6</sup>, PhD; Garcia-Orad, Africa<sup>1,6</sup>, PhD.

\*Autore hauek egileta partekatzen dute.

<sup>1</sup>Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Spainia; <sup>2</sup>Onkohematología Pediátrico Saila, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Spainia; <sup>3</sup>Pediatria Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU, Leioa, Spainia; <sup>4</sup>Onkohematología Pediátrico Saila, La Paz Unibertsitate Ospitalea, Madrid, Spainia; <sup>5</sup>Pediatria Saila, Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Barakaldo, Spainia; <sup>6</sup> BioCruces Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Spainia.

### Laburpena

**Helburuak:** Hepatotoxizitatea haurtzaroko leuzemia linfoblastiko akutuaren (LLA) tratamenduan zehar azaltzen den farmakoek eragindako toxizitaterik ohikoenetako bat da. Gibeleko seinalizazio-bide espezifikoekin erlazionatutako gene ugari estuki kontrolatuak daude miRNA-engatik, eta miRNA-en funtzioa SNP-ek modulatu dezakete. Ondorioz, gure hipotesia miRNA-tako aldaerak farmakoek eragindako hepatotoxikotasunarekin asoziaturik egon litezkeela da. **Metodoak:** 206 miRNA-tako 213 SNP analizatu genituen homogeneoki tratatutako LLA-dun 179 haurren kohorte batean. **Emaitzak:** SNP esanguratsuena FDR zuzenketa ondoren miR-1208-ko rs2648841 izan zen, segur aski bere itu geneen (*DHFR*, *MTR* eta *MTHFR*) efektua tarteko. **Ondorioak:** Emaitza hauek miRNA-tako SNP-ek kimioterapiaren toxizitatean duten eragin posiblea erakusten dute LLA-dun haurretan.

**Hitz gakoak:** Hepatotoxizitatea, SNP-ak, miRNA-ak, haurtzaroko leuzemia linfoblastiko akutua, kimioterapia, metotrexatoa.

## SARRERA

Leuzemia linfoblastiko akutua (LLA) haurtzaroko minbizi mota ohikoena da, pediatriako gaitz onkohematologikoen % 30 zenbatzeraino herrialde garatuetan (Johnston et al., 2010). Azken hamarkadetan biziraupena igo da, % 90era iritsiz eta herrialde batzuetan gaindituz, neurri batean tratamendu protokoloetan egindako aurrerapenengatik (Pui et al., 2015). Hala ere, terapiaren arrakasta klinikoa gorabehera, sarri pazienteek toxizitatea jasaten dute, dosi jaitsiera edo tratamenduaren gelditzea beharrezkoa eginez (Salazar et al., 2012), honek ekar dezakeen biziraupen kaltetzearekin. Testuinguru honetan, minbizi tratamenduen toxizitatea gutxitzearen garrantzia areagotu da (den Hoed et al., 2015).

Haurtzaroko LLA pazienteetan ematen den farmakoei loturiko toxizitaterik ohikoenetako bat hepatotoxizitatea da (Liu et al., 2017). Toxizitate hau, neurri batean serumeko aminotransferasen igoera bat bezala definitzen da, farmakoek eragindako hepatozitoen heriotzaren emaitza gisa. Haurtzaroko LLA pazienteen % 66,5-ak gutxi gorabehera gibel toxizitatea erakusten du LLA tratamenduan zehar punturen batean (Ladas et al., 2010). Hepatotoxizitatea garatzen den unea administratu den farmakoaren araberakoa izan daiteke (Iorga et al., 2017). Izatez, indukzio fasean zehar, Liu eta lankideek hepatotoxizitatea asparraginasa (ASP) esposizioarekin lotu zuten, aldiz kontsolidazio fasean zehar, jakina da metotrexato (MTX) dosi altuek gibel toxizitatea eragiten dutela (Liu et al., 2017).

Zein fasetan ageri den kontuan izan gabe, medikuntzaren erronketako bat farmakoek eragindako hepatotoxizitatea zein pazientek garatuko duten iragartzea da, dosia aldez aurretik doitu ahal izateko. Ildo honetan, ikerketa farmakogenetikoek aldaera genetikoen eta haurtzaroko LLA tratamenduan zeharreko hepatotoxizitatearen arteko asoziazioen berri eman dute (Erčulj et al., 2012; Gregers et al., 2010, 2015b; Liu et al., 2017). Adibidez, Liu eta lankideek Genoma Osoko Aldaera Genetikoen Asoziaazio Ikerketa (GWAS) batean *PNPLA3*-ko rs738409 SNP-a identifikatu zuten irmoki asoziaturik hepatotoxizitatearekin LLA-dun haurretan indukzioan zehar (Liu et al., 2017), berriki erreplikatutako emaitza izanik (Gutierrez-Camino et al., 2017a). Kontsolidazioari dagokionez, hepatotoxizitatearen eragile nagusi gisa MTX-a kontsideratuz, ikerketa gehienek beren analisiak MTX-aren bidezidor farmakozinetiko eta farmakodinamikoetako aldaera gutxi batzuetara bideratu dituzte, adibide gisa, *RFC1* (80G>A) (Gregers et al., 2010), *ABCB1* (3435C>T) (Gregers et al., 2015a) edota *MTHFR* (677C>T eta 1298A>C) (Umerez et al., 2017), gibel toxizitate markatzaile argirik zehaztu gabe. Testuinguru honetan, farmakoepigenetika markatzaile iragarle berrien aurkikuntzarako erraminta gisa azaltzen da. Azpidiziiplina honek mikroRNA-en (miRNA) (maila postranskripzionalean geneen

adierazpena erregulatzen duten RNA ez-kodifikatzaileak) azterketa hartzen du bere baitan eta miRNA-en adierazpen areagotuak edo gutxituak farmakoen eraginkortasuna sustatzen edo farmakoen funtzioa inhibitzen duten geneengan eragina izan dezakeela ematen du aditzera (Rukov et al., 2014). MiRNA-tako aldaera genetikoek bere maila zein funtzioa alda dezakete eta ondorioz bere itu geneen adierazpenean eragin. Izatez, zenbait ikerketek dagoeneko aurkitu dute farmakoek eragindako toxizitateen eta miRNA-tako SNP-en arteko asoziazioa (Amstutz et al., 2015; Gutierrez-Camino et al., 2017b; Iparraguirre et al., 2016; Zhan et al., 2012).

Egun, jakina da gibeleko seinalizazio-bide espezifikoekin erlazionatutako gene ugari, farmakoen metabolismo zein garraioan parte hartzen dituztenak barne, estuki kontrolatuak daudela miRNA-engatik (Lauschke et al., 2017). Ondorioz, hipotesitzat honako hau izan genezake: indukzioan ASP-rekin erlazionatutako geneak eta kontsolidazioan MTX-arekin erlazionatutako geneak itu gisa dituzten miRNA-tako aldaerak farmakoek eragindako hepatotoxikotasunarekin asoziaturik egon litzke B-zelula aitzindarien leuzemia linfoblastiko akutua (B-LLA) duten haurretan. Ikerketa honetan, hepatotoxizitatearekin asoziaturik egon zitezkeen miRNA-tako SNP guztiak (alelo urrienaren maiztasuna ( $AUM \geq 0,01$ ) aztertu genituen homogeneoki tratatutako B-LLA-dun haurren kohorte handi batean.

## MATERIALAK ETA METODOAK

### Pazienteak

Honakoa, hiru espanyiar ospitaleetako Onkologia Pediatriko Unitateetan (Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea, La Paz Unibertsitate Ospitalea, 2000 eta 2013 urte bitartean) B-LLA-z diagnostikatutako 179 haur espanyiar barne hartu zituen atzera begirako ikerketa da. Paziente guztiak edo beraien gurasoen idatzizko baimen informatua eskuratu zen lagin bilketa aurretik. Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) onespena (CEISH/102R/2011) jaso zuen.

### Tratamendua eta toxizitatearen ebaluazioa

Ikerketan sartu ziren paziente guztiak LAL-SHOP 94/99/2005 espanyiar protokolo estandarraren baitan tratatu ziren homogeneoki. Indukzio fasean, asparraginasa  $5000-15000 \mu\text{m}^2$  10 dosi administratu ziren, tratamendu besoaren arabera. Fase honetan zehar, vinkristina, daunorrubizina, prednisona, ziklofosfamida eta metotrexato-zitarabina-hidrokortisona terapia intratekala ere eman ziren. LAL/SOP 99 protokoloan arrisku altuko pazienteek, +15 egunean metotrexato  $3 \text{ g/m}^2$  dosi bakar bat ere jaso zuten. Kontsolidazio fasean, pazienteak dosi altuko

MTX-aren hiru dosirekin (dosi bakoitzaz 3 edo 5 g/m<sup>2</sup>-ko), 6-merkaptopurinarekin, zitarabina lau dosirekin eta terapia intratekal hirukoitzaren lau dosirekin tratatu ziren.

Toxizitateari zegozkion datuak genotipoei itsu jaso ziren pazienteen historia kliniketatik, kasu guzietan bi ikertzaile aditu berberen eskutik. Gure analisiak aspartato aminotransferasa (AST) eta alanina aminotransferasa (ALT) igoera gisa neurtutako hepatotoxizitatean ardaztu genituen, pazienteen inklusio eta datu bilketa garaian indarrean zeuden gidei jarraiki (Bénichou, 1990; Robles-Díaz et al., 2014). Entzima hepatico hauek gutxienez astean behin neurtzen dira indukzio fasean zehar eta, kontsolidazioan zehar, nahitaezkoa da MTX administrazioaren ostean. Transaminasen mailak altu bidaude, tratamendua atzeratzen da, bereziki kontsolidazio fasean. Hepatotoxizitatea MOE-ren irizpideetatik egokitutako Hematologia eta Onkologia Pediatriko Erakunde Espaniarraren estandarren arabera graduatu zen (ikus 8.taula). Transaminasen maila hepatotoxikotzat hartu zen 2 gradutik 4 gradura ( $> 2,6 \times$  Normaltasunaren Goi Muga, ULN) eta hepatotoxikotasun altutzat 3 gradutik 4 gradura ( $> 5,1 \times$  ULN). Plasmako AST edo ALT maila altuena jaso zen indukzioan eta kontsolidazioan. Gainera, gibel kaltea bilirrubinaren (BI) igoera gisa ere detektatu daitekeenez, datuok ere erregistratu ziren. BI toxizitatea 1 gradutik 4 gradura ( $> 1,1 \times$  ULN) kontsideratu zen (ikus 8.taula). Baliorik altuena jaso zen indukzioan eta kontsolidazioan. Sexua eta adina bezalako beste datu batzuk ere sistematikoki jaso ziren historia klinikoetatik.

#### Gene eta polimorfismoen aukeraketa

MiRNA-en ituak gaur egun guztiz definituak ez daudela kontuan izanik, eta edozein miRNA zuzenki edo zeharka hepatotoxizitatearen garapenean zerikusia duten geneen erregulazioan implikaturik egon litekeelako, ikerketa gauzatu zen unean (2014-ko maiatza) deskribatuak zeuden miRNA geneetako SNP guztiak aukeratu genituen. Guztirako 969 miRNA-tako 1910 SNP-en artetik europar/kaukasiar populazioan AUM  $> 0,01$  zuten SNP-ak aukeratu genituen. SNP-en aukeraketarako, mirbase (<http://www.mirbase.org/>), miRNA SNIPER (<http://bioinfo.life.hust.edu.cn/miRNAsNP2/index.php>), eta dbSNP (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/SNP/>) datu-baseak erabili genituen, baita literaturaren araketa ere (ikus 11.taula).

### Genotipazioa

ADN genomikoa erremisioan zeuden LLA-dun pazienteen odol periferiko edo hezur muinetik erauzi zen fenol-kloroformo metodoa erabiliz, aurrez deskribatu bezala (Sambrook, J, 2001). ADN-a PicoGreen (Invitrogen Corp., Carlsbad, Kalifornia, AEB) bidez kuantifikatu zen.

Lagin bakoitzarentzat, 400 ng ADN genotipatu ziren Veracode teknologiadun GoldenGate Genotipazio Saiakuntza (Illumina Inc., San Diego, Kalifornia, AEB) erabiliz argitaratutako Illumina protokoloaren arabera. Datuak genotipoen *clustering* eta *calling*-erako GenomeStudio (Illumina Inc.) software bidez analizatu ziren. Lagin bikoitzuak eta CEPH hirukoak (Coriell Cell Repository, Camden, New Jersey,AEB) genotipatu ziren plaketan zehar. Transmisio-aleliko mendelialar akatsak edo genotipo diskordanteak erakusten zituzten SNPak analisitik baztertu ziren.

### Analisi estatistikoak

Transaminasen igoera bezala neurtutako hepatotoxizitatearen eta genotipoen arteko erlaziaoa indukzioan eta kontsolidazion erregresio logistiko modelo unibariante eta korrelazio koefiziente bidez neurtu zen. Adinak, sexuak eta MTX-aren dosiak eta maila plasmatikoen hepatotoxizitatean izan lezaketen efektu nahasle posiblea kontabilizatzeko erregresio logistiko multibarianteak erabili ziren. Hepatotoxizitatearen eta polimorfismo genetikoen arteko asoziazioa  $\chi^2$  edo Fisher-en froga zehatz bidez ebaluatu zen. Asoziazio efektuen tamaina odds ratio bidez estimatu zen. Eedu dominante eta errezesiboen arteko froga esanguratsuena aukeratu zen. Kasu guztietai esangura maila % 5-ean ezarri zen. Emaitzak konparaketa anitzetarako false discovery rate (FDR) zuzenketa bidez egokitut ziren (Benjamini et al., 2001). Analisiak R v3.3.0. software bidez gauzatu ziren.

### Analisi bioinfomatikoak

- *MiRNA-en egitura sekundarioen iragarpena*  
Emaitza esanguratsuak erakutsi zituzten miRNA-entzat, RNAfold web tresna (<http://rna.tbi.univie.ac.at/cgi-bin/RNAWebSuite/RNAfold.cgi>) (Gruber et al., 2008) erabili zen SNP-ek egitura sekundarioen gutxieneko energia aske eta urkila egituren energia aldaketan ( $\Delta\Delta G$ ) zuten inpaktua kalkulatzeko.

- *Itu geneen aukeraketa*

MiRNA-en itu geneak miRWalk (<http://www.umm.uni-heidelberg.de/apps/zmf/mirwalk/index.html>) datu-basean oinarrituta aukeratu ziren (Dweep and Gretz, 2015). MiRWalk-en baitako 12 iragarpen programatik, gutxienez 6 programek

konfirmatutako geneak aukeratu ziren soilik. ASP eta MTX-arekin potentzialki erlazionatutako geneak aukeratu ziren literaturaren araketa bidez eta Pharmacogenomic Knowledge Base (PharmGKB) (<https://www.pharmgkb.org/>) datu-basea erabiliz.

## EMAITZAK

### Pazienteen ezaugarriak

Ikerketa honetan guztira 179 paziente sartu genituen eta analisiak transaminasen igoera oinarritu genituen. Transaminasen balioak eskuragarri izan ziren 170 pazienterentzat indukzio fasean eta 168-rentzat kontsolidazio fasean (20.taula). Indukzio fasean zehar, 170-etik 55-ek (%32,3) aurkeztu zuten transaminasa mailen igoera bat ( $\geq 2$  graduko), haietatik 29-k (% 17,1) igoera altua ( $\geq 3$  graduko) jasan zutelarik. Kontsolidazio fasean, 168 pazienteetatik 49-k (% 29,2)  $\geq 2$  graduko transaminasa igoera izan zuten, haietako 19-ren kasuan igoera altua ( $\geq 3$  graduko) izan zelarik. Indukzio fasean transaminasa igoera jasan zuten pazienteetatik, soilik 20-k garatu zuten igoera hau kontsolidazio fasean zehar ere, eta ez zen toxizitateon arteko asoziaziorik aurkitu ( $p = 0,16$ ). Ez genuen transaminasen eta aztertutako adin, sexu, MTX dosi eta MTX plasma maila kobarianteen arteko asoziaziorik aurkitu, hau horrela, ez genituen kobarianteak hurrengo asoziazio analisietan kontuan hartu.

**20.taula.** Pazienteen ezaugarriak.

Ezaugarriak	Indukzio fasea	Kontsolidazio fasea
<b>Paziente kopurua</b>	170	168
<b>Sexua, n (%)</b>		
Gizonezkoak	100 (58,8)	100 (59,5)
Emakumezkoak	70 (41,2)	68 (40,5)
<b>Adina diagnostikoan, batezbesteko ± DE (urteak)</b>		
Gizonezkoak	5,27 ± 3,24	5,28 ± 3,24
Emakumezkoak	4,91 ± 3,28	4,98 ± 3,30
<b>Tratamendu protokoloa, n (%)</b>		
LAL/SHOP 94/99	63 (37,1)	62 (36,9)
LAL/SHOP 2005	107 (62,9)	106 (63,1)
<b>Hepatotoxizitatea, n (%)</b>		
Transaminasen igoera	55 (32,3)	49 (29,2)
Bilirrubina igoera	29 (17,1)	14 (8,3)

**Laburdurak:** DE, desbideraketa estandarra.

BI-ri dagokionean, paziente gutxi batzuek aurkeztu zitzuten maila toxikoak. Indukzioan, 29 pazientek zitzuten BI maila altuak (haietatik lauk bakarrik izan zuten 1 graduko baino altuagoa zen toxizitatea) eta kontsolidazioan, 14 pazientek (soilik bik zuten 1 graduko ez zen toxizitatea) (20. taula).

### Genotipazio emaitzak

Genotipazioa arrakasta 179 ADN laginetik 158-rentzat (% 88,3) eta 160 (% 75,12) SNP-entzat lortu zen. Genotipazioak huts egin zuen PCR amplifikazio ezagatik, kluster banaketarako intentsitate urriagatik edo klusterren definizio ezagatik.

### Asoziaazio azterketa

MiRNA-tako aldaera genetikoek transaminasen igoera gisa neurtutako hepatotoxizitatean eragina duten ikertzeko, arrakastaz genotipatutako 154 miRNA-tako 160 polimorfismoren eta gibel toxizitate datuen arteko asoziazioa neurtu genuen. Analisi hau indukzio eta kontsolidazio faseetan gauzatu zen, B-LLA-dun 158 haur espanyiarren kohorte batean.

Indukzio fasean,  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatea analizatu genuenean, miR-4707, miR-3689d2 eta miR-300-en kokatutako hiru SNP aurkitu genituen esanguratsuki asoziaturik. Gure analisia hepatotoxizitate altura ( $\geq 3$  gradukoa) zuzendu genuenean, asoziazioa miR-5197 eta miR-3936-en kokatutako bi SNP-entzat, aurkitu zen (21.taula). Haietatik bat bera ere ez zen esanguratsua izan FDR zuzenketaren ondoren.

**21. taula.** Indukzio fasean  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatearekin eta  $\geq 3$  graduko hepatotoxizitatearekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa / Aleloak	Hepatotoxizitatea $\geq 2$ graduko (n=170)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa/FDR	Hepatotoxizitatea $\geq 3$ graduko (n=144)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa
			EZ Tox n=115 (%)	TOX n= 55 (%)		EZ Tox n=115 (%)	TOX n=29 (%)	
miR-4707 rs2273626	Kr: 14 In seed	AA	25 (24,5)	21 (44,7)	Dominantea	25 (24,5)	9 (33,3)	Errezesiboa
		AC	56 (54,9)	15 (31,9)	0,40 (0,19-0,83)	56 (54,9)	10 (37,0)	1,62 (0,62-4,22)
		CC	21 (20,6)	11 (23,4)	<b>0,014/0,59</b>	21 (20,6)	8 (29,6)	0,328/0,648
		A	106 (52)	57 (60,6)	0,70 (0,42-1,15)	106 (52)	28 (51,9)	1,0 (0,55-1,83)
miR-3689d2 rs62571442	Kr: 9 pre-miRNA	C	98 (48)	37 (39,4)	0,162	98 (48)	26 (48,1)	0,988
		AA	26 (25,5)	13 (27,7)	Errezesiboa	26 (25,5)	7 (25,9)	Errezesiboa
		AG	61 (59,8)	20 (42,6)	2,46 (1,07-5,65)	61 (59,8)	12 (44,4)	2,44 (0,91-6,58)
		GG	15 (14,7)	14 (29,8)	<b>0,035/0,59</b>	15 (14,7)	8 (29,6)	0,085/0,648
miR-300 rs12894467	Kr: 14 pre-miRNA	A	113 (55,4)	46 (48,9)	1,296 (0,74-2,11)	113 (55,4)	26 (48,1)	1,337 (0,73-2,43)
		G	91 (44,6)	48 (51,1)	0,299	91 (44,6)	28 (51,9)	0,342
		CC	42 (40,8)	15 (31,9)	Errezesiboa	42 (40,8)	9 (33,3)	Errezesiboa
		CT	53 (51,5)	23 (48,9)	2,81 (1,01-7,83)	53 (51,5)	13 (48,1)	2,70 (0,80-9,05)
miR-5197 rs2042253	Kr: 5 pre-miRNA	TT	8 (7,8)	9 (19,1)	<b>0,049/0,59</b>	8 (7,8)	5 (18,5)	0,121/0,648
		C	137 (66,5)	53 (56,4)	1,53 (0,93-2,53)	137 (66,5)	31 (57,4)	1,47 (0,79-2,71)
		T	69 (33,5)	41 (43,6)	0,091	69 (33,5)	23 (42,6)	0,213
		AA	64 (62,7)	23 (48,9)	Dominantea	64 (62,7)	11 (40,7)	Dominantea
miR-3936 rs367805	Kr:5 pre-miRNA	AG	36 (35,3)	22 (46,8)	1,76 (0,87-3,53)	36 (35,3)	14 (51,9)	2,45 (1,03-5,83)
		GG	2 (2,0)	2 (4,3)	0,113/0,59	2 (2)	2 (7,4)	<b>0,040/0,648</b>
		A	164 (80,4)	68 (72,3)	1,568 (0,88-2,76)	164 (80,4)	36 (66,7)	2,05 (1,05-3,97)
		G	40 (19,6)	26 (27,7)	0,119	40 (19,6)	18 (33,3)	<b>0,031</b>
miR-3936 rs367805	Kr:5 pre-miRNA	GG	53 (52,5)	19 (40,4)	Dominantea	53 (52,5)	7 (25,9)	Dominantea
		AG	41 (40,6)	23 (48,9)	1,63 (0,81-3,28)	41 (40,6)	17 (63)	3,15 (1,23-8,12)
		AA	7 (6,9)	5 (10,6)	0,171/0,63	7 (6,9)	3 (11,1)	<b>0,012/0,648</b>
		G	147 (72,8)	61 (64,9)	1,446 (0,85-2,44)	147 (72,8)	31 (57,4)	1,98 (1,06-3,69)
		A	55 (27,2)	33 (35,1)	0,167	55 (27,2)	23 (42,6)	<b>0,029</b>

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza-tartea; FDR, False Discovery Rate; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** Letra lodieiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

Kontsolidazio fasean,  $\geq 2$  graduko gibel toxizitatea analizatzerakoan, hiru SNP aurkitu ziren asoziaturik, miR-1208, miR-3615 eta miR-3144-n kokatuak. Analisiak hepatotoxizitate altura ( $\geq 3$  graduko) mugatu zirenean, zortzi SNP, mir-4745, mir-4467, mir-5189, mir-1908, mir-5197, mir-4634 eta mir-4472-1, izan ziren esanguratsuki asoziatuak (22. eta 23. taulak). FDR zuzenketa ondoren, p-balio esanguratsua lortu zuen emaitza bakarra  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatea eta miR-1208-ko rs2648841 artekoa izan zen, zeinetan GT + TT genotipoak 0,1-bider gutxiagoko arriskua ( $p = 0,00006$ ) erakutsi zuen. Taleloak toxizitate honekiko babesa eskaintzen du 0,0004-ko p-balio batekin. Analisiak hepatotoxizitate altuan ( $\geq 3$  graduko) ardatzu zirenean ere asoziazio hau aurkitu zen ( $p = 0,001$ ) (22. taula).

**22. taula.** Kontsolidazio fasean  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatearekin eta  $\geq 3$  graduko hepatotoxizitatearekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA/SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloak	Hepatotoxizitatea $\geq 2$ graduko (n=168)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa	Hepatotoxizitatea $\geq 3$ graduko (n=138)		Eredua OR (%95 KI) P-balioa
			EZ Tox n=119 (%)	TOX n=49 (%)		EZ Tox n=119 (%)	TOX N=19 (%)	
miR-1208 rs2648841	Kr: 8 pre-miRNA	GG	68 (66,7)	40 (95,2)	Dominantea	68 (66,7)	18 (100)	Dominantea
		GT	31 (30,4)	2 (4,8)	0,10 (0,02-0,44)	31 (30,4)	0 (0,0)	0 (0,0)
		TT	3 (2,9)	0 (0,0)	<b><u>0,00006*</u></b>	3 (2,9)	0 (0,0)	<b><u>0,0016</u></b>
		G	167 (81,9)	82 (97,6)	0,11 (0,02-0,46)	167 (81,9)	36 (100)	0
		T	37 (18,1)	2 (2,4)	<b><u>0,0004</u></b>	37 (18,1)	0 (0)	<b><u>0,0055</u></b>

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza-tartea; FDR, False Discovery Rate; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** \*, esanguratsua FDR zuzenketa ondoren (0.0062); letra lodiekin P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

**23. taula.** Kontsolidazio fasean  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatearekin eta  $\geq 3$  graduko hepatotoxizitatearekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA/SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa / Aleloak	Hepatotoxizitatea $\geq 2$ graduko (n=168)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa/ P-balio zuzendua	Hepatotoxizitatea $\geq 3$ graduko (n=138)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa/P-balio zuzendua
			EZ Tox n=119 (%)	TOX n=49 (%)		EZ Tox n=119 (%)	TOX n=19 (%)	
miR-1208 rs2648841	Kr: 8 pre-miRNA	GG	68 (66,7)	40 (95,2)	Dominantea	68 (66,7)	18 (100)	Dominantea
		GT	31 (30,4)	2 (4,8)	0,10 (0,02-0,44)	31 (30,4)	0 (0,0)	0 (0,0)
		TT	3 (2,9)	0 (0,0)	<b><u>0,00006/0,0062</u></b>	3 (2,9)	0 (0,0)	<b><u>0,0016/0,16</u></b>
		C	167 (81,9)	82 (97,6)	0,11 (0,026-0,468)	167 (81,9)	36 (100)	0
		A	37 (18,1)	2 (2,4)	<b><u>0,0004</u></b>	37 (18,1)	0 (0)	<b><u>0,0055</u></b>
miR-3615 rs745666	Kr: 17 pre-miRNA	CC	43 (40,6)	14 (34,1)	Errezesiboa	43 (40,6)	4 (22,2)	Dominantea
		CG	54 (50,9)	17 (41,5)	3,48 (1,30-9,33)	54 (50,9)	11 (61,1)	2,16 (0,52-8,88)
		GG	9 (8,5)	10 (24,4)	<b><u>0,014/0,43</u></b>	9 (8,5)	3 (16,7)	0,125/0,56
		C	140 (66)	45 (54,9)	1,59 (0,95-2,68)	140 (66)	19 (52,8)	1,74 (0,85-3,55)
		G	72 (34)	37 (45,1)	0,075	72 (34)	17 (47,2)	0,125
miR-3144 rs68035463	Kr: 6 pre-miRNA	CC	53 (50,0)	22 (53,7)	Errezesiboa	53 (50,0)	10 (58,8)	Errezesiboa
		AC	47 (44,3)	11 (26,8)	4,04 (1,31-12,50)	47 (44,3)	5 (29,4)	2,22 (0,41-12,04)
		AA	6 (5,7)	8 (19,5)	<b><u>0,015/0,43</u></b>	6 (5,7)	2 (11,8)	0,382/0,64
		C	153 (72,2)	55 (67,1)	1,273 (0,735-2,206)	153 (72,2)	25 (73,5)	0,934 (0,412-2,117)
		A	59 (27,8)	27 (32,9)	0,389	59 (27,8)	9 (26,5)	0,869
miR-4745 rs10422347	Kr:19 In mature	CC	89 (86,4)	30 (73,2)	Dominantea	89 (86,4)	10 (55,6)	Dominantea
		CT	13 (12,6)	10 (24,4)	2,33 (0,96-5,68)	13 (12,6)	7 (38,9)	5,09 (1,71-15,08)
		TT	1 (1,0)	1 (2,4)	0,066/0,59	1 (1)	1 (5,6)	<b><u>0,004/0,21</u></b>
		C	191 (92,7)	70 (85,4)	2,18 (0,97-4,89)	191 (92,7)	27 (75)	4,244 (1,69-10,64)
		T	15 (7,3)	12 (14,6)	0,0534	15 (7,3)	9 (25)	<b><u>0,001</u></b>
miR-4467 rs60871950	Kr:7 In mature	AA	26 (25,2)	16 (38,1)	Dominantea	26 (25,2)	10 (55,6)	Dominantea
		AG	45 (43,7)	17 (40,5)	0,55 (0,26-1,18)	45 (43,7)	6 (33,3)	0,27 (0,10-0,76)
		GG	32 (31,1)	9 (21,4)	0,127/0,59	32 (31,1)	2 (11,1)	<b><u>0,012/0,41</u></b>
		A	97 (47,1)	49 (58,3)	0,63 (0,381-1,062)	97 (47,1)	26 (72,2)	0,342 (0,157-0,746)
		G	109 (52,9)	35 (41,7)	0,082	109 (52,9)	10 (27,8)	<b><u>0,005</u></b>
miR-5189 rs35613341	Kr:16 pre-miRNA	CC	53 (50,5)	16 (38,1)	Dominantea	53 (50,5)	4 (22,2)	Dominantea
		CG	40 (38,1)	20 (47,6)	1,66 (0,80-3,44)	40 (38,1)	10 (55,6)	3,57 (1,10-11,55)
		GG	12 (11,4)	6 (14,3)	0,172/0,59	12 (11,4)	4 (22,2)	<b><u>0,022/0,44</u></b>
		C	146 (69,5)	52 (61,9)	1,40 (0,82-2,38)	146 (69,5)	18 (50)	2,28 (1,11-4,67)
		G	64 (30,5)	32 (38,1)	0,208	64 (30,5)	18 (50)	<b><u>0,021</u></b>
miR-1908 rs174561	Kr: 11 pre-miRNA	TT	55 (54,5)	27 (67,5)	Dominantea	55 (54,5)	14 (82,4)	Dominantea
		CT	39 (38,6)	12 (30,0)	0,58 (0,27-1,24)	39 (39,6)	3 (17,6)	0,26 (0,07-0,95)
		CC	7 (6,9)	1 (2,5)	0,153/0,59	7 (6,9)	0 (0,0)	<b><u>0,023/0,44</u></b>
		T	149 (73,8)	66 (82,5)	0,596 (0,30-1,15)	149 (73,8)	31 (91,2)	0,272 (0,08-0,92)
		C	53 (26,2)	14 (17,5)	0,120	53 (26,2)	3 (8,8)	<b><u>0,027</u></b>

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza-tartea; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** letra loidiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

**23. taula.** Konsolidazio fasean  $\geq 2$  graduko hepatotoxizitatearekin eta  $\geq 3$  graduko hepatotoxizitatearekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiatzsun genotipiko eta alelikoak. (Jarraipena)

miRNA/ SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa / Aleloak	Hepatotoxizitatea $\geq 2$ graduko (n=168 )		Eredua OR (%95 KT) P-balioa/ P-balio zuzendua	Hepatotoxizitatea $\geq 3$ graduko (n=138)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa/ P-balio zuzendua
			EZ Tox n=119 (%)	TOX n=49 (%)		EZ Tox n=119 (%)	TOX n=19 (%)	
miR-5189 rs56292801	Kr:16 pre-miRNA	GG	58 (55,2)	19 (45,2)	Dominantea	58 (55,2)	5 (27,8)	Dominantea
		AG	39 (37,1)	19 (45,2)	1,49 (0,73-3,07)	39 (37,1)	11 (61,1)	3,21 (1,07-9,65)
		AA	8 (7,6)	4 (9,5)	0,272/0,593	8 (7,6)	2 (11,1)	<b>0,029/0,44</b>
		G	155 (73,8)	57 (67,9)	1,33 (0,76-2,31)	155 (73,8)	21 (58,3)	2,01 (0,97-4,17)
		A	55 (26,2)	27 (32,1)	0,303	55 (26,2)	15 (41,7)	0,057
miR-5197 rs2042253	Kr: 5 pre-miRNA	AA	65 (61,9)	22 (52,4)	Errezesiboa	65 (61,9)	9 (50)	Errezesiboa
		AG	39 (37,1)	17 (40,5)	8,00 (0,81-79,23)	39 (37,1)	7 (38,9)	13 (1,11-151,78)
		GG	1 (1,0)	3 (7,1)	0,050/0,59	1 (1)	2 (11,1)	<b>0,036/0,44</b>
		A	169 (80,5)	61 (72,6)	1,55 (0,8-2,8)	169 (80,5)	25 (69,4)	1,81 (0,82-3,98)
		G	41 (19,5)	23 (27,4)	0,140	41 (19,5)	11 (30,6)	0,134
miR-4634 rs7709117	Kr: 5 pre-miRNA	AA	23 (22,3)	8 (19,0)	Errezesiboa	23 (22,3)	2 (11,1)	Errezesiboa
		AG	63 (61,2)	24 (57,1)	1,58 (0,66-3,81)	63 (61,2)	9 (50)	3,22 (1,09-9,49)
		GG	17 (16,5)	10 (23,8)	0,314/0,606	17 (16,5)	7 (38,9)	<b>0,040/0,44</b>
		A	109 (52,9)	40 (47,6)	1,23 (0,74-2,05)	109 (52,9)	13 (36,1)	1,988 (0,95-4,13)
		G	97 (47,1)	44 (52,4)	0,413	97 (47,1)	23 (63,9)	0,062
miR-4472-1 rs28655823	Kr:8 In seed	GG	83 (79,0)	37 (88,1)	Dominantea	83 (79)	18 (100)	Dominantea
		CG	20 (19,0)	5 (11,9)	0,51 (0,18-1,45)	20 (19)	0 (0,0)	0 (0,0)
		CC	2 (1,9)	0 (0,0)	0,185/0,591	2 (1,9)	0 (0,0)	<b>0,040/0,44</b>
		G	186 (88,6)	79 (94)	0,491 (0,18-1,33)	186 (88,6)	36 (100)	0 (-)
		C	24 (11,4)	5 (6)	0,154	24 (11,4)	0 (0)	<b>0,032</b>

**Laburdurak:** B-LLA, B zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza-tartea; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** letra Iodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

BI-ri dagokionez, konsolidazio fasean zehar, guztira 11 SNP izan ziren 1 gradutik 4 gradurako BI maila altuekin asoziatuak (24. taula). Konsolidazioan zehar, guztira 4 SNP izan ziren asoziatuak. Bat bera ere ez zen FDR zuzenketa ondoren esanguratsu mantendu (24. taula).

**24. taula.** Indukzio eta kontsolidazio faseetan zehar hiperbilirrubinemarekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.


miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa	Bilirrubina Induk (n=170)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa	Bilirrubina Kons (n=168)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa
			Aleloak EZ Tox n=141 (%)	TOX n=29 (%)		EZ Tox n=154 (%)	TOX n=14 (%)	
hsa-mir-4634 rs7709117	Kr.: 5 pre-miRNA	AA	30 (24,8)	1 (3,8)	Dominantea	31 (23,5)	0 (0,0)	Errezesiboa
		AG	69 (57)	20 (76,9)	8,24 (1,07-63,44)	80 (60,6)	7 (53,8)	4,53 (1,38-14,83)
		GG	22 (18,2)	5 (19,2)	<b><u>0,00639</u></b>	21 (15,9)	6 (46,2)	<b><u>0,01624</u></b>
		A	129 (53,3)	22 (42,3)	1,557 (0,85-2,852)	142 (53,8)	7 (26,9)	3,159 (1,285-7,768)
		G	113 (46,7)	30 (57,7)	0,15	122 (46,2)	19 (73,1)	<b><u>0,0089</u></b>
hsa-mir-3188 rs7247237	Kr.: 19 pre-miRNA	CC	67 (54,5)	14 (51,9)	Errezesiboa	74 (54,8)	6 (46,2)	Dominantea
		CT	49 (39,8)	7 (25,9)	4,73 (1,45-15,49)	49 (36,3)	6 (46,2)	1,42 (0,45-4,43)
		TT	7 (5,7)	6 (22,2)	<b><u>0,01351</u></b>	12 (8,9)	1 (7,7)	0,5503
		C	183 (74,4)	35 (64,8)	1,577 (0,842-2,954)	197 (73)	18 (69,2)	1,199 (0,5-2,877)
		TT	63 (25,6)	19 (35,2)	0,1528	73 (27)	8 (30,8)	0,6835
hsa-mir-1208 rs2648841	Kr.: 8 pre-miRNA	GG	86 (71,7)	24 (92,3)	Dominantea	98 (74,8)	10 (76,9)	Errezesiboa
		GT	32 (26,7)	1 (3,8)	0,21 (0,05-0,94)	31 (23,7)	2 (15,4)	5,37 (0,45-63,69)
		TT	2 (1,7)	1 (3,8)	<b><u>0,014847</u></b>	2 (1,5)	1 (7,7)	0,2341
		G	204 (85)	49 (94,2)	0,347 (0,103-1,173)	227 (86,6)	22 (84,6)	1,179 (0,384-3,626)
		T	36 (15)	3 (5,8)	0,0761	35 (13,4)	4 (15,4)	0,7734
hsa-mir-4642 rs67182313	Kr.: 6 pre-miRNA	AA	88 (72,1)	13 (48,1)	Dominantea	88 (65,7)	10 (76,9)	Dominantea
		AG	31 (25,4)	12 (44,4)	2,79 (1,19-6,54)	41 (30,6)	3 (23,1)	0,57 (0,152,19)
		GG	3 (2,5)	2 (7,4)	<b><u>0,01884</u></b>	5 (3,7)	0 (0,0)	0,3978
		A	207 (84,8)	38 (70,4)	2,356 (1,192-4,654)	217 (81)	23 (88,5)	0,555 (0,16-1,92)
		G	37 (15,2)	16 (29,6)	<b><u>0,0119</u></b>	51 (19)	3 (11,5)	0,3463
hsa-mir-577 rs34115976	Kr.: 4 pre-miRNA	CC	71 (58,7)	22 (81,5)	Dominantea	83 (62,4)	9 (69,2)	Dominantea
		CG	44 (36,4)	4 (14,8)	0,32 (0,11-0,91)	43 (32,3)	4 (30,8)	0,74 (0,22-2,52)
		GG	6 (5)	1 (3,7)	<b><u>0,02071</u></b>	7 (5,3)	0 (0,0)	0,6224
		C	186 (76,9)	48 (88,9)	0,415 (0,169-1,021)	209 (78,6)	22 (84,6)	0,667 (0,221-2,013)
		G	56 (23,1)	6 (11,1)	0,0495	57 (21,4)	4 (15,4)	0,4693
hsa-mir-4636 rs257095	Kr.: 5 pre-miRNA	AA	95 (77,2)	18 (66,7)	Errezesiboa	103 (76,3)	8 (61,5)	Errezesiboa
		AG	28 (22,8)	7 (25,9)	0 (0,0)	31 (23,0)	4 (30,8)	11,17 (0,66-189,99)
		GG	0 (0)	2 (7,4)	<b><u>0,03141</u></b>	1 (0,7)	1 (7,7)	0,1265
		A	218 (88,6)	43 (79,6)	1,992 (0,922-4,303)	237 (87,8)	20 (76,9)	2,155 (0,807-5,754)
		GG	28 (11,4)	11 (20,4)	0,0753	33 (12,2)	6 (23,1)	0,1181
hsa-mir-6128 rs2682818	Kr.: 8 pre-miRNA	CC	97 (79,5)	21 (77,8)	Errezesiboa	109 (81,3)	8 (61,5)	Dominantea
		AC	25 (20,5)	4 (14,8)	0 (0,0)	23 (17,2)	5 (38,5)	2,72 (0,82-9,04)
		AA	0 (0)	2 (7,4)	<b><u>0,03183</u></b>	2 (1,5)	0 (0,0)	0,11531
		C	219 (89,8)	46 (85,2)	1,523 (0,646-3,59)	241 (89,9)	21 (80,8)	2,125 (0,741-6,093)
		A	25 (10,2)	8 (14,8)	0,333	27 (10,1)	5 (19,2)	0,1524

**24. taula.** Indukzio eta kontsolidazio faseetan zehar hiperbilirrubinemarekin asoziaturiko miRNA-tako SNP esanguratsuenak B-LLA pediatrikoan. Maiztasun genotipiko eta alelikoak (Jarraipena).

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa	Bilirrubina Induk (n=170)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa	Bilirrubina Kons (n=168)		Eredua OR (%95 KT) P-balioa
			Aleloak	EZ Tox n=141 (%)		EZ Tox n=154 (%)	TOX n=14 (%)	
hsa-mir-604 rs2368392	Kr.: 10 pre-miRNA	CC	75 (61)	13 (48,1)	Errezesiboa	80 (59,3)	6 (46,2)	Errezesiboa
		CT	46 (37,4)	11 (4,7)	7,56 (1,20-47,71)	52 (38,5)	5 (38,5)	8,00 (1,21-53,06)
		TT	2 (1,6)	3 (11,1)	<b>0,03267</b>	3 (2,2)	2 (15,4)	0,05213
		C	196 (79,7)	37 (68,5)	1,801 (0,938-3,46)	212 (78,5)	17 (65,4)	1,935 (0,82-4,566)
hsa-mir-548ap rs4577031	Kr.: 15 pre-miRNA	T	50 (20,3)	17 (31,5)	0,0747	58 (21,5)	9 (34,6)	0,1264
		AA	52 (42,3)	9 (33,3)	Errezesiboa	53 (39,3)	6 (46,2)	Errezesiboa
		AT	62 (50,4)	12 (44,4)	3,62 (1,17-11,24)	70 (51,9)	5 (38,5)	1,86 (0,37-9,41)
		TT	9 (7,3)	6 (22,2)	<b>0,03337</b>	12 (8,9)	2 (15,4)	0,4757
hsa-mir-548ap rs4414449	Kr.: 15 in_mature	A	166 (67,5)	30 (55,6)	1,66 (0,912-3,023)	176 (65,2)	17 (65,4)	0,991 (0,425-2,31)
		T	80 (32,5)	24 (44,4)	0,0955	94 (34,8)	9 (34,6)	0,9837
		TT	46 (40,4)	8 (30,8)	Errezesiboa	47 (37,9)	5 (38,5)	Errezesiboa
		CT	56 (49,1)	11 (42,3)	3,13 (1,09-8,98)	61 (49,2)	6 (46,2)	1,23 (0,25-6,05)
hsa-mir-5197 rs2042253	Kr.: 5 pre-miRNA	CC	12 (10,5)	7 (26,9)	<b>0,04092</b>	16 (12,9)	2 (15,4)	0,805
		T	148 (64,9)	27 (51,9)	1,713 (0,932-3,147)	155 (62,5)	16 (61,5)	1,042 (0,454-2,391)
		C	80 (35,1)	25 (48,1)	0,0808	93 (37,5)	10 (38,5)	0,9233
		AA	76 (62,3)	11 (40,7)	Dominantea	80 (59,7)	7 (53,8)	Dominantea
hsa-mir-4481 rs7896283	Kr.: 10 pre-miRNA	AG	42 (34,4)	16 (59,3)	2,4 (1,03-5,63)	50 (37,3)	6 (46,2)	1,27 (0,40-3,99)
		GG	4 (3,3)	0 (0)	<b>0,04115</b>	4 (3,0)	0 (0,0)	0,6833
		A	194 (79,5)	38 (70,4)	1,634 (0,843-3,166)	210 (78,4)	20 (76,9)	1,086 (0,417-2,83)
		G	50 (20,5)	16 (29,6)	0,1434	58 (21,6)	6 (23,1)	0,8656
hsa-mir-5007 rs1572687	Kr.: 13 pre-miRNA	AA	43 (38,7)	11 (45,8)	Errezesiboa	46 (36,5)	7 (87,5)	Dominantea
		AG	46 (41,4)	12 (50,0)	0,18 (0,02-1,37)	59 (46,8)	0 (0)	0,08 (0,01-0,69)
		GG	22 (19,8)	1 (4,2)	0,03591	21 (16,7)	1 (12,5)	<b>0,003636</b>
		A	132 (59,5)	34 (70,8)	0,604 (0,307-1,189)	151 (59,9)	14 (87,5)	0,214 (0,048-0,96)
hsa-mir-4671 rs877722	Kr.: 1 pre-miRNA	G	90 (40,5)	14 (29,2)	0,142	101 (40,1)	2 (12,5)	<b>0,0279</b>
		CC	37 (30,1)	12 (44,4)	Dominantea	39 (28,9)	8 (61,5)	Dominantea
		CT	64 (52,0)	8 (29,6)	0,54 (0,23-1,26)	70 (51,9)	2 (15,4)	0,25 (0,08-0,82)
		TT	22 (17,9)	7 (25,9)	0,15727	26 (19,3)	3 (23,1)	<b>0,020464</b>
hsa-mir-4671 rs877722	Kr.: 1 pre-miRNA	C	138 (56,1)	32 (59,3)	0,878 (0,483-1,598)	148 (54,8)	18 (69,2)	0,539 (0,227-1,283)
		T	108 (43,9)	22 (40,7)	0,6712	122 (45,2)	8 (30,8)	0,1572
		AA	91 (74,0)	19 (70,4)	Errezesiboa	97 (71,9)	13 (100)	Dominantea
		AT	28 (22,8)	6 (22,2)	2,38 (0,41-13,71)	32 (23,7)	0 (0,0)	0 (0,0)
hsa-mir-4671 rs877722	Kr.: 1 pre-miRNA	TT	4 (3,3)	2 (7,4)	0,3569	6 (4,4)	0 (0,0)	<b>0,02199</b>
		A	210 (85,4)	44 (81,5)	1,326 (0,612-2,87)	226 (83,7)	26 (100)	0 (-)
		T	36 (14,6)	10 (18,5)	0,4731	44 (16,3)	0 (0)	<b>0,0257</b>

**rs2648841-ek miR-1208-en egitura sekundarioan duen efektuaren iragarpena**


Analisia SNP esanguratsuenarekin gauzatu genuen, hots miR-1208-ko rs2648841-rekin. Kasu honetan, G aleloa T aleloarengatik ordezkatzeak 3,3 kcal/mol-tako energia aldaketa eragin zuen (-26,1-etik -22,8 kcal/mol-tara). Ordezkaren honek egitura sekundarioaren aldaketa ere eragin zuen (19. irudia).



**19. irudia.** Alelo ezberdinen presentziagatik miRNA-ko SNP esanguratsuenaren energia aldaketa eta gutxieneko energia-aske egitura, RNAfold web tresnatik aterata.

**miR-1208-en itu iragarpena**

miR-1208-rentzako itu iragarpenean analisia gauzatu genuenean, miRNA honek itutzat MTX-aren bidezidorretako bost gene zituela ikusi genuen, bidezidor farmakodinamikoko 3 gene, *DHFR*, *MTHFR* eta *MTR*, eta bidezidor farmakozinetikoko bi gene, *SLCO1A2* eta *SLC46A1* (20. irudia).



**20. irudia.** MTX-aren bidezidor farmakozinetiko eta farmakodinamikoko geneak eta miR-1208 dagozkion itu geneak seinalatzu.

#### EZTABAIDA

Lan honetan, ikerketa garaian deskribatuak zeuden miRNA aldaerek B-LLA tratamenduan zehar garatutako hepatotoxizitatean izan dezaketen eginkizuna aztertu genuen. Emaitzarik esanguratsuena miR-1208-ko rs2648841 eta kontsolidazio faseko transaminasa mailen arteko asoziazioa izan zen. SNP honentzat, GT+TT genotipoak asoziazio seinale altuena erakutsi zuen  $\geq 2$  graduko toxizitatea izateko arriskua 0,1-bider txikituz, FDR zuzenketa aplikatu zenean esangura estatistikora iritsi zelarik. Nabarmenki, TT genotipoden paziente batek berak ere ez zuen toxizitaterik garatu. Interesgarria da, gure analisiak transaminasen maila altuetan ( $\geq 3$  gradukoa) oinarritu genituenean, rs2648841-k oraindik asoziazio esanguratsua erakutsi zuela eta T alelo bat zuten pazienteetatik inork ez zuela toxizitate alturik garatu.

rs2648841 SNP-a miR-1208-ren pre-mature sekuentzian kokatua dago. MiRNA honetan, T aleloak energia aldaketa positibo bat eragiten du, zeinak miRNA-ren urkila egoera egonkor batetatik egoera desegonkor batetara bideratzen duen ( $\Delta\Delta G = 3.3$  kcal/mol) (Gruber et al., 2008). MiRNA egituraren egonkortasun jaitsiera batek miRNA helduaren produktua gutxitzea ekar lezakeela proposatu da (Gong et al., 2012), eta honek ondorioz bere ituen adierazpen

areagotzea ekarriko luke. MiR-1208-rentzat iragarritako ituen artean MTX-aren bidezidor farmakodinamikoko hiru gene aurkitzen ditugu, *DHFR*, *MTR* eta *MTHFR*, baita bidezidor farmakozinetikoko bi gene ere, *SLCO1A2* eta *SLC46A1*. Hauen artean, *DHFR* MTX-aren itu nagusia da (Wojtuszkiewicz et al., 2015), beraz, gene honen adierazpen altuago batek MTX-aren efektua arin lezake, hepatozitoen heriotza ekiditen lagunduz. Izatez, *DHFR*-ren adierazpen altua MTX-aren erresistentziarekin asoziatu da (Dulucq et al., 2008), honek azalduko lukeelarik rs2648841-ren T aleloak hepatotoxizitatean duen eginkizun babeslea. *MTR* (homozisteina metionina emateko metilatzen duen entzima) (Krajinovic et al., 2005) eta *MTHFR*-ri (urreko erreakziorako metil taldea sortzen duen entzima) dagokienez (Krajinovic et al., 2005) (20. irudia), entzimon adierazpen altu batek emaitzatzat zelula barneko homozisteina mailen jaitsiera ekarriko luke. Homozisteina maila baxu hauek apoptosiarekiko babesea emango lukete (Kubota et al., 2014; Yang et al., 2017), berriro T aleloaren eginkizun babeslea azalduz. Bidezidor farmakozinetikoari dagokionez, *SLCO1A2* eta *SLC46A1* garraiatzaileek hepatotoxizitate mekanismoan eraginik ez dutela konsideratzen dugu, izan ere garraiatzaile hauek MTX-a plasmatik gibel-zelulara barneratzeko prozesuan parte hartzen dute eta MTX-aren maila plasmatikoak gure kohortean ez zeuden transaminasen igoerarekin asoziaturik. Ondorioz, miR-1208-ko rs2648841-en T aleloak miRNA-ren egitura sekundarioa alda lezake, bere maila helduak gutxiagotuz. MiRNA mailen gutxitze honek bidezidor farmakodinamikoko itu geneen (*DHFR*, *MTR* eta *MTHFR*) adierazpen altuagoa ekar lezake, hepatozitoa apoptositik babestuz.

Bestalde, ikerketa honen beste emaitza interesgarri bat izan zen transaminasen igoerarekin asoziaturiko SNP-ak desberdinak izan zirela indukzio eta kontsolidazio faseetan. Hau horrela, miR-1208-ko rs2648841, kontsolidazio faseko transaminasen igoerarekin asoziaturik egon zen espezifikoki, indukzio fasean p-balio esanguratsura iristetik urrun gelditu zelarik ( $p = 0,21$ ). Gainera, indukzio fasean hepatotoxizitatea garatu zuten pazienteak kontsolidazio fasean garatu zutenen ezberdinak izan ziren, bi gertaeren arteko asoziaziorik egon ez zelarik. Ondorioz, datu guzti hauek fase bakoitzeko hepatotoxizitatea mekanismo desberdinak medio, farmako desberdinei lotua legokeela sostengatzen dute.

BI-ren analisiei dagokienez, paziente gutxik aurkeztu zuten toxizitate hau indukzio eta kontsolidazioan eta SNP bat bera ere ez zen p-balio esanguratsua izatera iritsi FDR zuzenketa aplikatu onoren. Interesgarria izango litzateke toxizitate hau kohorte handiago batean ikertzea.

Ikerketa honek baditu aipatu beharreko zenbait muga, adibidezat genotipazio teknikan izandako akats tasa erlatiboki altua. Hala ere, arazo hau ikerketa hasi zen unetik onartu zen, polimorfismo espezifikook amplifikatzeko beste diseinu aukerarik ez zegoelako. Gainera, 6-

merkaptopurina bezala aldi berean emandako beste farmako batzuek ere hepatotoxizitatea sor lezakete. Honen harira, miR-1208-ren ituen artean *TPMT*, *ABCC5* eta *NT5C2* aurkitzen ditugu, 6-MP-ren bidezidorreko geneak. MiR-1208-ren maila murriztuek gene hauen adierazpen areagotzea eragin lezakete eta beraz 6-MP-ren inaktibazio (*TPMT*) altuago batera (Kotur et al., 2012; Maxwell and Cole, 2017), tiopurina eta haien metabolitoen hepatozitoetatiko irteera (*ABCC5*) altuago batera (Krajinovic et al., 2016; Teft et al., 2015) eta 6-tioinositol monofosfatoaren desfosforilazio eta inaktibazio (*NT5C2*) altuago batera (Tzoneva et al., 2013) lagundu, rs2648841-ren eginkizun babeslea azalduz. Azkenik, erabilitako datu-baseetako iragarpen algoritmoen zehazgabetasuna kontuan hartu behar dugu, hala ere, gaur egun muga hau onartu beharra dago.

Laburbilduz, kontsolidazio fasean transaminasen igoera gisa neurtutako hepatotoxizitatearekin asoziaturik egon litezkeen 5 miRNA-tako 5 SNP aurkitu ditugu eta indukzio fasean asoziaturik egon litezkeen beste 10 miRNA-tako 11 SNP, fase bakoitzerako hepatotoxizitate mekanismo desberdin bat iradokiz. Emaitzarik esanguratsuena miR-1208-ko rs2648841 izan zen, espezifikoki asoziatua kontsolidazio faseko hepatotoxizitate eta hepatotoxizitate altuarekin, seguraski *DHFR*, *MTR* eta *MTHFR* geneen adierazpen altuagoan duen eginkizunagatik. Interesgarria litzateke beste kohorte batean TT genotipoaren babes efektu indartsua balioztatzea.

### Laburpena

- Haurtzaroko LLA terapiaren arrakasta dela eta, toxizitatea murrizteak interesa irabazi du.
- Hepatotoxizitatea LLA tratamenduaren toxizitate ohikoenetako bat da, zeina indukzio fasean zehar ASP-gatik eta kontsolidazioan zehar MTX-agatik sortua egon litekeen.
- Farmakoepigenetika, miRNA-en ikerketa bere baitan hartzen duena, toxizitate markatzaile berriak identifikatzeko tresna gisa aurkeztu da.
- MiRNA-tako SNP-ek farmakoek eragindako hepatotoxizitatean izan dezaketen asoziazioa ikertu dugu tratamenduaren bi fase ezberdinetan LLA diagnostikodun haur espainiarren kohorte handi batean.
- Fase bakoitzeko hepatotoxizitatearen garapena ez dago erlazionatua, mekanismo ezberdinak inplikatuak egon litekeela iradokiz.
- MiR-1208-ko rs2648841 transaminasen igoera gisa neurtutako hepatotoxizitatearekin eta hepatotoxizitate altuarekin asoziatua izan zen FDR zuzenketa ondoren kontsolidazio fasean zehar.
- MiR-1208-ko rs2648841-k miRNA mailak aldaraz ditzake eta beraz, bere itu geneen adierazpenean eragin.
- MiR-1208-ren ituen artean MTX-aren bidezidor farmakodinamikoko geneak aurkitzen ditugu, zeinak hepatozitoen heriotzan inplikatuak egon litekeen.

**AITORPENAK**

Espainiar Genotipazio Zentroaren (CeGen) sostengua eskertzen da.

**INTERESEN GATAZKA**

Ez dago interes gatazkari.

**ERREFERENTZIAK**

Amstutz, U., Offer, S.M., Sistonen, J., Joerger, M., Diasio, R.B., and Largiader, C.R. (2015). Polymorphisms in MIR27A Associated with Early-Onset Toxicity in Fluoropyrimidine-Based Chemotherapy. *Clin. Cancer Res.* 21, 2038–2044.

Bénichou, C. (1990). Criteria of drug-induced liver disorders. Report of an international consensus meeting. *J Hepatol.* 11, 272–276.

Benjamini, Y., Drai, D., Elmer, G., Kafkafi, N., and Golani, I. (2001). Controlling the false discovery rate in behavior genetics research. *Behav. Brain Res.* 125, 279–284.

Dulucq, S., St-Onge, G., Gagné, V., Ansari, M., Sinnett, D., Labuda, D., Moghrabi, A., and Krajinovic, M. (2008). DNA variants in the dihydrofolate reductase gene and outcome in childhood ALL. *Blood* 111, 3692–3700.

Dweep, H., and Gretz, N. (2015). miRWALK2.0: a comprehensive atlas of microRNA-target interactions. *Nat. Methods* 12, 697.

Erčulj, N., Kotnik, B.F., Debeljak, M., Jazbec, J., and Dolžan, V. (2012). Influence of folate pathway polymorphisms on high-dose methotrexate-related toxicity and survival in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Leuk. Lymphoma* 53, 1096–1104.

Gong, J., Tong, Y., Zhang, H.-M., Wang, K., Hu, T., Shan, G., Sun, J., and Guo, A.-Y. (2012). Genome-wide identification of SNPs in microRNA genes and the SNP effects on microRNA target binding and biogenesis. *Hum. Mutat.* 33, 254–263.

Gregers, J., Christensen, I.J., Dalhoff, K., Lausen, B., Schroeder, H., Rosthoej, S., Carlsen, N., Schmiegelow, K., and Peterson, C. (2010). The association of reduced folate carrier 80G>A polymorphism to outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia interacts with chromosome 21 copy number. *Blood* 115, 4671–4677.

Gregers, J., Gréen, H., Christensen, I.J., Dalhoff, K., Schroeder, H., Carlsen, N., Rosthoej, S., Lausen, B., Schmiegelow, K., and Peterson, C. (2015a). Polymorphisms in the ABCB1 gene and effect on outcome and toxicity in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics J.* 15, 372–379.

Gregers, J., Green, H., Christensen, I.J., Dalhoff, K., Schroeder, H., Carlsen, N., Rosthoej, S., Lausen, B., Schmiegelow, K., and Peterson, C. (2015b). Polymorphisms in the ABCB1 gene and effect on outcome and toxicity in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics J.* 15, 372–379.

Gruber, A.R., Lorenz, R., Bernhart, S.H., Neubock, R., and Hofacker, I.L. (2008). The Vienna RNA websuite. Nucleic Acids Res. 36, W70-4.

Gutierrez-Camino, A., Martin-Guerrero, I., and Garcia-Orad, A. (2017a). PNPLA3 rs738409 and Hepatotoxicity in Children With B-cell Acute Lymphoblastic Leukemia: A Validation Study in a Spanish Cohort. Clin. Pharmacol. Ther.

Gutierrez-Camino, A., Oosterom, N., den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., Martin-Guerrero, I., Pluijm, S.M.F., Pieters, R., de Jonge, R., Tissing, W.J.E., Heil, S.G., et al. (2017b). The miR-1206 microRNA variant is associated with methotrexate-induced oral mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenet. Genomics 27, 303–306.

den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., te Winkel, M.L., Tissing, W., de Rooij, J.D.E., Gutierrez-Camino, A., Garcia-Orad, A., den Boer, E., Pieters, R., Pluijm, S.M.F., et al. (2015). Genetic and metabolic determinants of methotrexate-induced mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenomics J. 15, 248–254.

Iorga, A., Dara, L., and Kaplowitz, N. (2017). Drug-Induced Liver Injury: Cascade of Events Leading to Cell Death, Apoptosis or Necrosis. Int. J. Mol. Sci. 18, 1018.

Iparraguirre, L., Gutierrez-Camino, A., Umerez, M., Martin-Guerrero, I., Astigarraga, I., Navajas, A., Sastre, A., Garcia de Andoin, N., and Garcia-Orad, A. (2016). MiR-pharmacogenetics of methotrexate in childhood B-cell acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenet. Genomics 26, 517–525.

Johnston, W.T., Lightfoot, T.J., Simpson, J., and Roman, E. (2010). Childhood cancer survival: a report from the United Kingdom Childhood Cancer Study. Cancer Epidemiol. 34, 659–666.

Kotur, N., Stankovic, B., Kassela, K., Georgitsi, M., Vicha, A., Leontari, I., Dokmanovic, L., Janic, D., Krstovski, N., Klaassen, K., et al. (2012). 6-mercaptopurine influences TPMT gene transcription in a TPMT gene promoter variable number of tandem repeats-dependent manner. Pharmacogenomics 13, 283–295.

Krajinovic, M., Robaeys, P., Chiasson, S., Lemieux-Blanchard, E., Rouillard, M., Primeau, M., Bournissen, F.G., and Moghrabi, A. (2005). Polymorphisms of genes controlling homocysteine levels and IQ score following the treatment for childhood ALL. Pharmacogenomics 6, 293–302.

Krajinovic, M., Elbared, J., Drouin, S., Bertout, L., Rezgui, A., Ansari, M., Raboisson, M.-J., Lipshultz, S.E., Silverman, L.B., Sallan, S.E., et al. (2016). Polymorphisms of ABCC5 and NOS3 genes influence doxorubicin cardiotoxicity in survivors of childhood acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenomics J. 16, 530–535.

Kubota, M., Nakata, R., Adachi, S., Watanabe, K.-I., Heike, T., Takeshita, Y., and Shima, M. (2014). Plasma homocysteine, methionine and S-adenosylhomocysteine levels following high-dose methotrexate treatment in pediatric patients with acute lymphoblastic leukemia or Burkitt lymphoma: association with hepatotoxicity. Leuk. Lymphoma 55, 1591–1595.

Ladas, E.J., Kroll, D.J., Oberlies, N.H., Cheng, B., Nda, D.H., Rheingold, S.R., and Kelly, K.M. (2010). A randomized, controlled, double-blind, pilot study of milk thistle for the treatment of hepatotoxicity in childhood acute lymphoblastic leukemia (ALL). Cancer 116, 506–513.

Lauschke, V.M., Mkrtchian, S., and Ingelman-Sundberg, M. (2017). The role of microRNAs in liver injury at the crossroad between hepatic cell death and regeneration. *Biochem. Biophys. Res. Commun.* 482, 399–407.

Liu, Y., Fernandez, C.A., Smith, C., Yang, W., Cheng, C., Panetta, J.C., Kornegay, N., Liu, C., Ramsey, L.B., Karol, S.E., et al. (2017). Genome-Wide Study Links PNPLA3 Variant With Elevated Hepatic Transaminase After Acute Lymphoblastic Leukemia Therapy. *Clin. Pharmacol. Ther.* 102, 131–140.

Maxwell, R.R., and Cole, P.D. (2017). Pharmacogenetic Predictors of Treatment-Related Toxicity Among Children With Acute Lymphoblastic Leukemia. *Curr. Hematol. Malig. Rep.* 12, 176–186.

Pui, C.-H., Yang, J.J., Hunger, S.P., Pieters, R., Schrappe, M., Biondi, A., Vora, A., Baruchel, A.A., Silverman, L.B., Schmiegelow, K., et al. (2015). Childhood Acute Lymphoblastic Leukemia: Progress Through Collaboration. *J. Clin. Oncol.* 33, JCO.2014.59.1636.

Robles-Diaz, M., Lucena, M.I., Kaplowitz, N., Stephens, C., Medina-Cáliz, I., González-Jimenez, A., Ulzurrun, E., Gonzalez, A.F., Fernandez, M.C., Romero-Gómez, M., et al. (2014). Use of Hy's law and a new composite algorithm to predict acute liver failure in patients with drug-induced liver injury. *Gastroenterology* 147, 109–118.e5.

Rukov, J.L., Wilentzik, R., Jaffe, I., Vinther, J., and Shomron, N. (2014). Pharmaco-miR: linking microRNAs and drug effects. *Brief. Bioinform.* 15, 648–659.

Salazar, J., Altes, A., del Rio, E., Estella, J., Rives, S., Tasso, M., Navajas, A., Molina, J., Villa, M., Vivanco, J.L., et al. (2012). Methotrexate consolidation treatment according to pharmacogenetics of MTHFR ameliorates event-free survival in childhood acute lymphoblastic leukaemia. *Pharmacogenomics J.* 12, 379–385.

Sambrook, J., R.D. (2001). Molecular cloning: a laboratory manual (New York: NY: Cold Spring Harbor Laboratory Press).

Teft, W.A., Welch, S., Lenehan, J., Parfitt, J., Choi, Y.-H., Winquist, E., and Kim, R.B. (2015). OATP1B1 and tumour OATP1B3 modulate exposure, toxicity, and survival after irinotecan-based chemotherapy. *Br. J. Cancer* 112, 857–865.

Tzoneva, G., Perez-Garcia, A., Carpenter, Z., Khiabanian, H., Tosello, V., Allegretta, M., Paietta, E., Racevskis, J., Rowe, J.M., Tallman, M.S., et al. (2013). Activating mutations in the NT5C2 nucleotidase gene drive chemotherapy resistance in relapsed ALL. *Nat. Med.* 19, 368–371.

Umerez, M., Gutierrez-Camino, Á., Muñoz-Maldonado, C., Martin-Guerrero, I., and Garcia-Orad, A. (2017). MTHFR polymorphisms in childhood acute lymphoblastic leukemia: Influence on methotrexate therapy. *Pharmgenomics Pers. Med.* 10, 69–78.

Wojtuszkiewicz, A., Peters, G.J., van Woerden, N.L., Dubbelman, B., Escherich, G., Schmiegelow, K., Sonneveld, E., Pieters, R., van de Ven, P.M., Jansen, G., et al. (2015). Methotrexate resistance in relation to treatment outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia. *J. Hematol. Oncol.* 8, 61.

Yang, A., Sun, Y., Mao, C., Yang, S., Huang, M., Deng, M., Ding, N., Yang, X., Zhang, M., Jin, S., et al. (2017). Folate Protects Hepatocytes of Hyperhomocysteinemia Mice From Apoptosis via Cystic Fibrosis Transmembrane Conductance Regulator (CFTR)-Activated Endoplasmic Reticulum Stress. *J. Cell. Biochem.* 118, 2921–2932.

Zhan, X., Wu, W., Han, B., Gao, G., Qiao, R., Lv, J., Zhang, S., Zhang, W., Fan, W., Chen, H., et al. (2012). Hsa-miR-196a2 functional SNP is associated with severe toxicity after platinum-based chemotherapy of advanced nonsmall cell lung cancer patients in a Chinese population. *J. Clin. Lab. Anal.* 26, 441–446.



## MiRNA-tako polimorfismoen implikazioa mukositisaren garapenean haurtzaroko leuzemia linfoblastiko akutuaren tratamenduan

Umerez, Maitane<sup>1\*</sup>, PhD student; Gutierrez-Camino, Ángela<sup>1\*</sup>, PhD; Lopez-Lopez, Elixabet<sup>1</sup>, PhD; Santos, Borja<sup>1</sup>, PhD; Martin-Guerrero, Idoia<sup>1</sup>, PhD; García de Andoin, Nagore<sup>2,3</sup>, MD; Sastre, Ana<sup>4</sup>,MD; Navajas, Aurora<sup>5,6</sup>, PhD; Astigarraga, Itziar<sup>3,5,6</sup>, PhD; Garcia-Orad, Africa<sup>1,6</sup>, PhD.

\*Autore hauek egileta partekatzen dute.

<sup>1</sup>Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Spainia; <sup>2</sup>Onkohematología Pediátrica Saila, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Spainia; <sup>3</sup>Pediatria Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU, Leioa, Spainia; <sup>4</sup>Onkohematología Pediátrica Saila, La Paz Unibertsitate Ospitalea, Madrid, Spainia; <sup>5</sup>Pediatria Saila, Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Barakaldo, Spainia<sup>6</sup> BioCruces Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Spainia.

### Laburpena

Mukositisa, hautzaroko leuzemia linfoblastiko akutuaren (LLA) terapien agertzen den eragin desiragaitz ahulgarri eta ohikoenetako, digestio traktuaren edozein zatitako mukosen inflamazioagatik ezaugarritzen da eta sarri aho-eztarriko ultzerekintzat, gonbitoekin eta beherakoarekin batera agertzen da. Ondorio gisa, atzerapenak eta etenaldiak egoten dira tratamenduan, zeintzuek biziraupena kaltetu dezaketen. Mukositisa antileuzemiko ezberdinekin lotu daiteke, hala nola metotrexatoarekin (MTX), daunorubizinaarekin (DNR) edo ziklofosfamidarekin (CPA). Gaur egun jakina da miRNA-ek farmako hauen bidezidor farmakozinetiko (PK) eta farmakodinamikoa (PD) implikatutako geneak erregulatzen dituztela. MiRNA-tako SNP-ek beren maila eta funtzoan eragina izan dezakete eta ondorioz bidezidor hauetako itu geneak asaldatu. Ondorioz, ikerketa honen helburua mukositisarekin erlazionatutako geneak itutzat dituzten miRNA-tako aldaera genetikoen eta toxizitate hau jasateko arriskuaren arteko asoziazioa zehaztea izan zen. Helburu hau lortzeko, 206 miRNA-tako 213 SNP analizatu genituen LAL/SHOP protokoloarekin homogeneoki tratatutako B-zelula aitzindarien (B-LLA) LLA-dun 179 haur espanyiarren kohorte batean. MiR-4268, miR-4751 eta miR-3117-ren baitako hiru SNP identifikatu genituen hurrenez hurren mukositisa, beherako eta gonbitoekin asoziaturik, zeintzu farmakoen PK eta PD geneen zein mukosa kaltearekin erlazionatutako beste gene batzuen gaineko efektuagatik azal daitezkeen.

**Hitz gakoak:** mukositisa, leuzemia linfoblastiko akutua, mikroRNA-k, nukleotido bakarreko polimorfismoak

## SARRERA

Mukositisa kimioterapia antileuzemikoaren eragin desiragaitz ahulgarri eta ohikoenetako da haurtzaroko leuzemia linfoblastiko akutuan (LLA) (Sangild et al., 2017; Schmiegelow et al., 2017), minbizi pediatriko arruntena (Johnston et al., 2010). Toxizitate hau mukosa barreren ahultze batengatik bereizten da, aho-barrunbe eta traktu gastrointestinalaren ultzerazio larriak eragiten dituelarik (Van Sebille et al., 2015; Sonis, 2004a, 2004b, 2004c). Ondorio gisa, haur hauek min abdominala, gonbitoak eta beherakoa pairatzen dituzte, zeintzuek pisu galera, sostengu nutrizional beharra eta infekzioen arrisku areagotzea dakarten (Kuiken et al., 2017). Adierazpen kliniko hauek tratamenduen atzeratzeak, programazioz kanpoko etenaldiak edota terapiaren amaiera goiztiarrak eragiten dituzte (Cinausero et al., 2017), zeintzuek ondorioz biziraupenaren narriadura bat ekar dezaketen.

Mukositisa agente antileuzemiko ugarirekin lotu daiteke, hala nola, metotrexatoarekin (MTX), zitarabinarekin, daunorrubizinarekin (DNR) edo ziklofosfamidarekin (CPA) (Cinausero et al., 2017; Schmiegelow et al., 2017). Prebalentzia eta larritasuna farmako motaren arabera alda bidaitezke ere, mukosaren kaltetzea dakarten gertaera zelularrek antzekoak dirudite (Al-Ansari et al., 2015; Cinausero et al., 2017). Mekanismoak bere baitan hartzen ditu kaskadan ematen diren zenbait gertaera biologiko kritiko, hala nola, oxigenoaren espezie errektiboen (ROS) sorrera, NF- $\kappa$ B aktibazioa, zitokina inflamatorioen askapena eta MAPK seinalizazioaren aktibazioa, zeintzuek apoptosisa, berriztatze galera, atrofia eta ultzerazio bultzatzen dituzten (Cinausero et al., 2017; Le et al., 2017; Sonis et al., 2004, 2013). Mukosaren kaltea farmako mukotoxikoen bidezidor farmakozinetiko eta farmakodinamikoetako geneen aldaketek eragindakoa izan liteke.

Ildo honetan, haurtzaroko LLA-ren tratamenduan dagoeneko zenbait ikerketek aurkitu dituzte *ABCC1*, *ABCC2* edo *ABCC4* bezalako MTX-aren bidezidorretako geneetako polimorfismoen eta mukositisaren arteko asoziazioak kontsolidazio fasean, toxizitate hau orokorrean dosi-altuko MTX-arekin erlazionatu izan ohi den fasea (den Hoed et al., 2015; Liu et al., 2014b; Lopez-Lopez et al., 2013; Radtke et al., 2013). MTX-aren garraio gene hauetako aldaerek beren erregulazio edo funtzioan eragin dezakete (Gervasini et al., 2017; Muralidharan et al., 2015). Nabarmentzekoa, berriki aurkitu dugun MTX-ak induzitutako mukositisaren eta miR-1206-ko rs2114358-ren GG genotipoaren arteko asoziazio esanguratsua (Gutierrez-Camino et al., 2017b; Lopez-Lopez et al., 2014a). MiRNA geneetako SNP-ek beren mailak eta funtzioa aldatzeko

gaitasuna dutela kontsideratuz, aldaera hauek MTX-aren bidezidorretako geneen adierazpenean eragina izan dezaketela proposaten dugu (Gutierrez-Camino et al., 2017b).

Kontsolidazio fasean aurkitutako emaitza interesgarri hauek gorabehera, mukositisa eta mukosa lesioaren beste zenbait adierazpen kliniko, hala nola, beherakoa eta gonbitoak sarri indukzio fasean ere garatzen dira. Fase honetan DNR eta CPA bezalako beste farmako mukotoxiko batzuk ere administratzen dira MTX-az gain. Ondorioz hipotesi hau proposa genezak: DNR, CPA edo MTX-ren bidezidorretako geneak, zein mukositisarekin erlazionatutako beste edozein gene itutzat dituzten miRNA-tako aldaerak, indukzio fasean ere mukositisarekin asoziatuak egon litezkeela haurtzaroko LLA-ren tratamenduan. Horrela, toxizitate honen eta ikerketaren unean deskribatuak zeuden eta alelo urrienaren maiztasuna (AUM)  $\geq 0,01$  zuten miRNA-tako SNP guztien arteko asoziazioa analizatu genuen, B-LLA-rako homogeneoki tratatuak ziren 179 haur espanyiarren kohorte handi batean. Gainera, beherakoa eta gonbitoak ere aztertu genituen, biak mukosen kaltearekin erlazionatutako adierazpen klinikoak.

## MATERIALAK ETA METODOAK

### Pazienteak

Honakoa, hiru espanyiar ospitaleetako Onkologia Pediatriko Unitateetan (Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea, La Paz Unibertsitate Ospitalea, 2000 eta 2013 urte bitartean) B-LLA-z diagnostikatutako 179 haur espanyiar barne hartu zituen atzera begirako ikerketa da. Paziente guztien edo beraien gurasoen idatzizko baimen informatua eskuratu zen lagin bilketa aurretik. Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) onespena (CEISH/102R/2011) jaso zuen.

### Tratamendua eta toxizitatearen ebaluazioa

Ikerketan sartu ziren paziente guztiak LAL-SHOP 94/99/2005 espanyiar protokolo estandarraren baitan tratatu ziren homogeneoki. Protokolo hauen indukzio fasean, DNR-ren hurrenez-hurreneko bi dosi ( $120 \text{ mg/m}^2$ ), VCR lau dosi ( $1,5 \text{ mg/m}^2/\text{astean}$ ) eta prednisona ( $60 \text{ mg/m}^2/\text{egun}$  28 egunez,  $30 \text{ mg/m}^2/\text{egun}$  4 egunez eta  $15 \text{ mg/m}^2/\text{egun}$  azken 4 egunetan). Gainera, tratamendu besoaren araberako 0-2 CPA dosi ( $1000 \text{ mg/m}^2/\text{dosiko}$ ), ASP hamar dosi ( $5\,000 - 15\,000 \text{ U/m}^2$  tratamendu besoaren arabera) eta arrisku taldearen arabera bi edo hiru MTX-zitarabina-hidrokortisona (MTX 8-12 mg dosi baxua) dosi intratekal ere ematen dira indukzio fasean. LAL/SHOP 99 protokoloan arrisku-altuko pazienteek +15 egunean MTX  $3 \text{ g/m}^2$  dosi bakar bat ere jaso zuten.

Toxizitateari zegozkion datuak genotipoei itsu jaso ziren pazienteen historia kliniketatik, kasu guzietan bi ikertzaile aditu berberen eskutik. Mukositisa 1-etik 4-ra bitartean graduatu zen, MOE-ren irizpideetatik egokitutako Hematologia eta Onkologia Pediatriko Erakunde Espainiarren estandarrei jarraiki (ikus 9. taula). Gainera, beharakoari eta gonbitoiei zegozkien datuak ere jaso genituen, izan ere biak dira mukosaren lesioaren adierazpen klinikoak. Bitik laura bitarteko graduak konsideratu ziren toxikotzat. Sexua, adina, tratamendu protokoloa, arrisku taldea eta tratamendu besoa gisako beste datu batzuk sistematikoki jaso ziren historia klinikoetatik.

#### Gene eta polimorfismoen aukeraketa

MiRNA-en ituak gaur egun guztiz definituak ez daudela kontuan izanik, eta edozein miRNA zuzenki edo zeharka mukositisaren garapenean zerikusia duten geneen erregulazioan implikaturik egon litekeelako, ikerketa gauzatu zen unean (2014ko maiatza) deskribatuak zeuden miRNA geneetako SNP guztiak aukeratu genituen. Guztirako 969 miRNA-tako 1910 SNP-en artetik europar/kaukasiar populazioan AUM > 0,01 zuten SNP-ak aukeratu genituen. SNP-en aukeraketarako, mirbase (<http://www.mirbase.org/>), miRNA SNIPER (<http://bioinfo.life.hust.edu.cn/miRNASNPs/index.php>), eta dbSNP (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/SNP/>) datu-baseak erabili genituen, baita literaturaren araketa ere (ikus 11. taula).

#### Genotipazioa

ADN genomikoa erremisioan zeuden LLA-dun pazienteen odol periferiko edo hezur muinetik erauzi zen fenol-kloroformo metodoa erabiliz, aurrez deskribatu bezala (Sambrook, J, 2001). ADN-a PicoGreen (Invitrogen Corp., Carlsbad, Kalifornia, AEB) bidez kuantifikatu zen.

Lagin bakoitzarentzat, 400 ng ADN genotipatu ziren Veracode teknologiadun GoldenGate Genotipazio Saiakuntza (Illumina Inc., San Diego, Kalifornia, AEB) erabiliz argitaratutako Illumina protokoloaren arabera. Datuak genotipoen *clustering* eta *calling*-erako GenomeStudio (Illumina Inc.) software bidez analizatu ziren. Lagin bikoiztuak eta CEPH hirukoak (Coriell Cell Repository, Camden, New Jersey, AEB) genotipatu ziren plaketen zehar. Transmisio-aleliko mendelialar akatsak edo genotipo diskordanteak erakusten zituzten SNPak analisitik baztertu ziren.

### Analisi estatistikoak

Toxizitateen (mukositisa, beherakoa eta gonbitoak) arteko erlazioa indukzioan erregresio logistiko modelo unibariante eta korrelazio koefiziente bidez neurtu zen. Adinak, sexuak, tratamendu protokoloak, arrisku taldeak eta tratamendu besoak toxizitatean izan lezaketen efektu nahasle posiblea kontabilizatzeko erregresio logistiko unibariante eta multibarianteak erabili ziren. Toxizitatearen eta polimorfismo genetikoen arteko asoziazioa  $\chi^2$  edo Fisher-en frogatz bidez ebaluatu zen. Asoziazioko efektuen tamaina odds ratio bidez estimatu zen. Eredua dominante eta errezesiboen arteko frogatz esanguratsuena aukeratu zen. Kasu guztietai esangura maila %5-ean ezarri zen. Emaitzak konparaketa anitzetarako false discovery rate (FDR) zuzenketa bidez egokituz ziren (Benjamini et al., 2001). Analisiak R v3.3.0. software bidez gauzatu ziren.

### Analisi bioinfomatikoak

- *MiRNA-en egitura sekundarioen iragarprena*

Toxizitatearekin esanguratsuki asoziaturiko miRNA-entzat, RNAfold web tresna (<http://rna.tbi.univie.ac.at/cgi-bin/RNAWebSuite/RNAfold.cgi>) (Gruber et al., 2008) erabili zen SNP-ek egitura sekundarioen gutxieneko energia aske eta urkila egituren energia aldaketan ( $\Delta\Delta G$ ) zuten inpaktua kalkulatzeko.

- *Geneen itu aukeraketa eta bidezidorren analisia*

MiRNA-en itu geneak miRWALK (<http://www.umm.uni-heidelberg.de/apps/zmf/mirwalk/index.html>) datu-basean oinarrituta aukeratu ziren (Dweep and Gretz, 2015). MiRWALK-en baitako 12 iragarpenei programatik, gutxienez 6 programek konfirmatutako geneak aukeratu ziren soilik.

MiRNA esanguratsuen bidezidor analisiei dagokienez, lehendabizi DNR-ren (antraziklinak), MTX-aren eta CPA-ren bidezidor farmakozinetiko eta farmakodinamikoko geneak kontsideratu genituen, Pharmacogenomic Knowledge Base (PharmGKB) (<https://www.pharmgkb.org/>) datu basearen eta literaturaren araketan oinarrituta. Bigarren planteamendu batean, mukosen toxizitatean zerikusia izan zezaketen beste gene batzuk identifikatzeko asmoz, bidezidorren aberaste analisi bat gauzatu genuen ConsensusPathDB (CPdB) (<http://consensuspathdb.org/>) (Kamburov et al., 2013) web tresnaren gainerrepresentazio modulua erabiliz. MiRWALK-eko itu geneen zerrendak analizatu ziren KEGG (Kanehisa et al., 2017), Reactome (Fabregat et al., 2016) eta BioCarta ([http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta\\_Pathways](http://cgap.nci.nih.gov/Pathways/BioCarta_Pathways)) bidezidor datu baseetako berezko bildumekin erkatuta.

**EMAITZAK**Pazienteen ezaugarriak

Ikerketa honetan 179 paziente pediatriko sartu genituen. Mukositisiari, beherakoari zein gonbitoei zegozkien datuak 170 pazienterentzat jaso ahal izan ziren. Indukzio fasean zehar, 170-ek 36-k (% 21,2) izan zuten  $\geq 2$  graduko mukositisa, 22-k (% 12,9)  $\geq 2$  graduko beherakoa eta 45-ek (% 26,5)  $\geq 2$  graduko gonbitoak (25. taula). Asoziaazioa aurkitu genuen mukositisaren eta beherakoaren artean ( $p = 4 \times 10^{-6}$ ) eta mukositisa eta gonbitoaren artean ( $p = 0,0001$ ), baita beherakoa eta gonbitoaren artean ere ( $p = 0,0005$ ). Ez genuen asoziaziorik aurkitu kobarianteen (adina, sexua, tratamendu protokoloa, arrisku taldea eta tratamendu besoa) eta toxizitateen (mukositisa, beherakoa eta gonbitoak) artean. Horrela, ez genituen kobariante hauek kontuan hartu gainontzeko asoziazio analisietan.

**25. taula.** Pazienteen ezaugarriak.

Ezaugarriak	Indukzio fasea	Kontsolidazio fasea
<b>Paziente kopurua</b>	170	168
<b>Sexua, n (%)</b>		
Gizonezkoak	100 (58,8)	100 (59,5)
Emakumezkoak	70 (41,2)	68 (40,5)
<b>Adina diagnostikoan, batezbestekoa <math>\pm</math> DE (urteak)</b>		
Gizonezkoak	5,22 $\pm$ 3,27	5,23 $\pm$ 3,27
Emakumezkoak	4,91 $\pm$ 3,28	4,84 $\pm$ 3,36
<b>Tratamendu protokoloa, n (%)</b>		
LAL/SHOP 94/99	63 (37,1)	62 (36,90)
LAL/SHOP 2005	107 (62,9)	106 (63,10)
<b>Mucositisa, n (%)</b>		
Beherakoa, n (%)	36 (21,18)	16 (9,52)
Gonbitoak, n (%)	22 (12,94)	10 (5,95)
	45 (26,47)	40 (23,81)

Laburdurak: DE, desbideraketa estandarra.

Genotipazio emaitzak

Genotipazioa arrakastatsua izan zen 179 ADN laginetik 158 laginienzat (% 88,3) eta 160 SNP-entzat (% 75,12). Genotipazioak huts egin zuen PCR amplifikazio ezagatik, kluster banaketarako intentsitate urriagatik edo klusterren definizio ezagatik.

Asoziaazio azterketa

MiRNA-tako aldaera genetikoek toxizitate gastrointestinalean eragina duten ikertzeko, arrakastaz genotipatutako 154 miRNA-tako 160 polimorfismoren eta mukositis, beherako eta gonbitoaren arteko asoziazioa neurtu genuen.

Mukositisari dagokionez, guztira 4 SNP izan ziren toxizitate honekin esanguratsuki asoziatuak (26. taula). Haien artean, miR-4268-ko rs4674470 izan zen estatistikoki esanguratsuena, AG+GG genotipoak 0,3-bider gutxiagoko mukositis arriskua ( $p = 0,0093$ ) erakutsi zuelarik eredu dominantearen baitan. CC genotipodun pazienteetatik inork ez zuen mukositisa garatu. MiR-3683-ko rs6977967 SNP-ak p-balio esanguratsua ( $p = 0,0098$ ) erakutsi zuen eredu errezesiboaren baitan, GG genotipoa izanik arrisku genotipoa. MiR-1908-ko rs174561 eta miR-4520a-ko rs8078913 SNP-ek ere emaitza esanguratsuak eman zituzten. Batek berak ere ez zuen estatistikoki esanguratsu izaten jarraitu FDR zuzenketa ondoren.

**26. taula.** Mukositisarekin asoziazio esanguratsuenak erakutsi dituzten miRNA-tako SNP-ak indukzio fasean zehar haurtzaroko B-LLA-n. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	MukosInduk (n=170)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa
			EZ Tox N=134 (%)	TOX 36 (%)	
hsa-mir-4268 rs4674470	Kr.: 2 pre-miRNA	AA	68 (58,1)	27 (81,8)	Dominantea
		AG	39 (33,3)	6 (18,2)	0,31 (0,12-0,80)
		GG	10 (8,5)	0 (0)	<b>0,009339</b>
		A	175 (74,8)	60 (90,9)	0,297 (0,122-0,722)
		G	59 (25,2)	6 (9,1)	<b>0,005</b>
hsa-mir-3683 rs6977967	Kr.: 7 pre-miRNA	AA	82 (70,1)	22 (66,7)	Errezesiboa
		AG	35 (29,9)	8 (24,2)	0 (0,0)
		GG	0 (0)	3 (9,1)	<b>0,009897</b>
		A	199 (85)	52 (78,8)	1,531 (0,767-3,055)
		G	35 (15)	14 (21,2)	0,2247
mir-1908 rs174561	Kr.: 11 pre-miRNA	TT	71 (64)	13 (41,9)	Dominantea
		CT	34 (30,6)	16 (51,6)	2,46 (1,09-5,53)
		CC	6 (5,4)	2 (6,5)	<b>0,02852</b>
		T	176 (79,3)	42 (67,7)	1,822 (0,977-3,399)
		C	46 (20,7)	20 (32,3)	0,0572
hsa-mir-4520a rs8078913	Kr.: 17 in_mature	CC	38 (35,5)	10 (31,2)	Errezesiboa
		CT	53 (49,5)	12 (37,5)	2,59 (1,03-6,47)
		TT	16 (15)	10 (31,2)	<b>0,04722</b>
		C	129 (60,3)	32 (50)	1,518 (0,866-2,66)
		T	85 (39,7)	32 (50)	0,1439

**Laburdurak:** B-LLA, B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** letra lodiak P-ballio esanguratsuak adierazten dituzte.

Beherakoari dagokionez, 6 SNP izan ziren asoziatuak toxizitate honekin, miR-4751-ko rs8667 izanik SNP-ik esanguratsuena eredu dominantearen baitan ( $p = 0,0005$ ) (27. taula). AG+AA genotipoek beherakoa garatzeko arrisku areagotua erakutsi zuten. MiR-146a, miR-605, miR-202,

miR-1265 eta miR-196a-ren baitako beste 5 SNP-ek ere emaitza esanguratsuak erakutsi zituzten.

Batek berak ere ez zuen estatistikoki esanguratsu izaten jarraitu FDR zuzenketa ondoren.

**27. taula.** Beherakoarekin asoziazio esanguratsuenak erakutsi dituzten miRNA-tako SNP-ak indukzio fasean zehar haurtzaroko B-LLA-n. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	BeherakInduk (n=170)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa
			EZ Tox N=148 (%)	TOX 22 (%)	
hsa-mir-4751 rs8667	Kr.: 19 pre-miRNA	GG	52 (40,3)	1 (5)	Dominantea
		AG	62 (48,1)	15 (75)	12,83 (1,67-98,80)
		AA	15 (11,6)	4 (20)	<b>0,0005</b>
		G	166 (64,3)	17 (42,5)	2,441 (1,241-4,803)
		A	92 (35,7)	23 (57,5)	<b>0,008</b>
hsa-mir-146a rs2910164	Kr.: 5 in_seed	GG	75 (58,1)	5 (23,8)	Dominantea
		CG	44 (34,1)	12 (57,1)	4,44 (1,53-12,87)
		CC	10 (7,8)	4 (19)	<b>0,002</b>
		G	194 (75,2)	22 (52,4)	2,756 (1,413-5,376)
		C	64 (24,8)	20 (47,)	<b>0,0023</b>
hsa-mir-605 rs2043556	Kr.: 10 pre-miRNA	AA	68 (54)	17 (81)	Dominantea
		AG	52 (41,3)	3 (14,3)	0,28 (0,09-0,87)
		GG	6 (4,8)	1 (4,8)	<b>0,015</b>
		A	188 (74,6)	37 (88,1)	0,397 (0,15-1,053)
		G	64 (25,4)	5 (11,9)	0,056
hsa-mir-202 rs12355840	Kr.: 10 pre-miRNA	TT	64 (54,7)	15 (83,3)	Dominantea
		CT	47 (40,2)	3 (16,7)	0,24 (0,07-0,88)
		CC	6 (5,1)	0 (0)	<b>0,015</b>
		T	175 (74,8)	33 (91,7)	0,27 (0,08-0,912)
		C	59 (25,2)	3 (8,3)	0,025
hsa-mir-1265 rs11259096	Kr.: 10 pre-miRNA	TT	116 (89,9)	15 (71,4)	Dominantea
		CT	12 (9,3)	6 (28,6)	3,57 (1,18-10,80)
		CC	1 (0,8)	0 (0)	<b>0,032</b>
		T	244 (94,6)	36 (85,7)	2,905 (1,049-8,042)
		C	14 (5,4)	6 (14,3)	<b>0,032</b>
hsa-mir-196a-2 rs11614913	Kr.: 12 in_mature	CC	63 (48,8)	6 (28,6)	Errezesiboa
		CT	53 (41,1)	9 (42,9)	3,57 (1,18-10,80)
		TT	13 (10,1)	6 (28,6)	<b>0,0326</b>
		C	179 (69,4)	21 (50)	2,266 (1,171-4,385)
		T	79 (30,6)	21 (50)	<b>0,0135</b>

**Laburdurak:** B-LLA, B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, Kromosoma.

**Oharrak:** letra Iodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte.

Gainera, gonbitoekin esanguratsuki asoziaturiko sei SNP aurkitu genituen (28. taula). Estatistikoki esanguratsuena miR-3117-ko rs12402181 SNP-a izan zen, zeinetan AG+AA genotipoak gonbitoak garatzeko 0,24-bider gutxiagoko arriskua erakutsi zuen eredu

dominantearen baitan ( $p = 0,004$ ). Mir-3683, miR-548al, miR-4309, miR-3689d2 eta miR-5196-ko beste 5 SNP-ek ere emaitza esanguratsuak erakutsi zituzten, haietako bat bera ere ez zen estatistikoki esanguratsua izan FDR zuzenketaren ostean.

**28. taula.** Gonbitoekin asoziazio esanguratsuenak erakutsi dituzten miRNA-tako SNP-ak indukzio fasean zehar haurtzaroko B-LLA-n. Maiztasun genotipiko eta alelikoak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa /Aleloa	GonbitInduk (n=170)		Eredua OR (% 95 KT) P-balioa
			EZ Tox N=125 (%)	TOX 45 (%)	
hsa-mir-3117 rs12402181	Kr.: 1 in_seed	GG	75 (25)	34 (89,5)	Dominantea
		AG	34 (30,4)	4 (10,5)	0,24 (0,08-0,72)
		AA	3 (2,7)	0 (0)	<b>0,004</b>
		G	184 (82,1)	72 (94,7)	0,256 (0,088-0,74)
		A	40 (17,9)	4 (5,3)	<b>0,007</b>
hsa-mir-3683 rs6977967	Kr.: 7 pre-miRNA	AA	76 (25,9)	28 (73,7)	Errezesiboa
		AG	36 (32,1)	7 (18,4)	0 (0,0)
		GG	0 (0)	3 (7,9)	<b>0,015</b>
		A	188 (83,9)	63 (82,9)	1,078 (0,538-2,16)
		G	36 (16,1)	13 (17,1)	0,833
hsa-mir-548al rs515924	Kr.: 11 in_seed	AA	97 (87,4)	27 (71,1)	Dominantea
		AG	14 (12,6)	10 (26,3)	2,82 (1,15-6,93)
		GG	0 (0)	1 (2,6)	<b>0,026</b>
		A	208 (93,7)	64 (84,2)	2,786 (1,226-6,327)
		G	14 (6,3)	12 (15,8)	<b>0,011</b>
hsa-mir-4309 rs12879262	Kr.: 14 pre-miRNA	GG	75 (25)	32 (84,2)	Dominantea
		CG	35 (31,2)	6 (15,8)	0,38 (0,15-0,99)
		CC	2 (1,8)	0 (0)	<b>0,034</b>
		G	185 (82,6)	70 (92,1)	0,407 (0,165-1,002)
		C	39 (17,4)	6 (7,9)	0,0447
MIR3689 seq_rs62571442	Kr.: 9 pre-miRNA	AA	32 (28,8)	7 (18,4)	Errezesiboa
		AG	62 (55,9)	19 (50,0)	2,55 (1,08-6,01)
		GG	17 (15,3)	12 (31,6)	<b>0,035</b>
		A	126 (56,8)	33 (43,4)	1,71 (1,011-2,893)
		G	96 (43,2)	43 (56,6)	0,044
hsa-mir-5196 rs10406069	Kr.: 19 pre-miRNA	GG	71 (63,4)	17 (44,7)	Dominantea
		AG	40 (35,7)	21 (55,3)	2,14 (1,01-4,51)
		AA	1 (0,9)	0 (0,0)	<b>0,044</b>
		G	182 (81,3)	55 (72,4)	1,655 (0,904-3,028)
		A	42 (18,8)	21 (27,6)	0,1005


**Laburdurak:** B-LLA, B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua; miRNA, mikroRNA; SNP, nukleotido bakarreko polimorfismoa; Tox, toxizitatea; OR, odds ratio; KT, konfiantza tartea; Kr, kromosoma.

**Oharrak:** letra lodiekin p-balioak esanguratsuak adierazten dituzte.

### Analisi bioinformatikoa

- MiRNA-en egitura sekundarioen iragarpena

Analisiak estatistikoki esanguratsuenak izan ziren SNP-ekin gauzatu genituen, miR-4268-ko rs4674470-kin, miR-3683-ko rs6977967-rekin, miR-4751-ko rs8667-rekin eta miR-3117-ko rs12402181-kin (21. irudia). MiR-4268-ko rs4674470 eta miR-3683-ko rs6977967 SNP-ek ez zuten energia aldaketarik ( $\Delta\Delta G$ ) ezta egitura sekundarioaren aldaketarik eragin. MiR-4751-ko rs8667-ren kasuan, G aleloa A aleloarengatik ordezkatzeak -0.3 kcal/mol-eko energia aldaketa xume bat (-40.2 kcal/mol-tik -40.5-ra) eragin zuen egitura sekundarioaren aldaketarik eragin gabe. Azkenik, miR-3117-ko rs12402181-ek ere ez zuen energia zein egitura sekundarioaren aldaketarik eragin.



**21. irudia.** Alelo ezberdinaren presentziagatik miRNA-ko SNP esanguratsuenen energia aldaketak eta gutxieneko energia-aske egiturak mukositisean (a eta b), beherakoan (c) eta gonbitoetan (d), RNAfold web tresnatik aterata.

- Bidezidorren analisiak*

Lehenengo planteamendua jarraituz, miRNA-en ituen bilaketa egin genuen DNR, CPA eta MTX-ren farmakogeneen artean (22-24. irudiak). Mir-4268-rentzat DNR-ren (antraziklinen bidezidorra) bi farmakogene (*NFKBIE*, *CBR1*) aurkitu genituen eta beste hiru gene MTX-ren bidezidorrean (*MTHFR*, *MTR*, *SLC46A1*), CPA-ren bidezidorrean aldiz ez genuen itu generik aurkitu. MiR-3683-rentzat gene bat aurkitu genuen MTX-aren bidezidorrean (*SHMT1*) eta beste bat CPA-ren bidezidorrean (*ALDH5A1*). MiR-4751-rentzat, DNR-ren bidezidorreko gene bat aurkitu genuen (*NDUFS2*), MTX-rentzat beste bat (*SLC19A1*) eta beste bat CPA-ren bidezidorrean (*ERCC4*). Azkenik, miR-3117-rentzat DNR-ren bidezidorreko gene bat (*ABCC1*), MTX-ren bidezidorreko lau gene (*PPAT*, *SLC46A1*, *SLCO1A2*, *ABCC1*), eta CPA-ren bidezidorreko gene bat (*ALDH5A1*) aurkitu genituen.

Bigarren planteamendu batean, ConsensusPathDB web tresna erabiliz, bidezidorren aberastea analisiak gauzatu ziren miRNA hauentzat, mukositis, beherako eta gonbitoekin erlazionatutako beste itu gene batzuk detektatzeko. MiR-4268-entzat, D fosfolipasa (DFL) seinalizazioaren gain-adierazpen bat aurkitu genuen ( $p$ -balioa =  $9.1 \times 10^{-8}$ ) hamar bidezidor esanguratsuenen artean (29. taula). Bidezidor honetan, miR-4268-k 29 itu-gene arte jotzen ditu (30. taula). Bidezidor hau gain-adierazitako beste zenbait bidezidorrekin erlazionatua dago, kolinaren metabolismoaren bidezidorra eta seinalizazio glutamatergiko eta neurotrofinen seinalizazio bidezidorrak kasu, izan ere 10-12 gene partekatzen dituzte.

**29. taula.** MiR-4268-rentzat bidezidor aberastuak.

Zb.	Bidezidorren izena	Set tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
1	Phospholipase D signaling pathway	144	29 (20.1%)	9.09e-08	0.000116	KEGG
2	Glutamatergic synapse	114	22 (19.3%)	6.67e-06	0.0034	KEGG
3	Signalling by NGF	433	54 (12.5%)	8.8e-06	0.0034	Reactome
4	Transcriptional misregulation in cancer	180	29 (16.1%)	1.07e-05	0.0034	KEGG
5	Transmembrane transport of small molecules	628	70 (11.1%)	2.16e-05	0.00514	Reactome
6	NGF signalling via TRKA from the plasma membrane	340	44 (12.9%)	2.42e-05	0.00514	Reactome
7	Pathways in cancer	397	49 (12.3%)	3.01e-05	0.00549	KEGG
8	Choline metabolism in cancer	101	19 (18.8%)	4.06e-05	0.00647	KEGG
9	Signaling by VEGF	290	38 (13.1%)	6.54e-05	0.00791	Reactome
10	Transmission across Chemical Synapses	218	31 (14.2%)	6.62e-05	0.00791	Reactome

**30. taula.** Mir-4268-ko itutzat dituen D fosfolipasa seinalizazio bidezidorreko geneak.

<i>Entrez-gene ID</i>	<i>Entrez-gene izena</i>
10411	RAPGEF3 : Rap guanine nucleotide exchange factor 3
2916	GRM6 : glutamate metabotropic receptor 6
5155	PDGFB : platelet derived growth factor subunit B
554	AVPR2 : arginine vasopressin receptor 2
9266	CYTH2 : cytohesin 2
3643	INSR : insulin receptor
1609	DGKQ : diacylglycerol kinase theta
7248	TSC1 : tuberous sclerosis 1
107	ADCY1 : adenylate cyclase 1
108	ADCY2 : adenylate cyclase 2
9846	GAB2 : GRB2 associated binding protein 2
185	AGTR1 : angiotensin II receptor type 1
208	AKT2 : AKT serine/threonine kinase 2
5332	PLCB4 : phospholipase C beta 4
5335	PLCG1 : phospholipase C gamma 1
5337	PLD1 : phospholipase D1
2768	GNA12 : G protein subunit alpha 12
5595	MAPK3 : mitogen-activated protein kinase 3
2912	GRM2 : glutamate metabotropic receptor 2
2914	GRM4 : glutamate metabotropic receptor 4
23396	PIP5K1C : phosphatidylinositol-4-phosphate 5-kinase type 1 gamma
2917	GRM7 : glutamate metabotropic receptor 7
6009	RHEB : Ras homolog enriched in brain
387	RHOA : ras homolog family member A
1956	EGFR : epidermal growth factor receptor
5578	PRKCA : protein kinase C alpha
27128	CYTH4 : cytohesin 4
3577	CXCR1 : C-X-C motif chemokine receptor 1
6654	SOS1 : SOS Ras/Rac guanine nucleotide exchange factor 1

MiR-3683-ri dagokionez, prozesu inflamatorioekin erlazionatutako bidezidor batzuk aurkitu genituen (31. taula).

**31. taula.** MiR-3683-rentzat bidezidor aberastuak.

Zb.	Bidezidorren izena	Set tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
1	Activation of BMF and translocation to mitochondria	3	2 (66.7%)	3.34e-05	0.0042	Reactome
2	Effects of PIP2 hydrolysis	27	3 (11.1%)	9.92e-05	0.00625	Reactome
3	Ion homeostasis	56	3 (5.4%)	0.000878	0.0341	Reactome
4	Cardiac conduction	135	4 (3.0%)	0.00108	0.0341	Reactome
5	Aldosterone synthesis and secretion	82	3 (3.7%)	0.00264	0.0613	KEGG
6	Muscle contraction	198	4 (2.0%)	0.00436	0.0613	Reactome
7	Inflammatory mediator regulation of TRP channels	99	3 (3.0%)	0.00449	0.0613	KEGG
8	Platelet calcium homeostasis	31	2 (6.5%)	0.00487	0.0613	Reactome
9	Downstream signaling of activated FGFR1	31	2 (6.5%)	0.00487	0.0613	Reactome
10	Activation of BH3-only proteins	31	2 (6.5%)	0.00487	0.0613	Reactome

MiR-4751-rentzat, Toll-like hartzaleen (TLR) seinalizazioarekin erlazionatutako bidezidorak zeuden gain-adierazita, MAPK seinalizazio kaskada barne (32. taula).


**Table 32.** MiR-4751-rentzat bidezidor aberastuak.

Zb.	Bidezidorren izena	Set tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
1	Acute myeloid leukemia	57	10 (17.5%)	5.52e-08	3.55e-05	KEGG
2	MAP kinase activation in TLR cascade	62	10 (16.1%)	1.27e-07	4.09e-05	Reactome
3	Nuclear Events (kinase and transcription factor activation)	25	7 (28.0%)	1.91e-07	4.09e-05	Reactome
4	TRAF6 Mediated Induction of proinflammatory cytokines	74	10 (13.5%)	7.05e-07	0.000108	Reactome
5	MAPK targets/ Nuclear events mediated by MAP kinases	31	7 (22.6%)	9.54e-07	0.000108	Reactome
6	TRIF-mediated TLR3/TLR4 signaling	101	11 (10.9%)	1.77e-06	0.000108	Reactome
7	MyD88-independent TLR3/TLR4 cascade	101	11 (10.9%)	1.77e-06	0.000108	Reactome
8	Toll Like Receptor 3 (TLR3) Cascade	101	11 (10.9%)	1.77e-06	0.000108	Reactome
9	MyD88 cascade initiated on plasma membrane	82	10 (12.2%)	1.85e-06	0.000108	Reactome
10	Toll Like Receptor 10 (TLR10) Cascade	82	10 (12.2%)	1.85e-06	0.000108	Reactome


Azkenik, miR-3117-rentzat, MAPK seinalizazio bidezidorak zeuden gain-adieraziak (33. taula).

**33. taula.** MiR-3117-3p-rentzat bidezidor aberastuak.


Zb.	Bidezidorren izena	Set tamaina	Kandidatuak	p-balioa	q-balioa	Bidezidor iturria
1	MAPK signaling pathway - Homo sapiens	257	24 (9.3%)	4.94e-07	0.000322	KEGG
2	Ras signaling pathway - Homo sapiens	228	21 (9.2%)	3.24e-06	0.00106	KEGG
3	Choline metabolism in cancer - Homo sapiens	101	13 (12.9%)	7.18e-06	0.00149	KEGG
4	PDGF signaling pathway	27	7 (25.9%)	9.14e-06	0.00149	BioCarta
5	Renal cell carcinoma - Homo sapiens	66	10 (15.2%)	1.95e-05	0.00254	KEGG
6	FoxO signaling pathway - Homo sapiens	134	14 (10.4%)	3.61e-05	0.00317	KEGG
7	ErbB signaling pathway - Homo sapiens	87	11 (12.6%)	4.32e-05	0.00317	KEGG
8	Signaling by EGFR in Cancer	15	5 (33.3%)	4.87e-05	0.00317	Reactome
9	Constitutive Signaling by Ligand-Responsive EGFR Cancer Variants	15	5 (33.3%)	4.87e-05	0.00317	Reactome
10	Signaling by Ligand-Responsive EGFR Variants in Cancer	15	5 (33.3%)	4.87e-05	0.00317	Reactome



**22.irudia.** Antraziklinen bidezidor PK/PD-ko geneak eta ikerketa honetako SNP esanguratsuenak dagozkion itu geneak seinalatzu.



**23.irudia.** CPA-ren bidezidor PK/PD-ko geneak eta ikerketa honetako SNP esanguratsuenak dagozkion itu geneak seinalatuz.



**24. irudia.** MTX-aren bidezidor PK/PD-ko geneak eta ikerketa honetako SNP esanguratsuenak dagozkion itu geneak seinalatuz.

## EZTABAINDA

Ikerketa honetan DNR, MTX edo CPA-ren bidozidorretako geneak zein mukositisarekin erlazionatutako beste gene batzuk itutzat dituzten miRNA-tako aldaeren eta mukositisa, beherakoa eta gonbitoen arteko asoziazioa zehaztu dugu. 206 miRNA-tako 213 SNP analizatu ditugu B-LLA diagnostikoa zuten eta LAL/SHOP protokoloekin homogeneoki tratatutako 179 haur espainiarretan.

Mukositisaren analisian emaitza interesgarriena miR-4268-ko rs4674470-en AG+GG genotipoen eta toxizitate arrisku murriztuaren arteko asoziazioa izan zen. Azpimarragarria da, GG genotipodun paziente batek ere ez zuela mukositisa garatu, eginkizun babeslea adieraziz. SNP hau miRNA urkilaren 3'amaieran kokatua dago, baina ez zituen ez egonkortasuna ez miRNA-ren egitura sekundarioa aldatu (21. irudia). Hala ere, kokapen hau DROSHA mikroprozesatzaleak pri-miRNA eta pre-miRNA arteko zatiketa gunea zehatz ezagutzeko posizio erabakiorra izan daiteke. DROSHA-k pre-miRNA-en mutur terminalak sortzen ditu, miRNA helduaren sekuentzia erabakiz, horrela, DROSHA bidezko prozesamendu zehatza erabakiorra da miRNA funtzionalen produkziorako (Fang and Bartel, 2015; Kim et al., 2017). Ondorioz, SNP honen presentziak DROSHA-k zatiketa gunea ez ezagutzea ekar lezake eta beraz SNP aleloaren araberako miRNA-ren produkzio baxuago batera. Aipagarria da miRNA hau miRbase datu-basean, miRNA-en erreferentziazko datu-basea, G aleloarekin irudikatua dagoela, zeina alelo urriena den

(Kozomara and Griffiths-Jones, 2014). Erreferentzia datu-basean miRNA sekuentzia G aleloarekin irudikatua egoteak G aleoa dagoenean miRNA modu eraginkorragoan produzitzen dela adieraz lezake, DROSHA-k zatiketa gunea ezagutu duelako.

MiRNA honen bidezidorren analisiari dagokionez, DNR-ren bidezidorreko bi gene (*NFKBIE*, *CBR1*) eta MTX-ren bidezidorreko hiru gene (*MTHFR*, *MTR*, *SLC46A1*) aurkitu genituen. Hala ere, miR-4268-k gene hauetan eragindako desregulazioak efektu kontrajarriak izan ditzake. Adibidez, *NFKBIE*-ren beheranzko erregulazioak zelula heriotzatik babestuko zukeen bitartean (Komissarova et al., 2008), *MTHFR* eta *MTR*-ren beheranzko erregulazioak apoptosis prozesu bat erraztuko luke (Kubota et al., 2014; Yang et al., 2017). Mukositisari lotutako beste gene batzuk identifikatzeko asmoz, bidezidorren aberaste analisi bat gauzatu genuen eta miR-4268-k itu gisa DFL-ren seinalizazio bidezidorrera zuela ikusi genuen. Ikusi da *DFL*-ren adierazpena heste gaixotasun inflamatorioen mukosa inflamatuetan gain adierazia dagoela (Zhou et al., 2016). DFL-k gene proinflamatorioen adierazpena modulatzen du eta zitokinen jarioan eginkizun garrantzitsua du (Friday and Fox, 2016; Kang et al., 2014), mukositisaren garapenean eragina duen mekanismoa (Cinausero et al., 2017). Modu interesgarrian, *DFL*-ren isiltzeak zitokinen produkzioa eraginkorki blokeatu zuen (Sethu et al., 2010) eta heste mukosaren inflamazioa hobetu zuen (Zhou et al., 2016). Dagoeneko zehaztu da isiltze hau miRNA sorta batek bideratutakoa izan litekeela (Fite et al., 2016). Testuinguru honetan, miR-4268-ko rs4674470-ren GG genotipoak miRNA-ren adierazpen areagotze bat ekartzea posible litzateke DROSHA-ren ezagutza eraginkorrago bat medio eta miRNA-ren adierazpen areagotzeak aldi berean, DFL-rekin erlazionatutako geneen adierazpen baxuago bat ekarriko luke, bere eginkizun babeslea azalduz.

Beherakoari dagokionean, miR-4751-ko rs8667 izan zen SNP-ik estatistikoki esanguratsuena, AG+AA genotipoak eragin desiragaitza azaltzeko arrisku areagotua erakusten zuelarik eredu dominantearen baitan. SNP-a miR-4751-ren *pre-mature* sekuentzian kokatua dago, non A aleloak energia aldaketa xehe bat dakarren, zeinak ondorioz miRNA-ren mailak aldatuko lituzkeen (Gong et al., 2012). MiR-4751-k itutzat DNR-ren (*NDUFS2*), MTX-ren (*SLC19A1*) eta CPA-ren (*ERCC4*) bidezidorretako zenbait gene zituela aurkitu genuen. Gainera, bidezidorren aberaste analisiak TLR-en seinalizazio kaskadak gain adieraziak zeudela erakutsi zuen. TLR-en aktibazioak NF-κB gisako transkripzio faktore proinflamatorioak induzitzen ditu, zeintzuek IL-1, IL-6 eta TNF bezalako gene proinflamatorioen adierazpena dakarten (Ramnath et al., 2017), mukosen kaltearen patobiologian eragina duten zenbait gertaera. Beraz, miR-4751-ko rs8667-k miRNA-ren maila alda lezake eta ondorioz haren farmako bidezidorretako zein TLR-en seinalizazioko itu geneen adierazpenean eragin, toxizitate areagotze bat bultzatuz.

Azkenik gonbitoen analisian, miR-3117-ko rs12402181 izan zen SNP-ik estatistikoki esanguratsuena eredu dominantearen baitan, zeinetan AG+AA genotipoek arrisku murriztua erakutsi zuten. SNP hau miR-3117-3p-ren *seed* sekuentzian kokatua dago eta ondorioz itu mRNA sekuentzien ezagupen zehatza oztopa lezake. Itu geneen artean DNR-ren (*ABCC1*), MTX-ren (*PPAT*, *SLC46A1*, *SLCO1A2* and *ABCC1*) eta CPA-ren (*ALDH5A1*) bidezidorretako zenbait gene aurkitzen ditugu. Bidezidorren aberaste analisi bidez, MAPK-ekin erlazionatutako bidezidorrak gain adieraziak zeudela aurkitu genuen. MAPK aktibitatea kritikoa da erantzun inflamatoriorako eta bere aktibazioa zenbait zitokinen produkziorako aurrebaldintza da, IL-1, IL-8, IL-6 eta TNF kasu (van den Blink et al., 2001; Elsea et al., 2008; Reyes-Gibby et al., 2017). Ondorioz, *seed* eremuko rs12402181-k miR-3117-3p eta haren itu mRNA-en arteko ezagutza huts egitea eragin lezake, MAPK-ekin erlazionatutako bidezidorren aktibazio aberrante bat eraginez eta mukosaren kaltetzea bultzatzuz.

Ikerketa honek baditu aipatu beharreko zenbait muga, adibidetzat genotipazio teknikan izandako akats tasa erlatiboki altua. Hala ere, akats aukera altu hau ikerketa hasi zen unetik onartu zen, genotipazio emaitza baxu bat aurreikusi arren polimorfismo espezifikook anplifikatzeko beste diseinu aukerarik ez zegoelako. Beste ahultasun posible bat SNP-ek FDR zuzenketa aplikatu ondoren esangura estatistikora iritsi ez izana da. Hau miRNA-tako SNP-en maiztasun baxuagatik izan liteke, izan ere, mRNA-k eremu kontserbatuetan kokatuak egoten dira (Mishra et al., 2008). Azkenik, itu geneen eta bidezidorren determinaziorako erabilitako datu-baseetako iragarpen algoritmoen zehazgabetasuna kontuan hartu behar dugu, (Akhtar et al., 2016; Lee et al., 2015) hala ere, gaur egun muga hau onartu beharra dago.

Laburbilduz, haurtzaroko LLA terapiaren indukzio fasean, emaitzarik interesgarrienak miR-4268-ko, miR-4751-ko eta miR-3117-ko hiru SNP izan ziren hurrenez-hurren mukositis, beherako eta gonbitoen garapenean eragina izan lezaketenak. Eragin hau miRNA-ek farmako mukotoxikoen farmakozinetika eta farmakodinamikako geneetan duten efektuak azal lezake, baita mukosa lesioarekin erlazionatutako beste zenbait geneetan duten efektuak ere, bereziki erantzun inflamatorioan parte hartzen duten geneetan dutenak. Interesgarria litzateke emaitza hauetako beste kohorte batean balidatzea.

**AITORPENAK:** Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzak sostengatu zuen (IT989-16). Spainiar Genotipazio Zentroaren (CeGen) sostengua eskertzen da.

**INTERESEN GATAZKA:** Ezer deklaratzekorik.

## ERREFERENTZIAK

- Akhtar, M.M., Micolucci, L., Islam, M.S., Olivier, F., and Procopio, A.D. (2016). Bioinformatic tools for microRNA dissection. *Nucleic Acids Res.* 44, 24–44.
- Al-Ansari, S., Zecha, J.A.E.M., Barasch, A., de Lange, J., Rozema, F.R., and Raber-Durlacher, J.E. (2015). Oral mucositis induced by anticancer therapies. *Curr. Oral Heal. Reports* 2, 202–211.
- Benjamini, Y., Drai, D., Elmer, G., Kafkafi, N., and Golani, I. (2001). Controlling the false discovery rate in behavior genetics research. *Behav. Brain Res.* 125, 279–284.
- van den Blink, B., Juffermans, N.P., ten Hove, T., Schultz, M.J., van Deventer, S.J., van der Poll, T., and Peppelenbosch, M.P. (2001). p38 mitogen-activated protein kinase inhibition increases cytokine release by macrophages in vitro and during infection in vivo. *J. Immunol.* 166, 582–587.
- Cinausero, M., Aprile, G., Ermacora, P., Basile, D., Vitale, M.G., Fanotto, V., Parisi, G., Calvetti, L., and Sonis, S.T. (2017). New frontiers in the pathobiology and treatment of cancer regimen-related mucosal injury. *Front. Pharmacol.* 8, 354.
- Dweep, H., and Gretz, N. (2015). miRWALK2.0: a comprehensive atlas of microRNA-target interactions. *Nat. Methods* 12, 697.
- Elsea, C.R., Roberts, D.A., Druker, B.J., and Wood, L.J. (2008). Inhibition of p38 MAPK suppresses inflammatory cytokine induction by etoposide, 5-fluorouracil, and doxorubicin without affecting tumoricidal activity. *PLoS One* 3, e2355.
- Fabregat, A., Sidiropoulos, K., Garapati, P., Gillespie, M., Hausmann, K., Haw, R., Jassal, B., Jupe, S., Korninger, F., McKay, S., et al. (2016). The Reactome pathway knowledgebase. *Nucleic Acids Res.* 44, D481-7.
- Fang, W., and Bartel, D.P. (2015). The menu of features that define primary microRNAs and enable de novo design of microRNA genes. *Mol. Cell* 60, 131–145.
- Fite, K., Elkhadragy, L., and Gomez-Cambronero, J. (2016). A Repertoire of MicroRNAs Regulates cancer cell starvation by targeting phospholipase D in a feedback loop that operates maximally in cancer cells. *Mol. Cell. Biol.* 36, 1078–1089.
- Friday, S.C., and Fox, D.A. (2016). Phospholipase D enzymes facilitate IL-17- and TNF $\alpha$ -induced expression of proinflammatory genes in rheumatoid arthritis synovial fibroblasts (RASF). *Immunol. Lett.* 174, 9–18.
- Gervasini, G., de Murillo, S.G., Jiménez, M., de la Maya, M.D., and Vagace, J.M. (2017). Effect of polymorphisms in transporter genes on dosing, efficacy and toxicity of maintenance therapy in children with acute lymphoblastic leukemia. *Gene* 628, 72–77.
- Gong, J., Tong, Y., Zhang, H.-M., Wang, K., Hu, T., Shan, G., Sun, J., and Guo, A.-Y. (2012). Genome-wide identification of SNPs in microRNA genes and the SNP effects on microRNA target binding and biogenesis. *Hum. Mutat.* 33, 254–263.

Gruber, A.R., Lorenz, R., Bernhart, S.H., Neubock, R., and Hofacker, I.L. (2008). The Vienna RNA websuite. Nucleic Acids Res. 36, W70-4.

Gutierrez-Camino, A., Oosterom, N., den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., Martin-Guerrero, I., Pluimj, S.M.F., Pieters, R., de Jonge, R., Tissing, W.J.E., Heil, S.G., et al. (2017). The miR-1206 microRNA variant is associated with methotrexate-induced oral mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenet. Genomics 27, 303–306.

den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., te Winkel, M.L., Tissing, W., de Rooij, J.D.E., Gutierrez-Camino, A., Garcia-Orad, A., den Boer, E., Pieters, R., Pluimj, S.M.F., et al. (2015). Genetic and metabolic determinants of methotrexate-induced mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. Pharmacogenomics J. 15, 248–254.

Johnston, W.T., Lightfoot, T.J., Simpson, J., and Roman, E. (2010). Childhood cancer survival: a report from the United Kingdom childhood cancer study. Cancer Epidemiol. 34, 659–666.

Kamburov, A., Stelzl, U., Lehrach, H., and Herwig, R. (2013). The ConsensusPathDB interaction database: 2013 update. Nucleic Acids Res. 41, D793-800.

Kanehisa, M., Furumichi, M., Tanabe, M., Sato, Y., and Morishima, K. (2017). KEGG: new perspectives on genomes, pathways, diseases and drugs. Nucleic Acids Res. 45, D353–D361.

Kang, D.W., Choi, K.-Y., and Min, D.S. (2014). Functional regulation of phospholipase D expression in cancer and inflammation. J. Biol. Chem. 289, 22575–22582.

Kim, B., Jeong, K., and Kim, V.N. (2017). Genome-wide mapping of DROSHA cleavage sites on primary microRNAs and noncanonical substrates. Mol. Cell 66, 258–269.e5.

Komissarova, E. V., Li, P., Uddin, A.N., Chen, X., Nadas, A., and Rossman, T.G. (2008). Gene expression levels in normal human lymphoblasts with variable sensitivities to arsenite: identification of GGT1 and NFKBIE expression levels as possible biomarkers of susceptibility. Toxicol. Appl. Pharmacol. 226, 199–205.

Kozomara, A., and Griffiths-Jones, S. (2014). miRBase: annotating high confidence microRNAs using deep sequencing data. Nucleic Acids Res. 42, D68-73.

Kubota, M., Nakata, R., Adachi, S., Watanabe, K.-I., Heike, T., Takeshita, Y., and Shima, M. (2014). Plasma homocysteine, methionine and S-adenosylhomocysteine levels following high-dose methotrexate treatment in pediatric patients with acute lymphoblastic leukemia or Burkitt lymphoma: association with hepatotoxicity. Leuk. Lymphoma 55, 1591–1595.

Kuiken, N.S.S., Rings, E.H.H.M., Blijlevens, N.M.A., and Tissing, W.J.E. (2017). Biomarkers and non-invasive tests for gastrointestinal mucositis. Support. Care Cancer 25, 2933–2941.

Le, Z., Niu, X., Chen, Y., Ou, X., Zhao, G., Liu, Q., Tu, W., Hu, C., Kong, L., and Liu, Y. (2017). Predictive single nucleotide polymorphism markers for acute oral mucositis in patients with nasopharyngeal carcinoma treated with radiotherapy. Oncotarget 8, 63026–63037.

Lee, Y.J.D., Kim, V., Muth, D.C., and Witwer, K.W. (2015). Validated microRNA target databases: an evaluation. *Drug Dev. Res.* 76, 389–396.

Liu, Y., Yin, Y., Sheng, Q., Lu, X., Wang, F., Lin, Z., Tian, H., Xu, A., and Zhang, J. (2014). Association of ABCC2 -24C>T polymorphism with high-dose methotrexate plasma concentrations and toxicities in childhood acute lymphoblastic leukemia. *PLoS One* 9, e82681.

Lopez-Lopez, E., Ballesteros, J., Pinan, M.A., Sanchez de Toledo, J., Garcia de Andoin, N., Garcia-Miguel, P., Navajas, A., and Garcia-Orad, A. (2013). Polymorphisms in the methotrexate transport pathway: a new tool for MTX plasma level prediction in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenet. Genomics* 23, 53–61.

Lopez-Lopez, E., Gutierrez-Camino, A., Pinan, M.A., Sanchez-Toledo, J., Uriz, J.J., Ballesteros, J., Garcia-Miguel, P., Navajas, A., and Garcia-Orad, A. (2014). Pharmacogenetics of microRNAs and microRNAs biogenesis machinery in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *PLoS One* 9, e91261.

Mishra, P.J., Mishra, P.J., Banerjee, D., and Bertino, J.R. (2008). MiRSNPs or MiR-polymorphisms, new players in microRNA mediated regulation of the cell: Introducing microRNA pharmacogenomics. *Cell Cycle* 7, 853–858.

Muralidharan, N., Antony, P.T., Jain, V.K., Mariaselvam, C.M., and Negi, V.S. (2015). Multidrug resistance 1 (MDR1) 3435C>T gene polymorphism influences the clinical phenotype and methotrexate-induced adverse events in South Indian Tamil rheumatoid arthritis. *Eur. J. Clin. Pharmacol.* 71, 959–965.

Radtke, S., Zolk, O., Renner, B., Paulides, M., Zimmermann, M., Moricke, A., Stanulla, M., Schrappe, M., and Langer, T. (2013). Germline genetic variations in methotrexate candidate genes are associated with pharmacokinetics, toxicity, and outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* 121, 5145–5153.

Ramnath, D., Powell, E.E., Scholz, G.M., and Sweet, M.J. (2017). The toll-like receptor 3 pathway in homeostasis, responses to injury and wound repair. *Semin. Cell Dev. Biol.* 61, 22–30.

Reyes-Gibby, C.C., Melkonian, S.C., Wang, J., Yu, R.K., Shelburne, S.A., Lu, C., Gunn, G.B., Chambers, M.S., Hanna, E.Y., Yeung, S.-C.J., et al. (2017). Identifying novel genes and biological processes relevant to the development of cancer therapy-induced mucositis: An informative gene network analysis. *PLoS One* 12, e0180396.

Sambrook, J., R.D. (2001). Molecular cloning: a laboratory manual (New York: NY: Cold Spring Harbor Laboratory Press).

Sangild, P.T., Shen, R.L., Pontoppidan, P.E.L., and Rathe, M. (2017). Animal models of chemotherapy-induced mucositis: translational relevance and challenges. *Am. J. Physiol. - Gastrointest. Liver Physiol.* ajpgi.00204.2017.

Schmiegelow, K., Müller, K., Mogensen, S.S., Mogensen, P.R., Wolthers, B.O., Stoltze, U.K., Tuckviene, R., and Frandsen, T. (2017). Open peer review non-infectious chemotherapy-associated acute toxicities during childhood acute lymphoblastic leukemia therapy. *F 1000 Res.* 1–14.

Van Sebille, Y.Z.A., Stansborough, R., Wardill, H.R., Bateman, E., Gibson, R.J., and Keefe, D.M. (2015). Management of mucositis during chemotherapy: from pathophysiology to pragmatic therapeutics. *Curr. Oncol. Rep.* 17, 50.

- Sethu, S., Pushparaj, P.N., and Melendez, A.J. (2010). Phospholipase D1 mediates TNFalpha-induced inflammation in a murine model of TNFalpha-induced peritonitis. *PLoS One* 5, e10506.
- Sonis, S.T. (2004a). The pathobiology of mucositis. *Nat. Rev. Cancer* 4, 277–284.
- Sonis, S.T. (2004b). Oral mucositis in cancer therapy. *J. Support. Oncol.* 2, 3–8.
- Sonis, S.T. (2004c). A biological approach to mucositis. *J. Support. Oncol.* 2, 21-32-6.
- Sonis, S.T., Elting, L.S., Keefe, D., Peterson, D.E., Schubert, M., Hauer-Jensen, M., Bekele, B.N., Raber-Durlacher, J., Donnelly, J.P., Rubenstein, E.B., et al. (2004). Perspectives on cancer therapy-induced mucosal injury: pathogenesis, measurement, epidemiology, and consequences for patients. *Cancer* 100, 1995–2025.
- Sonis, S.T., Antin, J., Tedaldi, M., and Alterovitz, G. (2013). SNP-based Bayesian networks can predict oral mucositis risk in autologous stem cell transplant recipients. *Oral Dis.* 19, 721–727.
- Staley, J.R., Blackshaw, J., Kamat, M.A., Ellis, S., Surendran, P., Sun, B.B., Paul, D.S., Freitag, D., Burgess, S., Danesh, J., et al. (2016). PhenoScanner: a database of human genotype-phenotype associations. *Bioinformatics* 32, 3207–3209.
- Yang, A., Sun, Y., Mao, C., Yang, S., Huang, M., Deng, M., Ding, N., Yang, X., Zhang, M., Jin, S., et al. (2017). Folate protects hepatocytes of hyperhomocysteinemia mice from apoptosis via cystic fibrosis transmembrane conductance regulator (CFTR)-activated endoplasmic reticulum stress. *J. Cell. Biochem.* 118, 2921–2932.
- Zhou, G., Yu, L., Yang, W., Wu, W., Fang, L., and Liu, Z. (2016). Blockade of PLD2 ameliorates intestinal mucosal inflammation of inflammatory bowel disease. *Mediators Inflamm.* 2016, 2543070.

## Metotrexatoaren miR-farmakogenetika haurtzaroko B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutuan

Leire Iparraguirre<sup>1</sup>; Angela Gutierrez-Camino<sup>1</sup>; Maitane Umerez<sup>1</sup>; Idoia Martin-Guerrero<sup>1</sup>; Itziar Astigarraga<sup>2,3</sup>; Aurora Navajas<sup>2,3</sup>; Ana Sastre<sup>4</sup>; Nagore Garcia de Andoin<sup>5</sup> eta Africa Garcia-Orad<sup>1,3</sup>.

<sup>1</sup>Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila, Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Espainia; <sup>2</sup>Hematologia/Onkologia Pediatriko Saila, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Bilbo, Espainia;

<sup>3</sup>Pediatria Saila, BioCruces Osasun Ikerketa Institutua, Barakaldo, Espainia; <sup>4</sup>Onkohematología Pediatriko Saila, La Paz Unibertsitate Ospitalea, Madrid, Espainia; <sup>5</sup>Onkohematología Pediatriko Saila, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Donostia, Espainia.

### Laburpena

**Helburuak:** Metotrexatoak (MTX), farmako gakoa haurtzaroko B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutuan (B-LLA), maiz toxizitatea sortzen du. MTX-aren garraio geneetako aldaera genetikoen eta toxizitatearen arteko asoziazioa aurkitu da. Jakina da, garraiatzaile hauek mikroRNA-ek (miRNA) erregulatzen dituztela eta miRNA-ko nukleotido bakarreko polimorfismoek (SNP) miRNA-ren mailan eta funtzioan eragiten dute. B-zelulen LLA-ari dagokionez, aurrez aurkitua dugu itutzat *ABCC4* duen miR-323b-ko rs56103835, plasmako MTX mailekin asoziatua. Ebidentzia hauek izan arren eta gaur egun miRNA berrien kopuru handi bat zehaztu bada ere, miRNA polimorfismo eta MTX toxizitatearen inguruko ikerketak oso urriak dira. Hori horrela, ikerketa honen helburua, MTX-aren maila plasmatikoan eragina duten miRNA aldaera gehiago ote dauden zehaztea da. **Pazienteak eta metodoak:** LAL-SHOP protokoloarekin trataturiko haurtzaroko B-zelulen LLA zuten 167 gaixoen odol laginak aztertu ziren. MTX-aren garraio geneak itutzat dituzten miRNA guztiak definituak ez daudenez, MTX garraiatzaileak erregula ditzaketen pre-miRNA-tako SNP guztiak aukeratu genituen, alelo urrienaren frekuentzia % 1 baino handiagoa zutenak (213 SNP 206 miRNA-tan). Genotipazioa VeraCode GoldenGate plataforma erabiliz gauzatu zen. **Emaitzak:** Emaitza esanguratsuenen artean miR-5189-ko rs56292801, miR-595-eko rs4909237 eta miR-6083-ko rs78790512 aurkitu genituen plasmako MTX mailarekin erlazionaturik. *In silico* iragarri zen, miRNA hauek MTX-aren barneratzean parte hartzen duten *SLC46A1*, *SLC19A1* eta *SLCO1A2* geneak erregulatzen zituztela. **Ondorioak:** Ikerketa honetan, MTX-aren garraiatzaileak diren *SLC46A1*, *SLC19A1* eta *SLCO1A2* geneetan eragin dezaketen eta ondorioz haurtzaroko B-LLA duten pazienteen MTX mailetan eragin dezaketen 3 SNP detektatu ditugu miR-5189, miR-595 eta miR-6083-n.

**Hitz gakoak:** B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutua, metotrexatoa, nukleotido bakarreko polimorfismoak.

## SARRERA

Leuzemia linfoblastiko akutua (LLA) haurtzaroko minbizi mota ohikoena da (Johnston et al., 2010). Azken 20 urteotan, LLA-ren biziraupen tasa nabarmen hazi da kimioterapiaren eman diren aurrerapenak direla eta (Pui, 2010). LLA-ren terapiaren osagai garrantzitsu bat metotrexatoa (MTX) da. Eraginkorra den arren, MTX dosi altuek maiz toxizitatea sortzen dute, dosi murrizketa edo tratamendua etetea ekarriz, biziraupenean eragin dezakeelarik (Evans et al., 1998; Salazar et al., 2012; Treon and Chabner, 1996). Hori dela eta, medikuntza modernoaren erronketako bat toxizitatea zein pazientek jasango duten aurreikustea da tratamendua hasieratik doitu ahal izateko.

Azken urteotan, ikerketa ugarik aztertu dute aldaera genetikoen eta MTX-aren toxizitatearen arteko erlazioa (Lopez-Lopez et al., 2014b; Moriyama et al., 2015; Pui et al., 2015; Trevino et al., 2009). Emaitza interesgarrienetako batzuk MTX-aren garraiatzaileetan aurkitu dira. Treviño eta lankideek (Trevino et al., 2009) aurkitu zuten lehen aldiz *SLCO1B1*-eko rs4149081 eta rs11045879 nukleotido bakarreko polimorfismoak (SNPak) MTX-aren argitzearekin irmoki asoziatuak zeudela LLA zuten pazienteetan. Lehen ekarpen horren ondoren, aldaera hauek eta *SLCO1B1*-eko beste batzuk baieztauak izan dira ondorengo ikerketetan (Lopez-Lopez et al., 2011, 2013; Radtke et al., 2013; Ramsey et al., 2012, 2013). Ikerketa hauen ondorioz, beste lan batzuen interesa MTX-aren garraiatzaileetako aldaerak aztertzen bideratu da, hainbat SNP aurkitu direlarik berriro MTX mailekin asoziaturik, *SLC19A1*, *ABCC4* edo *ABCC2* bezalako geneetan (Laverdiere et al., 2002; Lopez-Lopez et al., 2013).

Gaur egun, jakina da MTX-aren garraiorako geneak, gure geneen % 50 bezala, mikroRNA-en (miRNA) bidez erregulatzen direla maila postranskripzionalean (Rukov and Shomron, 2011). Horregatik, miRNA-en mailetan edo funtzioan emandako aldaketek, beraien itu geneen adierazpenean eragina izan dezakete. MiRNA-en geneetako SNP-ek, hauen mailan edo funtzioan eragin dezaketela kontuan hartuz, aldaera hauek MTX-aren garraio geneen erregulazioan eragina izan dezaketela espero genezake. Aldaera hauek dagoeneko beste farmako batzuen toxikotasunarekin erlazionatu dira (Amstutz et al., 2015; Meulendijks et al., 2016; Zhan et al., 2012). Haurtzaroko B-zelulen leuzemia linfoblastiko akutuari (B-LLA) dagokionez, gure taldeak aurretik gauzatutako ikerketa batean 42 pre-miRNA-tako 46 SNP aztertu genituen eta SNP bat aurkitu genuen kontsolidazio faseko MTX argitzearekin esanguratsuki asoziaturik, miR-453-ko (ezaguna miR-323b bezala ere) rs56103835 hain zuzen ere. Interesgarria da aipatzea, miRNA honek *ABCC4* duela ustezko itu gene, zeina, MTX-en garraioarekin erlazionatuta dagoen (Lopez-Lopez et al., 2014a).

Kontuan hartuz gure azken ikerketaz geroztik zehaztuak izan diren miRNA-en kopurua nabarmen hazi dela (Kozomara and Griffiths-Jones, 2014) eta miRNA-en ituak guztiz definituak ez daudela eta edozein miRNA-k MTX-aren garraio geneen erregulazioan parte har dezakeela, ikerketa honen helburua, egun deskribaturiko miRNA aldaeraren bat MTX-ren maila plasmatikoekin asoziaturik dagoen ikustea da haurtzaroko LLA duten pazienteetan. Hau lortzeko helburuarekin, alelo urrienaren frekuentzia 0,01 baino handiagoa zuten miRNA-tako aldaera guztiak aztertu genituen B-LLA-dun espiñiar populazio handi batean.

## PAZIENTEAK ETA METODOAK

### Pazienteak

Atzera begirako ikerketa honetan, haurtzaroko B-LLA-dun 167 paziente espiñiar sartu ziren, hiru ospitale espiñiarretako onkologia pediátriko unitateetan diagnostikatuak (Gurutzeta Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea eta La Paz Unibertsitate Ospitalea, 2000-tik 2013-ra bitartean). Leginak jaso baino lehen paziente guztien edo haien gurasoen idatzizko baimen informatua jaso zen. Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) kontseiluaren onarpena (CEISH/102R/2011) lortu zuen.

### Tratamendua eta toxizitatearen ebaluazioa

Ikerketan sarturiko paziente guztiak LAL-SHOP 94/99 eta 2005 protokoloekin homogeneoki tratatuak izan ziren. Protokolo hauen konsolidazio fasean zehar MTX-aren hiru dosi (dosi bakoitzak 3 edo 5 g/m<sup>2</sup> zituen), 6-merkaptopurina (30 mg/m<sup>2</sup>/egun, 6 astez), zitarabinaren lau dosi (1 g/m<sup>2</sup>), eta terapia intratekalaren lau dosi ematen ziren. MTX-aren hiru dosietako bakoitza 24 orduako infusioan ematen zen, azido folinikoaren erreskateekin batera. Dosi bakoitzaren ondoren, MTX-ren kontzentrazioa plasmatikoa monitorizatu zen fluoreszentzia polarizazio immunoentsegu baten bidez TDx sistema batean (Abbott laborategiak, Abbott Park, Illinois, AEB). Plasma kontzentrazioak egunero neurtu ziren 0,2 μmol/l azpitik egon ziren arte.

MTX-aren maila plasmatikoak konsolidazio fasean jaso ziren, infusioa hasi eta 48, 72 eta 96 hora. Datuak pazienteen historia klinikoetatik jaso ziren, genotipoei itsu. MTX-aren mailak altutzat hartu ziren baldin eta hiru dosietako baten ondoren 48 h-tako kontzentrazioak 1 μmol/l gainditzen bazuen edo 72 h zein 96 h-tako kontzentrazioak 0,2 μmol/l baino altuagoak baziren, aurrelik deskribatu bezala (Lopez-Lopez et al., 2013; Suthandiram et al., 2014). Horrez gain, plasmako MTX maila global altua konsideratu zen, maila plasmatikoek ezarritako kontzentrazio atalaseak gainditzen bazituzten konsolidazio faseko edozein ziklotan zehar. Sexu eta adin datuak erregistro klinikoetatik sistematikoki jaso ziren.

### Gene eta polimorfismoen aukeraketa

Kontuan hartuz alde batetik, gaur egun MTX-aren garraiatzaileak itutzat dituzten miRNA-k ez daudela guztiz definituak eta bestetik, MTX-ren garraiatzaileen erregulazioan zuzenki edo zeharka edozein miRNA implikatuta egon litekeela, ikerketa egin zen unean (2014-ko maiatza) SNPak deskribaturik zituzten miRNA gene guztiak aukeratu genituen. 969 miRNA-tako 1910 SNP-etatik, populazio europar/kaukasiarrean alelo urrienaren frekuentzia 0,01 baino altuagoa zuten SNP-ak aukeratu genituen. SNP-en aukeraketarako, mirbase (<http://www.mirbase.org/>), miRNA SNIPER (<http://bioinfo.life.hust.edu.cn/miRNAsNP2/index.php>), eta dbSNP (<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/SNP/>) datu baseak erabili genituen, baita literaturaren araketa ere.

Ikerketan 206 miRNA-tako 213 SNP aukeratu ziren (ikus 11. taula).

### Genotipazioa

ADN genomikoa erremisioan zeuden LLA-dun pazienteen odol periferiko edo hezur muinetik erauzi zen fenol-kloroformo metodoa erabiliz, aurrez deskribatu bezala (Sambrook, J., 2001). ADN-a PicoGreen (Invitrogen Corp., Carlsbad, Kalifornia, AEB) bidez kuantifikatu zen.

Lagin bakoitzarentzat, 400 ng ADN genotipatu ziren Veracode teknologiadun GoldenGate Genotipazio Saiakuntza (Illumina Inc., San Diego, Kalifornia, AEB) erabiliz argitaratutako Illumina protokoloaren arabera. Datuak genotipoen *clustering* eta *calling*-erako GenomeStudio (Illumina Inc.) software bidez analizatu ziren. Lagin bikoitzuak eta CEPH hirukoak (Coriell Cell Repository, Camden, New Jersey, AEB) genotipatu ziren plaketen zehar. Transmisio-aleliko mendelialar akatsak edo genotipo diskordanteak erakusten zituzten SNP-ak analisitik baztertu ziren.

### Analisi estatistikoa

MTX mailen eragina zehazteko  $\chi^2$  edo Fisher-en frogak zehatza erabili zen. Asoziazio efektuen tamaina odds ratio bidez estimatu zen. MTX dosiak izan lezakeen efektu nahasle posiblea kontabilizatzeko erregresio logistiko multibariantek erabili ziren. Gainera, 5 g/m<sup>2</sup>-ko dosiarekin tratatutako populazioa modu independentean aztertu genuen erregresio logistiko unibariantea erabiliz. Analisi hau burutu genuen emaitza esanguratsuen lorpenerako 5 g/m<sup>2</sup>-ko dosiak ekarpen handiagoa izango zukeela konsideratuz. Eredu dominante eta errezesiboen arteko frogak esanguratsuena aukeratu zen. Kasu guztieta esangura maila % 5-ean ezarri zen. Emaitzak konparaketa anitzetarako false discovery rate (FDR) zuzenketa bidez egokituz ziren (Benjamini et al., 2001). Analisiak R v3.3.0. software bidez gauzatu ziren.

### Analisi bioinformatikoa

MiRNA-en itu geneak miRWalk datu basean oinarrituz aukeratu ziren. MiRWalk-en baitako 12 iragarpen programatik, gutxienez 6 programek konfirmatutako geneak aukeratu ziren (<http://www.umm.uni-heidelberg.de/apps/zmf/mirwalk/index.html>) (Dweeep et al., 2011). Itu gene guztietatik MTX-ren bidezidorrean parte hartzen zutenak aukeratzeko Pharmacogenomic Knowledge Base (PharmGKB) (<https://www.pharmgkb.org/>) datu-basea erabiliz. RNAfold web tresna (<http://rna.tbi.univie.ac.at/cgi-bin/RNAfold.cgi>) (Gruber et al., 2008) erabili zen SNP-ek egitura sekundarioen gutxieneko energia aske eta urkila egituren energia aldaketan ( $\Delta\Delta G$ ) zuten inpaktuak kalkulatzeko.

### **EMAITZAK**

#### Pazienteen ezaugarriak

Ikerketa honetan, haurtzaroko B-LLA zuten eta kontsolidazio fasean MTX mailaren datua gutxienez puntu batean eskuragai zuten 167 paziente sartu genituen. Gizonzkoen kopuru altuagoa behatu zen, % 59,88 (n=100) gizonak eta % 40,12 (n=67) emakumezkoak baitziren. Bataz besteko adina ez zen bi taldeen artean aldatu (34. taula).

MTX-ren plasmako mailaren datua 48 h-tara 159 pazienterentzat izan zen eskuragarri, 72 h-tara 163 pazienterentzat eta 96 h-tara 152 pazienterentzat (35. taula). Kontsolidazio faseko edozein puntutan, MTX maila altuak zeuzkaten pazienteen artean (n=62, % 37,13), plasmako MTX maila altuen maiztasuna altuagoa zen 5 g/m<sup>2</sup>-ko dosia jaso zutenentzat 3 g/m<sup>2</sup>-ko dosia jaso zutenentzat baino. (3,4 : 1). Desberdintasun hau 48 h (3,3 : 1) eta 72 h-tara (2,5 : 1) mantendu egin zen eta 96 h-tara areagotu (4,5 : 1) (35. taula).

#### Genotipazio emaitzak

Genotipazioa arrakasta lortu zen 167-tik 147 (% 88,02) ADN laginentzat. Genotipazio prozesuan zehar, 213 SNP-etatik 53-k (% 24,88) laginen % 20 baino gehiagotan huts egin zuten (ikus 12. taula) eta ondorioz ikerketatik baztertu ziren. Akats hauek PCR amplifikazio ezagatik, klusterraren banaketarako nahikoa ez zen intentsitateagatik edo klusterren definizio urri edo nuluagatik izan ziren. Genotipazio arrakastatsua 160 SNP-entzat lortu zen (% 75,12).

**34. taula.** Haurtzaroko B-LLA-dun pazienteen ezaugarriak.

<b>Paziente kopurua, n</b>	167
<b>Sexua, n (%)</b>	
Emakumezkoak	67(40,12)
Gizonezkoak	100 (59,88)
<b>Adina diagnostikoan, batezbestekoa ± DE (urteak)</b>	$5,2 \pm 3,26$
Emakumezkoak	$5,0 \pm 3,13$
Gizonezkoak	$5,3 \pm 3,23$
<b>Tratamendu protokoloa, n (%)</b>	
LAL-SHOP 94/99	65 (38,92)
LAL-SHOP 2005	102 (61,08)
<b>MTX dosia kontsolidazioan, n (%)</b>	
3 g/m <sup>2</sup>	72 (43,11)
5 g/m <sup>2</sup>	95 (56,89)
<b>MTX plasma maila globalak, n (%)</b>	
MTX maila plasmatiko altua	62 (37,13)
MTX maila plasmatiko normala	105 (62,87)

**35. taula.** MTX maila plasmatiko datuak.

	<b>Globala</b>	<b>48h</b>	<b>72h</b>	<b>96h</b>
<b>5 g/m<sup>2</sup> (n=95)</b>				
Maila normalak, n (%)	47 (49,48)	57 (60,0)	49 (51,58)	59 (62,10)
Maila altuak, n (%)	48 (50,52)	33 (34,74)	43 (45,26)	27 (28,42)
NA, n (%)	0 (0,0)	5 (5,26)	3 (3,16)	9 (9,48)
<b>3 g/m<sup>2</sup> (n=72)</b>				
Maila normalak, n (%)	58 (80,56)	59 (81,94)	58 (80,55)	60 (83,33)
Maila altuak, n (%)	14 (19,44)	10 (13,88)	17 (23,61)	6 (8,33)
NA, n (%)	0 (0,0)	3 (4,18)	1 (4,16)	6 (8,34)
<b>5 g/m<sup>2</sup> eta 3 g/m<sup>2</sup> (n=167)</b>				
Maila normalak, n (%)	105 (62,87)	116 (69,46)	107 (64,07)	119 (71,25)
Maila altuak, n (%)	62 (37,13)	43 (25,75)	56 (33,53)	33 (19,76)
NA, n (%)	0 (0,0)	8 (4,79)	4 (2,4)	15 (8,99)

**Laburdurak:** NA, datua ez eskuragarri denbora puntu horretan.

#### Asoziaazio azterketa

MiRNA-tako aldaera genetikoek MTX mailetan eragina duten ikertzeko, era arrakastatsuan genotipaturiko 154 miRNA-tako 160 polimorfismoen eta plasmako MTX kontzentrazioen arteko asoziazioa aztertu genuen. Analisia MTX-ren infusioan zehar edozein momentutan, 48, 72 eta 96 h-tara egin zen homogeneoki tratatutako haurtzaroko B-LLA-dun 147 espiñiar pazienteko kohorte batean. Guztira, 15 miRNA genetako 15 polimorfismok erakutsi zuten asoziazio esanguratsua MTX-ren maila plasmatikoen ( $P < 0,05$ ) (36. eta 37. taulak). Asoziaazio esanguratsuenak eta gainera denbora puntu ezberdinietan koherente mantendu zirenak, miR-

5189, miR-595, eta miR-6083-rentzat aurkitu ziren (36. taula). SNP hauek ez ziren balio esanguratsuetara iritsi FDR zuzenketa aplikatzean.

MiR-5189-n, rs56292801 AA+AG genotipoek MTX-ren plasmako maila altuak izateko 0,4 aldiz arrisku txikiagoa erakutsi zuten analisi guzietan (36.taula). Analisia 5 g/m<sup>2</sup>-ko dosia jaso zuten pazienteen taldean burutzean, asoziazioak p-balio esanguratsuago bat erakutsi zuen eta gainera, miRNA bereko beste SNP batek, rs35613341-ek emaitza esanguratsua azaldu zuen (38. taula).

MiR-595-ri dagokionez, rs4909237 TT genotipoa plasmako MTX maila altu globalak izateko 5,7 aldiz arrisku handiagoarekin asoziatu zen ( $P = 0,028$ ), eta emaitza esanguratsuak erakutsi zituen 48 h ( $P = 0,031$ ) eta 72 h-tara ( $P = 0,015$ ). 96 h-tara p-balio esanguratsura iritsi ez bazen ere, ia esanguratsua izan zen ( $P = 0,065$ ).

MiR-6083-ren kasuan, rs78790512 AA genotipoa ez zen plasmako MTX maila altua zuten pazienteengen aurkitu. Balio esanguratsua aurkitu zen MTX-ren maila plasmatiko globalarentzat ( $P = 0,007$ ), baita 48 h ( $P = 0,026$ ) eta 72h-tara ere ( $P = 0,011$ ). Gainera, 96 h-tara ia esanguratsua izan zen ( $P = 0,051$ ), aurreko denbora uneetako joera bera erakutsiz. 5 g/m<sup>2</sup>-ko dosia jaso zuten paziente taldean analisia gauzatu genuenean, plasmako MTX maila altuekin asoziatu zen baita ere (38. taula).

Beste 12 miRNA-tako 12 SNP MTX mailarekin asoziatu ziren gutxienez analisietako batean. Baino, asoziazio hauek ez ziren modu koherentean aurkitu aztertutako denbora une guzietan (37. taula).

**36. taula.** B-LLA-dun gaixoetan plasmako MTX mailarekin asoziazio esanguratsuena erakusten duten miRNA-tako SNPak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa	Globala (n=147)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	48h (n=139)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	72h (n=143)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	96h (n=133)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa
			Maila normalak N=90	Maila altuak N=57		Maila normalak N=98	Maila altuak N=41		Maila normalak N=92	Maila altuak N=51		Maila normalak N=102	Maila altuak N=31	
hsa-mir-5189 rs556292801	Kr:16 <i>Pre-mature</i>	GG	41 (45.6)	36 (64.3)	Dominantea	44 (44.4)	26 (65.0)	Dominantea	42 (45.7)	32 (64.0)	Dominantea	48 (46.6)	21 (67.7)	Dominantea
		AG	40 (44.4)	18 (32.1)	0.42 (0.20-0.89)	44 (44.4)	13 (32.5)	0.4 (0.18-0.89)	41 (44.6)	16 (32.0)	0.42 (0.19-0.90)	44 (42.7)	9 (29.0)	0.41 (0.17-0.99)
		AA	9 (10.0)	2 (3.6)	<b>0.021</b>	11 (11.1)	1 (2.5)	<b>0.021</b>	9 (9.8)	2 (4.0)	<b>0.022</b>	11 (10.7)	1 (3.2)	<b>0.041</b>
hsa-mir-595 rs4909237	Kr:2 <i>Pre-mature</i>	CC	59 (65.6)	35 (62.5)	Errezesiboa	64 (64.6)	23 (57.5)	Errezesiboa	60 (65.2)	31 (62.0)	Errezesiboa	67 (65.0)	18 (58.1)	Errezesiboa
		CT	29 (32.2)	14 (25.0)	5.70 (1.02-31.70)	32 (32.3)	11 (27.5)	4.94 (1.08-22.6)	30 (32.6)	12 (24.0)	6.69 (1.21-37.04)	33 (32.0)	9 (29.0)	4.72 (0.89-24.94)
		TT	2 (2.2)	7 (12.5)	<b>0.028</b>	3 (3.0)	6 (15.0)	<b>0.031</b>	2 (2.2)	7 (14.0)	<b>0.015</b>	3 (2.9)	4 (12.9)	0.065
hsa-mir-6083 rs78790512	Kr:3 <i>Pre-mature</i>	GG	60 (66.7)	41 (71.9)	Errezesiboa	66 (66.7)	30 (73.2)	Errezesiboa	62 (67.4)	36 (70.6)	Errezesiboa	69 (67.0)	24 (77.4)	Errezesiboa
		AG	24 (26.7)	16 (28.1)	0.0 (0.0)	27 (27.3)	11 (26.8)	0.0 (0.0)	24 (26.1)	15 (29.4)	0.0 (0.0)	28 (27.2)	7 (22.6)	0.0 (0.0)
		AA	6 (6.7)	0 (0.0)	<b>0.007</b>	6 (6.1)	0 (0.0)	<b>0.026</b>	6 (6.5)	0 (0.0)	<b>0.011</b>	6 (5.8)	0 (0.0)	0.051

**Laburdurak:** OR, Odds-ratio; KT., Konfiantza tartea; Kr, kromosoma.

**Oharrak:** Letra loidiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte; paziente batzuen MTX maila plasmatikoen datuak ez ziren eskuragarri izan 48 h-tara (NA=8), 72 h-tara (NA=4) eta 96 h-tara (NA=14).

**37. taula.** B-LLA-dun gaixoetan plasmako MTX mailekin asoziazioa soilik denbora puntu batzuetan erakutsi zuten miRNA-tako SNP-ak.

miRNA	SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa	Globala (n=147)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	48h (n=139)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	72h (n=143)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa	96h (n=133)		Eredua OR. KT (% 95) P-balioa
				Maila normalak N=90	Maila altuak N=57		Maila normalak N=98	Maila altuak N=41		Maila normalak N=92	Maila altuak N=51		Maila normalak N=102	Maila altuak N=31	
hsa-mir-1206 rs2114358	Kr:8 Pre-mature	TT	27 (30.0)	25 (45.0)	Dominantea.	31 (31.3)	16 (41.0)	Dominantea	27 (29.3)	23 (70.6)	Dominantea	33 (32.0)	14 (45.2)	Dominantea	
		CT	45 (50.0)	24 (43.6)	0.37 (0.17-0.82)	49 (49.5)	19 (48.7)	0.50 (0.21-1.15)	47 (51.1)	21 (42.9)	0.32 (0.14-0.73)	52 (50.5)	13 (41.9)	0.45 (0.19-1.10)	
		CC	18 (20.0)	6 (10.9)	<b>0.012</b>	19 (19.2)	4 (10.3)	0.103	18 (19.6)	5 (10.2)	<b>0.005</b>	18 (17.5)	4 (12.9)	0.079	
hsa-mir-4792 rs11714172	Kr:3 Pre-mature	TT	37 (41.6)	18 (31.6)	Dominantea	41 (41.8)	11 (26.8)	Dominantea	38 (41.8)	14 (27.5)	Dominantea	42 (41.2)	7 (22.6)	Dominantea	
		GT	37 (41.6)	32 (56.1)	1.78 (0.84-3.78)	40 (40.8)	27 (65.9)	2.25 (0.97-5.21)	38 (41.8)	31 (60.8)	2.23 (1.01-4.92)	43 (42.2)	20 (64.5)	2.67 (1.04-5.99)	
		GG	15 (16.9)	7 (12.3)	0.128	17 (17.3)	3 (7.3)	0.050	15 (16.5)	6 (1.8)	<b>0.043</b>	17 (16.7)	4 (12.9)	<b>0.037</b>	
hsa-mir-5007 rs1572687	Kr:13 Pre-mature	CC	32 (35.6)	15 (26.3)	Errezesiboa	33 (33.3)	13 (31.7)	Errezesiboa	33 (35.9)	14 (27.5)	Errezesiboa	33 (32.0)	11 (35.5)	Errezesiboa	
		CT	44 (48.9)	28 (49.1)	1.84 (0.75-4.52)	51 (51.5)	16 (39.0)	2.31 (0.92-2.18)	45 (48.9)	24 (47.1)	1.88 (0.76-4.66)	55 (53.4)	8 (25.8)	3.86 (1.46-10.19)	
		TT	14 (15.6)	14 (24.6)	0.180	15 (15.2)	12 (29.3)	0.920	14 (15.2)	13 (25.5)	0.171	15 (14.6)	12 (38.7)	<b>0.006</b>	
hsa-mir-4700 rs1055070	Kr:12 Mature	TT	76 (84.4)	56 (98.2)	Dominantea	85 (85.9)	40 (97.6)	Dominantea	78 (84.8)	50 (98.0)	Dominantea	89 (86.4)	30 (96.8)	Dominantea	
		GT	13 (14.4)	1 (1.8)	0.11 (0.01-0.90)	13 (13.1)	1 (2.4)	0.18 (0.02-1.46)	13 (14.1)	1 (2.0)	0.13 (0.02-1.04)	13 (12.6)	1 (3.2)	0.26 (0.03-2.14)	
		GG	1 (1.1)	0 (0.0)	<b>0.007</b>	1 (1.0)	0 (0.0)	0.048	1 (1.1)	0 (0.0)	0.014	1 (1.0)	0 (0.0)	0.142	
hsa-mir-323b rs56103835	Kr:14 Pre-mature	TT	66 (73.3)	35 (61.4)	Dominantea	70 (70.7)	28 (68.3)	Dominantea	67 (72.8)	33 (64.7)	Errezesiboa	73 (70.9)	21 (67.7)	Errezesiboa	
		CT	19 (21.1)	21 (36.8)	1.88 (0.87-4.05)	24 (24.2)	12 (29.3)	1.15 (0.50-2.63)	19 (20.7)	18 (35.3)	0.0 (0.0)	24 (23.3)	10 (32.3)	0.0 (0.0)	
		CC	5 (5.6)	1 (1.8)	0.107	5 (5.1)	1 (2.4)	0.740	6 (6.5)	0 (0.0)	<b>0.021</b>	6 (5.8)	0 (0.0)	0.078	
hsa-mir-4432 rs243080	Kr:2 Pre-mature	CC	25 (28.1)	16 (29.6)	Errezesiboa	26 (26.5)	14 (36.8)	Errezesiboa	27 (29.7)	13 (27.1)	Errezesiboa	28 (27.7)	12 (40.0)	Errezesiboa	
		CT	47 (52.8)	17 (31.5)	2.15 (0.96-4.85)	51 (52.0)	10 (26.3)	1.75 (0.74-4.12)	47 (51.6)	15 (31.2)	2.56 (1.12-5.83)	50 (49.5)	6 (20.0)	1.80 (0.73-4.46)	
		TT	17 (19.1)	21 (38.9)	0.063	21 (21.4)	14 (36.8)	0.204	17 (18.7)	20 (41.7)	<b>0.025</b>	23 (22.8)	12 (40.0)	0.206	
hsa-mir-4268 rs4674470	Kr:2 Pre-mature	TT	61 (67.8)	31 (54.4)	Dominantea 2.33 (1.08-5.00)	66 (66.7)	23 (56.1)	Dominantea 1.95 (0.88-4.35)	61 (66.3)	29 (56.9)	Dominantea 1.82 (0.85-3.92)	68 (66.0)	17 (54.8)	Dominantea 2.00 (0.83-4.79)	
		CT	24 (26.7)	21 (36.8)		27 (27.3)	16 (39.0)		26 (28.3)	18 (35.3)		28 (27.2)	13 (41.9)		
		CC	5 (5.6)	5 (8.8)	<b>0.027</b>	6 (6.1)	2 (4.9)	0.101	5 (5.4)	4 (7.8)	0.121	7 (6.8)	1 (3.2)	0.121	
hsa-mir-4520a rs8078913	Kr:17 Mature	CC	26 (31.0)	21 (40.4)	Errezesiboa	29 (31.9)	14 (36.8)	Errezesiboa	27 (31.4)	18 (39.1)	Errezesiboa	32 (33.0)	11 (37.9)	Errezesiboa	
		CT	44 (52.4)	20 (38.5)	2.22 (0.81-6.12)	48 (52.7)	14 (36.8)	3.23 (1.11-9.36)	45 (52.3)	18 (39.1)	2.18 (0.79-6.06)	50 (51.5)	11 (37.9)	2.67 (0.86-8.29)	
		TT	14 (16.7)	11 (21.2)	0.118	14 (15.4)	10 (26.3)	<b>0.029</b>	14 (16.3)	10 (21.7)	0.132	15 (15.5)	7 (24.1)	0.09	
hsa-mir-4467 rs60871950	Kr:7 Mature	AA	28 (31.1)	14 (25.9)	Errezesiboa	29 (29.3)	10 (26.3)	Errezesiboa	28 (30.4)	11 (22.9)	Errezesiboa	28 (27.2)	9 (30.0)	Errezesiboa	
		AG	34 (37.8)	28 (51.9)	0.61 (0.26-1.41)	37 (37.4)	22 (57.9)	0.35 (0.13-0.97)	36 (39.1)	26 (54.2)	0.68 (0.29-1.60)	41 (39.8)	16 (53.3)	0.38 (0.13-1.13)	
		GG	28 (31.1)	12 (22.2)	0.244	33 (33.3)	6 (15.8)	<b>0.033</b>	28 (30.4)	11 (22.9)	0.370	34 (33.0)	5 (16.7)	0.065	
hsa-mir-604 rs2368392	Kr: 10 Pre-mature	CC	55 (61.1)	31 (54.4)	Dominantea	61 (61.6)	21 (51.2)	Dominantea	56 (60.9)	27 (52.9)	Dominantea	63 (61.2)	14 (45.2)	Dominantea	
		CT	32 (35.6)	24 (42.1)	1.76 (0.84-3.71)	35 (35.4)	18 (43.9)	1.88 (0.86-4.13)	33 (35.9)	22 (43.1)	1.75 (0.82-3.72)	37 (35.9)	15 (48.4)	2.50 (1.04-5.99)	
		TT	3 (3.3)	2 (3.5)	0.133	3 (3.0)	2 (4.9)	0.112	3 (3.3)	2 (3.9)	0.142	3 (2.9)	2 (6.5)	<b>0.037</b>	
hsa-mir-4745 rs10422347	Kr: 19 Mature	CC	73 (83.9)	44 (78.6)	Errezesiboa	81 (84.4)	32 (80.0)	Errezesiboa	73 (82)	42 (84)	Errezesiboa	83 (83.0)	25 (80.6)	Errezesiboa	
		CT	14 (16.1)	10 (17.9)	0.0 (0.0)	15 (15.6)	6 (15.0)	0.0 (0.0)	16 (18)	6 (12)	0.0 (0.0)	17 (17.0)	4 (12.9)	0.0 (0.0)	
		TT	0 (0.0)	2 (3.6)	0.114	0 (0.0)	2 (5.0)	0.056	0 (0)	2 (4)	0.092	0 (0.0)	2 (6.5)	<b>0.037</b>	
hsa-mir-1265 rs11259096	Kr:10 Pre-mature	TT	82 (91.1)	47 (82.5)	Dominantea	91 (91.9)	33 (80.5)	Dominantea	83 (90.2)	43 (84.3)	Dominantea	92 (89.3)	27 (87.1)	Dominantea	
		CT	7 (7.8)	10 (17.5)	2.35 (0.80-6.94)	7 (7.1)	8 (19.5)	3.23 (1.03-10.12)	8 (8.7)	8 (15.7)	1.83 (0.61-5.47)	10 (9.7)	4 (12.9)	1.37 (0.37-4.98)	
		CC	1 (1.1)	0 (0.0)	0.118	1 (1.0)	0 (0.0)	<b>0.044</b>	1 (1.1)	0 (0.0)	0.284	1 (1.0)	0 (0.0)	0.641	

**Laburdurak:** OR, Odds-ratio; KT., Konfiantza tarteak; Kr, kromosoma. **Oharrak:** Letra Iodiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte; paziente batzuen MTX maila plasmatikoen datuak ez ziren eskuragarri izan 48 h-tara (NA=8), 72 h-tara (NA=4) eta 96 h-tara (NA=14).

**38. taula.** 5g/m<sup>2</sup> MTX dosiarekin tratatutako B-LLA-dun gaixoetan plasmako MTX mailarekin asoziazioa erakusten duten miRNA-tako SNPak.

miRNA SNP	Posizioa Kokapena	Genotipoa	Globala (n=86)		Eredua OR. KT (% 95) p-balioa	48h (n=81)		Eredua OR. KT (% 95) p-balioa	72h (n=83)		Eredua OR. KT (% 95) p-balioa	96h (n=77)		Eredua OR. KT (% 95) p-balioa
			Maila normalak N=40	Maila altuak N=46		Maila normalak N=48	Maila altuak N=33		Maila normalak N=42	Maila altuak N=41		Maila normalak N=51	Maila altuak N=26	
hsa-mir-5189 rs56292801	Kr:16 Pre-mature	GG	15 (37.5)	31 (67.4)	Dominantea	18 (37.5)	23 (69.7)	Dominantea	16 (38.1)	27 (65.9)	Dominantea	21 (41.2)	20 (76.9)	Dominantea
		AG	22 (55.0)	13 (28.3)	0.29 (0.12-0.71)	26 (54.2)	9 (27.3)	0.26 (0.10-0.67)	23 (54.8)	12 (29.3)	0.32 (0.13-0.78)	26 (51.0)	5 (19.2)	0.21 (0.07-0.61)
		AA	3 (7.5)	2 (4.3)	<b>0.005</b>	4 (8.3)	1 (3.0)	<b>0.004</b>	3 (7.1)	2 (4.9)	<b>0.010</b>	4 (7.8)	1 (3.8)	<b>0.002</b>
		CC	15 (37.5)	28 (60.9)	Dominantea	18 (37.5)	21 (63.6)	Dominantea	16 (38.1)	25 (61.0)	Dominantea	21 (41.2)	18 (69.2)	Dominantea
		CG	20 (50.0)	15 (32.6)	0.39 (0.16-0.92)	23 (47.9)	11 (33.3)	0.34 (0.14-0.86)	21 (50.0)	13 (31.7)	0.39 (0.16-0.95)	23 (45.1)	7 (26.9)	0.31 (0.11-0.85)
		GG	5 (12.5)	3 (6.5)	<b>0.029</b>	7 (14.6)	1 (3.0)	<b>0.020</b>	5 (11.9)	3 (7.3)	<b>0.036</b>	7 (13.7)	1 (3.8)	<b>0.018</b>
hsa-mir-6083 rs78790512	Kr:3 Pre-mature	GG	23 (57.5)	36 (78.3)	Dominantea	28 (58.3)	27 (81.8)	Dominantea	25 (59.5)	32 (78.0)	Dominantea	30 (58.8)	23 (88.5)	Dominantea
		AG	3 (32.5)	10 (21.7)	0.38 (0.15-0.96)	16 (33.3)	6 (18.2)	0.31 (0.11-0.89)	13 (31.0)	9 (22.0)	0.41 (0.16-1.08)	17 (33.3)	3 (11.5)	0.19 (0.05-0.70)
		AA	4 (10.0)	0 (0.0)	<b>0.038</b>	4 (8.3)	0 (0.0)	<b>0.022</b>	4 (9.5)	0 (0.0)	0.067	4 (7.8)	0 (0.0)	<b>0.005</b>
hsa-mir-5007 rs1572687	Kr:3 Pre-mature	CC	12 (30.0)	12 (26.1)	Errezesiboa	13 (27.1)	11 (33.3)	Errezesiboa	13 (31.0)	11 (26.8)	Errezesiboa	13 (25.5)	9 (34.6)	Errezesiboa
		CT	23 (57.5)	22 (47.8)	2.47 (0.79-7.76)	29 (60.4)	11 (33.3)	3.50 (1.14-10.73)	24 (57.1)	18 (43.9)	3.06 (0.97-9.68)	32 (62.7)	6 (23.1)	5.50 (1.74-17.43)
		TT	5 (12.5)	12 (26.1)	0.109	6 (12.5)	11 (33.3)	<b>0.024</b>	5 (11.9)	12 (29.3)	0.047	6 (11.8)	11 (42.3)	<b>0.002</b>
hsa-mir-604 rs2368392	Kr: 12 Pre-mature	CC	29 (72.5)	26 (56.5)	Dominantea	35 (72.9)	16 (48.5)	Dominantea	30 (71.4)	22 (53.7)	Dominantea	36 (70.6)	12 (46.2)	Dominantea
		CT	10 (25.0)	18 (39.1)	2.03 (0.82-5.02)	12 (25.0)	15 (45.5)	2.86 (1.12-7.28)	11 (26.2)	17 (41.5)	2.16 (0.87-5.35)	14 (27.5)	12 (46.2)	2.80 (1.05-7.45)
		TT	1 (2.5)	2 (4.3)	0.121	1 (2.1)	2 (6.1)	<b>0.025</b>	1 (2.4)	2 (4.9)	0.093	1 (2.0)	2 (7.7)	<b>0.037</b>
hsa-mir-4792 rs11714172	Kr:3 Pre-mature	TT	19 (47.5)	15 (32.6)	Dominantea	23 (47.9)	9 (27.3)	Dominantea	20 (47.6)	12 (29.3)	Dominantea	24 (47.1)	5 (19.2)	Dominantea
		GT	11 (27.5)	24 (52.2)	1.87 (0.78-4.48)	13 (27.1)	21 (63.6)	2.45 (0.95-6.36)	12 (28.6)	23 (56.1)	2.20 (0.89-5.43)	15 (29.4)	17 (65.4)	3.73 (1.22-11.44)
		GG	10 (25.0)	7 (15.2)	0.158	12 (25.0)	3 (9.1)	0.059	10 (23.8)	6 (14.6)	0.084	12 (23.5)	4 (15.4)	<b>0.014</b>
hsa-mir-4432 rs243080	Kr:2 Pre-mature	TT	9 (23.1)	19 (43.2)	Dominantea	13 (27.7)	12 (38.7)	Dominantea	9 (22.0)	18 (46.2)	Dominantea	14 (28.6)	11 (44.0)	Dominantea
		CT	19 (48.7)	13 (29.5)	0.39 (0.15-1.03)	22 (46.8)	9 (29.0)	0.61 (0.23-1.59)	19 (46.3)	12 (30.8)	0.33 (0.12-0.87)	21 (42.9)	6 (24.0)	0.51 (0.19-1.39)
		CC	11 (28.2)	12 (27.3)	0.051	12 (25.5)	10 (32.3)	0.308	13 (31.7)	9 (23.1)	<b>0.021</b>	14 (28.6)	8 (32.0)	0.188
hsa-mir-4520a rs8078913	Kr:17 Mature	CC	12 (32.4)	18 (42.9)	Errezesiboa	14 (32.6)	12 (38.7)	Errezesiboa	13 (33.3)	15 (40.5)	Errezesiboa	17 (35.4)	9 (37.5)	Errezesiboa
		CT	22 (59.5)	17 (40.5)	2.27 (0.54-9.50)	26 (60.5)	12 (38.7)	3.89 (0.92-16.48)	23 (59.0)	15 (40.5)	2.80 (0.67-11.78)	28 (58.3)	9 (37.5)	5.00 (1.13-22.18)
		TT	3 (8.1)	7 (16.7)	0.246	3 (7.0)	7 (22.6)	0.053	3 (7.7)	7 (18.9)	0.143	3 (6.2)	6 (25.0)	<b>0.028</b>
hsa-mir-4268 rs4674470	Kr: 2 Pre-mature	TT	31 (77.5)	26 (56.5)	Dominantea	35 (72.9)	20 (60.6)	Dominantea	31 (73.8)	24 (58.5)	Dominantea	36 (70.6)	16 (61.5)	Dominantea
		CT	9 (22.5)	15 (32.6)	2.65 (1.03-6.81)	12 (25.0)	11 (33.3)	1.75 (0.68-4.50)	11 (26.2)	13 (31.7)	2.00 (0.79-5.04)	13 (25.5)	9 (34.6)	1.50 (0.56-4.05)
		CC	0 (0.0)	5 (10.9)	<b>0.038</b>	1 (2.1)	2 (6.1)	0.245	0 (0.0)	4 (9.8)	0.140	2 (3.9)	1 (3.8)	0.425
hsa-miR-3689 rs62571442	Kr:9 Pre-mature	AA	13 (33.3)	8 (17.4)	Dominantea	15 (31.9)	4 (12.1)	Dominantea	13 (31.7)	6 (14.6)	Dominantea	16 (32.0)	3 (11.5)	Dominantea
		AG	19 (48.7)	30 (65.2)	2.37 (0.86-6.54)	23 (48.9)	24 (72.7)	3.40 (1.01-11.42)	21 (51.2)	27 (65.9)	2.71 (0.91-8.04)	26 (52.0)	18 (69.2)	3.61 (0.94-13.80)
		GG	7 (17.9)	8 (17.4)	0.089	9 (19.1)	5 (15.2)	<b>0.034</b>	7 (17.1)	8 (19.5)	0.064	8 (16.0)	5 (19.2)	0.040
hsa-mir-4494 rs215383	Kr:12 Pre-mature	GG	29 (72.5)	28 (63.6)	Errezesiboa	33 (70.2)	21 (65.6)	Errezesiboa	31 (73.8)	23 (59.0)	Errezesiboa	36 (72.0)	15 (57.7)	Errezesiboa
		AG	11 (27.5)	12 (27.3)	0.00 (0.0)	13 (27.7)	8 (25.0)	4.76 (0.47-47.96)	11 (26.2)	12 (30.8)	0.00 (0.0)	13 (26.0)	8 (30.8)	6.39 (0.63-64.83)
		AA	0 (0.0)	4 (9.1)	0.117	1 (2.1)	3 (9.4)	0.150	0 (0.0)	4 (10.3)	<b>0.049</b>	1 (2.0)	3 (11.5)	0.086


**Laburdurak:** OR., Odds-ratio; KT, Konfiantza tartea; Kr, kromosoma. **Oharrik:** Letra lodiiek P-balio esanguratsuak adierazten dituzte; paziente batzuen MTX maila plasmatikoen datuak ez ziren eskuragarri izan 48 h-tara (NA=8), 72 h-tara (NA=4) eta 96 h-tara (NA=14).

### Analisi bioinformatikoa

- Aldaera genetikoen eragina pre-miRNA-ren egitura sekundarioan

Ikerketa honetan aurkitutako 3 SNP esanguratsuenak, pre-miRNA sekuentzian kokatuta zeuden.


*In-silico* analisi bidez iragarri zen, alelo aldaketak miRNA-ren egitura sekundarioan eragina duela, urkila egituraren energian aldaketa eragiten duelako. Aldaketa bereziki nabaria izan zen miR-5189-ko rs56292801-entzat, zeinetan, G aleloa A aleloagatik ordezkatzeak 5,3 kcal/mol-eko energia aldaketa ( $\Delta\Delta G$ ) eragin zuen (-55,9-tik -50,6 kcal/mol-era). Alelo aldaketa honek egitura sekundarioaren aldaketa drastiko bat ere eragin zuen (25. irudia). MiR-595-eko rs4909237-rentzat C aleloa T aleloagatik ordezkatzeak -0,5 kcal/mol-eko energia aldaketa apala (-29,20-tik -29,70 kcal/mol-era) eta egitura sekundarioan aldaketa nabaria eragin zuen (25. irudia). Azkenik, miR-6083-ko rs78790512-ren kasuan, G aleloa A aleloagatik ordezkatzeak energia aldaketa ( $\Delta\Delta G = 0,2$  kcal/mol; -30,9-etik -30,70 kcal/mol-era) zein egituraren aldaketa txikia eragin zituen (25.irudia).



**25. irudia.** MiRNA-tako hiru SNP esanguratsuenen energia aldaketak ( $\Delta\Delta G$ ) eta gutxieneko energia-aske egiturak, alelo ezberdinen presentzia dela eta, RNAfold web tresnatik erauzita.

- *Ituen iragarpena*

*In-silico* analisiek miR-5189 eta miR-595-ek itu gisa MTX-aren 14 garaiatzale geneetatik 3 zituztela iragarri zuten: SLC19A1, SLC01A2, eta SLC46A1. Emaitza aipagarriena miR-595-entzat aurkitu zen, zeinak 3 geneak erregulatzen dituen. MiR-6083-rentzat, gaur egun ez daude iragarritako iturik MTX-ren garraio geneen artean (26. irudia).



**26. irudia.** MTX-aren garraio bidezidorreko geneak gutxienez ikerketa honetako miRNA esanguratsuenetako batek erregulatuak. (a) miR-595 eta miR-5189-k itutzat dituzten MTX-aren garraio bidezidorreko geneak. (b) miRNA ituen laburpen taula.

## EZTABaida

Ikerketa honetan, aukeraketa unean deskribaturiko miRNA-tako aldaera guztiekin plasmako MTX mailen aldaketan izan dezaketen zeregina ebaluatu genuen, MTX-aren garraio geneetan izan zezaketen efektua kontuan hartuz. Horretarako, 154 miRNA-tako 160 SNP-en eta plasmako MTX mailen arteko korrelazioa ebaluatu genuen B-LLA diagnostikoa zuten eta LAL-SHOP 94/99 eta 2005 protokoloekin homogeneoki trataturiko 147 haurretan. Hiru SNP esanguratsuenak, ikertutako denbora une desberdinatan plasmako MTX mailekin modu koherentean asoziatuak egon zirenak, miR-5189, miR-595 eta miR-6083-n kokatuak zeuden.

Pre-miR-5189-ko rs56292801-en AA genotipoak denboran zehar MTX-aren pilaketarekiko eginkizun babeslea aurkezten zuela aurkitu genuen. Gainera, genotipo honek asoziazio handiagoa erakutsi zuen 5 g/m<sup>2</sup> dosiarekin trataturiko pazienteetan. Honez gain, paziente hauetan, miRNA bereko beste SNP bat ere, rs35613341, MTX maila plasmatikoekin asoziatu zen esanguratsuki, MTX-a dosi altuan erabiltzean miR-5189-ren eginkizun garrantzitsu bat iradokiz. MiRNA honetan rs56292801-en A aleloak energia aldaketa positiboa eragiten du, honek miRNA-ren urkila egoera egonkor batetik desegonkor batera ( $\Delta\Delta G = 5,3$  kcal/mol) daramala iradoki delarik. Egituraren egonkortasun galera horrek miRNA helduaren produktua gutxitu dezakeela proposatu da (Gong et al., 2012), eta hortaz, bere itu geneen adierazpenaren areagotzea eragin lezake. MiR-5189-rentzat iragarritako ituen artean SLC46A1 aurkitzen dugu, zeinek MTX-aren

garraioan inplikatutako protoiei akoplatutako folatoaren garraiatzailea kodetzen duen (Deng et al., 2009; Qiu et al., 2007; Zhao et al., 2008) (26. irudia). SLC46A1-en adierazpen gune garrantzitsuenen artean giltzurruna eta gibela aurkitzen dira (Desmoulin et al., 2012; Hou and Matherly, 2014; Qiu et al., 2006). Protoiei akoplaturiko folatoaren garraiatzaileak, MTX bezalako folato analogoen barneratzean parte hartu dezakeela proposatu da, analogoen kontzentrazioak nahikoa altuak direnean (Desmoulin et al., 2012). Hori dela eta, A aleloaren eginkizun babeslea miR-5189-ren egonkortasunean duen eraginak azal dezake, zeinek produktu heldua murriztu dezakeen – SLC46A1-en adierazpena areagotuz – eta aldi berean MTX-aren argitza erraztuz. MiRNA hau plasmako MTX mailekin erlazionatu den lehen aldia da, segur aski duela gutxi deskribatu delako. Emaitza hau baiezatzeko ikerketa gehiagoren beharra dago.

Bigarren emaitza esanguratsuena miR-595-eko rs4909237 TT genotipoarentzat aurkitu zen, zeinak, denboran zehar MTX maila altua edukitzeko arriskua areagotzen duela erakutsi duen. *In-silico* datuek T aleloak energia soilik apur bat aldatzen duela erakutsi dute ( $\Delta\Delta G = -0,5 \text{ kcal/mol}$ ) baina, egitura sekundarioan eragin nabarmenagoa duela adierazi dute. Gainera, interesgarria da aipatzea miR-595-ek aurretik aipaturiko SLC46A1 itutzat edukitzeaz gain, MTX-aren barneratzean parte hartzen duten beste bi garraio gene ere badituela itu gisa, SLC19A1 eta SLCO1A2 (26.Irudia). SLC19A1-ek folatoaren garraiatzaile nagusiena den folatoaren garraiatzaile erreduzitua (RFC1) kodetzen du, hau, gehienbat gibelean adierazten da eta bitartekaria da zeluletan MTX-aren harrerarako (Desmoulin et al., 2012). Gene honetako polimorfismoak MTX-aren toxizitate eta plasma kontzentrazioekin lotu izan dira haurtzaroko LLA-n (Faganel Kotnik et al., 2011; Imanishi et al., 2007; Laverdiere et al., 2002; Lopez-Lopez et al., 2013; Shimasaki et al., 2006; Suthandiram et al., 2014). Gure emaitzak indartuz, Wang eta lankideek miR-595-en loturarako gune bat sortzen duen SNP bat aurkitu zuten SLC19A1-en 3'UTR eremuan MTX-aren plasmako maila altuekin erlazionatua (Wang et al., 2014). Gure taldeak zein Wang eta lankideek aurkituriko asoziazioak miR-595-ek SLC19A1-en erregulazioan eginkizun garrantzitsua bete dezakeela iradokitzen dute eta ondorioz, MTX-aren garraioan eragin dezakeela. MiRNA honek erregulatzen duen hirugarren genea gibel eta giltzurrunean adierazten den SLCO1A2 da. Garraiatzaile honek MTX-aren harreran parte hartzen du (Badagnani et al., 2006; Callens et al., 2015; Desmoulin et al., 2012). Gainera, SLCO1A2-ren aldaerek MTX-aren garraioa eraldatzen dutela ikusi da eta beraz, MTX-aren banaketan eta toxizitatean eragina izango lukete (Badagnani et al., 2006; Zhou et al., 2013). Laburbiltzeko, SNP-aren ondorioz emango litzatekeen miR-595 helduaren areagotze batek hiru garraiatzaileen adierazpena murriztuko luke eta MTX-aren gernu iraizpena eta iraizpen biliarra murriztu, plasmako farmako metaketa eraginez.

Hirugarren asoziazio esanguratsuena miR-6083-ko rs78790512 GG+AG genotipoaren eta denboran zeharreko MTX kontzentrazio altuaren artean aurkitu zen. *In-silico* analisiek G aleloa A aleoagatik ordezkatzeark energia aldaketa ( $\Delta\Delta G = 0.2$  kcal/mol) eta egitura aldaketak txiki bat eragiten dituela adierazten dute. Kasu honetan, A aleloak MTX maila altuen aurrean egikizun babeslea duela dirudi, rs78790512-ren AA genotipoa zuen pazienteetako inork ez baitzuen MTX maila plasmatiko alturik aurkeztu. Ezin dugu asoziazio hau energia edo bigarren mailako egituraren aldaketan oinarrituta azaldu (25. irudia). Bere itu geneetan oinarrituta ere ezin dugu asoziazioa azaldu, gaur egun MTX garraio geneen artean ez baitago miR-6083-rentzat iragarritako itu generik, hala ere, beste RNA ez-kodifikatzaile batzuk erregulatzen eragin ez zuzena eduki lezake.

Oraingo ikerketa honetan, gaixoen lagina emendatzean, aurreko azterketan balio esanguratsuak lortu ez zituzten 3 SNP-ek emaitza esanguratsuak lortu dituzte MTX-en maila plasmatikoekin asoziazioan (miR-1206-ko rs2114358, miR-604-ko rs2368392 eta miR-1265-eko rs11259096). Aipatzekoa da, aurretik MTX-aren argitzearekin erlazionatu zen miR-323b-ko rs56103835 ikerketa honetan ere asoziatua zegoela 72 h-tara plasmako MTX maila altuekin ( $P=0,021$ ) (37.taula). Nabarmenzeko, miRNA honek *ABCC4* genea du itutzat, zeinek farmako desberdinekiko erresistentzia 4 proteina (MRP4) kodetzen duen eta batez ere giltzurruneko MTX-aren kanporantze fluxuan parte hartzen duen (van Aubel et al., 2002; El-Sheikh et al., 2007). Gure emaitzekin bat, aurretik iradoki izan da *ABCC4*-ko aldaerek MTX-aren maila eta toxizitatean eragin dezaketela (Ansari et al., 2009; den Hoed et al., 2015; Krishnamurthy et al., 2008; Lopez-Lopez et al., 2013; Low et al., 2009; Nicoletti et al., 2012). Gainera, SNP esanguratsuak zituzten beste 8 miRNA berri plasmako MTX maila altuekin asoziatu ziren ikertutako denbora uneren batean. Emaitza guzti hauek ez ziren koherenteki lortu ikertutako denbora une guzietan, eta horregatik, arretaz jokatu beharra dago hauek kontuan hartzeko orduan.

Ikerketa honek baditu aipatu beharreko zenbait muga, adibidetzat genotipazio teknikan izandako akats tasa erlatiboki altua. Hala ere, huts egite aukera altu hau ikerketa hasi zen unetik onartu zen, polimorfismo espezifikoko amplifikatzeko beste diseinu aukerarik ez zegoelako. Beste ahultasun posible bat SNP-ek FDR zuzenketa ondoren p-balio esanguratsua lortu ez zutela izan liteke. Hala ere, nabarmenzekoa da SNP batzuentzat, miR-6083-ko rs78790512 kasu, AA genotipoa zuten paziente batek ere ez zuela MTX maila alturik aurkeztu. Horregatik, FDR zuzenketa ondoren p-balio esanguratsuen falta MTX maila altuen maiztasun urriak eragindako botere estatistiko baxuen adierazle izan daiteke. Azkenik, datu-baseetako iragarpen algoritmoen

zehazgabetasuna kontuan hartu behar dugu (Akhtar et al., 2016; Lee et al., 2015), hala ere, gaur egun muga hau onartu beharra dago.

## ONDORIOAK

Ikerketa honetan, hiru miRNA-tako hiru SNP detektatu genituen, miR-5189, miR-595 eta miR-6083-en adierazpena erregulatu lezaketenak eta oraingoz itutzat MTX-aren hiru garraiatzaile (SLC19A1, SLCO1A eta SLC46A1) lituzketenak. Aurkikuntza honek, miRNA-tako aldaerek MTX-aren garraio geneen erregulazioan izango luketen eragina erakusten du.

## AITORPENAK

Ikerketa honek RTICC-en (RD12/0036/0060, RD12/0036/0036) eta Eusko Jaurlaritzaren babesia jaso du (IT661-13). Spainiar genotipazio zentro nazionalaren laguntena jaso zuen, hau aintzat hartzen da esker onez.

## ERREFERENTZIAK

Akhtar, M.M., Micolucci, L., Islam, M.S., Olivieri, F., and Procopio, A.D. (2016). Bioinformatic tools for microRNA dissection. *Nucleic Acids Res.* 44, 24–44.

Amstutz, U., Offer, S.M., Sistonen, J., Joerger, M., Diasio, R.B., and Largiader, C.R. (2015). Polymorphisms in MIR27A Associated with Early-Onset Toxicity in Fluoropyrimidine-Based Chemotherapy. *Clin. Cancer Res.* 21, 2038–2044.

Ansari, M., Sauty, G., Labuda, M., Gagne, V., Laverdiere, C., Moghrabi, A., Sinnett, D., and Krajinovic, M. (2009). Polymorphisms in multidrug resistance-associated protein gene 4 is associated with outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* 114, 1383–1386.

van Aubel, R.A.M.H., Smeets, P.H.E., Peters, J.G.P., Bindels, R.J.M., and Russel, F.G.M. (2002). The MRP4/ABCC4 gene encodes a novel apical organic anion transporter in human kidney proximal tubules: putative efflux pump for urinary cAMP and cGMP. *J. Am. Soc. Nephrol.* 13, 595–603.

Badagnani, I., Castro, R.A., Taylor, T.R., Brett, C.M., Huang, C.C., Stryke, D., Kawamoto, M., Johns, S.J., Ferrin, T.E., Carlson, E.J., et al. (2006). Interaction of methotrexate with organic-anion transporting polypeptide 1A2 and its genetic variants. *J. Pharmacol. Exp. Ther.* 318, 521–529.

Benjamini, Y., Drai, D., Elmer, G., Kafkafi, N., and Golani, I. (2001). Controlling the false discovery rate in behavior genetics research. *Behav. Brain Res.* 125, 279–284.

Callens, C., Debled, M., Delord, M., Turbiez-Stalain, I., Veyret, C., Bieche, I., and Brain, E. (2015). High-throughput pharmacogenetics identifies SLCO1A2 polymorphisms as candidates to elucidate the risk of febrile neutropenia in the breast cancer RAPP-01 trial. *Breast Cancer Res. Treat.* 153, 383–389.

Deng, Y., Zhou, X., Kugel Desmoulin, S., Wu, J., Cherian, C., Hou, Z., Matherly, L.H., and Gangjee, A. (2009). Synthesis and biological activity of a novel series of 6-substituted thieno[2,3-d]pyrimidine antifolate inhibitors of purine biosynthesis with selectivity for high affinity folate receptors over the reduced folate carrier and proton-coupled folate transpo. *J. Med. Chem.* 52, 2940–2951.

Desmoulin, S.K., Hou, Z., Gangjee, A., and Matherly, L.H. (2012). The human proton-coupled folate transporter: Biology and therapeutic applications to cancer. *Cancer Biol. Ther.* 13, 1355–1373.

Dweep, H., Sticht, C., Pandey, P., and Gretz, N. (2011). miRWALK--database: prediction of possible miRNA binding sites by “walking” the genes of three genomes. *J. Biomed. Inform.* 44, 839–847.

El-Sheikh, A.A.K., van den Heuvel, J.J.M.W., Koenderink, J.B., and Russel, F.G.M. (2007). Interaction of nonsteroidal anti-inflammatory drugs with multidrug resistance protein (MRP) 2/ABCC2- and MRP4/ABCC4-mediated methotrexate transport. *J. Pharmacol. Exp. Ther.* 320, 229–235.

Evans, W.E., Relling, M. V., Rodman, J.H., Crom, W.R., Boyett, J.M., and Pui, C.H. (1998). Conventional compared with individualized chemotherapy for childhood acute lymphoblastic leukemia. *N. Engl. J. Med.* 338, 499–505.

Faganel Kotnik, B., Grabnar, I., Bohanec Grabar, P., Dolzan, V., and Jazbec, J. (2011). Association of genetic polymorphism in the folate metabolic pathway with methotrexate pharmacokinetics and toxicity in childhood acute lymphoblastic leukaemia and malignant lymphoma. *Eur. J. Clin. Pharmacol.* 67, 993–1006.

Gong, J., Tong, Y., Zhang, H.-M., Wang, K., Hu, T., Shan, G., Sun, J., and Guo, A.-Y. (2012). Genome-wide identification of SNPs in microRNA genes and the SNP effects on microRNA target binding and biogenesis. *Hum. Mutat.* 33, 254–263.

Gruber, A.R., Lorenz, R., Bernhart, S.H., Neubock, R., and Hofacker, I.L. (2008). The Vienna RNA websuite. *Nucleic Acids Res.* 36, W70–4.

den Hoed, M.A.H., Lopez-Lopez, E., te Winkel, M.L., Tissing, W., de Rooij, J.D.E., Gutierrez-Camino, A., Garcia-Orad, A., den Boer, E., Pieters, R., Pluimj, S.M.F., et al. (2015). Genetic and metabolic determinants of methotrexate-induced mucositis in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics J.* 15, 248–254.

Hou, Z., and Matherly, L.H. (2014). Biology of the major facilitative folate transporters SLC19A1 and SLC46A1. *Curr. Top. Membr.* 73, 175–204.

Imanishi, H., Okamura, N., Yagi, M., Noro, Y., Moriya, Y., Nakamura, T., Hayakawa, A., Takeshima, Y., Sakaeda, T., Matsuo, M., et al. (2007). Genetic polymorphisms associated with adverse events and elimination of methotrexate in childhood acute lymphoblastic leukemia and malignant lymphoma. *J. Hum. Genet.* 52, 166–171.

Johnston, W.T., Lightfoot, T.J., Simpson, J., and Roman, E. (2010). Childhood cancer survival: a report from the United Kingdom Childhood Cancer Study. *Cancer Epidemiol.* 34, 659–666.

Kozomara, A., and Griffiths-Jones, S. (2014). miRBase: annotating high confidence microRNAs using deep sequencing data. *Nucleic Acids Res.* 42, D68–73.

Krishnamurthy, P., Schwab, M., Takenaka, K., Nachagari, D., Morgan, J., Leslie, M., Du, W., Boyd, K., Cheok, M., Nakauchi, H., et al. (2008). Transporter-mediated protection against thiopurine-induced hematopoietic toxicity. *Cancer Res.* 68, 4983–4989.

Laverdiere, C., Chiasson, S., Costea, I., Moghrabi, A., and Krajinovic, M. (2002). Polymorphism G80A in the reduced folate carrier gene and its relationship to methotrexate plasma levels and outcome of childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* 100, 3832–3834.

Lee, Y.J.D., Kim, V., Muth, D.C., and Witwer, K.W. (2015). Validated MicroRNA Target Databases: An Evaluation. *Drug Dev. Res.* 76, 389–396.

Lopez-Lopez, E., Martin-Guerrero, I., Ballesteros, J., Pinan, M.A., Garcia-Miguel, P., Navajas, A., and Garcia-Orad, A. (2011). Polymorphisms of the SLCO1B1 gene predict methotrexate-related toxicity in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pediatr. Blood Cancer* 57, 612–619.

Lopez-Lopez, E., Ballesteros, J., Pinan, M.A., Sanchez de Toledo, J., Garcia de Andoin, N., Garcia-Miguel, P., Navajas, A., and Garcia-Orad, A. (2013). Polymorphisms in the methotrexate transport pathway: a new tool for MTX plasma level prediction in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenet. Genomics* 23, 53–61.

Lopez-Lopez, E., Gutierrez-Camino, A., Bilbao-Aldaiturriaga, N., Pombar-Gomez, M., Martin-Guerrero, I., and Garcia-Orad, A. (2014a). Pharmacogenetics of childhood acute lymphoblastic leukemia. *Pharmacogenomics* 15, 1383–1398.

Lopez-Lopez, E., Gutierrez-Camino, A., Pinan, M.A., Sanchez-Toledo, J., Uriz, J.J., Ballesteros, J., Garcia-Miguel, P., Navajas, A., and Garcia-Orad, A. (2014b). Pharmacogenetics of microRNAs and microRNAs biogenesis machinery in pediatric acute lymphoblastic leukemia. *PLoS One* 9, e91261.

Low, S.-K., Kiyotani, K., Mushirosa, T., Daigo, Y., Nakamura, Y., and Zembutsu, H. (2009). Association study of genetic polymorphism in ABCC4 with cyclophosphamide-induced adverse drug reactions in breast cancer patients. *J. Hum. Genet.* 54, 564–571.

Meulendijks, D., Henricks, L.M., Amstutz, U., Froehlich, T.K., Largiader, C.R., Beijnen, J.H., de Boer, A., Deenen, M.J., Cats, A., and Schellens, J.H.M. (2016). Rs895819 in MIR27A improves the predictive value of DPYD variants to identify patients at risk of severe fluoropyrimidine-associated toxicity. *Int. J. Cancer* 138, 2752–2761.

Moriyama, T., Relling, M. V., and Yang, J.J. (2015). Inherited genetic variation in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* 125, 3988–3995.

Nicoletti, P., Cartsos, V.M., Palaska, P.K., Shen, Y., Floratos, A., and Zavras, A.I. (2012). Genomewide pharmacogenetics of bisphosphonate-induced osteonecrosis of the jaw: the role of RBMS3. *Oncologist* 17, 279–287.

Pui, C.-H. (2010). Recent research advances in childhood acute lymphoblastic leukemia. *J. Formos. Med. Assoc.* 109, 777–787.

Pui, C.-H., Yang, J.J., Hunger, S.P., Pieters, R., Schrappe, M., Biondi, A., Vora, A., Baruchel, A.A., Silverman, L.B., Schmiegelow, K., et al. (2015). Childhood Acute Lymphoblastic Leukemia: Progress Through Collaboration. *J. Clin. Oncol.* 33, JCO.2014.59.1636.

Qiu, A., Jansen, M., Sakaris, A., Min, S.H., Chattopadhyay, S., Tsai, E., Sandoval, C., Zhao, R., Akbas, M.H., and Goldman, I.D. (2006). Identification of an intestinal folate transporter and the molecular basis for hereditary folate malabsorption. *Cell* 127, 917–928.

Qiu, A., Min, S.H., Jansen, M., Malhotra, U., Tsai, E., Cabelof, D.C., Matherly, L.H., Zhao, R., Akbas, M.H., and Goldman, I.D. (2007). Rodent intestinal folate transporters (SLC46A1): secondary structure, functional properties, and response to dietary folate restriction. *Am. J. Physiol. Cell Physiol.* 293, C1669-78.

Radtke, S., Zolk, O., Renner, B., Paulides, M., Zimmermann, M., Moricke, A., Stanulla, M., Schrappe, M., and Langer, T. (2013). Germline genetic variations in methotrexate candidate genes are associated with pharmacokinetics, toxicity, and outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* 121, 5145–5153.

Ramsey, L.B., Bruun, G.H., Yang, W., Trevino, L.R., Vattathil, S., Scheet, P., Cheng, C., Rosner, G.L., Giacomini, K.M., Fan, Y., et al. (2012). Rare versus common variants in pharmacogenetics: SLCO1B1 variation and methotrexate disposition. *Genome Res.* 22, 1–8.

Ramsey, L.B., Panetta, J.C., Smith, C., Yang, W., Fan, Y., Winick, N.J., Martin, P.L., Cheng, C., Devidas, M., Pui, C.-H.C.-H., et al. (2013). Genome-wide study of methotrexate clearance replicates SLCO1B1. *Blood* 121, 898–904.

Rukov, J.L., and Shomron, N. (2011). MicroRNA pharmacogenomics: post-transcriptional regulation of drug response. *Trends Mol. Med.* 17, 412–423.

Salazar, J., Altes, A., del Rio, E., Estella, J., Rives, S., Tasso, M., Navajas, A., Molina, J., Villa, M., Vivanco, J.L., et al. (2012). Methotrexate consolidation treatment according to pharmacogenetics of MTHFR ameliorates event-free survival in childhood acute lymphoblastic leukaemia. *Pharmacogenomics J.* 12, 379–385.

Sambrook, J., R.D. (2001). Molecular cloning: a laboratory manual (New York: NY: Cold Spring Harbor Laboratory Press).

Shimasaki, N., Mori, T., Samejima, H., Sato, R., Shimada, H., Yahagi, N., Torii, C., Yoshihara, H., Tanigawara, Y., Takahashi, T., et al. (2006). Effects of methylenetetrahydrofolate reductase and reduced folate carrier 1 polymorphisms on high-dose methotrexate-induced toxicities in children with acute lymphoblastic leukemia or lymphoma. *J. Pediatr. Hematol. Oncol.* 28, 64–68.

Suthandiram, S., Gan, G.-G., Zain, S.M., Bee, P.-C., Lian, L.-H., Chang, K.-M., Ong, T.-C., and Mohamed, Z. (2014). Effect of polymorphisms within methotrexate pathway genes on methotrexate toxicity and plasma levels in adults with hematological malignancies. *Pharmacogenomics* 15, 1479–1494.

Treon, S.P., and Chabner, B.A. (1996). Concepts in use of high-dose methotrexate therapy. *Clin. Chem.* 42, 1322–1329.

Trevino, L.R., Shimasaki, N., Yang, W., Panetta, J.C., Cheng, C., Pei, D., Chan, D., Sparreboom, A., Giacomini, K.M., Pui, C.-H., et al. (2009). Germline genetic variation in an organic anion transporter polypeptide associated with methotrexate pharmacokinetics and clinical effects. *J. Clin. Oncol.* 27, 5972–5978.

Wang, S., Sun, L., Zeng, W., Wu, W., and Zhang, G. (2014). Effects of a microRNA binding site polymorphism in SLC19A1 on methotrexate concentrations in Chinese children with acute lymphoblastic leukemia. *Med. Oncol.* 31, 62.

Zhan, X., Wu, W., Han, B., Gao, G., Qiao, R., Lv, J., Zhang, S., Zhang, W., Fan, W., Chen, H., et al. (2012). Hsa-miR-196a2 functional SNP is associated with severe toxicity after platinum-based chemotherapy of advanced nonsmall cell lung cancer patients in a Chinese population. *J. Clin. Lab. Anal.* 26, 441–446.

Zhao, R., Qiu, A., Tsai, E., Jansen, M., Akabas, M.H., and Goldman, I.D. (2008). The proton-coupled folate transporter: impact on pemetrexed transport and on antifolates activities compared with the reduced folate carrier. *Mol. Pharmacol.* 74, 854–862.

Zhou, F., Zheng, J., Zhu, L., Jodal, A., Cui, P.H., Wong, M., Gurney, H., Church, W.B., and Murray, M. (2013). Functional analysis of novel polymorphisms in the human SLCO1A2 gene that encodes the transporter OATP1A2. *AAPS J.* 15, 1099–1108.



**EZTABIDA**



Azken hamarkadetan, haurtzaroko LLA-ren biziraupen tasak % 90 arte iritsi dira (Pui et al., 2015; Tasian and Hunger, 2017), neurri batean behintzat tratamendu protokoloen aurrerapausoei esker. Hala ere, kimioterapikoak kezka iturri ere badira eragiten dituzten toxizitateak direla eta, izan ere, toxizitate larriak jasaten dituzten pazienteek sarri dosi murrizketak behar izaten dituzte baita tratamenduaren eteteak ere, honek biziraupenean duen efektu negatiboarekin (Pui et al., 2015; Tasian and Hunger, 2017). Agertoki honetan, non kaltetuak dauden pazienteen artean toxizitateak ez diren modu homogeneoan eta larritasun maila berarekin azaltzen, markatzaile iragarleen ikerketa interes handikoa da, klinikoak dosi individualizazioan are gehiago gidatzeko. Ikerketa farmakogenomikoeak jada proposatu dituzte farmakoen bidezidor PK/PD-en eremu kodifikatzaileetako zenbait polimorfismo. Gaur egun jakina da miRNA-k PK/PD bidezidorretan implikatutako gene hauek erregulatzen dituztela. MiRNA-tako polimorfismoek miRNA-en maila edo funtzioa aldatzeko gai dira, ondorio gisa beren itu geneen adierazpena asaldatuz.

Testuinguru honetan, ikerketa honen jomuga nagusia hautzaroko B-LLA terapien garatzen diren toxizitate ohikoenak azaldu ditzazketen miRNA-tako markatzaile genetiko berriak identifikatzea izan zen, miRNA horiek farmakoekin erlazionatutako geneak edo toxizitate garapenean implikatutako beste gene batzuk itutzat dituztelarik. Markatzaile hauek tratamendua hasieratik egokitzea eta toxizitatea minimizatzea posible egingo lukete. Gure esfortzua neurotoxizitate periferikoan, gibel toxizitatean eta toxizitate gastrointestinalean ardaztu genuen, haurtzaroko B-LLA-ren hiru toxizitate garrantzitsu, baita MTX-aren maila plasmatikoetan ere, dosi altuko MTX tratamenduan zehar zorrotz monitorizatzen direnak. Toxizitate hauek iragar ditzazketen miRNA-tako makatzaile berriak aurkitzeko asmoz, ikerketa honetan, aukeraketa unean deskribatuak zeuden eta %1 baino AUM altuagoa zuten miRNA-tako polimorfismo guztiak (206 miRNA-tako 213 SNP) ebaluatu genituen B-LLA diagnostikoa zuten eta LAL/SHOP protokolo estandarizatuarekin homogeneoki tratatutako 179 haurretan.

Neurotoxizitate periferikoari dagokionez, eragin desiragaitz honen indukzio fasean zeharreko garapena azaldu dezaketen miRNA-tako bi SNP identifikatu ditugu. Asoziazio esanguratsuena miR-3117-ko rs12402181-rentzat aurkitu zen, zeinetan AG+AA genotipoek neurotoxizitate periferikoa izateko arrisku murriztua izan zuten. SNP hau miR-3117-ren *seed* eremuan kokatua dago, zeinetan G aleloa A aldaera aleoagatik ordezkatzeak bere itu mRNA sekuentzien ezagupen zehatzean eragin dezakeen. Bere itu geneen artean *ABCC1* eta *RALBP1* aurkitzen dira, bi geneak VCR zelulatik ateratzen dituzten garraiatzaile gisa deskribatuak izan direlarik literaturan (Awasthi et al., 2005; Franca et al., 2017; Kunicka and Soucek, 2014). Are gehiago, *ABCC1*-eko polimorfismoak jada asoziatu dira VCR-ri lotutako neuropatiarekin (Franca et al., 2017; Lopez-

## Eztabaidea

Lopez et al., 2016) eta RALBP1-en inhibizioa farmakoen pilaketa eta zitotoxizitate areagotuarekin (Drake et al., 2007). Beraz, rs12402181-ren A aldaera aleloak miR-3117-3p-ren ABCC1 eta RALBP1-en mRNA-ekiko louturan eragina izan dezake, beren adierazpen areagotzea ekarriz. ABCC1 eta RALBP1-en adierazpen areagotu honek VCR-ren zelulatiko kanporaketa hobeagoa sustatu dezake VCR-ek induzitutako neurotoxizitate periferiko arrisku baxuagoa azalduz.

VCR-k eragindako neurotoxizitatearentzat bigarren emaitza esanguratsuena miR-4481-eko rs789683-rentzat izan zen, zeinetan CT+CC genotipoak arrisku eginkizun bat azaldu zuen. SNP hau pre-miRNA sekuentzian kokatua dago, non T aleoa C aleoagatik ordezkatzeak energia aldaketa negatibo bat erakutsi duen. Energia aldaketa negatibo honek miRNA urkila egoera ezegonkor batetik egonkorrago baterantz eraldatzten dela adierazten du, eta egituraren egonkortasun hazkuntza honek miRNA helduaren produktua areagotzen duela proposatu da (Gong et al., 2012), honek dakarren itu geneen adierazpen murrizketarekin. MiR-4481-entzat VCR-ren bidezidor PK/PD-ko itu generik aurkitu ez dugun arren, bidezidorren aberaste analisiak axoi-gidatzea iragarri zuen miR-4481-ek itutzat duen bidezidor esanguratsuena bezala. Axoi-gidatzea nerbio periferikoen erregenerazio espontaneoan implikatua dago hauek kaltetuak daudenean (Chiono and Tonda-Turo, 2015), horrela, rs7896283-ren C arrisku aleloak miR-4481-en egonkortasuna eta ondorioz miRNA helduaren maila areagotuko lituzke, bere itu geneen adierazpen murrizketa eraginez. Beraz, nerbio periferikoen erregenerazioan implikatutako geneen adierazpen murriztua neuropatia periferiko areagotuaren azalpena izan daiteke.

Analizatutako bigarren toxizitatea transaminasen igoera gisa neurtutako gibel toxizitatea izan zen. Asozialzia indukzio eta kontsolidazio faseetan analizatu genuen, hipetransaminasiarekin asoziaturiko SNP-ak bi fase hauetan desberdinak zirela behatuz, honek fase hauetako bakoitzean toxizitatea eragiten duten mekanismoak eta farmako eragileak desberdinak liratekeela babesten duelarik. Gure ikerketan aurkitutako emaitzarik interesgarriena miR-1208-ko rs2648841 eta kontsolidazio faseko transaminasen maila arteko asozialzia izan zen. Gure emaitzek GT+TT genotipoak gibel toxizitatea ( $\geq 2$  gradukoa) eta hepatotoxizitate altua ( $\geq 3$  gradukoa) izateko arrisku murriztua eragiten zuela erakutsi zuten. Nabarmenki, TT genotipodun paziente batek ere ez zuen gradu baxuko toxizitatea garatu, ezta gradu altuko toxizitatea ere. Rs2648841-en T aldaera aleloak, miR-1208-ren pre-mature sekuentzian kokatua, miRNA urkila egoera ezegonkorrago batera eraldatuko luke, miRNA helduaren produktua murriztuz eta horrea itu geneen adierazpena areagotuz. Interesgarria da miR-1208-k MTX-aren bidezidor farmakodinamikoko hiru gene, *DHFR*, *MTR* eta *MTHFR*, dituela

itutzat. T aleloaren odoleko transaminasa igoeren aurkako eginkizun babesgarria azaldu daiteke lehendabizi *DHFR*-ren adierazpen areagotuagatik. MTX-aren efektu zitotoxikoa DHFR inhibizioa medio gertatzen da, zeinek purina eta pirimidina baseen sintesi etetea dakin eta ondorioz zelularen heriotza. Horrela, DHFR-ren adierazpen areagotuak MTX-ren efektua arinduko luke hepatozitoen heriotza ekiditera lagunduz. Izan ere, DHFR-ren adierazpen altuagoa MTX erresistentziarekin asoziatu da (Dulucq et al., 2008). Bestalde, MTR-ren (homozisteina metionina emateko metilatzen duen entzima) eta MTHFR-ren (urreko erreakziorako metil taldea sortzen duen entzima) (Krajinovic et al., 2005) adierazpen altuagoek homozisteinatik metioninaranzko erreakzioa bultzatuko lukete zelula barneko homozisteina mailak murriztuz. Homozisteina maila baxuago hauetako apoptosik babestuko lukete (Kubota et al., 2014; Yang et al., 2017), berriro T aleloaren eginkizun babeslea azalduz.

Toxizitate gastrointestinalari dagokionez, analizatutako hirugarren toxizitatea, gure analisia mukositisera zuzendu genuen baita mukositisaren bi adierazpen klinikotan ere beherakoa eta gonbitoak hain zuzen ere. Mukositisaren analisia, emaitzarik interesgarriena miR-4268-ko rs4674470-ren AG+GG genotipoaren eta toxizitate arrisku baxuagoaren arteko asoziazioa izan zen. Nabarmenzeko da GG genotipodun pazienteetako inork ez zuela mukositisa garatu, eginkizun babesle bat adieraziz. SNP hau miRNA urkilaren 3' muturreko posizioan kokatua dago. SNP honek egonkortasun aldaketarik ezta miRNA-ren egitura sekundarioen aldaketarik eragiten ez zuen arren, bere kokapena DROSHA mikroprozesatzailak pri-miRNA eta pre-miRNA arteko zatiketa gunea zehatz ezagutzeko posizio erabakiorra izan daiteke. DROSHA-k pre-miRNA-en mutur terminalak sortzen ditu, miRNA helduaren sekuentzia erabakiz, horrela, DROSHA bidezko prozesamendu zehatza erabakiorra da miRNA funtzionalen produkziorako (Fang and Bartel, 2015; Kim et al., 2017). Ondorioz, SNP honen presentziak DROSHAK zatiketa gunea ez ezagutzea ekar lezake eta beraz SNP aleloaren araberako miRNA-ren produkzio baxuago batera. Aipagarria da miRNA hau miRbase datu-basean, miRNA-en erreferentzialean datu-basea, G aleloarekin irudikatua dagoela, zeina alelo urriena den (Kozomara and Griffiths-Jones, 2014). Erreferentzia datu-basean miRNA sekuentzia G aleloarekin irudikatua egoteak miRNA G aleloa dagoenean modu eraginkorragoan produzitzen dela adieraz lezake, DROSHA-k zatiketa gunea ezagutu duelako.

MiRNA honen bidezidor analisiari dagokionez, farmakogeneetan oinarritutako lehenengo planteamendua jarraituz DNR-ren bidezidorreko bi gene aurkitu genituen (*NFKBIE*, *CBR1*) eta MTX-aren bidezidorreko hiru gene (*MTHFR*, *MTR*, *SLC46A1*). Hala ere, gene hauen desregulazioak efektu kontrajarriak izan ditzake. Adibidez, *NFKBIE*-ren beheranzko

## Eztabaida

erregulazioak zelula heriotzatik babes dezake (Komissarova et al., 2008), *MTHFR* eta *MTR*-ren beheranzko erregulazioak aldiz apoptosis eragin dezakeen bitartean apoptosis (Kubota et al., 2014; Yang et al., 2017). Mukositisarekin erlazionatutako beste gene batzuk identifikatzeko asmoz, bidezidorren aberaste analisi bat gauzatu genuen eta miR-4268-k itutzat DFL seinalizazio bidezidorra zuela aurkitu genuen. Hesteetako gaixotasun inflamatorioetan mukosa inflamatuetan *DFL*-ren adierazpena gorantz erregulatua dagoela ikusi da (Zhou et al., 2016). *DFL*-k gene proinflamatorioen adierazpena modulatzen du eta zitokinen jariaketan eginkizun garrantzitsua du (Friday and Fox, 2016; Kang et al., 2014), mukositaren garapenean zerikusia duen mekanismoa (Cinausero et al., 2017). Modu interesgarrian, *DFL*-ren isiltzeak zitokinen produkzioa eraginkorki blokeatu zuen (Sethu et al., 2010) eta heste mukosaren inflamazioa hobetu zuen (Zhou et al., 2016). Dagoeneko zehaztu da isiltze hau miRNA sorta batek bideratutakoa izan litekeela (Fite et al., 2016). Testuinguru honetan, miR-4268-ko rs4674470-ren GG genotipoak miRNA-ren adierazpen areagotze bat ekartzea posible litzateke *DROSHA*-ren ezagutza eraginkorragoa medio, eta honek aldi berean, *DFL*-rekin erlazionatutako geneen adierazpen baxuago bat, bere eginkizun babeslea azalduz mukositisean.

Beherako eta gonbitoen analisietan, SNP estatistikoki esanguratsuenak miR-4751-ko rs8667 eta miR-3117-ko rs12402181 izan ziren hurrenez hurren. MiR-4751-ko rs8667 *pre-mature* sekuentzian kokatua dago, non A aleloak modu arinean bada ere energia aldaketa bat eragiten duen eta ondorioz miRNA mailak aldaraz ditzakeen (Gong et al., 2012). MiR-3117-ko rs12402181 aldiz *seed* eremuan kokatua dago eta itu mRNA-en sekuentzia ezagupen zehatzean eragina izan dezake. Beren itu geneen artean DNR, MTX eta CPA-ren bidezidorretako zenbait gene aurki genitzake eta nabarmentzekoa da bi miRNA-ek erantzun inflamatorioarekin erlazionatutako bidezidorra kitzatzela itutzat. Erantzun inflamatorioaren aktibazioa IL-1, IL-8, IL-6 eta TNF bezalako zitokina anitzen produkzioarako aurrebalditza da (van den Blink et al., 2001; Elsea et al., 2008; Reyes-Gibby et al., 2017), mukosa kaltearen patobiologian inplikatuak. Beraz, miR-4751-ko rs8667-k eta miR-3117-ko rs12402181-ek miRNA-en maila eta funtziolan eragin dezakete eta beren farmako bidezidor eta erantzun-inflamatorioko itu geneen adierazpena asaldatu toxizitatea bultzatzuz.

Bukatzeko, dosi altuko kontsolidazio fasean zeharreko MTX-aren maila plasmatikoei dagokienez, emaitza interesgarrienak bezala miR-5189-ko rs56292801 eta miR-595-eko rs4909237 hartu ditugu, analizatutako denbora puntu ezberdinietan zehar MTX-aren maila plasmatikoekin modu koherentean asoziatutako bi SNP. Emaitza interesgarriena *pre-mature* sekuentziako miR-5189-ko rs56292801 izan zen, zeinetan AG+AA genotipoak denboran zehar MTX pilaketaren aurkako

eginkizun babeslea erakutsi zuen. MTX-aren maila plasmatiko altuetan miR-5189-k duen garrantzia 5g/m<sup>2</sup>-ko dosia jaso zuten pazienteak bakarrik analizatzean maila plasmatikoekin aurkitutako asoziazioa oraindik esanguratsuagoa izatearen gertaerak babesten du. MiRNA honetan A aldaera aleloak energia aldaketa positibo bat eragin zuen, honek babestuko luke egituraren egonkortasun jaitsierak miR-5189 helduaren adierazpen murrizketa bat eragiten duela eta ondorio gisa bere ituen adierazpen areagotua. MiR-5189-rentzat iragarritako ituen artean *SLC46A1* aurkitzen dugu, zeinek MTX-aren garraioan inplikatutako protoiei akoplatutako folatoaren garraiatzailea kodetzen duen eta MTX bezalako folato analogoen barneratzean parte har dezakeen (Deng et al., 2009; Qiu et al., 2007; Zhao et al., 2008) MTX mailak nahikoa altuak direnean (Desmoulin et al., 2012). *SLC46A1*-en adierazpen gune garrantzisuenetako bat giltzurruna da (Desmoulin et al., 2012; Hou and Matherly, 2014; Qiu et al., 2006), MTX-aren iraizketa bide garrantzitsua. Hori dela eta, A aleoaren eginkizun babeslea miR-5189-ren egonkortasunean duen eraginak azal dezake, zeinek produktu heldua murriztu dezakeen *SLC46A1*-en adierazpena areagotuz eta MTX-aren argitza erraztuz.

MTX maila plasmatikoentzat bigarren emaitza esanguratsuena miR-595-eko rs4909237-ren TT genotipoarentzat aurkitu zen, zeinak denboran zehar MTX maila plasmatiko altuak izateko arrisku areagotua erakutsi duen. T aldaera aleloak *in silico* gutxieneko energia askearen aldaketa txiki bat erakutsi zuen arren, honek egitura sekundarioan izandako eragina handia izan zen, miR-595-en prozesamenduan eragin zezakeena. Nabarmentzekoa da miR-595-ek itutzat aurrez aipatutako *SLC46A1*-ez gain MTX-aren beste bi garraio gene ere badituela, *SLC19A1* eta *SLCO1A2*, MTX-aren barneratzean parte hartzen dutenak. *SLC19A1*-ek folatoaren garraiatzaile nagusiena den folatoaren garraiatzaile erreduzitua (RFC1) kodetzen du, hau gehienbat gibelean adierazten da eta zeluletan MTX-aren harrerarako bitartekaria da (Desmoulin et al., 2012). Gure emaitzak indartuz, Wang eta lankideek miR-595-en loturarako gune bat sortzen duen SNP bat aurkitu zuten *SLC19A1*-en 3'UTR eremuan MTX-aren plasmako maila altuekin erlazionatuta (Wang et al., 2014). Gure taldeak zein Wang eta lankideek aurkituriko asoziazioak miR-595-ek *SLC19A1*-en erregulazioan paper garrantzitsua bete dezakeela iradokitzen dute eta ondorioz, MTX-aren garraioan eragin dezakeela. MiRNA honek erregulatzen duen hirugarren genea gibel eta giltzurrunean adierazten den *SLCO1A2* da. Garraiatzaile honek ere MTX-aren harreran parte hartzen du (Badagnani et al., 2006; Callens et al., 2015; Desmoulin et al., 2012). Hitz batez, SNP-aren ondorioz emango litzatekeen miR-595 helduaren areagotze batek hiru garraiatzaileen adierazpen baxuagoa ekarriko luke eta MTX-aren gernu iraizpena eta iraizpen biliarra murriztu, plasmako farmako metaketa eraginez.

## Eztabaidea

Laburbilduz, gure ikerketak haurtzaroko LLA pazienteetan toxizitate iragarpenerako 8 markatzaile kandidatu berri identifikatu ditu: miR-3117-ko rs12402181 eta miR-4481-eko rs7896283 VCR-k indukzio fasean induzitutako neurotoxizitate periferikoarentzat; miR-1208-ko rs2648841 kontsolidazioan zehar MTX-ak eragindako transaminasen igoerarentzat; miR-4268-ko rs4674470 mukositarentzat, miR-4751-ko rs8667 beherakoarentzat eta miR-3117-ko rs12402181 gonbitoentzat indukzio fasean zehar eta amaitzeko miR-5189-ko rs56292801 eta miR-595-eko rs4909237 plasmako MTX maila altuentzat. Interesgarria litzateke emaitza hauek beste populazio batzuetan konfirmatzea eta ikerketa funtzionalen bitartez validatzea.

***ONDORIOAK***



1. Lehenengo, VCR-k induzitutako neurotoxizitatean, miR-3117-ko rs12402181-en AG+AA genotipoak toxizitatearekin asoziaturik aurkitu genituen. Hau bere itu geneen, VCR-ren bi garraio gene *ABCC1* eta *RALBP1*, gainadierazpenagatik izan liteke. MiR-4481-eko rs7896283-ren CT+CC genotipoen eta neurotoxizitatearen arteko asoziazio ere aurkitu genuen, zeina axoi-gidatze geneen beheranzko erregulazio bidez azal daitekeen.
2. Gibel toxizitateari dagokionez, miR-1208-ko rs2648841-eko GT+TT genotipoak kontsolidazio fasean zeharreko transaminasen maila igoerarekin asoziatu ziren. Asoziazo hau MTX-aren bidezidor PD-ko *DHFR*, *MTR* eta *MTHFR* geneen gainadierazpenak azal dezake.
3. Toxizitate gastrointestinala kontuan hartuz, miR-4268-ko rs4674470-en AG+GG genotipoak, miR-4751-ko rs8667-ren AA+AG genotipoak eta miR-3117-ko rs12402181-en AA+AG genotipoak, hurrenez hurren mukositis, beherako eta gonbitoekin erlazionatuak egon litzke indukzio fasean. SNP hauen eragina DNR, MTX eta CPA farmako mukotoxikoen farmakozinetika eta farmakodinamikako geneetan duten efektuagatik izan liteke, baita mukosen lesioarekin erlazionatutako beste gene batzuetan duten efektuagatik ere, bereziki erantzun inflamatorioan parte hartzen dutenekin.
4. Kontsolidazio fasean zeharreko MTX-aren maila plasmatiko altuentzat, miR-5189-ko rs56292801-en AG+AA genotipoak eta miR-595-eko rs4909237-ren TT genotipoa aurkitu genituen, zeintzuek miRNA-en adierazpena alda zezaketen eta ondorioz beren *SLC46A1*, *SLC19A1* eta *SLCO1A2* itu geneen adierazpena asaldatu.

Laburbilduz, gure ikerketak miRNA-tako aldaerak identifikatu ditu toxizitate markatzaile berri gisa haurtzaroko LLA-ren terapiarako. Aldaera hauetako toxizitateak azaldu aurretik tratamendua egokitzeko balio dezaketela proposatzen dugu. LLA-ren tratamenduan ikerketa alor berri bat irekitzen dugu miRNA-en azterketan oinarrituta.



## ***REFERENCES - ERREFERENTZIAK***



## REFERENCES - ERREFERENTZIAK

- 1000 Genomes Project Consortium, R.M., Abecasis, G.R., Altshuler, D., Auton, A., Brooks, L.D., Durbin, R.M., Gibbs, R.A., Hurles, M.E., McVean, G.A., Donnelly, P., et al. (2010). A map of human genome variation from population-scale sequencing. *Nature* *467*, 1061–1073.
- Abe, T., Unno, M., Onogawa, T., Tokui, T., Kondo, T.N., Nakagomi, R., Adachi, H., Fujiwara, K., Okabe, M., Suzuki, T., et al. (2001). LST-2, a human liver-specific organic anion transporter, determines methotrexate sensitivity in gastrointestinal cancers. *Gastroenterology* *120*, 1689–1699.
- Accord Healthcare S.L.U. (2017a). Methotrexate [medicinal product official information].
- Accord Healthcare S.L.U. (2017b). Cytarabine [medicinal product official information].
- Akhtar, M.M., Micolucci, L., Islam, M.S., Olivieri, F., and Procopio, A.D. (2016). Bioinformatic tools for microRNA dissection. *Nucleic Acids Res.* *44*, 24–44.
- Al-Ansari, S., Zecha, J.A.E.M., Barasch, A., de Lange, J., Rozema, F.R., and Raber-Durlacher, J.E. (2015). Oral mucositis induced by anticancer therapies. *Curr. Oral Heal. Reports* *2*, 202–211.
- Amstutz, U., Offer, S.M., Sistonen, J., Joerger, M., Diasio, R.B., and Largiader, C.R. (2015). Polymorphisms in MIR27A Associated with Early-Onset Toxicity in Fluoropyrimidine-Based Chemotherapy. *Clin. Cancer Res.* *21*, 2038–2044.
- Ansari, M., and Krajinovic, M. (2007). Pharmacogenomics in cancer treatment defining genetic bases for inter-individual differences in responses to chemotherapy. *Curr. Opin. Pediatr.* *19*, 15–22.
- Ansari, M., Sauty, G., Labuda, M., Gagne, V., Laverdiere, C., Moghrabi, A., Sinnott, D., and Krajinovic, M. (2009). Polymorphisms in multidrug resistance-associated protein gene 4 is associated with outcome in childhood acute lymphoblastic leukemia. *Blood* *114*, 1383–1386.
